

EAEko HONDAKINAK PREBENITZEKO ETA KUDEATZEKO PLANA / 2020



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INGURUMEN ETA LURRALDE
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y POLÍTICA TERRITORIAL

ARGITARALDIA:

2015eko urtarrila

ARGITARATZAILEA:

Ihobe, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa

Ingurumen eta Lurralde Politika Saila

Eusko Jaurlaritza

Urkixo zumarkalea, 36-6. 48011 Bilbo

Tel.: 94 423 07 43

info@ihobe.net

www.ihobe.net

www.ingurumena.net

DISEINUA ETA DIAGRAMAZIOA:

Canaldirecto

www.canal-directo.com

ITZULPENA:

Maramara taldea

www.maramara.net



Liburu honen edukiak, oraingo edizioan, litzentzia honetan argitaratu dira:
Aitortu – Ez merkataritzarako – Lan eratorririk gabe 3.0 Unported
(<http://creativecommons.org/licenses/by-ncnd/3.0/deed.eu>)

EAEko HONDAKINAK PREBENITZEKO ETA KUDEATZEKO PLANA / 2020



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INGURUMEN ETA LURRALDE
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y POLÍTICA TERRITORIAL

/AURKI- BIDEA

AURKEZPENA	04
AKRONIMOEN GLOSARIOA	06
1. SARRERA	08
2. ERREFERENTZIA-ESPARRUA	12
2.1. Aurrekariak	
2.2. Definizioak	
2.3. Araudiaren eta erregelamenduaren laburpena	
2.3.1. Europako araudia	
2.3.2. Estatuko araudia	
2.3.3. EAeko araudia	
2.4. Kontsulta-prozesuaren ondorioak	
3. EGUNGO EGOERA	24
3.1. Egungo egoera Europan	
3.1.1. Egoera orokorra	
3.1.2. Estatu eta Eskualde aurreratuenen egoera	
3.1.3. Hondakinen sorreraren kuantifikazioa	
3.2. Hondakinen sorreraren eta kudeaketaren egungo egoera EAEn	
3.2.1. Ikuspegi globala	
3.2.2. Hondakinak prebenitzea, sortzea eta kudeatzea	
3.2.3. Existitzen diren hondakinen birziklapen-, balorizazio- eta deuseztapen-instalazio nagusiak	
3.2.4. Egun erabiltzen diren tresnak eta horien balorazioa	
3.2.5. Aurreko planetako ebaluazioaren ondorioak	

4. PLANGINTZA 46

- 4.1. Etorbizuneko joerak
- 4.2. Oinarriak
- 4.3. Helburu estrategikoak
- 4.4. Jarduera-programak
 - 4.4.1. *Aurrea hartzeko programa*
 - 4.4.2. *Gaikako Bilketa eta Bereizketa Programa*
 - 4.4.3. *Berrerabiltzeko Prestakuntza, Birziklapen eta Balorizazio Programa*
 - 4.4.4. *Eliminazioa Optimizatzeko Programa*
 - 4.4.5. *Administrazioaren Eredugarritasunaren eta Gobernu Egokiaren Programa*
- 4.5. Beharrezko azpiegiturak
 - 4.5.1. *Beharrak*
 - 4.5.2. *Instalazio berriak ezartzeko irispideak*
- 4.6. Planaren baliabide ekonomikoak
- 4.7. Planaren jarraipena eta ebaluazioa
 - 4.7.1. *Planaren berrikuspena*
 - 4.7.2. *Planaren Berrikuspen Erakundeak eta erantzukizunak*
 - 4.7.3. *Jarraipen-sistema eta lotutako dokumentazioa*
 - 4.7.4. *Jarraipen-adierazleak*
 - 4.7.5. *Planaren ingurumen-eraginen jarraipena eta ebaluazioa*
- 4.8. Planaren tresnen laburpena
- 4.9. Merkatu-aukeren sustapena

5. JARDUERA ZEHATZAK 78

- 5.1. Prebentzio programa
- 5.2. Gaikako bilketa eta bereizketa programa
- 5.3. Berrerabiltzeko prestakuntza, birziklapen eta balorizazio programa
- 5.4. Eliminazioa optimizatzeko programa
- 5.5. Administrazioaren eredugarritasunaren eta gobernu egokiaren programa

6. ERANSKINAK 120

/ AUR- KEZ- PENA



Ana Isabel Oregi Bastarrika

Ingurumen eta Lurralde
Politikako sailburua
Consejera de Medio Ambiente
y Política Territorial

2020rako EAeko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planak etorkizunerako nahi dugun eredu ekonomikoari buruzko debate interesgarri bat hasi den unean ikusi du argia. Gure ekoizpen-prozesuek eta kontsumo-ereduek berrikuspena behar dute prozesu eta eredu horiek efizientzia izan dezaten. Tamalez, gure sistema ekonomikoaren ezaugarria materialen ziklo osoan material baliotsuak galtzea izan da eta da oraindik ere.

Horrek guztiak eboluzionatu egin behar du eta hori guztia aldatu egin behar da ezinbestean, baliabideen erabileran Europa 2020 Estrategiaren arabera ezarritako efizientzia-programa betetzeko, eta hazkundea modu adimentsu, jasangarri eta integratzailean egiteko.

Ekonomia zirkularraren printzipioek honetara bideratzen gaituzte: «produktuen balio erantsia ahalik eta denbora gehien mantentzera. Ekonomia horrek baliabideak ekonomian

gordetzen funtzionatzen du produktu bat bere bizitzaren amaierara iristen denean. Horrela, produktu horiek probetxuarekin erabiltzen jarraitu ahal izango da behin eta berriz balio gehiago sortzeko.

Hondakinen prebentzioa plan honetako lehenengo lehentasuna da eta ekonomia zirkularreko fase guztiei eragiten diela uste dugu. Ekoizpen-zikloko eta kontsumo-zikloko fase guztietan hondakin gutxiago sortzen dela zaindu behar da.

2020rako EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko planak ekoizpen-prozesu eficienteagoetarantz eta jasangarriagoetarantz eboluzionatzeko konpromiso hori jasotzen du. Konpromiso hori produktua sortzen den unean (ekodiseinua) hasten da eta hondakinetakoko baliabide material eta energetiko guztiak modu integralean berreskuratzen diren arte ez da amaitzen. Izan ere, gaur egun, hondakin horiek ez dira berreskuratzen hainbat arrazoi medio.

2020rako EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko planak helburu handinahiak proposatzen ditu herrialde gisa. Baina helburu horiek guztiak erdietsi daitezke eta hondakinak prebenitzeari eta kudeatzeari dagokionez, egoera berri batera eramango gaituzte, 2020. urtea epemuga izanik.

Hala ere, hori guztion lankidetzarik eta erantzunkidetasunik gabe ezingo da lortu. Lehenik eta behin, EAEko gai honetako administrazio eskudunek laguntzen eta plan hau gidatzen duten printzipio guztiekin konprometituta egoten jarraitu behar dute. Eta, jakina, eragile ekonomiko eta sozial guztiek (bai enpresek bai herritarrek) 2020. urtera arte garatuko diren plan honetako 140 ekintzak gauzatzeko funtsezko garrantzia izango dute.

Plan hau egiterako orduan eragile publiko zein pribatu guztiei egin duten lana, planarekiko izan duten interesa eta planari egindako ekarpenak eskertu nahi dizkiet.

AKRONIMOEN GLO- SA- RIOA

IBI	Ingurumen Baimen Integratua	EUSTAT	Euskal Estatistika Erakundea
BZA	Bizi-zikloaren azterketa	BEG	Berotegi-efektuko Gasak
ACYMA	Altzairu eta Ingurumen Elkarte	EJ	Eusko Jaurlaritza
GEE	Tresna elektrikoak eta elektronikoak	I+G+b	Ikerketa, garapena eta berrikuntza
BEdC	Basque Ecodesign Center	IPPC	Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuak
EKPB	Kontratazio eta Erosketa Publiko Berdea	EHZ	Europako Hondakinen Zerrenda
CLP	Substantzia eta nahasketa kimikoen sailkapenari, etiketatzeari eta ontziratzeari buruzko araudia	HLKL	Hondakinen eta Lurzoru Kutsatuen 22/2011 Legea
ILPS	Ingurumen eta Lurralde Politika Saila	TGEZ	Teknologia Garbien Euskal Zerrenda
HEZ	Hondakinen Esparru Zuzentaraua	MAGRAMA	Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa
LAG	Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak	TEO	BREF dokumentuetan bildutako Teknika Erabilgarri Onenak («BAT Reference Documents») edo Teknika Erabilgarri Onenei buruzko Erreferentziako Dokumentuak
HUA	Hondakin Uren Araztegiak	EEP	Erabiltzen ez diren pneumatikoak
Ekoscan	Ingurumen-hobekuntza kudeatzeko sistema	HHKO	Hiri Hondakinak Koordinatzeko Organoa
EMAS	Ingurumena kudeatzeko eta ikuskatzeko sistema komunitarioa	EBIEP	Ingurumenaren arloko Eeko Ekintza Plana
EPD	Produktuaren Ingurumen Adierazpena		

PCB/PCT	Poliklorobifeniloak (PCB) eta Polikloroterfeniloak (PCT)	HH	Hiri Hondakinak
ZTBP	Zientzia eta Teknologia Plana	SANDACH	Giza kontsumorako bideratzen ez diren animalia-azpiproduktuak
HAPO	Hiri Antolamendurako Plan Orokorrak	GIIS	Gordailu, Itzultze eta Itzulkin sistema (edukiontziena)
BPG	Barne Produktu Gordina	IKS	Ingurumen-kudeaketarako Sistema
PPI	Produktuaren Politika Integratua	EELSK (lehen, KSI)	Ekoizlearen Erantzukizun Luzatuko Sistema Kolektiboak (lehen Kudeaketa Sistema Integratua (KSI) deitutakoa)
LPP	Lurralde Plan Partzialak	IKT	Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak
LPS	Lurralde Plan Sektoriala	TMB	Tratamendu Mekaniko Biologikoa
GEEH	Gailu Elektriko eta Elektronikoen Hondakinak	URA	Uraren Euskal Agentzia
EEH	Eraikuntzako eta Eraispeneko Hondakinak	BEG	Balio Erantsi Gordina
REACH	Substantzia kimikoak erregistratzeko, ebaluatzeko, baimentzeko eta mugatzeko araudia	EJIS	Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetza
HEA	Hondakin ez arriskutsuak	EEI	Erabiltzen ez diren ibilgailuak
ROHS	Gailu elektrikoetan eta elektronikoetan substantzia arriskutsu jakin batzuk mugatzeari buruzko 2002/95/CE Zuzentaraua		
HA	Hondakin arriskutsuak		
EHA	Etxeko hondakin arriskutsuak		



**1. / SA-
RRE-
RA**

1.1/ PLANAREN JUSTIFIKAZIOA

Ingurumenaren babes orokorrari buruzko 3/1998 legearen arabera, **Eusko Jaurlaritzari dagokio, ezarritako eskumen-eremuan, ingurumenaren arloko araudia prestatzea eta onartzea**, bai eta legeria garatzea zein ingurumenaren eta ekologiaren inguruko Estatuaren oinarritzko legeria betearaztea ere. Era berean, bere eskumenen artean daude Europar Batasuneko araudien aplikazio zuzenerako beharrezko neurriak hartzea eta zuzentarauak eta Erkidegoko gainontzeko araudian ezarritako obligazioak betearaztea.

Gainera, aipatutako 3/98 legeak bere 73. eta 74. artikuluetan ezartzen ditu EAEko ingurumen erakunde ezberdinei dagozkien eskumenak, hondakin-mota ezberdinei dagokienez. Horrela, legearen arabera, hiriko hondakin solidoen eremuan, foru-organoei dagokie lurralde historiko bakoitzean hiri-hondakin solidoen kudeaketarako esparru-plangintza garatzea, dagozkien foru-planen bidez; ondorioz, plan honetan, eremu horretako autonomia-helburuak bakarrik ezartzen dira, baina etorkizuneko lurralde-plangintza Hiri Hondakinen arloko Koordinazio Erakundeak (HHKE) HHen Zuzentzarauen berrikuntzan ezarritakoaren arabera zehaztera deitzen da.

EAEn, orain arte, hondakin-politikak jarraian adierazitako planen arabera zuzendu dira:

- EAEko hondakin ez arriskutsuak prebenitzeko eta kudeatzeko 2009-2012 aldirako plana.
- EAEko hondakin ez arriskutsuak prebenitzeko eta kudeatzeko 2008-2011 aldirako plana.
- Hiri-hondakinak planifikatzeko eta kudeatzeko ildoak EAEn 2008.

— 2016ra arteko indarraldia duten Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako Foru Aldundien hiri-hondakinak prebenitzeko edota kudeatzeko lurralde-planak.

Halaber, **zenbait zuzentzarau baliogabetzen dituen hondakinei buruzko 2008ko azaroaren 19ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/CE Zuzentzarauak (Hondakinen Esparru Zuzentzarau (HEZ) bezala ere ezaguna)** hondakinak prebenitzeko eta kudeatzeko planak ezartzeko betekizuna ezartzen du; horiek euren sorrerari eta kudeaketari lotutako ingurumen inpaktuak kontuan hartzea sartu behar dute euren garapen- edo azterketa-prozesuan.

Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legeak ezartzen du Autonomia Erkidegoei dagokiela hondakinak prebenitzeko programak eta hondakinak kudeatzeko autonomia-planak prestatzea.

Orain arte, EAEn indarrean izan diren hondakinen planek hondakin arriskutsuen, ez arriskutsuen eta hirikoen prebentzioan, kudeaketan eta tratamenduan aurrerapausoak ematea ahalbidetu dute, EAEn. Plangintza horien indarraldia amaitu izanaren eta Hondakinen Zuzentzarau Markoa onartu eta gero hondakinen arloan marko berri bat ezarri izanaren ondorioz, baina, uneotan beharrezkoa da Euskal Autonomia Erkidegoan hondakinen plangintzarako instrumentu berri bat garatzea. Instrumentu hori, hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana 2020 da.

Era berean, Hondakinen Prebentzio Programa plan horretan sartu da, 22/11 Legearen 15. artikuluan ezarritako edukiarekin.

1.2/ PLANAREN EDUKIA

Plan honen egiturak eta edukiak hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko 22/2011 Legearen 14. artikulua ezarritakoari erantzuten diote.

4.9 atalean, 22/2011 legearen betebeharra den hondakinen prebentziorako programa sartzen da, horrela, betebeharrori beteta.

Plan honek Europako Batzordeak 2012an hondakin-planak idazteko Gida Metodologikoak ezarritako zuzen-tarauak ere hartzen ditu bere gain¹.

Hurrengo taulak Planaren edukiak 22/2011 legearen V. eranskinaren eskakizunei nola erantzuten dien islatzen du.

1 TAULA.

22/2011 LEGEAREN V. ERANSKINEAN JASOTAKO BETEBEHARRAK ETA HORIEI ERANTZUNA EMATEN DIETEN PLANEN ATALAK

	22/2011 Legearen V. eranskina: Hondakinak kudeatzeko autonomia-planen edukia	EAEko Hondakin Arriskutsuak Prebentzeko eta Kudeatzeko Plana 2020
1. Planen gutxieneko edukia	a) Lurraldearen barnean sortutako hondakinen mota, kopurua eta iturria; beste estatu kide batzuetatik eta batzuetara eta, posible denean, beste Autonomia Erkidego batzuetatik eta batzuetara garraiatzea aurreikusitakoak, eta hondakin-fluxuen etorkizuneko bilakaeraren ebaluazioa.	3.2. atala Hondakinen sorreraren eta kudeaketaren egungo egoera EAEn
	b) Hondakinak jasotzeko existitzen diren sistemak eta deuseztapen- zein balorizazio-instalazio nagusiak, erabilitako olioetarako, hondakin arriskutsuetarako edo legeria berezia duten hondakin-fluxuetarako edozer neurri berezi barne.	3.2. atala Hondakinen sorreraren eta kudeaketaren egungo egoera EAEn
	c) Bilketa-sistema berrien beharraren ebaluazioa, existitzen diren hondakin-instalazioen itxiera, hondakinen eta dagozkien inbertsioen trataerarako instalazio gehigarriak.	4.5. atala Beharrezko azpiegiturak
	d) Kokapena identifikatzeko kokapen-irizpideei eta etorkizuneko deuseztapen-instalazioen edo balorazio-instalazio nagusien gaitasunari buruzko informazioa.	4.5. atala Beharrezko azpiegiturak
	e) Hondakinak kudeatzeko politikak, hondakinak kudeatzeko aurreikusitako metodoak barne, eta kudeaketa-arazo espezifikoak aurkezten dituzten hondakinen identifikazioa.	4.4. atala Jarduera-programak
2. Beste elementu batzuk	a) Hondakinen kudeaketarekin zerikusia duten antolakuntza-aspektuak, hondakinen kudeaketaz arduratzen diren eragile publikoen eta pribatuen arteko erantzukizunen banaketaren deskribapena barne.	9. eranskina
	b) Publiko orokorrari edo kontsumitzaile-talde zehatzari zuzendutako sentsibilizazio- eta informazio-kanpainak.	8. eranskina
	c) Hondakinen deuseztapenaren ondorioz, historikoki kutsatutako tokiak eta horiek birgaitzeko neurriak	7. eranskina

¹ «Preparing a Waste Management Plan. A methodological guidance note». Ingurumen Zuzendaritza Nagusia, Europako Batzordea. 2012.

1.3/ APLIKAZIO-EREMUA

Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakin Arriskutsuak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planaren lurralde-eremua **Euskal Autonomia Erkidego osora zabaltzen da.**

Autonomia Erkidegoaren azalera osoa 7.234 km²-koa da, 251 udalerrirekin eta 2.179.815 biztanleko populazio osoarekin, EUSTATen 2011ko datuaren arabera.

EAEko Hondakin Arriskutsuak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planak **2020 aldia estaltzen du**, aldizkako ebaluazioak eginda. Ondorioz, ebaluazioa 2016ko amaieran egingo da, eta horren helburua aldi horretan ezarritako helburuen betearazpena ebaluatzea eta 2017-2020 aldia barne hartzen duen Planaren bigarren aldirako zuzenketa-jarduerak edo neurriak ezartzea da.

Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakin Arriskutsuak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana 2020 hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko **22/2011 Legearen aplikazio-esparruaren barneko** euskal lurraldean edo Autonomia Erkidegotik kanpo sortutako baina EAEn kokatutako enpresen bidez kudeatutako hondakin guztietan aplikatu daiteke. Beraz, Plan honen helburuzko hondakinak honako hauek dira:

- Hondakin arriskutsuak (HA): besteak beste, PCB/PCT hondakinak, gailu elektrikoaren eta elektronikoen hondakinak batzuk (GEEH), erabilitako pila eta baterien hondakinak, erabilitako olioak, hondakin arriskutsuen edukiontzia, etxeko hondakin arriskutsuak (EHA), erabiltzen ez diren ibilgailuak (EEI).
- Hondakin ez arriskutsuak (HEA); besteak beste, industria-hondakinak, hiriko EDAR lohiak, erabiltzen ez diren pneumatikoak, erabiltzen ez diren ibilgailuak (Hondakin

Ez Arriskutsuaren korrante nagusizat jotako zatiketaren frakzio arinari dagokionez)² eta eraikuntzako eta eraispene-ko hondakinak (EEH)³.

- Hiri-hondakinak⁴ (HH): etxeko⁵, merkataritzako eta antzeko hondakinak sartzen dira bertan.

Aipatzekoa da biohondakinak zehazki aztertzen direla; izan ere, lorategietako eta parkeetako hondakin biodegradagarriak; etxeetatik, jatetxeetatik, sukaldaritza kolektiboko zerbitzuetatik eta txikizkako establezimenduetatik ateratako elikagai- eta sukalde-hondakinak eta elikagaien prozesatu-instalazioetatik ateratako antzeko hondakinak barne hartzen dituen 22/2011 Legearen barnean sartutako kontzeptu berria da.

- Planaren irismenetik kanpo gelditzen dira 22/2011 Legearen aplikazio-esparrutik gelditzen diren hondakinak, 2.1 eta 2.2 artikuluen arabera. Zehazki, kanpo gelditzen dira meatze-jardueren hondakinak; lurzoru kutsatuak (baina barne gelditzen dira hondakin bihurtutako lurzoru kutsatuak); hondeatutako lurzoru ez kutsatuak eta beste material batzuk; hondakin erradioaktiboak; desklasifikatutako lehegailuak; materia fekalak, lastoa eta arriskutsuak ez diren eta nekazaritzako zein abeltzaintzako ustiapenetan, basogintzan edo biomasa horretan oinarritutako energiaren ekoizpenean, giza osasuna arriskuan jartzen ez duten edo ingurumena kaltetzen ez duten prozeduren edo metodoen bidez erabilitako naturako, nekazaritzako edo basoko beste material batzuk; Giza Kontsumorako ez diren Animalia Azpiproduktuak (GKAA), betiere 1069/2009 Araudiak estalitako hondakin gisa kudeatzen ez direnean, eta Araudi horren arabera eliminatutako animalien gorpuak.

22/2011 legea kontuan hartuz, azpiproduktu izatera pasatzen diren materialak kanpo gelditzen dira.

² Frakzio hori eta txatarra ibilgailuaren gehiengo frakzioak dira.

³ Betiere, horiek berrerabiltzen ez direnean.

⁴ Definizio hori 2011ko azaroaren 18ko Batzordearen Erabakiaren 1. artikulutik hartu da; horrek Europako Parlamentuko eta Kontseiluko 2008/98/CE Zuzentarauaren 2. ataleko 11. artikuluan aurreikusitako helburuak betetzen direla egiaztatze arauak eta kalkulu-metodoak ezartzen ditu [C(2011) 8165 zenbakiarekin jakinarazia] (2011/753/UE). 22/2011 Legeak etxeko eta merkataritzako hondakin gisa zehaztutakoaren balioidea da.

⁵ Etxeetan sortutako hondakin gisa definitzen dira.

A close-up photograph of a person's hand gently touching a stalk of golden wheat in a field. The person is wearing a white top and a floral skirt. The background shows a lush green forest under a clear blue sky.

2. / ERREFE- RENTZIA- ESPARRUA

2.1/ AURREKARIAK

«Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategiaren (2002-2020)» (GIEIE) garapenak «baliabideen eta hondakinen kudeaketa arduratsua» bere bost ingurumen helburuetako bat bezala identifikatzen du.

Aipatutako helburua ondoren garatzen da, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak (ILPS) prestatutako 2015-2020 Ingurumen Esparru Programan (IV. IEP). Baliabide eta hondakinen eremuan, aipatutako IV. IEPren 2. helburu estrategikoan hau agertzen da: Ekonomia lehiakor, berritzaile, karbono izurketa txikiko eta baliabideen erabilpenean eraginkor baterantz aurrera egitea. **Plan honetan, proposatutako helburu estrategikoak eta horiei lotutako jarduera-programak, eta zehaztutako jarduerak bat datoz aipatutako IV. IEPren helburu estrategikoarekin.**

«Euskal Autonomia Erkidegoaren Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2020 Planak» hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko 22/2011 Legearen (HLKL) 14. (hondakinak kudeatzeko planak eta programak), 15. (hondakinak prebenitzeko programak), 16. (Neurri eta tresna ekonomikoak), 21. (hondakinen bilketa, berrerabiltzeko prestaketa, birziklapena eta balorizazioa) eta 31. (produktuaren ekoizlearen zabalduetako erantzukizuna)n artikuluetan ezarritakoari erantzungo dio, prebentzioaren eremuan.

Plan hau idazteko, aurreko planen betearazpen- eta aurrerapen-mailaren ebaluazioa gauzatu da (ikus 3.2.5 atala, aurreko planen ebaluazioa), bai eta hondakinen eremuko lehentasunen eta beharren balorazioa ere, diagnostikoaren egungo egoeratik eta existitzen diren baliabideetatik abiatuta.

Era berean, **idazteko, jarraian adierazitako dokumentuak hartu dira kontuan:**

- 22/2011 Legearen V. eranskina,
- 22/2011 Legearen IV. eranskina,
- Espainiako hondakinen prebentzio-estrategien analisi-dokumentua eta Nekazaritzako, Elikadurako eta Ingurumeneko Ministerioak (NEIM) argitaratutako lotutako eranskinak,
- MAGRAMAK argitaratutako hondakinen prebentziorako Estatu Programaren Proiektua, eta
- honela deitutako dokumentua: «Preparing a Waste Prevention Programme. Guidance document». Europako Batzordea. 2012ko urria.

2.2/ DEFINIZIOAK

Hondakina:

Jabeak baztertu duen edo baztertzeko asmoa edo betebeharra duen edozer substantzia edo objektu.

Azpiproduktua⁶:

Azpiproduktua helburu nagusia substantzia edo objektu hori ez den ekoizpen-prozesuaren ondoriozko substantzia edo objektua izan daiteke, betiere, honako baldintza hauek betetzen dituenean:

- a) substantzia edo objektua aurrerago erabiliko denaren ziurtasuna izatea,
- b) substantzia edo objektua zuzenean erabili ahal izatea, ohiko industria-praktika ez den ondoko transformaziorik jasan gabe,

⁶ Hondakinei eta azpiproduktuei buruzko interpretaziozko komunikazioa (COM (2007) 50 amaiera).

- c) sustantzia edo objektua ekoizpen-prozesuaren osagarri gisa ekoiztea, eta
- d) ondorengo erabilerak produktuen inguruan egokiak diren baldintza guztiak betetzea, giza osasunerako edo ingurumenarako inpaktu kaltegarriak eragin gabe.

Nolanahi ere, hondakin bat hondakintzat jotzeari utzi eta azpiproduktutzat hartzeko, hondakinen inguruko Koordinazio Batzordeak sustantzia edo objektu horiek azpiproduktutzat jotzea ebaluatuko du, Europar Batasunaren esparruan zehaztutakoa kontuan hartuta, eta Ingurumen Ministerioari onartzea proposatuko dio. Ministerioak dagokion ministro-agindua emango du.

Biohondakina:

Lorategietako eta parkeetako hondakin biodegradagarriak; etxeetatik, jatetxeetatik, sukaldaritza kolektiboko zerbitzuetatik eta txikizkako establezimenduetatik ateratako elikagai- eta sukalde-hondakinak eta elikagaien prozesatu-instalazioetatik ateratako antzeko hondakinak.

Hondakin-baldintzaren amaiera:

hondakin izateari uzteko, balorizazio-eragiketaren bat (birziklapena barne) jasa duten hondakin-mota jakin batzuk bete beharko dituzten irizpide zehatza batzuen betearazpenari dagokio, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko 22/2011 Legean ezarritakoa betetzeko, betiere, honako baldintza hauek betetzen direnean:

- a) ondoriozko sustantziak edo objektuak normalean beste helburu zehatzetarako erabiltzea;
- b) sustantzia edo objektu horietarako merkatua edo eskaera egotea;
- c) ondoriozko sustantziek edo objektuek helburu zehatzetarako baldintza teknikoak, existitzen den legeria eta produktuei aplikatzen zaizkien arauak betetzea; eta
- d) ondoriozko sustantziak edo objektuak ingurumenarako edo osasunerako inpaktu kaltegarriak ez sortzea.

Europako araudiari buruzko 2.3.1 atalean, hondakin jakin batzuk izateari uzten dioten erabakitzeko irizpideak ezartzen dituzten Europako Batzordeak onartutako araudiak aipatzen dira. Burdin-, altzairu- eta aluminio-txatarrak (333/2011 araudia), kobre-txatarrak (715/2013 araudia), berreskuratutako beira (1179/2012 araudia) eta zirriborro aurreratuen fasean dagoen konpostak hondakin-izaera galtzeari buruzko Araudiak aipatzen dira.

Berrerabiltzea:

HLKLn (3. artikulua), hondakinak ez diren produktuen produktuak edo osagaiak sortutako helburu berarekin berriz erabiltzen diren edozer eragiketa bezala definitutako prebentzio-jarduera mota zehatza da⁷.

Berrerabiltzeko prestaketa:

HLKLn (3 s artikulua), «hondakin bihurtutako produktuen produktuak edo osagaiak aurreko bestelako transformaziori gabe berrerabiltzeko prestatzen dituen egiaztapeneko, garbiketako edo konponketako balorizazio-eragiketa gisa» dago definituta⁸. Hondakinen kudeaketa-jardueratzat jotzen da (bazeritutako elementuen suposizioak betetzen ditu), eta horrek berrerabiltzetik desberdintzen du. Onar daiteke, eragiketa horren bidez, hondakinak bere izaera galtzen duela eta bigarren eskuko produktua bihurtzen dela.

Berrerabiltzearen eta berrerabiltzeko prestatzearen arteko ezberdintasun nagusia berrerabiltzea objektua hondakin bihurtu aurretik gauzatutako prebentzio-jarduera dela da; berrerabiltzeko prestakuntza objektua jadanik hondakina denean gauzatzen da⁹.

Birziklapena:

Hondakinen materialak berriz jatorrizko helbururako edo beste helburu baterako produktu, material edo sustantzia bihurtzen dituen edozer balorizazio-eragiketa. Barne hartzen du materia organikoaren transformazioa, baina ez balorizazio energetikoa, ez eta erregai gisa edo betetze-eragiketarako erabiliko diren material bihurtzea.

Hiri Hondakinak:

Plan honetan, Hiri Hondakinak izendapena erabiltzen da etxeko zein merkataritzako hondakinen batura adierazteko (horrela deitzen dira, 22/2011 legearen arabera); izan ere, bi hondakin-motek antzeko kudeaketa-eskumenak dituzte esleitura eta batera kuantifikatzen dira, EAEko Hiri Hondakinen inbentarioan.

Balorizazioa:

Bestela, funtzio jakin bat betetzeko erabiliko liratekeen beste material batzuk ordezkatzetarako, hondakinak helburu erabilgarria izatea edo hondakinak instalazioan edo ekonomia orokorrean funtzio hori betetzeko prestatzea emaitza nagusi duen edozer eragiketa.

⁷ Beste helburu baterako materialaren bigarren erabilera prebentzio orokorreko neurria litzateke, eta ezin da berrerabiltze bezala sailkatu.

⁸ Berrerabiltzean gertatu bezala, gerta liteke, hondakinen kudeaketa-sistematan sartuta ere, inolako egokitzapen-eragiketarik behar ez izatea. Hondakina beste era batean tratatzen bada, edo egokitzapen-eragiketa horiek jasaten baditu, baina hasierakoak ez diren beste helburu batzuetarako erabiltzen bada, birziklapena edo berreskurapena izango litzateke.

⁹ Europako Batzordeak prestatutako HEZen Interpretazio Gidak berrerabiltzea hondakinak prebenitzeko tresna dela eta, ondorioz, hondakinak kudeatzeko eragiketa ez dela nabarmentzen du.

2.3/ ARAUDIAREN ETA ERREGELAMENDUAREN LABURPENA

Kapitulu honetan, Planaren araudi-esparrua mugatzen duten xedapen nagusiak aztertzen dira, dagozkien eremu geografikoaren arabera taldekatuta, Europar Batasun, Espainiako Estatu eta Euskal Autonomia Erkidego bezala ulertuta.

Era berean, aurretik aipatutako eremuetan indarrean dauden eta Planarekin bat egindako plangintza-tresnak aztertzen dira.

2.3.1/ Europako araudia

Europar Batasun mailan, araudi-garapen zabala dago, Araudien, Zuzentzarauen, Erabakien eta Gomendioen bidez.

Beste aldetik, aipatzekoa da aipamen berezia merezi duten beste dokumentu estrategiko mota. Adibidez:

EEko Ingurumenaren arloko Zazpigarren Ekintza Programa (7. EBIEP)¹⁰

Programaren izenburua «Living well, within the limits of our planet» da. Hondakinen inguruan duen filosofia hondakinen sorreraren eta kudeaketaren inpaktu kaltegarriak prebenitzean edo murriztean datza, baliabideen erabileraren inpaktu globalaren murrizketaren eta hondakinen hierarkia-printzipioaren aplikazioaren bidezko baliabideen aipatutako erabileraren eraginkortasunaren hazkundearen bidez.

Baliabideen erabilera iraunkorrari buruzko Gaikako Estrategia

Hazkuntza ekonomikoa ingurumen-inpaktu negatiboetatik bereiztera zuzendutako baliabideen erabilera iraunkorrari buruzko Gaikako Estrategia.

Hondakinak Prebenitzeari eta Birziklatzeari buruzko Europako Gaikako Estrategia

Hondakinak Prebenitzeari eta Birziklatzeari buruzko Europako Gaikako Estrategiak estrategia erabakitzen du, lehenengo aukera prebentzioa duen hondakinen hierarkia-ren aplikazioa argia eta eraginkorra izan dadin. Hondakinen isuria minimizatzeko beharra markatzen du, horretarako, hondakinen prebentzio- eta birziklapen-neurriak aplikatuta.

Produktuen Politika Integratuaren (PPI)

Produktuen Politika Integratuaren (PPI) helburua produktua diseinatzerakoan hasten den zikloa kontuan hartzea da, bere balio-bizitzari lotutako inpaktuak identifikatzeko eta kudeatzeko. Produktuak irizpide ekologikoekin diseinatzeak erabilzaila informatuak ingurumen-inpaktu txikiagoa duten produktuak hautatu ahal izatea errazten du. PPIren ildoan, produktuen eta zerbitzuen ingurumen-ondorioa aztertzea eta diseinuaren arloko erabakietan (hala nola, bizi-zikloaren analisia (BZA), etiketa ekologikoa eta ekodiseinua) laguntzea helburu duten hainbat arau eta erreferentzia daude.

3. eranskinak hondakinen prebentzioari lotutako beste dokumentu eta politika batzuen bilduma azaltzen du. eranskinak hondakinen prebentzioari lotutako beste dokumentu eta politika batzuen bilduma azaltzen du. eranskinak hondakinen prebentzioari lotutako beste dokumentu eta politika batzuen bilduma azaltzen du.

Dokumentu estrategiko horietan bildutako filosofia guztia 4. eranskinean bildutako Europa mailako hondakinen arloko legeriara eramaten da; eranskin horrek hondakinen arloko Europako araudiaren zerrenda adierazten du.

Araudi horien artean, bereziki nabarmentzekoa da:

Zuzentarau jakin batzuk baliogabetzen dituen hondakinei buruzko 2008ko azaroaren 18ko Europako Parlamentuko eta Batzordeko 2008/98/CE Zuzentaraua, Hondakinen Esparru Zuzentaraua bezala ere ezaguna (HEZ)

Horrek hondakinen zikloa osoa, ekoizpenetik azken tratamendura, kontrolatzeko esparru juridikoa ematen du.


HEZek eta hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko 22/2011 Legeko (HLKL) transposizioak «hondakinen hierarkia» sartzetik du hondakinen prebentzioaren eta kudeaketaren arloak aplika daitekeen lehentasun-ordena gisa¹¹; bertan, prebentzioa da lehentasuneko estrategia, ingurumena eta giza osasuna hondakinen ekoizpenaren eta maneiuaren eremuan babesteko, berrerabiltzeko prestatzeko neurriak atzetik dituela.

HLKLk eskakizun hori sartzetik du eta, horrela, hondakinen prebentzioaren eta kudeaketaren arloko politiken eta legeriaren garapenean, administrazio eskudunek aplikatu egin behar dute, ingurumen emaitza global hobea lortzeko (ikus 1. irudia).

¹⁰ Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1386/2013/2013 Erabakiak onartua, 2013ko azaroaren 20an.

¹¹ HEZek berrerabiltze-konzeptua bilakatu eta argitu, eta berrerabiltzeko prestakuntza sartzetik du. HEZek lehentasun-ordena ezberdina aplikatzea ahalbidetzen du, bizi-zikloaren ikuspegiaren bidez, aurretik, hondakinen sorreraren eta kudeaketaren inpaktuak justifikatuta.

1. IRUDIA ERKIDEGOKO HONDAKINEN HIERARKIA



Hierarkia eta prebentzioa helburu nagusia izan behar dela kontuan hartu gabe, prebentzioan kota handiagoak lortu arte, hondakinak modu egokiak kudeatzen direla bermatu behar da, eta administrazioek hori zaindu behar dute.

Hona hemen HEZen alderdirik berrienak:

— **Hondakinen hierarkiaren garrantzia nabarmentzen du** eta, horretarako, garrantzia ematen dio prebentzioari (9-12 eta 29 art); alde horretatik, estatu kideek hondakinak prebenitzeko planak onartzeko beharra ezartzen da, modu independentean edo beste batzuen osagai gisa.

— Produktuaren **ekoizlearen erantzukizun zabaldua nabarmentzen du** hori 15. artikularen 1. atalean ezarritako hondakinen kudeaketari eta hondakin eta produktu zehatzen fluxuei buruzko indarreko legeriari kalterik egin gabe aplikatuko da (8. artikulua).

— **Azken urteetako hondakinen arloko jurisprudentziako erabaki nagusiak sartzten ditu**, bereziki, azpiproduktuaren, hondakinaren izaeraren amaieraren, balorizazioaren eta eliminazioaren kontzeptuei dagokienez; horiek euren definizioak aldatu gabe birlandatu dira 22/2011 Legean.

— Paper-, metal-, plastiko- eta beira-hondakinen **gaikako bilketako eta bereizketako helburuak ezartzen ditu** 2015erako, bai eta berrerabiltzeko prestakuntzak eta birziklapenekoak, 2020rako, kalitate handiko birziklapen-politika lortzeko (11. artikulua).

— **Etxeko hondakinatarako, energiaren ikuspegitik eraginkorrek diren instalazioetan garatutakoak soilik joko dira energia-balorizazioko hondakintzat**, eraginkortasun-baldintza horietan garatzen ez direnak eliminazio-eragiketatzat jota (II. eranskina).

— **Hondakin-kategoria berria sartzten du: biohondakinak**, gaikako bilketa eta bereizketa bultzatzen dira, konposta egiteko eta horiek digeritzeko, biohondakinak ingurumen-babesaren maila handiarekin tratatzeko eta biohondakinetatik abiatuta sortutako ingurumenaren aldetik seguruak diren materialak erabiltzeko (3. eta 22. artikulua).

HEZen, zenbait **helburu kuantitatibo** ezartzen dira. Adibidez:

— 2020 aurretik, paper-, metal-, beira-, plastiko-, biohondakin frakzioetarako edo bestelako frakzio birziklagarrietarako berrerabiltzeko prestakuntzara eta birziklapenera zuzendutako etxeko eta merkataritzako hondakinen kopurua guztira % 50 izan beharko da, gutxienez, pisuari dagokionez.

— 2020 aurretik, hondakinen zerrendako 17 05 04 kategorian definitutako egoera naturaleko materialak izan ezik, berrerabiltzeko prestakuntzara, birziklapenera eta materialen beste balorizaziora zuzendutako eraikuntzako eta eraispeneko hondakin ez arriskutsuen kopurua ekoiztutako pisuaren % 70 izan behar da, gutxienez.

HEZen 11. artikuluko 2. atalean ezarritako berrerabiltze- eta birziklatze-helburuen betearazpena egiaztatzeko, hiri-hondakinei eta eraikuntza- zein eraispen-hondakinei buruzko helburuak kalkulatzeko arauak eta metodoak ezartzen dituen 2011ko azaroaren 18ko Batzordearen Erabakia argitaratzen da.

Beste aldetik, aipatzekoak dira HEZen ezarritakoaren arabera onartzen diren **hondakin-izaeraren bizi-amaieraren Araudiak**. Egun, honako hauek daude onartuta:

333/2011 Araudia (EB)

Europako Parlamentuko eta Kontseiluko 2008/98/CE Zuzentarauaren arabera, **txatarra-mota jakin batzuk** hondakin izateari noiz uzten dioten erabakitzeko irizpideak ezartzen dituen 2011ko martxoaren 31ko 333/2011 Araudia (EB).

2011/10/09tik aurrera aplikagarria, burdin-, altzairu- eta aluminio-txatarra, aluminio-aleazio txatarra barne, berreskuratzailak prozesatu ondoren hondakin izateari noiz uzten dion erabakitzeko irizpideak ezartzen ditu. Desklasifikazioa ez da derrigorrezkoa, libre ate borondatezkoa baizik, kudeatzailaren arabera; ondorioz, burdin-, altzairu- eta aluminio-txatarraren esportazioa hondakin gisa (hondakinen tokialdaketa buruzko 1013/2006 Araudia) edo produktu gisa (33/2011 Araudia) egin daiteke.

1179/2012 Araudia (EB)

Europako Parlamentuko eta Kontseiluko 2008/98/CE Zuzentarauaren arabera, **berreskuratutako beirak** hondakin izateari noiz uzten dion erabakitzeko irizpideak ezartzen dituen 2012eko abenduaren 10eko Batzordearen 1179/2012 Araudia (EB). 2013/06/11tik aurrera aplikagarri, berreskuratutako beiraren ekoizleei edo inportatzaileei eragiten die.

715/2013 Araudia (EB)

Europako Parlamentuko eta Kontseiluko 2008/98/CE Zuzentarauaren arabera, **kobrezko txatarra-mota jakin batzuk** hondakin izateari noiz uzten dioten erabakitzeko irizpideak ezartzen dituen 2013ko uztailaren 25eko 715/2013 Araudia (EB). 2014/01/01tik aurrera aplikagarri, kobrezko txatarraren ekoizleei edo inportatzaileei eragiten die.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko azaroaren 20ko 1257/2013 Araudia (EB)

Itsasontziak birziklatzeari buruzkoa. Horren bidez, 1013/2006 Araudia (EE) eta 2009/16/EE Zuzentaruak aldatzen dira.

Hondakin-izaeraren amaierarako irizpideei buruzko txostena, tratamendu biologikoa jasaten duten hondakin biodegradagarrietarako

Azken txostenaren zirriborroa. 2013ko uztaila. Dokumentua 4. eta azken zirriborroa da.

Era berean, **aipatzekoa da gailu elektrikoek eta elektronikoen hondakinei (GEEH) (birgaldatzea) buruzko 2012ko uztailaren 4ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012/19/UE Zuzentarauaren bidez**, 2014an transposizioa egiteke dagoen gailu elektrikoek eta elektronikoen hondakinen inguruan **sortzen ari den araudia**. Horrek honako helburu kuantitatibo hauek ezartzen ditu:

— 2015eko abenduaren 31ra arte, etxe partikularretatik (industrietako, saltokietako eta erakundeetako antzekoak barne) ateratako GEEHen urteko 4kg/biztanleko batezbestekoa gutxienez aplikatzen jarraituko da, edo aurreko hiru urteetan dagokion estatu kidean batez beste bildutako GEEH pisu berdina, kopuru handiena hautatuta.

— 2016tik aurrera, urtero lortu beharko den bilketa-tasa txikiena aurreko hiru urteetan dagokion estatu kideak merkatuan sartutako GEEen batez besteko pisuaren % 45 izango da.

— 2019tik aurrera, urtero lortu beharko den gutxieneko bilketa-tasa estatu kidearen merkatuan aurreko hiru urteetan sartutako GEEen batez besteko pisuaren % 65, edo aipatutako estatu kidearen lurraldean sartutako GEEen % 85 izango da.

2.3.2/ Estatuko araudia

Estatu mailan, hondakinen arloko oinarritzko araua :

Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legea da (HLKL)

HLKLk barne zuzenbidera birlandatzen du HEZ, eta hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legea baliogabetzen du. Arau horrek gure antolakuntza juridikora ekartzen du hondakinen ekoizpenaren eta kudeaketaren inguruko araubide juridikoari buruzko beharrezko eguneraketa.

HLKLk HEZen ezarritako printzipioak nabarmentzen ditu (kudeaketako hierarkia, prebentzio-politika, ekoizlearen erantzukizuna...), Autonomia Erkidegoek egin beharreko hondakinen kudeaketa-planen egitura definitzen du eta lurzoru kutsatuei buruzko erregimena garatzen du.

HLKLk sartutako inplikazio garrantzitsuenak honako hauek dira:

— Hondakinen kudeaketaren hierarkia, lehentasun gisa. Gainera, bizi-zikloaren ikuspegiaren aurretiazko justifikazioarekin, lehentasunen ordena desberdina hartzea ahalbidetzen da.

— Energia-eraginkortasunaren formula sartzea, etxeko hondakinak balioztatzeko (II. eranskina).

- Informazio publikoko betebeharrak: urteko memoria eta egoeraren txostena (tokikoa, autonomikoa eta nazionala), planen eta programen betebeharra webgunean.
- 6 urtero ebaluatu eta berriz aztertu behar diren hondakin guztietarako kudeaketa-planak onartzeko betebeharra, gutxieneko edukiarekin (14. artikulua).
- Prebentzio-programak 2013ko abenduaren 12a baino lehen onartzeko betebeharra (15. artikulua).
- Etxeko hondakinen isurian eta errausketan aplikatu daitezkeen arauak ezartzeko posibilitatea (16. artikulua).
- 2015 baino lehen, paperaren, beiraren, plastikoaren eta metalaren gaikako bilketa eta bereizketa (21.3 artikulua).
- Kalitatezko konpostajearen aldeko apustua. Ingurumeneko agintarien aldetik, konpostajearen edo digestio anaerobikoaren erabiltzeko, biohondakinen gaikako bilketa eta bereizketa, etxeko eta komunitateko konpostajea, biohondakinen tratamendua eta ekoiztutako konpostaren erabilera sustatzeko neurrien sustapena.
- Ingurumen-agintariei Gordailu eta Itzulera Itzultze Sistemak (GILS) erraztuko dituzten neurriak hartzeko gaitasuna emango die, bideragarritasun teknikoaren, sozialaren, ingurumen-inpaktuaren, eta abarren arabera (21.2 artikulua), bai eta enpresa txikien helburuen, egoeren eta aukeren betearazpen-mailaren arabera ere (31.3 artikulua).

Jasotako **helburu kuantitatibo**en artean, honako hauek nabarmentzen dira:

- 2020an ekoiztutako hondakinen pisua % 10ean murriztea, 2010ean sortutakoei dagokionez (15. artikulua).
- 2020 baino lehen:
 - Paper-, metal-, beira-, plastiko-, biohondakin frakzioetarako edo bestelako frakzio birziklagarrietarako berrerabiltzeko prestakuntzara eta birziklapenera zuzendutako etxeko eta merkataritzako hondakinen kopurua guztira % 50 izan behar da, gutxienez, pisuari dagokionez.
 - Hondakinen zerrendako 17 05 04 kategorian definitutako egoera naturaleko materialak izan ezik, berrerabiltzeko prestakuntzara, birziklapenera eta materialen beste balorizazioa zuzendutako eraikuntzako eta eraispeneko hondakin ez arriskutsuen kopurua ekoiztutakoen pisuaren % 70 izan behar da, gutxienez.

- Erabilera bakarreko biodegradagarriak ez diren plastikozko poltsen eliminazioa (bigarren xedapen gehigarria):

- 2013 aurretik, poltsen % 60ren ordezkapena; 2015 aurretik, poltsen % 70en ordezkapena; 2016 aurretik, poltsen % 80ren ordezkapena eta 2018 aurretik, poltsa guztien ordezkapena, arraina, haragia edo bestelako elementu galkorrak gordetzeko erabilitakoak izan ezik, 2007an, merkatuak jarritakoen kalkuluari dagokionez.
- 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera, banatutako poltsek ingurumenean eragiten dituzten eraginei buruzko mezua izango dute.

Gainera, aipatzekoa da jarraian islatutako helburu kuantitatibo jakin batzuk zehazten dituen hondakinen kategoria zehatzei buruzko beste estatu-araudi bat:

Hiriko hondakin biodegradagarrien (HHB) eliminazioa arautzen duen abenduaren 27ko 1481/2001 Errege Dekretua

Zabortegean gordez, 2016ko uztailaren 16rako, zabortegeirako HHBen kopuru osoak (pisua) 1995ean sortutako HHBen kopuru osoaren % 35 ez gainditzea lortuta.

Pilei eta metagailuei, otsailaren 1eko 106/2008 Errege Dekretua¹²

Pilei eta metagailuei eta horien hondakinen ingurumen-kudeaketari buruzko otsailaren 1eko 106/2008 Errege Dekretua, estatuko lurralde osoan, pilen eta metagailu eramangarrien hondakinen urteko bilketako tasa txikiena lortuta, aurreko urteko % 45eko salmentei dagokionez, 2015eko abenduaren 31tik aurrera.

Edukiontzien eta edukiontzien hondakinen 11/1997 Legean ezarritako birziklapen- eta balorizazio-helburuak aztertzen dituen eta betearazteko Araudia aldatzen duen martxoaren 3ko 252/2006 Errege Dekretua.

Edukiontzien hondakinen pisuaren % 55eko gutxieneko birziklapen-helburuak ezartzen dira, beirarentzako eta paper-kartoirako % 60, metaletarako % 50, plastikoetarako % 22,5¹³ eta egurrerako % 15 zehaztuta. Gutxieneko balorizazio globalaren ehunekoa (energia-balorizazioa barne) % 60ra iritsiko da, edukiontzien hondakinen pisuan.

Bizi erabilgarriaren amaieran dauden ibilgailuen kudeaketari buruzko abenduaren 20ko 1383/2002 Errege Dekretua

2015 urterako berrerabilpenaren eta balorizazioaren % 95¹⁴ eta berrerabilpenaren eta birziklapenaren % 85

¹² Lurralde nazional osorako urteko bilketa-helburuak ezartzen dira, bilketaren aurreko urteko salmentei dagokionez. AE bakoitzak bilketa-tasen jarraipena eta Administrazio Orokorrentzako txostena egitea erabakitzen da.

¹³ Berriz plastiko bilakatuko den materiala bakarrik kontuan hartuta.

¹⁴ %batezbesteko pisua/ibilgailua/sortutako EEDI guztien urtea.

lortzea, erabiltzen ez diren ibilgailuen (EEDI) eta, bereziki, Negutegi Efektuko Gasak (NEG) dituztenen ingurumen-kudeaketa zuzena ziurtatzeaz gain, eta ekoizlearen erantzukizunaren printzipioa ibilgailuen merkaturatzearen arduradunei aplikatzea.

Erabilitako industria-olioen kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretua,

bertan, % 95eko berreskurapen-helburuak eta % 100eko balorizazio-helburuak ezartzen dira 2006tik aurrera, bai eta % 65eko birsorkuntza ere, 2008tik aurrera.

Otsailaren 25eko 208/2005 Errege Dekretua, aparailu elektriko eta elektronikoen eta beren hondakinen kudeaketari buruzkoa

2006ko abenduaren 31 baino lehen bete beharreko helburu hauek ezartzen dira:

- a) Etxe partikularretatik ateratako GEEHen 4 kg/bizt bilduko dira urtean, gaika,
- b) etxetresna elektriko handien eta makina gairan banatzaileen artean, kategoriaren arabera, tresna mota bakoitzaren pisuaren %80a balioztatuko da. Osagaien, materialen eta substantzien artean, kategoriaren arabera, tresna mota bakoitzaren pisuaren % 75 berrerabiliko eta birziklatuko da,
- c) informatika, telekomunikazio eta kontsumoko elektronika ekipoen artean, kategoriaren arabera, tresna mota bakoitzaren pisuaren % 75 balioztatuko da. Osagaien, materialen eta substantzien artean, kategoriaren arabera, tresna mota bakoitzaren pisuaren % 65 berrerabiliko eta birziklatuko da,
- d) etxetresna elektriko txikien, argiztapen tresnen, tresna elektriko eta elektronikoen (neurri handiko industria tresnak izan ezik), jostailuen edo kirol eta aisialdiko ekipoen eta zainketa- eta kontrol-tresnen artean, kategoriaren arabera, tresna bakoitzaren pisuaren % 70 balioztatuko da. Osagaien, materialen eta substantzien artean, kategoriaren arabera, tresna mota bakoitzaren pisuaren % 50 berrerabiliko eta birziklatuko da, eta
- e) berrerabilitako gailu osoak ez dira b), c), d) eta e) ataletan ezarritako balorizazio-helburuen kalkuluan sartuko, 2008ko abendura arte.

Jarraian, helburu kuantitatiboak ez dituzten beste hondakin-korronte batzuei buruzko araudiak azaltzen dira:

Erabiltzen ez diren pneumatikoen (EEP) kudeaketari buruzko abenduaren 30eko 1619/2005 Errege Dekretua

horrek pneumatikoen bizitza erabilgarria luzatuko duten fabrikazio-mekanismoak identifikatuko dituzten eta, euren bizi erabilgarriaren amaieran, pneumatikoen berrerabilpena eta birziklapena erraztuko duten prebentziozko enpresa-planak egiteko pneumatikoen ekoizleen derrigortasuna ezartzen du. Era berean, euren produktuetatik ondorioztatutako hondakinen kudeaketaz, eta euren bilketa zein kudeaketa bermatzeaz arduratu behar dira, hondakinen kudeaketa-hierarkiaren printzipioen arabera. Gainera, 2006ko uztailaren 16tik aurrera, debekatuta dago erabilitako zatitutako pneumatikoak zabortegean uztea, 1481/2001 Errege Dekretuaren 5.3. d) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Produktu fitosanitarioen edukiontziei buruzko abenduaren 14ko 1416/2001 Errege Dekretua

horrek ontziraturako produktu fitosanitarioak 11/1997 Legearen lehen xedapen gehigarriaren 1. atalean aurreikusitako salbuespenetik kanpo gelditzen dira eta, horregatik, gordailu, itzulera edo itzultze sistemaren bidez merkaturatu beharko dira edo, bestela, edukiontzien eta erabilitako edukiontzien hondakinen kudeaketako sistema integratuaren bidez.

Produktu fitosanitarioen erabilera iraunkorra lortzeko jarduera-esparrua ezartzen duen irailaren 14ko 1311/2012 Errege Dekretuaren

41. artikulua produktu fitosanitarioen edukiontzi hutsak kudeatzeko praktika egokiak ezartzen ditu.

Industrialki fabrikatutako giza erabilerako medikamenduak emateko baimen-, erregistro eta baldintza-prozedura arautzen duen urriaren 11ko 1345/2007 Errege Dekretuaren

62. artikuluko 6. atalak etxeetan sortutako medikamenduen hondakinen bilketa bermatuko duten sistemetan parte hartzeko derrigortasuna ezartzen du, medikamentuaren baimenaren titularraren betebeharren artean.

2.3.3/ EAEko araudia

Plana egiteko, autonomia-mailan garrantzitsua den araudia jarraian adierazten da, laburtuta.

Ingurumenaren babes orokorrerako otsailaren 27ko 3/1998 Legea

Ingurumenaren babes orokorrerako 3/98 legearen 73. eta 74. artikuluek Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-erakunde ezberdinei dagozkien eskumenak ezartzen ditu, hondakin-tipologia ezberdinen arabera.

Planaren sarreran deskribatu bezala, aipatutako 3/1998 legearen arabera eta, indarrean dagoen araudiari jarraiki, tokiko erakundeei dagozkien eskumenei kalterik egin gabe, Euskal Autonomia Erkidegoaren hiri-hondakinen arloko Ingurumen Erakundeari dagokio:

- Hiri-hondakin solidoen kudeaketaren esparru-plangintzaren prestakuntza.
- Apirilaren 24ko 11/1997 Legean zehaztutako kudeaketa-sistema integratuen baimena, ikuskapena eta onespena.
- Ingurumen-babeseko estandar altuak eta Euskal Autonomia Erkidegoaren barneko irizpideen uniformetasuna bermatuko dituzten hondakinen kudeaketako azpiegituren kokapen, ezarpen eta ustiapen baldintza teknikoaren definizioa.
- Sortzen ari diren hondakinen kudeaketa-sistemen balioztatzea, ingurumenaren ikuspegitik.

Hondakin arriskutsuen eta gainontzeko hondakin-moten arloan, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-erakundeari dagokio hondakinen ekoizpen- eta kudeaketa-jardueren baimena, ikuskapena eta onespena, indarreko araudiari jarraiki, tokiko erakundeei dagozkien eskumenei kalterik egin gabe. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-erakundeari dagokio:

- Ingurumen-babeseko estandar altuak eta Euskal Autonomia Erkidegoaren barneko irizpideen uniformetasuna bermatuko dituzten hondakinen kudeaketako azpiegituren kokapen, ezarpen eta ustiapen baldintza teknikoaren definizioa.
- Sortzen ari diren hondakinen kudeaketa-sistemen balioztatzea, ingurumenaren ikuspegitik.

Bestetik, lege berak ezartzen du, hiriko hondakin solidoen arloan, lurralde historikoetako foru-erakundeei dagozkiela honako eskumen hauek:

- Lurralde historiko bakoitzean, hiri-hondakin solidoen kudeaketaren esparru-plangintzaren garapena, dagozkien foru-planen bidez.

— Lurralde historiko bakoitzaren eremuan, udal-jardueren koordinazioa, arlo horretako zerbitzuak modu integratuean ematen direla bermatzeko.

— Hondakinak kudeatzeko udalaz gaineko azpiegituren bultzada.

Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuko 1/2005 LEGEA, otsailaren 4koa, lurzorua kutsadura prebenitzeko eta zuzentzeko

Legearen xedea honako hiru helburuetan ardazten da:

- lurzoruetan kalte berriak agertzea saihestea,
- kasu larrienei irtenbidea ematea
- epe ertainera eta luzera, aurreko garaietatik oinordetutako lurzoru kutsatuen pasiboaren ebazpena planifikatzea.

Legearen helburua EAEko lurzorua babesa eta ekintza antropikoetatik ondorioztatutako kutsaduraren prebentzioa da eta, era berean, aipatutako lurralde-eremuan dauden kutsatutako eta hondatutako lurzoruei aplikatu beharreko erregimena ezartzen du, ingurumena eta pertsonen osasuna gordetzeko.

Era berean, EAEko lurzoru kutsatuen politikaren printzipioak eta lurzoru kutsatu gisa adieraztetik ondorioztatutako obligazioak ezartzen ditu, bai eta horien berreskurapena ahalbidetzeko ohiko bidea ezarri ere.

Euskal Autonomia Erkidegoan erabiltzen ez diren pneumatikoen kudeaketa arautzen duen martxoaren 13ko 46/2001 Dekretua

Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan sortutako eta/edo kudeatutako erabiltzen ez diren pneumatikoak (EEP) egoki kudeatzeko jardueren multzoa arautzen du.

Errausketa soilaren edo zabortegian uztea bezalako bestelako sistemen bidez deuseztatzean datzaten eta birziklapena edo balorizazioa inplikatzan ez duten pneumatikoen eliminazio-jardueren debekua sartzan da.

Martxoaren 26ko 76/2002 Dekretua: horren bidez arautzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko hondakin sanitarioak kudeatzeko baldintzak

Dekretuaren aldaketan lan egiten ari dira. Azken aldaketa horrekin, hondakinen bereizketa zuzena nabarmentzen da (kudeaketa aurreratua); aurreko araudiaren malgutasun handiagoa proposatzen du (hondakinen biltegiatze-aldiak zabaldu egiten dira; izan ere, lortutako esperientziaren arabera, zorrotzeziak ziren). Azkenik, araua hondakinen 22/2011 Lege berria

egokitzen da eta administrazio-kudeaketak sinplifikatzen dira; ordain, horiek ingurumen-erakundearen aurrean hasiko dira, osasun eta ingurumen arloko baimenei, komunikazioei, erregistroari, kontrolari eta ikuskapenei buruzko eskumenak ezarrita, sailen arteko lankidetzeta eta koordinazio handieneko printzipioaren pean.

Otsailaren 18ko 34/2003 Dekretua, Altzairua Arku Elektrikoko Labeen Fabrikatzeak sorrarazten duen Zepa Balioztatzea eta Gerora Erabiltzea Euskal Autonomia Erkidegoan arautzen duena

Dekretuaren helburua arku elektrikoko labeetan fabrikatutako altzairutik ondorioztatutako zeparen balorizazioan aplikatu daitekeen erregimen juridikoa ezartzea eta, ondoren, hori Euskal Autonomia Erkidegoa erabili ahal izatea, osasun publikoa eta ingurumena babesteko.

Zepak egokiak diren erabileren zerrenda zehazten da, betieren, soilik ingurumenari dagokion balorizazioaren ikuspegitik; ondorioz, azken erabilera, eraikuntza-izaerako baldintza teknikoetara egokitu beharko da, azken helburuaren arabera.

49/2009 Dekretua, hondakinak zabortegietara eramanda edo betegarri gisa erabiltzea deuseztatzeko jarduerak arautzen duena

Dekretu horrek EAEko legeria hondakinak isuriari buruzko Zuzentzura egokitzea dakar (199/31/CE); Erkidegoko araudi hori Espainiako barne zuzenbidean birlandatu zen, 1481/2001 Errege Dekretuaren bidez.

Dekretuak EAEn balorizagarriak izateagatik zabortegian gorde ezin diren hondakinak zerrenda hartzen du barne. Zerrenda hori araudiaren arabera zabaldu daiteke, beste hondakin-mota batzuetarako balorizazio-instalazioak agertzen diren heinean.

Dekretuaren helburua zabortegian gordetzearen bidez hondakinak eliminatzeko jarduerarako esparru juridiko eta tekniko egokia ezartzea da, bai eta zabortegiek izan behar dituzten ezaugarri teknikoak arautzea eta horiek behar bezala kudeatzeko eta ustiatzeko prozedurak ezartzea ere.

Hori guztia hondakinak kudeaketako hierarkia-printzipioa kontuan hartuta egingo da, jatorrian prebentzioari eta minimizazioari, eta berrerabilpenaren, birziklapenaren eta beste edozer balorizazio-formaren edo zikloen itxieraren sustapenari lehentasuna emanda, eta hondakinak eliminazioa horiek balioztatzea ezin direnean soilik hautatuta.

Zabortegian gordetzearen bidezko eliminaziora zuzendutako hondakinak nolabaiteko aurretiazko tratamendua izan beharko dute.

Dekretuaren II. eranskinak hondakina eliminazio-instalazioan onartzeko prozedura eta irizpideak ezartzen ditu, erakunde ustiatzaileek aipatutako prozeduraren betearazpena onartu aurretik bermatuta.

EEHen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretua

Lehentasunezko helburuak honako hauek dira:

- Eraikuntzako eta eraisketetako materialen berrerabilpena sustatzea, ingurumen-baldintza seguruetan.
- Prebentzioa, birziklapena eta EEHak balioztatzekeko beste modu batzuk sustatzea (hurrenkera horretan), ingurumen-baldintza seguruetan.
- Eraikuntzako eta eraisketetako hondakinak ezabapena minimizatzea.
- Eraikuntzako eta eraisketetako hondakinak ondo ezabatzen direla ziurtatzea.
- Eraikuntza jasangarria garatzen laguntzea, eraikinen kalitateari eta funtzionalitateari kalterik egin gabe.

105/2008 Errege Dekretuak autonomia-erkidegoen esku uzten dituen alderdi guztiak arautzen ditu aipatutako dekretuak. Halaber, EEHen ekoizleek eta obra handietan jatorria duten EEHen edukitzaileek bete beharko dituzten baldintzak ere ezartzen ditu, esate baterako, obra-proiektuan eraikuntzako eta eraisketetako hondakinak kudeaketaren inguruko ikerketa bat txertatu beharra.

Edukiztaileek, bestalde, hondakinak kudeaketaren inguruko ikerketaren alderdi guztiak biltzen dituen plan bat aurkeztu beharko dute, bai eta hura ondo gauzatzear arduratuko den pertsona zehaztu ere.

Horrez gain, hondakinak ekoizten dituen pertsonak fidantza bat sortzeko obligazioa izango du, obra-lizentzia eskuratzeko kontrol mekanismo gisa; horren helburua obra handietako eraikuntzako eta eraisketetako hondakinak behar bezala kudeatuko direla bermatzea izango da.

Dekretuak eraikuntzako eta eraisketetako hondakinak balioztatzekeko eta ezabatzekeko jarduerak ere arautzen ditu. Horiek aurrera eramateko, ingurumen-organismoak baimena eman beharko du aurrez.

Halaber, laugarren azken xedapenaren bidez, «zabortegian gordetzearen bidez eta betegarrien gauzapenaren bidez, hondakinak eliminazioa arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretua» aldatzen du; horrek betegarrien baimen-erregimena hobetzea ahalbidetu du.

Xedapen hori osatzeko eta finkatzeko, jadanik onartu dira Euskadiko Errepideen Dimentsionaketa Arauaren EEHetatik ondorioztatutako materialen erabilera arautzen duten eranskinak, eta Eraikuntzaren eta Eraispeneren Hondakinetatik (EEH) ateratako materialek bete beharko dituzten preskripzio teknikoak eta ingurumen-preskripzioak zehaztuko dituen Agindu Teknikoa onartuko da.

Azaroaren 26ko 453/2013 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-lurretan araztegi- lohia zabaltzeari buruzkoa

Dekretuak hondakin-uren tratamendutik ondorioztatutako lohien aplikazioa arautuko du, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzako lurzoruetan, lohietako parametro jakin batzuen baimendutako gehienezko mailak ezarrita, elikadura-segurtasuna ziurtatzeko, giza osasunaren funtsezko aspektu gisa, elikadura-osasunari eta nutrizioari buruzko uztailaren 5eko 17/2011 Legean ulertu bezala.

Dekretuaren helburuak honako hauek dira: pertsonen osasuna babestea; elikadura-osasuna bermatzea; lurzoruan, begetazioan, animalietan eta gizakietan, eragin kaltegarriak prebenitzea, araztaileko lohiak nekazaritzaren onura edo hobekuntza ekologikoa lortzeko moduan erabiltzea sustatzea.

Nekazaritzako lurzoruetako lohien aplikazioa nekazaritzaren edo ekologiararen ikuspegitik onuragarria den moduan egin behar da, uztailaren 28ko 22/2011 Legearen II. eranskineko R10 eragiketaren aldetik, aldi berean, lohien eliminazioa debekatuta, horiek lurzoruan aplikatuz, aipatutako Legearen I. Eranskinaren D2 eragiketaren aldetik, ingurumenaren babes-maila handia bermatzeko, lurzoruen kalitateari arreta berezia jarrita.

IV. Ingurumen Esparru Programa, 2014ko abenduaren 2koa

Ingurumen Esparru Programa planifikatzeko tresna Euskal Herriko ingurugiroa babesteko 3/1998 Lege Orokorrean oinarritzen da; izan ere, lege horren arabera, Euskal Herriko ingurugiro-politika ingurugiroari buruzko esparru-programa batean azalduko da. Programa hori Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiro-organoak egingo du Euskal Herriko

Ingurugiro Batzordean ordezkotza duten administrazio publikoekin lankidetzan. I. Ingurumen Esparru Programa 2002-2006 aldirako izan zen; II. Programa 2007tik 2010era bitartekoa izan zen; III. Programa 2011. urtean onartu zen eta 2014an amaituko da eta IV. Ingurumen Esparru Programa doala 2015tik 2020ra arte.

IV. Ingurumen Esparru Programa honen 2. helburu estrategikoa Euskadi ekonomia lehiakor, berritzaile, karbono isurketa txikiko eta baliabideen erabilpenean eraginkor bihurtzea da. Helburu hori funtsezko abiapuntua izan da 2020rako EAEko hondakinen prebentzio- eta kudeaketa-plana egiteko garaian.

2.4/ KONTSULTA-PROZESUAREN ONDORIOAK

2020rako EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko planaren jendaurreko aldia 2014ko uztailaren 21ean hasi zen eta urte horretako urriaren 13an amaitu zen.

Jendaurreko prozesuaren 45 egun naturaleko epea luzatu egin zen eta 54 egun iraun zuen prozesu horrek, udako oporrek parte-hartzean eraginik ez zutela bermatze aldera. 45 eguneko epe hori planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa arautzen duen 2012ko urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak ezartzen du.

Jendaurreko prozesu horretan planaren euskarazko eta gaztelaniazko bertsioa eman ziren.

Gainera, 10 bilera monografiko egin ziren eta horietan, guztira, eragin handiena izango duten sektoreetako 136 parte-hartzaile izan ziren. Parte-hartzaile horiei modu zuzenagoan eragingo dieten helburuen eta jarduketan berri eman zitzaizkien, eta parte-hartzaile horien iritzia entzun genituen aurrez aurre, egokituz jo zena dokumentuan jasotzeaz gain.

Bilera horietara deitutako sektoreak hauek izan ziren:

- Altzairuaren sektorea.
- Galdaketako sektorea.

- Paperaren sektorea.
- Eraikuntzako eta eraispeneke hondakien balio-katea.
- Hiriko HUA.
- ACLIMA eta hondakinen kudeatzaileak.
- Hondakinak Koordinatzeko Organoa (HKO).
- Eragile sozialak (patronalak, sindikatuak, talde ekologistak).
- Hondakinen gaiko udalerrien lantalde EKITALDE.
- 199 euskal udalerrik osatzen duten Udalsarea 21eko Batzorde Teknikoa.

22 erakundek egindako 161 alegazio eta iruzkin jaso ziren. Horien % 100 erantzun ziren, eta horien % 30aren ondorioz, hondakinen planean aldaketak egin ziren.

Era berean, 2 zorion-gutun jaso ziren.

Alegazio nabarmenenetako gai hauek ziren:

- Gertutasun-printzipioaren ñabardurak.
- 2016. urterako helburu ertainak malgutzea planak gehien eragingo dieten sektoreetako 2ri.
- GEEH arriskutsuei eta ez arriskutsuei buruzko argibideak.
- Balorizazioa eta birziklapena argiago bereiztea.
- Erakunde zehatz bati buruzko aldaketa terminologikoak eta semantikoak.
- Kontabilitatea eta irizpideak hobeto lantzea hondakinak moteltzeko.
- Hainbat autonomia-erkidegok hondakinak onar ditzaten irizpideen homogeneizazioari babesa ematea, baita isuriaren prezioei ere.
- Mugaz bestaldeko eta autonomia-erkidegoen arteko lekualdatzeen jarraipen handiagoa egitea.
- Balio-kateko hainbat eragile gehiago zaintzea eta kontrolatzea, batez ere, eragile eta merkatariak eta EELSK.

3. / EGUNGO EGOERA



3.1/ EGUNGO EGOERA EUROPAN

3.1.1/ Egoera orokorra

2008an, HEZ deitutakoa onartzen da; horrek prebentzioa eta kudeaketa-hierarkiaren aplikazioa protagonismo handia hartzen duten esparru estrategiko berria ezartzen du.

2011n, Europako Batzordeak 2005eko hondakinen prebentzioari eta birziklapenari buruzko gaikako Estrategiaren aurrerapen-mailari buruzko txostena argitaratu zuen; bertan, Estrategiaren funtsezko zazpi neurrien inguruan egindako aurrerapenak eta epe luzerako helburuen lorpenean izandako aurrerapenak aztertzen dira. Neurri horiek hartuta ere, «Hondakinen prebentzioari eta birziklapenari buruzko Gaikako Estrategiari buruzko Txostenak» aitortzen du, estatu kide gehienetan, hondakinen sorrera gora doala dirudiela eta, beherakadak antzematen diren kasuetan, analisi gehigarria egin behar dela, beherakada hori krisi ekonomikoaren eraginaren, jakinarazpen-metodoen aldaketaren edota prebentzioaren inguruko aurrerapen onorioa ote den egiaztatzeko.

Hondakinen **prebentzio** kuantitatiboak aurrerapen esanguratsuak erregistratzen ez baditu ere, sustantzia arriskutsuen erabileraren murrizketari buruzko SAEM Zuzentarauaren aplikazioari dagokionez, horrek potentzialki arriskutsuak izan daitezkeen 110.000 t/urteko murrizketa ahalbidetu du.

Hondakin arriskutsuek (guztizkoen % 3) behera egiten jarraitzen dute EU-12n, batez ere, teknologia garbien sarrerari esker; nolahi ere, EU-27n, urteko % 0,5eko gorakada ikusten da, eta hori, aldi berean, disoziazio erlatiboa da, BPGren hazkundera dagokionez.

2008an, **birziklapenak** % 38 egin zuen gora; hori % 5eko gorakada izan zen, 2005. urteari dagokionez, eta % 18koa, 1995. urteari dagokionez. Bere aldetik, zabortegetara bidalitako hondakin-kopuruaren beherakada erregistratu da: % 40 gutxi gorabehera, 2008an, 2005eko % 49ren eta 1995eko % 65aren aurrean.

Hondakinen **energia-berreskurapenaren** hazkundeak (2005ean, pertsonako 96 kg-tik, 102 kg-ra, 2008an) energiaren ekoizpenaren hazkundera eragin du: EU-27ko energiaren

ekoizpen osoaren % 1,3 inguru hiriko hondakin solidoen balorizazio energetikotik dator.

2009an, hondakinen **kudeaketa- eta birziklapen-industriaren** negozio-bolumena 95 milioi eurokoa zen. Sektoreak 1,2 eta 1,5 milioi lanpostu artean sortzen ditu, eta EBko BPGren % 1 inguru adierazten du.

3.1.2/ Estatu eta Eskualde aurreratuenen egoera

Ingurumenaren babesaren arloan esperientzia handiagoa duten herrialdeek eta eskualdeek hartutako estrategien analisiak EAEk hurrengo urteetan konpondu beharko dituen erronka nagusien identifikazioa errazten du. Horrela, Europar Batasuneko erakunde ezberdinen argitalpen ezberdinak aztertzeaz gain, Flandriako, Danimarkako eta Eskoziako hondakinen arloko politika kontsultatu da, eskualde horiek hartutako estrategia ezberdinak konparatzeko.

Orokorrean, estatu kide aurreratuenean hondakinen kudeaketaren hierarkia aplikatzearen aldeko apustu argia egin dutela ondorioztatu da eta, ondorioz, birziklapen-merkatuetarako baldintza onuragarriagoak sortu dituzte, tresna juridikoen eta ekonomikoen erabilera ezin hobeari esker, bai eta zabortegetan hondakinak isurtzeko debekuei, hondakinen hierarkiaren arabera tasen eta zergen ezarpenari eta ekoizlearen erantzukizun kontzeptua hainbat hondakin-fluxuetan aplikatzeari esker ere. Horrek hondakinak kudeatzeko kostuen etengabeko barneratzea eragin du, produktuen eta zerbitzuen prezioan.

Materialen ziklo-itxierari dagokionez, Flandriako eskualdeak apustu garrantzitsua egin du, lan-ildo horri gorputz legala emanda, «Flandriako materialen eta hondakinen zikloen kudeaketa iraunkorrari buruzko 2011ko abenduaren 23ko Dekretuaren» eta «Materialen eta hondakinen zikloen kudeaketa iraunkorraren Flandriako Araudia hartzen duen 2012ko otsailaren 17ko Dekretuaren (VLAREMA)» onarpenaren bidez.

Araudi-esparru horretan, Flandriak jarduera-sektore berri horren bideragarritasunari eragin diezaioketen aldagai ezberdinak konpontzeko oinarriak eta irizpideak ezarri, eta neurriak hartu nahi ditu. Horrenbestez:

- Produktuen eta hondakinen ekoizleei eskakizunak ezartzea, baina euren aplikazio-zalantza ohikoenak konpontzen ditu, teknikoki eta legalki.
- Balorizazioa sustatzea baina, aldi berean, zabortegian isurtzearen debekua arautzea.
- Birziklapena sustatzea, baina berreskuratutako materialei irteera emateko gai diren merkatuak sustatzeaz arduratzen da, erosketa berdearen bitartez, adibidez.
- Enpresen, zentro teknologikoen, gizarte-erakundeen eta agentzia publikoen arteko lankidetzak eragitea baina, aldi berean, Flandriak tratatu daitezkeen hondakinen esportazioa saihestea, tokiko ekonomia sendotzeko eta eragile horien ahaleginak merkatu-arrazoien ondorioz galtzea saihesteko.

Europar, ingurumen-jokabide hobereneko tratamenduak merkeagoak izatea nahi duten tresna ekonomikoei dagokionez, esperientzia ezberdinak daude, neurri motaren arabera:

- Sorreraren araberako ordainketa: 16 estatu kidera zabaltzen da. Gainera, Austriak, Finlandiak eta Irlandak lurralde osoan aplikatzen dute, eta Flandriak ere modu orokorrean aplikatzen du.
- Hondakinen gaineko zergak: 18 estatu kidera zabaldutako, beste neurri batzuekin osatu behar dira, prebentzio eta birziklapen helburuak betetzeko.
- Produktuen gaineko zergak eta diru-laguntzak, BEZ murriztuaren aplikazioa eta birziklapen-kredituak Europako Batzordeak aztertu dituen baina oraindik gehiegi zabaldu ez diren beste jarduera-bide batzuk dira.
- Isuriaren gaineko zerga: Ingurumenaren arloan aurreratutako dauden hainbat herrialdetan (Danimarka, Holanda, Erresuma Batua, Suedia) eta Madril bezalako beste Autonomia Erkidegotan jadanik ezarrita, kasu guztietan, emaitza positiboak aurkeztu ditu balorizazio-tasen hazkundearen eta zabortegiko gordailu-tasen murrizketan.

3.1.3/ Hondakinen sorreraren kuantifikazioa¹⁵

Informazioa lortzeko dagokionez, 2008an, «Hondakinen eta euren kalitatearen estatistikei buruzko 2150/2002 Araudiaren arabera bildutako estatistikei buruzko Txostena» argitaratu zen. Bertan, Araudian ezarritako betekizunek datuen bilketarako estatu-sistemen aurrerapen metodologikoak eta aldaketak ekarri zituztela ondorioztatu zuten, honako xehetasun hauekin bada ere:

- Hondakinak kuantifikatzeko metodori ez dagoenean, metodo estatistikoak erabiltzen dira. Estatistikak egiteko metodo zehatzik preskribatu ez denez (hainbat metodologia badaude ere¹⁶), informazioaren konparagarritasuna eta horren kalitatearen neurria zailtzen dituzten estatuen arteko ezberdintasunak antzematen dira. Ingurumen-erakundearen irizpideen bateratzeak aspektu horretan aurrera egitea ahalbidetuko luke.
- Gabezia orokortua ikusten da nekazaritzan, abeltzaintza, ehizan, basogintzan, arrantzan eta zerbitzu-sektorean sortutako hondakinen kuantifikazioan.
- Estatu kide gehienek ez dituzten enpresa txikiak sartzen hondakinen sorrerari buruzko datuen bilketan, informazio hori eskuratzeko zailtasuna dela eta; nolana ere, batzuk zenbatespenarengatik ordezkatzeko dute.

Bereziki aipatzekoak dira zenbait kontzepturi buruzko interpretazio ezberdintasunak; hala nola, prebentzioa vs berrerabilpena; materialen eta bestelako birziklapena vs berreskurapena. Halaber, hondakinak kuantifikatzeko metodo zehatzik ez dagoenean, metodo estatistikoak erabiltzen dira. Aurkezten den arazoa araudi estatistiko bakoitzak bere kuantifikazio-irizpideak dituela da; horrek prozesua zailtzen du berriro. Ondorioz, funtsezkoa da mota horretako interpretazio irizpideen bateratzean aurrera egitea, ingurumen-erakunde ezberdinen artean.

Mugapen horiek kontuan hartuta, hurrengo taulak Europako hainbat estatutako hondakinen sorrerari buruzko 2010eko informazioa azaltzen du.

¹⁵ Plan honetan barne hartutako diagnostiko-datuak Eusko Jaurlaritzak egindako hondakin-inbentarioetatik datoz. Inbentarioko datuekin dagokion eragiketa estatistikoa egin da, Euskal Estatistika Planaren urriaren 21eko 4/2010 Legeak eskatzen duen bezala.

¹⁶ Europako Parlamentuko eta Kontseiluko 2008/98/CE Zuzentarauaren 11. artikuluko 2. atalean aurreikusitako helburuen betearazpena egiaztatzeko kalkulu-arauak eta metodoak ezartzen dituzten 2011ko azaroaren 18ko Batzordearen Erabakia.

2. TAULA
HONDAKINEN SORRERA SEKTOREKA, EUROPAN (MILAKA TONA)

Estata	Jarduera ekonomikoek hondakinak eta helbideak		Nekazaritza, basozaintza eta arrantza (A atala)	Mezuaritza eta hondatze- jarduerak (B atala)	Manufaktura (C atala)	Energia (D atala)	Eraikuntza eta eraspina (F atala)	Bestelako jarduerak ekonomikoak (E eta G-U atalak)	Helbideak	Biztanleak	Kg. hiri-hondakin/bizt
	Guztira	Horietatik, arrisksuak									
Alemania	363.545	19.931	256	24.493	48.981	9.087	190.990	53.426	36.312	81.802.257	444
Austria	34.883	1.473	550	269	2.958	453	9.010	17.019	4.623	8.375.290	552
Belgika	44.256	1.992	277	465	9.789	1.243	3.224	24.461	4.798	10.839.905	443
Bulgaria	165.877	13.542	618	150.214	3.306	8.032	79	1.231	2.396	7.563.710	317
Zipre	2.373	37	129	382	132	3	1.068	198	461	819.140	563
Kroazia	668	45	0	1	154	1	2	509	0	4.425.747	0
Danimarka	14.033	1.338	77	25	1.215	213	2.104	7.009	3.390	5.534.738	612
Eslovakia	10.545	437	526	166	2.712	878	1.786	2.759	1.719	5.424.925	317
Eslovenia	5.096	117	141	12	1.457	558	1.509	691	728	2.046.976	356
Espainia	137.519	2.991	5.817	31.732	16.480	2.339	37.947	20.006	23.198	45.989.016	504
Estonia	19.000	8.962	110	6.453	3.716	6.534	436	1.320	430	1.340.127	321
Finlandia	104.337	2.559	2.772	54.851	15.211	1.445	24.645	3.732	1.681	5.351.427	314
Frantzia	355.081	11.538	1.682	1.053	20.382	993	260.226	41.439	29.307	64.658.856	453
Grezia (*)	68.644	253	0	38.152	5.703	11.181	6.828	2.826	3.954	11.305.118	350
Holanda	119.142	4.565	3.948	184	14.179	1.156	78.331	12.253	9.091	16.574.989	548
Hungaria	15.735	541	488	87	3.134	2.718	3.072	3.372	2.865	10.014.324	286
Irlanda	19.808	1.972	101	2.196	3.259	334	1.610	10.578	1.730	4.467.854	387
Italia	179.034	6.655	349	1.263	43.086	3.090	69.732	29.043	32.472	60.340.328	538
Letonia	1.495	67	75	3	501	20	12	278	606	2.248.374	270
Liechtestein	62	2	0	12	15	0	0	35	0	35.894	0
Lituania	5.583	110	456	7	2.653	68	357	782	1.261	3.329.039	379
Luxenburgo	10.440	379	3	18	498	2	8.731	803	385	502.066	767
Mazedonia	2.328	150	0	855	1.017	4	0	0	451	2.052.722	220
Malta	1.288	17	3	0	9	1	989	149	138	414.372	333
Norvegia	9.433	1.763	195	366	2.687	28	1.543	2.385	2.229	4.858.199	459
EAE	5.430	368	0¹⁷	4¹⁸	3.114	3	1.240	0¹⁹	1.069	2.174.033	492
Polonia	159.458	1.492	1.543	61.547	28.618	20.291	20.818	17.751	8.890	38.167.329	233
Portugal	38.347	1.625	193	1.206	9.766	456	11.071	10.193	5.464	10.637.713	514
Erresuma Batua	334.127	7.285	681	85.963	22.837	4.885	100.999	87.223	31.539	62.026.962	508
Txekiar Errepublika	23.758	1.363	114	115	4.202	1.540	9.354	5.099	3.334	10.506.813	317
Rumania	218.830	703	18.353	177.441	7.346	5.888	238	3.438	6.127	21.462.186	285
Serbia	33.623	11.145	0	26.458	1.146	6.019	0	0	0	7.306.677	0
Suedia	117.618	2.515	309	89.026	7.835	1.479	9.381	5.551	4.038	9.340.682	432

(*) Grezian: «Guztira» eta «Beste jarduerak ekonomiko batzuk» atalek A atala eta NACEko 46.67 klasea uzten dituzte kanpo.

Europako datuen iturria: http://epp.eurostat.ec.europa.eu/statistics_explained/index.php/Waste_statistics
EAEko datuen iturria: 2010eko EAEko hondakin inbentarioak (bertan egina)

¹⁷ Inbentarioan sartu ez diren hondakinak.

¹⁸ Inbentarioan modu orokorrean sartu ez diren hondakinak.

¹⁹ Ez dago banakapena.

3.2/ HONDAKINEN SORRERAREN ETA KUDEAKETAREN EGUNGO EGOERA EAEN

3.2.1/ Ikuspegi globala

Azken urteetan, hondakinen sorkuntzan jaitsiera bat gertatu da, neurri batean atzeraldi ekonomikoaren eraginez, baita baliabideak modu eraginkorragoan erabiltzearen eraginez ere, hondakinen BPGaren arabera sorkuntzaren datuek erakusten duten bezala —prezio konstanteekin—, 2010, 2011 eta 2012 urteekin lotuta. Hauexek dira datuak:

- 2010eko ratioa: 0,0834 t/ Euro.
- 2011ko ratioa: 0,0827 t/ Euro.
- 2012ko ratioa: 0,0782 t / Euro.

Euskadin hondakinen sorkuntza bertako industria jarduerak baldintzatzen du erabat. Izan ere, produkzio prozesu garrantzitsuenek hondakin kopuru altuak sortzen dituzte, bai ekoizpen fasean bai isurpenak tratatzeko operazioetan (isurpen atmosferikoen filtrazioa, hondakin uren arazketa, eta abar).

EAEn urtero sortutako hondakinen erdia sektore siderometalurgikoari, zuraren/paperaren sektoreari eta hondakinen eta uren tratamenduaren sektoreari dagozkie. Beste bi hondakin iturburu nagusiak honakoak dira: eraikuntza eta eraispeneko hondakinak, eta hiri hondakinak eta asimilagarriak.

Gure ehun industrialaren garrantzia eta hondakinen arazoari erantzuteko beharra kontuan izanik, oro har gaur egungo hondakinak tratatzeko Euskadiko azpiegitura sarea behar bestekoa dela esan daiteke. Nolanahi ere, beste Autonomia Erkidego eta Estatu batzuetara esportatzeko beharra dago, hurrengo korranteetan:

- Lurzoru kutsatu arriskutsuak: urteko ekoizpenari lotu gabeko sorrera historikoko hondakina. Hori Estatutik kanpo kokatutako segurtasunezko zabortegetara bidali ohi da; izan ere, 2008an egindako ikerketaren arabera, ez da EAEn instalazio espezifikoaren bideragarritasuna bermatzeko urteko beharrezko sorrera lortzen.
- Aluminioaren bigarren fusioaren zepa gaziak, egun, existitzen den birziklapenerako instalazio espezifiko bakarrera bidaltzen direnak.
- Errausketarako esportatu ohi diren hondakin halogenatuak.
- Trataturako hondakinen soberakinak (materia organikoa, adibidez), bere balorizatorako.

Estatu mailako beste esportazio batzuk ezagutzen dira baina, orokorrean, geografia- edota merkatu-arrazoiei erantzuten diete.

Hondakinen inportazioei dagokienez, EAEn existitzen diren birziklapen instalazioetan eta altzairutegietan, Estatutik zein Europatik iritsitako metalen berreskurapenera zuzendutakoak nabarmentzen dira.

Uneotan daukagun erronka gure birziklatze eta balorizazio azpiegituren ustiaketa ahalik eta gehien maximizatzea da, tratamendu gaitasun hori bultzatuz zabortegetara ahalik eta hondakin gutxien eramateko asmoz. Azken batean, uneotan balorizazio eta ezabapen indizeen artean dagoen orekarekin amaitzea da helburua, betiere, noski, balorizazioaren mesedetan.


Alde horretatik, lehentasunezko zenbait korranteetarako, eta bere kudeaketaren aurreikusitako bilakaera positiboa bada ere, baliteke aurretratamendu-gaitasuna osatzeko azpiegiturak behar izatea, ondoren balioztatzeke. Printzipioz, korrante horiek honako hauek lirateke:

- Galdaketako hondarrak (moldekatze berdeko hondarrak eta zatiki finak eta moldekatze kimikoko hondarrak eta zatiki finak).
- Pasta eta paper lohiak (tinta-kentze lohiak, araztegi-lohiak, kaustifikazioko hondarrak eta kare-lohiak).
- HUA lohiak.
- Pila kategoriatzuk (NiMH, NiCd, litiozkoak).

3.2.2/ Hondakinak prebenitzea, sortzea eta kudeatzea

2010ean, EAeko hondakinen sorrera 5.430.279 tonakoa izan zen; horien erdia (2.794.198 t; % 51) hondakin ez arriskutsuak izan ziren; % 22 (1.200.000 t), berriz, eraikuntzako eta eraispeneko hondakin ez arriskutsuak; % 20 (1.068.581 t), hiri-hondakinak, eta % 7 (367.500 t) hondakin arriskutsuak.

2. IRUDIA
SORTUTAKO HONDAKINEN TIPOLOGIA (2010)



la hondakin guztiak (% 94,95) sortzen dituzten jarduera-sektoreak bost dira:

- Metalen ekoizpenaren eta eraldaketaren sektorea: EHZ 10, 11 eta 12; 1.746.121 t; % 32,16.
- Eraikuntzaren sektorea: EHZ 17; 1.240.248 t; % 22,84.
- Hiri-hondakinak eta antzekoak: EHZ 20; 1.071.583 t; % 19,73.
- Egurraren eta paperaren sektorea: EHZ 03; 579.481 t; % 10,67.
- Hondakinak eta urak tratatzeko sektorea: EHZ 19; 518.518 t; % 9,55.

3. TAULA
HONDAKINEN SORRERA ETA KUDEAKETA EAEN (2010). DATUAK TONATAN²⁰

EHZ	Hondakina	Birziklatzea	Balorzio energetikoa	Errausketa	Zabortegean uztea	Bestelako deuseztatzeak	Guztira	%
1	Meatzaritza eta erauzketa				3.761		3.761	% 0,07
2	Lehen sektorea eta elikadurakoa							
3	Zuraren eta paperaren sektorea	320.259	47.973		211.249		579.482	% 10,67
4	Larrua eta ehunak	29			2.223		2.252	% 0,04
5	Petrolioia, gas naturala eta ikatza	3.594			157	152	3.903	% 0,07
6	Prozesu kimiko inorganikoak	248			8.601	1.315	10.164	% 0,19
7	Prozesu kimiko organikoak	6.606	878	15	26.653	7.843	41.995	% 0,77
8	Pinturak, itsasgarriak eta tintak	7.463			719	2.425	10.607	% 0,20
9	Argazkigintzaren industria	179				299	478	% 0,01
10	Prozesu termikoak	787.658			688.860	2.959	1.479.477	% 27,24
11	Azalerako tratamendu kimikoa	44.261			122	29.214	73.597	% 1,36
12	Azalerako tratamendu fisikoa	139.705	216	54	37.853	15.218	193.046	% 3,55
13	Hondakin oliotsuak	11.134	613	1.160	5	11.528	24.440	% 0,45
14	Disolbatzaileak	1.745		46		182	1.973	% 0,04
15	Ontziak eta xurgatzaileak	62.002	26		14.711	2.666	79.405	% 1,46
16	Beste batzuk	22.254	10.851	20	54.877	5.176	93.178	% 1,72
17	Eraikuntza eta eraispena (EEHen inbentario espezifikotan kontabilizatutako EEH ez arriskutsuen 1.200.000 t eta HAen inbentarioan kontabilizatutako EEHen 40.248 t)	624.001			614.281	1.966	1.240.248	22,84%
18	Zerbitzu medikoak	1		1.799		375	2.175	0,04%
19	Hondakinen eta uren tratamendua	108.051	69.562		330.034	10.871	518.518	9,55%
20	Udal hondakinak	295.841	205.123		570.617	2	1.071.583	19,73%
GUZTIRA		2.435.031 % 44,84	335.242 % 6,17	3.094 % 0,06	2.564.724 % 47,23	92.190 % 1,70	5.430.279 % 100,00	% 100

Beste edozer sektoreren ekarpena % 2tik beherakoa da. Balorzazio- (% 51,01) eta eliminazio-tratamenduak (% 48,99) antzeko ehunekotan aplikatzen dira. Horrela, sortutako hondakinen % 44,84 birziklatu egiten da; % 6,17 energetikoki balioztatzen da; % 0,06 erraustu egiten da; % 47,23 zabortegean uzten da, eta gainontzeko % 1,70ak eliminazio-tratamenduak jasotzen ditu; hala nola, eragiketa fisiko-kimikoak.

Sektore nagusien artean, balorzazio-tratamenduak siderometalurgiaren eta zur/paperaren sektoreetan aplikatzen dira nagusiki; aldiz, hondakinen eta uren tratamenduaren sektorean, eliminazioa gehiago aplikatzen da. Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinek, hirikoek eta antzekoek bi motetako tratamenduak jasotzen dituzte, modu berdintsuan.

3.2.2.1/ Hondakin ez arriskutsuak

EAEn sortutako hondakin ez arriskutsuen 2.794.198 tonetatik, 2010ean, ia erdia (1.328.653 t; % 47,55) prozesu termiko siderometalurgikoetatik ondorioztatzen dira (EHZ 10). Zur/paperaren sektoreko hondakinek (EHZ 03; 579.482 t; % 20,74) eta hondakinen eta hondakin-uren tratamendukoek (EHZ 19; 505.512 t; % 18,09), hurrenez hurren, osatzen dute sortutako hondakin guztien % 86,38 elkartzen dituen sektoreen triada.

Balorzazio- eta eliminazio-tratamenduen aplikazioa ia parekatuta dago; izan ere, guztizkoaren % 50,64 balioztatzen da (materialki balioztatutako 1.286.728 t eta energetikoki balioztatutako 128.269 t) eta eliminazio-tratamenduak aplikatzen dira (zabortegean uztea) gainontzeko % 49,36ren gainean (1.379.201 t).

²⁰ EHZ horretan urak eta lohi oliotsuak sartzeak «Bestelako eliminazioa» izenpean sartutako tratamendu fisiko-kimikoen pisua azaltzen du.

4. TAULA
HONDAKIN EZ ARRISKUTSUEN SORRERA ETA KUDEAKETA EAEN (2010). DATUAK TONATAN

EHZ	Hondakina	Birziklatzea	Balorizazio energetikoa	Zabortegean uztea	Guztira	%
01	Meataritza eta erauzketa			3.761	3.761	% 0,13
02	Lehen sektorea eta elikadurakoa					
03	Zuraren eta paperaren sektorea	320.259	47.973	211.249	579.482	% 20,74
04	Larrua eta ehunak	29		2.223	2.252	% 0,08
05	Petrolioia, gas naturala eta ikatza			157	157	% 0,01
06	Prozesu kimiko inorganikoak	219		8.601	8.820	% 0,32
07	Prozesu kimiko organikoak	5.018		26.576	31.594	% 1,13
08	Pinturak, itsasgarriak eta tintak	5.801		615	6.417	% 0,23
09	Argazkigintzaren industria	5			5	% 0,00
10	Prozesu termikoak	639.793		688.860	1.328.653	% 47,55
11	Azaleren tratamendu kimikoa	1.472		122	1.594	% 0,06
12	Azaleren tratamendu fisikoa	135.188		37.833	173.022	% 6,19
13	Hondakin oliotsuak					
14	Disolbatzaileak					
15	Ontziak eta xurgatzaileak	57.898		14.697	72.594	% 2,60
16	Beste batzuk	14.642	10.817	54.877	80.336	% 2,88
17	Eraikuntza eta eraisketa					
18	Zerbitzu medikoak					
19	Hondakinen eta uren tratamendua	106.404	69.479	329.629	505.512	% 18,09
20	Udal hondakinak					
GUZTIRA		1.286.728 % 46,05	128.269 % 4,59	1.379.201 % 49,36	2.794.198 % 100,00	% 100,00

Oharra: Lehen eta elikadura-sektoreko hondakinak ez dira inbentario honetan kontuan hartu; ondorioz, taulak ez du EHZ 02ri buruzko informaziorik jasotzen, 22/2011 legearen aplikazio-eremutik kanpo dagoelako. Nolanahi ere, 17. eranskinean, sektore horretatik datozen korronte zehatzen araberako banakapena ikus daiteke.

5. TAULA
HONDAKIN EZ ARRISKUTSUEN KORRONTE NAGUSIEN HONDAKINEN
KUDEAKETA EAEN (2010). DATUAK TONATAN

EHZ	Korronte nagusiak	Birziklatzea		Balorizazio energetikoa		Zabortegean uztea		Guztira
		t	%	t	%	t	%	
10	Altzairutegietako zepak	463.160	% 51			447.206	% 49	910.367
03	Pasta eta paper lohiak*	130.560	% 59			90.728	% 41	221.288
03	Zerrautsa eta zuraren txirbilak	142.690	% 79	23.481	% 13 ²¹	14.450	% 8	180.620
10-17	Txatarra	155.791	% 87			23.279	% 13	179.070
19	Hondakin-urak tratatzeko lohiak	6.972	% 5	69.719	% 50	62.747	% 45	139.437
10	Galdaketako hondarrak**	45.068	% 34			88.314	% 66	133.382

* Tinta-kentze lohiak, araztegi-lohiak, kaustifikazio-hondarrak eta kare-lohiak.

** Moldekatze berdeko hondarrak eta zatiki finak eta moldekatze kimikoko hondarrak eta zatiki finak.

²¹ 2010ean, txatarraren birziklapena (% 87) aurreko urteetako baino txikiagoa da (% 94, 2009an). Birziklapenaren beherakada txatarraren sorreran izandako itxurazko murrizketara lotua egon daiteke; agian, txatarraren zati bat azpiproduktu gisa kudeatzen delako, eta ez hondakin bezala. Nolanahi ere, eliminatutako txatarra hondakin gisa kudeatzen jarraitzen da; ondorioz, hondakin adierazitako txatarraren birziklapenaren ehunekoa murriztu egiten da.

Korrante zehatzetan, altzairugintzako zepek (910.367 t/urtean) osatzen dute fluxu handiena, eta % 51ko birziklapen-tasa aurkezten dute. Pasta eta paper lohiek (221.288 t, birziklapenaren % 59) dute bigarren tokia. Zur- (180.620 t; birziklapenaren % 79) eta txatarra-hondakinek (179.070 t; birziklapenaren % 87) hirugarren tokia partekatzen dute, gutxi gorabehera; aldiz, hondakin-uren tratamenduko lohiek (139.437 t; balorizazio energetikoaren % 50) eta galdaketa-hondarrek (133.382 t; birziklapenaren % 34) urteko sorreraren 100.000 t gainditzen dituzten hondakinen taldea osatzen dute (ikus 5. taula).

3.2.2.2/ Eraikuntzako eta eraispeneko hondakin ez arriskutsuak

2009an, Eraikuntzako eta Eraispenerako Hondakinen (EEH) urteko sorrera 1.200.000 – 1.600.000 tona ingurukoa izan zen; hala ere, sektoreak erregistratutako jardueraren beherakadak kopuru horretan nabarmen eragingo zuela uste da. Nolanahi ere, 2010ean egindako kalkulua 1.240.248 tonakoa da (hondakin arriskutsuak eta ez arriskutsuak barne hartuta).

Jasotako EEHen % 52k birziklapenerako tratamenduak jasotzen dituela kalkulatu da. «Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuaren» aplikazioak eta ekintza

osagarriak martxan jartzeak (Euskadiko Errepideen Sarearen zoruen dimentsionaketarako araua, etab.) aurreikusten dute 22/2011 Legearen 22.1. b) artikuluan jasotako 2020an sortutako EEHen % 70 birziklatzeko helburuaren betearazpenerantz aurrera egitea ahalbidetzea.

3.2.2.3/ Hondakin arriskutsuak

2010ean, EAEn sortutako hondakin arriskutsuen 367.500 tonetatik, hirutik bi (% 66,08) metalen ekoizpenaren eta eraldaketaren industriari lotutako hondakinak ziren, honako kategorien barnean hartuta: EHZ 10 «Prozesu termikoak» (150.824 t; sortutako guztizkoaren % 41,04), EHZ 11 «Azalaren tratamendu kimikoa» (72.003 t; % 19,59) eta EHZ 12 «Azalaren tratamendu fisikoa» (20.025 t; % 5,45).

Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinek (nagusiki, kutsatutako lurzoru arriskutsuak eta egiturazko fibrozementua duten hondakinak) era garrantzitsuan laguntzen dute kuantitatiboki; hala ere, horien sorrera ez dago urteko jarduera ekonomikoari lotuta, baizik eta aurreko jardueretatik ondorioztatutako hondakinak behar bezala kudeatzeko beharrera.

Sortutako hondakinen ia bi heren (% 62,98) birziklatu egiten dira; aldiz, gainontzekoak balorizazio energetikoko (% 0,50), errausketako (% 0,84, halogenatutako eta osasun hondakinei

6. TAULA
HONDAKIN ARRISKITSUEN SORRERA ETA KUDEAKETA EAEN (2010). DATUAK TONATAN

EHZ	Hondakina	Birziklatzea	Balorizazio energetikoa	Errausketa	Zabortegean uztea	Bestelako deuseztatzeak	Guztira	%
05	Petrolioia, gas naturala eta ikatza	3.594				152	3.746	% 1,02
06	Prozesu kimiko inorganikoak	29				1.315	1.344	% 0,37
07	Prozesu kimiko organikoak	1.588	878	15	77	7.843	10.400	% 2,83
08	Pinturak, itsasgarriak eta tintak	1.662			104	2.425	4.191	% 1,14
09	Argazkigintzaren industria	174				299	473	% 0,13
10	Prozesu termikoak	147.865				2.959	150.824	% 41,04
11	Azalerako tratamendu kimikoa	42.789			0,3	29.214	72.003	% 19,59
12	Azalerako tratamendu fisikoa	4.517	216	54	20	15.218	20.025	% 5,45
13	Hondakin oliotsuak	11.134	613	1.160	5	11.528 ²²	24.441	% 6,65
14	Disolbatzaileak	1.745		46	0	182	1.972	% 0,54
15	Ontziak eta xurgatzaileak	4.104	26		14	2.665	6.809	% 1,85
16	Beste batzuk	7.612	34	20	0,4	5.176	12.842	% 3,49
17	Eraikuntza eta eraisketa	1			38.281	1.966	40.248	% 10,95
18	Zerbitzu medikoak	1		1.799		375	2.174	% 0,59
19	Hondakinen eta uren tratamendua	1.647	83		405	10.871	13.005	% 3,54
20	Udal hondakinak	2.998		0		2	3.001	% 0,82
TOTAL		231.460 % 62,98	1.850 % 0,50	3.094 % 0,84	38.907 % 10,59	92.190 % 25,09	367.500 % 100,00	% 100

²² EHZ horretan urak eta lohi oliotsuak sartzeak «Bestelako eliminazioa» izenpean sartutako tratamendu fisiko-kimikoen pisua azaltzen du.

lotuta, nagusiki) eta eliminazioko (% 35,68) tratamenduak jasotzen ditu, hondakin arriskutsuak zabortegean utzita (% 10,59) edo beste eliminazio-tratamenduen bidez (% 25,09); hala nola, fisiko-kimikoak.

Altzairugintzako hautsak sorrera handieneko korrantea dira (103.534 t), eta ia guztiz birziklatzen dira (% 99). Aluminioaren bigarren mailako ekoizpeneko desugerketa-azidoek (52.788 t, birziklapenaren % 80) eta gatz-zepek (27.404 t, birziklapenaren % 100) sortutako korrante nagusien taldea osatzen dute.

Pixka bat urrunago, antzeko urteko sorrera duten hainbat korrante daude: taladrina (12.760 t; birziklapenaren % 24, hondakinaren izaerak mugatuta), aluminioaren bigarren mailako ekoizpenaren galauts beltzak (11.644 t; birziklapenaren % 100), mekanizatuko lohiak (10.764 t; birziklapenaren % 4), bere izaerak mugatuta), etab.

Aparteko aipamena merezi dute bi korrante:

— EHZ 13ren barnean sartutako olioak eta hondakin oliotsuek EHZ kode ezberdinak dituzte, euren izaeraren arabera; ondorioz, ez daude bereizita sorrera handieneko korranteen artean; hala ere, guztira, 24.441 tonako urteko sorrera aurkezten dute. EHZ horretan lohi eta ur oliotsuak sartzeak sortutako osoaren ia erdiak eliminaziozko tratamendu fisiko-kimikoak jasotzea eragiten du. Zehazki, printzipioz leheneratu²³ daitezkeen halogenatu gabeko olioaren urteko sorrera 7.032 tonakoa da.

— Kutsatutako lurzoru arriskutsuak urteko ekoizpenetik kanpo dagoen korrantea dira; izan ere, iraganean gauzatutako ekintzen ondorioa dira. Nolanahi ere, bere urteko sorrera oso esanguratsua izatera iritsi daiteke (34.346 t, 2010ean) eta, nagusiki, eraikuntzaren sektorean erregistratutako jarduerara dago lotuta (ikus 7. taula).

Bestetik, 7. eranskinean, hondakinen deuseztapenaren ondorioz, historikoki kutsatutako tokiak eta horiek birgaitzeko neurriak aztertzen dira.

3.2.2.4/ Hiri-hondakinak

2010ean, EAEn, hiri-hondakinen 1.068.581 tona sortu ziren, 841.827 tona (% 79) etxeetan eta 226.754 tona (% 21) sal-tokietan, erakundeetan eta industrietan. Hori urteko etxeko zaborren 492 kg-ko per capita ratioa da, Europako 12en batezbestekoa baino handiagoa (485 kg/bizt) eta Erresuma Batua edo Danimarka bezalako herrialdeetako baino txikiagoa. Biohondakina, paper-kartoia eta edukiontziak sorrera horren bi heren dira.

Egoera ekonomikoak beherakada etengabea eragin du azken urteetan. Hala ere, beharrezkoa da prebentzio-politiken aldeko apustua egitea, 2020an ekoiztutako hondakinen % 10eko pisu-murrizketarantz aurre egin ahal izateko, 2010ean sortutakoei dagokienez, 22/2011 Legearen 15. artikuluan jaso bezala.

7. TAULA HONDAKIN ARRISKUTSUEN KORRANTE NAGUSIEN HONDAKINEN KUDEAKETA EAEN (2010). DATUAK TONATAN

EHZ	Korrante nagusiak	Birziklatzea		Balorazio energetikoa		Segurtasunezko zabortegea		Bestelako deuseztatzeak		Guztira (t)
		t	%	t	%	t	%	t	%	
10	Altzairutegietako hautsa	102.229	% 99					1.305	% 1	103.534
11	Desugerketa-azidoak	42.162	% 80					10.626	% 20	52.788
10	Aluminioaren bigarren mailako ekoizpenaren zepa gaziak	27.404	% 100							27.404
12	Taladrinak	3.082	% 24					9.678	% 76	12.760
10	Aluminioaren bigarren mailako ekoizpenaren galauts beltzak	11.644	% 100							11.644
11	Azalerako tratamenduen lohiak	470	% 4					10.294	% 96	10.764
13	Olioak eta hondakin oliotsuak	11.134	% 46	613	% 3	5	% 0	12.689	% 51	24.441
17	Kutsatutako lurzoru arriskutsuak					32.982	% 96	1.364	% 4	34.346

²³ Printzipioz leheneratu daitezkeen oliotzat jo dira honako kodeak dituzten olio-hondakina: EHZ 120107, 120110, 130100, 130110, 130111, 130112, 130113, 130200, 130205, 130206, 130207, 130208, 130300, 130307, 130308, 130309 eta 130310.

Hiri-hondakinak sorrera handieneko korranteetako bat direnez, aipatutako erronka asetzeko ahalegina handiagoa izan beharko da. Ondorioz, hiri-hondakinen arloan ezarri beharreko helburua modu linealean mugitzen da biztanleko, 2020an, 443ra iristeko itxaropenarekin. Sortutako hondakinen erdia birziklapenaren (283.132 t; % 25,56), konpostajearen (16.259 t; % 1,52) edo balorizazio energetikoaren (205.122 t; % 19,20) bidez balioztatu ziren; aldiz, beste erdia (570.617 t; % 53,40) zabortegian utzi zuten. 3.450 t soilik (% 0,32) berrerabili ziren, prestatu ondoren.

22/2011 Legearen 22.1. a) artikulua arabera, 2020 aurretik, birziklagarriak diren hiri-hondakinen % 50 berrerabilpenerako prestakuntzara edo birziklapen-prozesuetara zuzendu beharko dira. Hein handiagoan edo txikiagoan, hiru lurralde historikoetan ezartzen ari den biohondakinen gaikako bilketak eta bereizketak modu erabakigarrian eragingo dute helburu horren lorpenean. Era berean, edukiontzi arinek hobetzeko tarteak aurkeztu dute.

8. TAULA
HIRIKO HONDAKINEN SORRERA EAEN ETA EUROPAKO ERREFERENTZIAZKO
HERRIALDEETAN (2010). DATUAK TONATAN.

Herrialdea	Hiri-hondakinak (t)	Biztanleak	Kg. hiri-hondakin/bizt
Luxemburgo	385.000	502.066	767
Danimarka	3.390.000	5.534.738	612
Holanda	9.091.000	16.574.989	548
Italia	32.472.000	60.340.328	538
Portugal	5.464.000	10.637.713	514
Erresuma Batua	31.539.000	62.026.962	508
Espainia	23.198.000	45.989.016	504
Euskal Autonomia Erkidegoa	1.068.581	2.174.033	492
Frantzia	29.307.000	64.658.856	453
Alemania	36.312.000	81.802.257	444
Belgika	4.798.000	10.839.905	443
Irlanda	1.730.000	4.467.854	387
Grezia	3.954.000	11.305.118	350

9. TAULA
HIRI-HONDAKINEN SORRERA ETA AZKEN KUDEAKETA EAEN (2010). DATUAK TONATAN.

Hondakina	Berrerabiltzeko prestakuntza	Birziklatzea	Konpostajea	Balorazio energetikoa	Zabortegian uztea	Guztira	%
Papera/kartoia		162.417		40.860	114.906	318.183	% 29,78
Biohondakinak			4.357	73.339	183.734	261.429	% 24,47
Ontzi arinak		21.472		34.096	80.773	136.341	% 12,76
Beira		51.024			47.038	98.061	% 9,18
Ehun-gaiak	2.578	1.049		10.606	16.951	31.184	% 2,92
Tamaina handikoak	828	1.625		11.781	11.027	25.262	% 2,36
Zura		14.966		2.668	6.092	23.725	% 2,22
Etxetresna elektrikoak	45	3.495		1.672	8.561	13.773	% 1,29
Plastikoak		6.532		1.852	3.887	12.271	% 1,15
Lorezaintza			8.902		4.131	13.033	% 1,22
Metalak		6.263			3.504	9.767	% 0,91
Etxeko arriskutsuak		504			3.226	3.731	% 0,35
Landare-olioak		3.285			100	3.384	% 0,32
Pilak/Bateriak		429		34	2.061	2.524	% 0,24
Fluoreszenteak		71		1	7	79	% 0,01
Beste batzuk			3.001	28.214	84.619	115.835	% 10,84
GUZTIRA	3.450 % 0,32	273.132 % 25,56	16.259 % 1,52	205.122 % 19,20	570.617 % 53,40	1.068.581	% 100

3.2.2.5/ Hondakin-fluxuen etorkizuneko bilakaera

Azken urteetan, hein handiagoan edo txikiagoan, hondakin-tipologia ezberdinek beherakadak jasan dituzte euren urteko sorreran, bereziki, egoera ekonomikoa dela eta. 2007-2010 aldian, hondakin ez arriskutsuen sorrera % 20 txikitu da; hiri-hondakinena, % 13, eta hondakin arriskutsuena, % 20.

Hondakin-korrante ezberdinen 2020rako bilakaerak jarduera ekonomikoaren jokabidearen eragin handia izango du eta, bereziki, EAEko hondakinen sorreran eragin handiena duten sektoreena: siderometalurgia, pasta-papera, eraikuntza, etab.

Egunekoa bezalako egoeran, ez da erraza sektore horiek 2020an izango duten jokabideari buruzko iragarpenak egitea. Hala ere, aurreko atzeraldietan izandako esperientziaren arabera, industria-sektorearen berreskurapena horren beherakada baino mantsagoa izan ohi da; etxeetako kontsumo-maila beherakadaren antzeko abiadurarekin berreskuratu daitekeen bitartean.

Nolanahi ere, sorreraren arloan, aipatzekoa da EBk aldi honetan euren sorrera handitu dezaketen zenbait korrante identifikatzen dituela²⁴, kontsumo-joerak direla eta, batez ere. Ondorioz, beharrezkoa da prebentzio-estrategia espezifikoak gauzatea, korrante horiei dagokionez, EB horren inguruan jadanik arautzen arituta.

Aipatutako korranteak elikadurako, etxebizitzako (eraikinen eraikuntza, eraispena eta horien ekipamendua hartzen ditu barne) edo mugikortasuneko sektoreko produktuen kontsumotik ondorioztatzen dira eta, horien bilakaeraren iragarpen egokiagorik ezin bada egin ere, ekintza espezifikoaren helburu eta lehentasuneko foku dira, Planeko Prebentzio Programan. Horien artean, ondokoak nabarmenduko ditugu:

— **Biohondakinak:** Elikagaien kontsumoa % 10 handitu da 1999-2009 hamarkadan, fruituen eta barazkien kontsumoaren gorakadarekin, haragi-produktuen kontsumoaren aurrean. Aurrerantzean, ez dira aldaketa esanguratsuak espero kontsumoan, pertsonako kopuruei dagokionez, baina bai kontsumo-ereduetan, barazkiak gora egiten jarraituta, besteak beste, horien prezioaren aurreikusitako murrizketarengatik, haragiaren prezioaren aurrean, eta horren kontsumoaren sustapeneko politika publikoengatik. Seguruena, eredu horiek biohondakinen sorreraren kuantifikatu gabeko hazkundearen eragingo dute; ondorioz, frakzio hori prebentzioaren ikuspegitik landu beharreko funtsezko korrantea da.

— **EEH eta GEEH:** European Environment Agencyko (EEU) (27 herrialde) herrialdeetako eraikuntzari dagokionez,

etxeetako elektrizitate-kontsumoa % 30 handitu da 1990 eta 2007 artean, horren prezioa hainbat Estatutan handitu bada ere (Mediterraneoko hainbat herrialdeetan, Espainia barne, bikoiztu egin da, aldi horretan). Hazkunde horren arrazoietakoa bat pertsonako etxebizitza-espazioaren hazkuntza da; izan ere, hori % 15 handitu da Europako 15en artean, aldi horretan. Halaber, eta gailu elektriko-elektronikoak eraginkorragoak badira ere, etxetresnen kontsumoa, bai eta informazio- zein komunikazio- ekipamendua ere, etengabe handitu da.

2020rako esperotako joerari dagokionez, populazioaren hazkunde txikia aurreikusten da, baina bizi-itxaropenaren hazkundera lotuta, nagusiki; beraz, printzipioz, ez luke etxebizitza-azalera handitzea eskatuko. Nolanahi ere, etxebizitza gisa erabiltzeko espazioa handitzen jarraitzea eta familien batezbesteko tamaina txikitzea espero da (etxebizitza gehiago, populazio berarentzat); ondorioz, orokorrean, etxebizitzarako eraikitako azalera pixka bat handitzea espero da. Hala ere, aspektu horrek egoera ekonomikoaren eta lotutako ezjakintasunaren eragin handia du eta, hori dela eta, ezin da iragarpen doituagorik egin.

Gailu elektriko-elektronikoen kontsumoari dagokionez, International Energy Agency (IEA) (2009) erakundeak gailu elektriko-elektronikoen (telebistak eta informazio-zein komunikazio-ekipamenduak barne) erosketak eta erabilerak European azkar gora egiten jarraitzea espero du.

— **Erabiltzen ez diren ibilgailuak eta lotutako hondakinak:** Europako hiritarren mugikortasuna etengabe hazten da. Ibilgailu kilometroen kopurua % 20 handitu da 1995 eta 2007 artean eta, mugikortasun horren barnean, hazkunde handiena jasandako kategoriak hegazkina eta ibilgailua dira, ibilgailu bidezko mugimenduak egindako kilometraje osoaren % 72 izanda. Ibilgailu pribatuen erosketak (hori % 35 hazi da Europako 27en artean, 1990-2007 aldian, bereziki, Europar Batasunean sartutako Estatu berrietan erregistratutako jokabidea dela eta) eta bide-azpiegituren garapenak nabarmen eragin dute jokabide horretan.

2010 eta 2030 artean, Europako 25en artean, mugikortasunaren eskakizunaren % 30eko hazkuntza gehigarria espero da eta antzeko ereduarekin, garraibide kutsagarriaren aldeko lehentasun handiagoari dagokionez; horien artean, ibilgailu pribatuaren eskakizunaren ehuneko nabarmen txikiagoa da (EEA, 2010).

Hori dela eta, erabiltzen ez diren ibilgailuek eta horiei lotutako hondakin guztiek funtsezko rola hartzen dute prebentzio-politiketan.

²⁴ Informazioa dokumentu honetatik atera da: «European Environment. State and Outlook 2010. Consumption and the environment». Europako Batzordeak argitaratua, azaroan 2010.

Bere aldetik, sortzen ari diren hondakinen arloan, printzipioz, ez da espero inongo korrante berriak sorrera esanguratsua lortzea baina, nolahi ere, arreta berezia jarri beharko zaio fluxu berri horien kudeaketari; hala nola, itsasontzien desegitearen ondoriozko hondakinak, bioteknologiaren eta nanoteknologiaren hondakinak, hondakin aeronautikoak, nanomaterialak, bioplastikoak, konposite-hondakinak eta erretxinak, etab.

Alde horretatik, 2014rako **P-A9-1** jarduera artikulatu da: *Sortzen ari diren hondakinetarako ikerketa sustatzea, horiek zeintzuk diren, zer kopurutan sortzen diren eta zeintzuk sortzen dituzten arazo gehienak jakiteko* (Ikus jarduera 3. eranskinean: «Zeharkako jarduerak, hondakinen prebentzioaren arloan»).


Kontsiderazio horien ara bera, hondakinen arloko ekintzen plangintza aurreikusten ez duen egoeran, honako sorrera-baloreak lortu litezke (ikus 1. grafikoa).

Ikus bezala, 2020an, hondakinen frakzio ezberdinen sorrerak 5.993.208 tona ekar ditzake, eta 2007an lortutako balorea baino balore txikiagoa izango litzateke; urte hori inflexio-puntua izan zen, krisia hasi aurreko hondakinen sorrerari dagokionez.


Bere aldetik, hondakinen Planaren aplikazioa aurreikusten duen egoeran, 2020an, hondakinen sorrera 2010ekoa baino % 10 txikiagoa izan beharko litzateke, 22/2011 Legearen 15. artikuluan jasotako helburu hori barneratuta. Kasu horretan, hondakinen sorrera osoa 4.863.579 tonakoa izango litzateke (ikus 2. grafikoa).

Jarduera ekonomikoaren garapenak eta prebentzio-neurrien ezarpen-mailak EAEko hondakin-sorreraren benetako bilakaera definituko dituzte.

1. GRAFIKOA
HONDAKINEN SORKUNTZAREN BILAKAERA 2014-2020 ALDIRAKO PLANA APLIKATU GABE



2. GRAFIKOA
HONDAKINEN SORKUNTZAREN BILAKAERA 2014-2020 ALDIRAKO PLANA APLIKATUTA



3.2.3/ Existitzen diren hondakinen birziklapen-, balorizazio- eta deuseztapen-instalazio nagusiak

Egun, EAEk hondakin arriskutsuak eta ez arriskutsuak biltzeko eta tratatzeko sarea du. Halaber, hiri-hondakinak biltzeko eta tratatzeko sare espezifikoak du, lurralde historiko bakoitzerako, kasu honetan. Hala ere, hobetzeko aukerak daude, balorizazioaren arloan (ikus 10. taula).

Jarraian, hondakin-tipologia bakoitzerako existitzen den tratamendu-gaitasuna aurkezten da. Instalazio berrien beharrari buruzko analisia 4.5 «Beharrezko azpiegiturak» atalean jasotzen da.

3.2.3.1/ Hondakin ez arriskutsuak

Orokorrean, hondakin ez arriskutsuen **bilketa** modu pribatuan gauzatzen da, hondakinaren ekoizlearen eta kudeatzailearen akordioaren bidez; ondorioz, merkatuko parametroek alderdien arteko hurbiltasun geografikoko irizpideek baino garrantzi handiagoa izan dezakete.

Nolanahi ere, geografikoki kokatutako industria-hondakinen bilketak egitera zuzendutako zenbait ekimen sortzen ari dira; hala nola, «San Markos Mankomunitatea eratzen duten udaletako Industria- eta enpresa-eremuetan zein teknologia-parkeetan, hondakinen bilketa-zerbitzua arautzen duen Ordenantza»; horrek 14 hondakin-mota ezberdin hartzen ditu barne, funtsean, hirikoen antzekoak badira ere.

Kasu horietan, erronka ez datza baimendutako kudeatzaileen sarearekin estalitako bilketa-kanal berrien gaikuntzan, baizik eta bereizketa egokian, hondakinen-ekoizleen aldetik, ahal den heinean, hondakinen nahasketak saihestuta.

Hondakin ez arriskutsuen kudeatzaileek baimena eskatu behar diote ingurumen-erakundeari, euren jarduera gauzatu ahal izateko. Horrek EAEn existitzen diren **balorizazio eta eliminazio instalazio** ezberdinak inbentariatzea ahalbidetzen du, hondakin-korrante ezberdinetarako.

Dokumentu honen 10. eranskinean, existitzen diren balorizazio- eta eliminazio-instalazio zerronda sartu da, hurrengo taulak hondakin ez arriskutsuen korrante nagusien balorizazio-tratamenduaren egungo gaitasuna azaltzen duen bitartean (ikus 11. taula).

10. TAULA
EXISTITZEN DEN TRATAMENDU-GAITASUNAREN LABURPENA

Hondakin mota	Bilketa	Balorizazioa	Eliminazioa
Hondakin ez arriskutsuak	Bai	Partziala	Bai
Hondakin arriskutsuak ²⁵	Bai	Partziala	Partziala
Hiri-hondakinak	Bai	Partziala	Bai

11. TAULA
EAEKO HONDAKIN EZ ARRISKUTSUEN KORRANTE NAGUSIEN
BALORIZAZIO-TRATAMENDUAREN EGUNGO GAITASUNA

Hondakin ez arriskutsuen korrante nagusiak	Balorizazio-tratamenduaren egungo gaitasuna
Altzairugintzako zepak	% Aprox. 100
Pasta eta paper lohiak	% 40%-60
Zerrautsa eta zuraren txirbilak	% Aprox. 200
Txatarra	% Aprox. 500
Hondakin-urak tratatzeko lohiak	% 60
Galdaketako hondarrak	% 50 - % 70 ²⁶
EEH	% Aprox. 100 ²⁷

²⁵ Hondakin arriskutsuak biltzeko eta tratatzeko sarea zabala bada ere, ez dago azken prozesadorerik tipologia guztietarako. Zenbait hondakin-korrontek oso instalazio espezifikoak eskatzen dituzte; horiek lanez justifikatuko lirateke, EAEn existitzen den sorrera-bolumena dela eta.

²⁶ Autotratamendua eta berrerabiltzeko prestakuntza hartzen ditu barne.

²⁷ Ikus dokumentu honetako 4.5 atala «Beharrezko azpiegiturak».

3.2.3.2/ Hondakin arriskutsuak

Hondakin arriskutsuen **bilketa** sistematika hondakin ez arriskutsuenaren antzekoa da; hala ere, kasu honetan, ohikoagoak dira ondoren azken kudeatzaileei bidaltzen zaizkien hondakinen aldi baterako bilketan eta biltegiatzean aritzen diren transferentzia-zentro deitutakoak.

Kasu honetan ere, erronka ez datza bilketa-kanalen gaitzuntzan, baizik eta bereizketa egokian eta baimendutako kudeatzaileari entregatzean, hondakin arriskutsuen ekoizle guztien aldetik. Alde horretatik, hobetzeko tartea dago hainbat korrontetan; hala nola, amalgamak eta merkuriodun urak, termometroak eta merkurioa duten laborategiko produktuak, nekazaritzako eta abeltzaintzako instalazioetako hondakin fitosanitarioak²⁸ eta zoosantarioak, etab.

Kasu honetan ere, kudeaketa-eragiketak aplikatu ahal izateko baimena izateko beharrak **balorizazio eta elimi-nazio instalazioen** inbentarioa izatea ahalbidetzen du; hori dokumentu honetako 10. eranskinean sartzen da.

Hurrengo taulak egun hondakin arriskutsuen korronte nagusietarako existitzen den balorizazio-tratamenduaren gaitasuna laburtzen du (ikus 12. taula).

Beste korronte nagusi batzuen izaerak (hala nola, taladri-nak, azalerako tratamenduetako lohiak edo kutsatutako lurzoru arriskutsuak) balorizazio-tratamenduak aplikatzeko aukerak murrizten ditu.

3.2.3.3/ Hiri-hondakinak

Bilketa sistemen arloan, **edukiontzia** da aukera zabalduena, egun, frakzio organikoaren, beiraren, edukiontzien, paper-kartoiaren, olio begetalaren, pilen, frakzio bererabilgarriaren (arropa, zapatak eta bestelako osagarriak, etxetresna txikia, liburuak, jostailuak, etxeko hornidura eta bazarreko bestelako objektuak) gaikako bilketarako eta

bereizketarako eta gainontzeko frakzioaren masazko bilketarako unitate zehatzak egonda.

Bilketa bakoitzaren ezarpen-maila eremu geografikoaren arabera aldatzen da. Edukiontzia bidezko bilketaren arloko esperientzia berritzaileetako bat «berrerabiltze-edukiontzia edo edukiontzi zuria» deitutakoa da; hori jadanik ezarri da edo ezartzen ari da Euskal Autonomia Erkidego osoko zenbait udaletan, eta horri esker, bereziki, berrerabilpena edo, bestela, birziklapenera zuzendutako ehun-gaiak, zapatak, liburuak, jostailuak, etxeko hornidura eta etxetresna txikiak berreskuratzen dira.

Atez ateko bilketa une zehatzetan aplikatu da urteetan zehar zenbait frakzioetan; hala nola, jatorri komertzialeko kartoia edo beira edo bolumen handiko tresna jakin batzuk. Hala ere, azken urteetan, etxeko hondakin guztietarako ezartzen hasi da, Gipuzkoako Lurralde Historikoan, batez ere.

Tamaina handikoen eta GEEHen kasuan, gehien erabiltzen den bilketa-sistema kalean uztea, kutxa irekiko kamioi baten bidez jasotzea eta metatzea da, udal-erakundeek antolatua.

Beste esperientzia batzuetan, bilketa-kontzeptua desagertu egiten da; izan ere, ekoizleak hartzen du bere gain hondakinen garraioa. Horien artean, nabarmentzekoak dira:

- Hondakin organikoen autokonpostajea eta erkidegoko konpostajea, prebentzio gisa ulertuta.
- Bolumen handikoak, etxeko arriskutsuak (fluoreszenteak, margoak...), hondakin elektrikoak eta elektronikoak bezalako hondakinak bereizten dituzten garbiguneak.
- Saltokian entregatzea eta hornitzaileari itzultzea.

Edozer kasutan, hobekuntza-tartea antzematen da zenbait frakzio bilketa-sistemetan; hala nola, herritar-mailan sortutako egiturazko fibrozementua, biohondakinak, margoen soberakinak, berrerabili daitezkeen objektuak (ehun-gaiak, jostailuak, liburuak, etab.), olioak, etab.

12. TAULA

EAEKO HONDAKIN ARRISKUTSUEK KORRONTE NAGUSIEN BALORIZAZIO-TRATAMENDUAREN EGUNGO GAITASUNA

Hondakin arriskutsuen korronte nagusiak	Balorizazio-tratamenduaren egungo gaitasuna
Altzairutegietako hautsak	% 150-160
Desugerketa-azidoak	% 190-200
Aluminioaren bigarren mailako ekoizpenaren zepa gaziak	% 0 ²⁹
Aluminioaren bigarren mailako ekoizpenaren galauts beltzak	% 410-420
Olio ez halogenatuak	% 400-450

²⁸ Hondakin fitosanitarioak ez arriskutsuak ere izan daitezke, produktuaren berezko ezaugarrien arabera. Beraz, produktu fitosanitarioen ontzien hondakinak arriskutsu edo ez arriskutsu gisa sailkatu beharko dira, Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko 22/2011 Legeko 6. artikulua arabera.

²⁹ Egund, balorizatzaile bakarra dago estatu mailan eta, EAEn, aluminioaren bigarren fusioko gatz-zepak tratatzeko instalazioa legezatzeko prozesuan dago.

Sorreratik tratamendu-instalaziora arteko hondakinen **garraioari** dagokionez, **errepide bidezko garraioa** da baliabide ohikoena; nolana ere, azken urteetan, **garraio pneumatikoko** hainbat sistema ezarri dira; adibidez, Gasteizen, Barakaldon, Agurainen, etab.

Balorizazio eta eliminazio instalazioen hedapenak Hiri Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Foru Planei erantzuten die, eta Lurralde Historikoen arabera antolatzen da. Planaren 10. eranskinean, existitzen diren instalazio nagusien zerrenda sartu da.

2016rako, hiri-hondakinen arloan, lurralde-planen ikerketatik abiatuta lortutako instalatutako tratamendu-gaitasunari dagokionez, EAEn, 470.000 tonako tratamendu mekaniko biologikoko gaitasuna izango da³⁰; hori nahikoa da Planean jasotako aurreikusitako sorrerarako eta helburuak betearazteko.

Hiri-hondakinen kudeaketari buruzko balantze globala egin da, zenbait aspektu kritiko aurkezten dira lege-betekizunen betearazpenari dagokionez (edukiontzien birziklapena, etxeetatik ateratako GEEHen gaikako bilketa, Hiri Hondakinaren isuria, Hiri Hondakinaren birziklapen-tasa, lehen mailako hondakinen isuria). Aspektu horiek egungo azpiegituren lurralde-plangintzaren eta Planean jasotako jardueren arabera konpontzea espero da.

GEEHen urteko 4kg/biztanleko gaikako bilketari dagokionez, nabarmentzekoa da, Bizkaiko Lurralde Historikoan jadanik betetzen ari direla betekizuna eta, Plan honetan, 3 Lurralde Historikoetan aipatutako baldintza betetzera eramatea espero den balore-katearen hainbat eragileekiko jarduerak jasotzen direla.

Edukiontzien birziklapenari dagokionez, zehaztugabetasunak daude datuetan, eta horiek helburuaren benetako betearazpen-maila ez ezagutzea eragiten dute. Beraz, jarduera bat proposatzen da Ecoembesekin, aipatutako arazoa konpontzeko, bai eta beharrezkotzat jotako jardueren proposamena ere, 3 Lurralde Historikoetan betetzea lortzeko.

Hiri Hondakinaren isuriaren inguruko lege-betekizunen edo plangintzako betekizunen betearazpenari dagokionez, orokorrean, ezberdintasuna aurkezten dira 3 Lurralde Historikoetan:

- Arabaren kasuan, jadanik eraiki dira planifikatutako beharrezko azpiegiturak. Nolanahi ere, HHen isuriaren inguruko betekizunak ez dira beteko taldeek euren hondakinak TMBra bidali arte; beraz, jarduerak norabide horretan zuzendu behar dira.
- Bizkaiaren kasuan, azpiegiturak ere garatuta daude eta, TMBko instalazio berriarekin, helburua betetzea espero

da. Ondorioz, betearazpen horren jarraipen zehatza egin beharko da, izan litezkeen desbiderakuntza detektatu ahal izateko.

- Gipuzkoaren kasuan, oraindik ez dira azpiegitura guztiak garatu, baina planifikatuta daude. Aipatutako plangintzarekin, 2016an, proposatutako helburuak beteko lirateke (ikus atal 4.5.1.4).

Labur esanda, EAEn, hondakin-tipologia guztien balorizaziorako edo kudeaketarako existitzen diren azpiegiturari dagokionez, aipatzekoa da, **EAEn sortutako zenbait hondakin ez arriskutsuren** balorizaziorako edo eliminaziorako aipatutako azpiegiturarik gure Autonomia-erkidegoan ez izateak euskal enpresen lehiakortasunari eragiten diola; izan ere, beste autonomia-erkidego batzuetara edo atzerrira eramane behar dituzte euren hondakinak.

Hondakin arriskutsuen beste korrante batzuetarako ere ez dago azpiegiturarik (hala nola, kutsatutako lurzorua eta aluminioaren bigarren fusioko zepak) baina, bideragarritasun tekniko-ekonomikoaren eta ingurumen-bideragarritasunaren azterketa egokiak egin ondoren, Eusko Jaurlaritzak aipatutako azpiegiturak ekimen publikoaren bidez ez laguntzea erabaki zuen; izan ere, instalazio sortzaileen kopuruak edo izaera horretako sortutako urteko hondakinen bolumenak ez zuen laguntza publiko hori justifikatzen.

Aldiz, altzairugintzako hautsek eragindako problematikari dagokionez, aipatutako korrontearen sorrera handia, ingurumen-problematika, eragindako instalazioen kopurua eta Zn-ren eta Pb-ren balorizazioaren bideragarritasun tekniko-ekonomikoa direla eta, 1993an, Eusko Jaurlaritzaren eta altzairutegien arteko hitzarmena gauzatu zuten, Zn-ko >% 15eko edukia zuten altzairugintzako hautsak birziklatzeko. Egun, altzairugintzako hautsen % 99 birziklatzen da.

Atal honetan azaldutako datuen arabera, beharrezkoak izan daitezkeen instalazioen eta azpiegituren analisia 3.2.3 «Hondakinaren birziklapen-, balorizazio- eta eliminazio-instalazio nagusiak» atalean egiten da. Eta 4.5 «Beharrezko azpiegiturak» atalean.

Jatorrian bereizketa hobe izan ohi duten bilketa-sistemetan egindako hobekuntzek kalkulaturako balorizazio-gaitasuna zabaltzeko beharra eragin dezakete, hondakinaren kategoria guztietan.

Atal honetan azaldutako datuen arabera, beharrezkoak izan daitezkeen instalazioen eta azpiegituren analisia 4.5 atalean eta 10. eranskinean egiten da.

³⁰ 120.000 tona Araban, 180.000 tona Bizkaian eta 170.000 tona planifikatu dira Gipuzkoan.

3.2.4/ Egun erabiltzen diren tresnak eta horien balorazioa

Honakoaren aurreko hondakin arriskutsuak eta ez arriskutsuak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planek hainbat tresna diseinatu zituzten, euren helburu estrategikoak betetzea lortzeko. Horien artean, ondokoak nabarmentzen dira:

Arau-tresnak

«Eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duen ekainaren 26ko **112/2012 Dekretuaren» onespenera** sektore hori arautzeko ezinbestekoak diren zenbait neurri gorpuztuz legala ematea ahalbidetu du.

Halaber, laugarren azken xedapenaren bidez, «zabortegian gordetzearen bidez eta betegarrien gauzapenaren bidez, hondakinen eliminazioa arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretua» aldatzen du; horrek betegarrien baimen-erregimena hobetzea ahalbidetu du.

2012an argitaratutako Euskadiko **Errepide Sarearen zoruaren dimentsionaketarako Arauaren** azterketan, zagarren eraikuntzako eta eraispenerako hondakinetatik ateratako agregakinetarako eta aldapetarako eta hobetutako zelaiguneetarako hautatutako lurzorua bezalako eraikuntzako eta eraispenerako hondakinetatik ateratako agregakinetarako bi eranskin sartu dira.

Eragileen arteko koordinaziorako tresnak

Hiri Hondakinak Koordinatzeko Organoa (HHKO) funtsezko tresna izan da, hiri-hondakinen arloan. Hiru Foru Aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren parte-hartzearekin, maila teknikoan zein politikoan egindako bilerek eremu horren inguruko jarduerak koordinatzea ahalbidetu dute, eskumen ezberdinetatik abiatuta. Koordinazio-erakunde nagusia izaten jarraituko du, hiri-hondakinen arloan.

Hezkuntza Sailarekin hezkuntza-zentroetan sortutako hondakin arriskutsuen kudeaketaren inguruan izenpetutako hitzarmenak hainbat ekoizle berriren legalizazioa eta, baimendutako kudeatzaileen zirkuituan, aurretik behar bezala kudeatzen ez ziren hainbat korrante sartzea eragin du.

Era berean, osasun-hondakinen eta osasun-zentroen hondakinen kudeaketa-planen inguruan, **Osasun Sailarekin** izandako lankidetzak hainbat zentroyen legalizazioa eta aipatutako zentroetarako izapide administratiboen sinplifikazioa ekarri ditu.

Beste Sail batzuekiko koordinazioa interes handiko lan-ildo gisa ikusten da.

Hondakinak sortzen dituzten sektore nagusiekin (IPPC Zuzentzarauak eragindako sektoreak) egindako **borondatezko**

hitzarmenak ezarritako helburuen betearazpenean aurrera egiteko tresna nagusietako bat bezala eman da ezagutzera aurreko urteetan. Egoera ekonomikoak eremu horretan sakontzeko aukera geldiarazi du; baina ustiari beharrek bideetako bat bezala identifikatzen da.

Sentsibilizazio-, trebakuntza- eta informazio-tresnak

Jardunbide egokien arloko aldizkako argitalpenek hondakinei lotutako problematikaren inguruan ekoizleen beharrezko sentsibilizazioa mantentzea ahalbidetzen dute. Bereziki legegintzako berritasunei lotutako trebakuntza espezifikoko harrera ona aurkezten du, besteak beste, eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen inguruan garatutako foroek eta jardunaldiak erakutsi bezala.

Hainbat **kontzientziazio-, sentsibilizazio- eta aholkularitza-tresna** garatu dira (enpresa- zein tokiko eremuan) hondakinen prebentzioaren eta kudeaketaren arloan; hala nola, enpresen arteko lankidetzako proiektuak, instalazioko aholkularitzak, trebakuntza-jardunaldiak eta ikastaroak, biltzarrik, lantalde espezializatuak, ingurumen-kudeaketako sistemak ezartzeko laguntza (Ekoscan, ISO 14.001, EMAS)...

Ikerkuntzako, berrikuntzako eta ezagutza sortzeko tresnak

Ikerkuntzaren eta berrikuntzaren inguruko jarduerak hondakin-korrante espezifikoko baliozatzeko irtenbide teknologikoak bilatzera zuzendutako **erakustaldi-proiektuak** ekarri dituzte berekin.

Bere aldetik, **ekodiseinuaren** aldeko apustua kontsolidatu da, Basque Ecodesign Center zentroaren sorrerarekin, besteak beste. Sustantzia arriskutsuen murrizketa eta material birziklagarrien eta birziklatuen erabileraren gorakada ekodiseinuak hondakinen kudeaketa-hierarkiaren aplikaziora ekarritako bide nagusietako bi dira.

Ezagutzaren sorreraren arloan, honako **dokumentu hauek** nabarmentzen dira, besteak beste:

- EAEko obra publikoetan agregakin birziklatuak kontratatze eta erabiltzeko zuzentzarauen eskuliburua.
- EEHak kudeatzeko planak gauzatzeko eskuliburua.
- Hiri-eremuk hirigintza-lanetarako erosketa publiko berdearen irizpideei buruzko dokumentua.

Tresna ekonomikoak

Erakunde publikoentzako eta enpresentzako hondakinen inguruko **diru-laguntzak** mantendu dira, Ingurumen Sailburuordetzaren ingurumena babesteko babes-proiektuak garatzeko urteko laguntzen bidez. Modu osagarrian, zenbait jarduera Eusko Jaurlaritzaren beste Sail batzuen (Hezkuntza, Industria) zein beste administrazio batzuen (EBkoak, bereziki)

laguntza ekonomikoari (I+G, diru-laguntzak, hitzarmenak) esker izan dira posible.

Teknologia Garbien Euskal Zerrendaren eguneraketak zerrenda horri lotutako desgrabazioari etekina atera diezaioketen hondakinen prebentzioaren eta kudeaketaren arloko teknologien kopurua handitzea ahalbidetu du.

Bi tresnak hondakinen arloko ingurumen-hobekuntza sustatzeko duten erabilgarritasunarengatik mantentzen dira, baina sorrera- edota isuri-tasen azterketan eta aplikazioan sakontzeak, balorizazioarekiko lehiakortasuna sailhesteko zabortegetako prezioen kostuak barneratzeak eta berme luzatuak dituzten produktuak faboratuko dituzten beste tresna ekonomiko batzuen analisiak garrantzia hartzen dute, besteak beste.

Zaintzarako eta kontrolerako tresnak

Posible bada, zaintzeko eta kontrolatzeko beharrak are indar gehiago hartu du Omnibus deitutako Zuzentarauaren printzipioak hondakinen mundura eramane zutenetik, 22/2011 Legearen bidez, adibidez, hondakinekin zerikusia duten zenbait jarduera garatzeko beharrezko izapide bezala, aurretiazko komunikazioa gaituta.

«2011-2018 aldirako EAEko Ingurumen Ikuskapen eta Kontrol Planaren» onespenak hurrengo urteetan garatu beharreko jarduerak egituratzea ahalbidetu du, egoera legar berria kontuan hartuta, besteak beste.

Beste aldetik, beste ikuskapen-programa zehatz batzuk gauzatzen dira, EEHen, GEEHen, hondakin metalikoen kudeatzaileen, txatartegien, eta abarren arloan, behar zehatzen arabera.

Esparru horretan, beharrezkoa izango da koordinazio- eta ikuskaritza-jarduerak bultzatzea, Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioarekin eta Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioarekin (Zerga Agentzia, Aduanak eta Portuak) izandakoak bezala, hondakinen inportazioaren eta esportazioaren kontrola hobetzeko.

Tresna horrek garrantzia hartzen du, hondakinen kudeaketa Hondakinen Planean aurreikusitako bideen bitartez kanalizatzena begira.

Informazioaren eta eragileen arteko informazioaren bilketa- eta kudeaketa-tresnak

Eusko Jaurilaritzaren hondakin arriskutsuen eta ez arriskutsuen eta Foru Aldundiaren hiri-hondakinen urteko inbentarioen prestaketak korrante horien bilakaera kuantifikatzea, bereiztea eta aztertzea ahalbidetu du.

Urteko inbentarioak Planaren betearazpen-mailaren jarraipen- eta eguneraketa-lana egiteko oinarria izan behar dira.

Aurrerapen horiek izanda ere, beharrezkoa da informazio-, trazabilitate- eta gardentasun-helburuak lortzea ahalbidetuko duten hobekuntzak egiten jarraitzea, eragileetan ahalik eta inpaktu txikiena eraginda (ekoizlea, garraiolaria, kudeatzailea, administrazioa, etab.). Gailu elektrikoak eta elektronikoak edo mugaz bestaldeko mugimenduek eragindako hondakinak bezalako zenbait korrontek dituzte hobekuntza-tarte handienak.

Baliabideak informazioa lortzera eta berehala garbitzera zuzentzeak urteko inbentarioak egitea ahalbidetuko du, ikertutako urtearen amaieraren hurrengo hilabeteetan, eta horrek hobekuntza-neurriak errealitatera hobe egokitzea ahalbidetuko du.

Era berean, hobekuntza-bideak detektatzen dira erakundeen arteko informazioaren koordinazioan, autonomia mailan, zein estatu edo Europa mailan. Hondakinen sailkapen ezberdinen homogeneizazioa eta sistema informatikoen bateragarritasuna dira bi erronka nagusiak, «Hondakinen estatistikei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 215/2002 Araudiak» eta horren ondorengo aldatetek horretarako esparrua eratuta.

3.2.5/ Aurreko planetako ebaluazioaren ondorioak

«2009-2012 aldirako EAEko Hondakin ez Arriskutsuen Prebentzio Planak» eta «2008-2011 aldirako EAEko Hondakin Arriskutsuen Prebentzio Planak» EAEn Administrazio orokorraren hondakinei buruzko ibilbide-orria diseinatu dute azken urteetan.

Bere aldetik, 2008an, «EAEn hiri-hondakinak planifikatzeko eta kudeatzeko jarraibideen» dokumentua onartu zuten; horrek 2016ra arte indarrean dauden hiri-hondakinak prebentzeko eta kudeatzeko foru-planetan jasotakoa osatzen du.

Plan horiek egungo egoera ekonomikoa hasi aurretik idatzi ziren. Orokorrean, baliabideen murrizketak garatu beharreko jardueren minimizazioa eragin du, lortu beharreko helburuei buruzko ondoriozko eraginarekin. Aipamen berezia merezi dute sorrera handieneko hondakin ez arriskutsuei lotutako hondakinek; horien formulazioa egoera ekonomikoak larri eragindako dagozkien jarduera-sektoreekin izenpetu beharreko borondatezko hitzarmenetan oinarritu zen.

3.2.5.1/ 2009-2012 aldirako hondakin ez arriskutsuak prebenitzeko eta kudeatzeko plana

1. HELBURU ESTRATEGIKOA/

HONDAKINEN SORRERA PREBENITZEA, GAUR EGUNGO EKOIZPENA EGONKORTUZ

	Sorrera:	HEA tonak/Industria BPG, 2010eko merkatu-prezioetan:
Adierazleak	2007: 3.483.715 t	2007: 282,50
	2008: 3.345.346 t	2008: 269,36
	2009: 3.030.746 t	2009: 212,39
	2010: 2.794.198 t	2010: 199,84

Azterketa

- Ez da egonkortzea ikusten, baizik eta ekoizle ezberdinek hartutako neurriei zein egoera ekonomikoari lotutako hondakin ez arriskutsuen urteko sorrera.
- Erakustaldi-proiektuak, Teknologien Euskal Zerrendari lotutako kenkariak edo jarraibide teknikoaren argitalpenak bezalako hainbat tresnek arlo horretan aurrera egiten lagundu dute.

2. HELBURU ESTRATEGIKOA/

HONDAKIN EZ ARRISKUTSUEN % 75EKO BALORIZAZIO MATERIAL TASA LORTZE ETA EEH-EN % 70EKOA, BAITA TRATATU GABEKO HONDAKINAK EZ BOTATZEA ERE.

	HEA materialaren balorizazioa:	EEH materialaren balorizazioa:
Adierazleak	2007: % 66	2009: % 52 (kalkulua)
	2008: % 67	
	2009: % 63	
	2010: % 46	

Azterketa

- Balorizagarrienak diren korronteen ekoizpenaren murrizketak modu esanguratsuan eragiten dio balorizazio eraginkorraren murrizketari.
- Egoera ekonomikoak merkatuko prezioetan izandako eraginak askotan hondakinak zabortegean uztea ekonomikoki aukera interesgarriena izatea eragin du; horregatik, euren bideragarritasuna arriskuan ikusten zuten hainbat enpresek aukera hori hautatu dute.
- Modu esanguratsuan nabarmentzen da euskal erakunde ezberdinen apustua aldizkako inbentarioen pres-takuntzan, arautu aurreko garapenen gauzapena, araudiaren onarpena, irizpide teknikoak hartzea, sentsibiliza-zioa, etab. Jarduera horiek EEHen balorizazio-tasaren hobekuntza eragiten dute, besteak beste; nolahi ere, beharrezkotzat jotzen da erosketa publiko berdearen sustapena azpimarratzea.
- Emaizta arrakastatsuak izan dituzten erakustaldi-proiektuak gauzatu dira (ikus erakustaldi-proiektuen zerrenda, 11. eranskinean).

3. HELBURU ESTRATEGIKOA/

EKOIZLE GUZTIEI HONDAKIN EZ ARRISKUTSUAK KUDEATZEKO ZERBITZU ERAGINKORRA EMATEA

Adierazleak	— 240 kudeaketa-baimen, aldaketa eta berrikuntza; horietako 145 kudeatzaile berriei dagozkie.
	— Ekoizlearen Erantzukizun Luzatuko 19 Sistema Kolektibok - EELSK (aurretik KSI) egin dute alta aldi horretan: 17 arriskutsuak eta ez arriskutsuak izan daitezkeen hondakineterako (edukiontzien 4, pilen 4 eta GEEHen 9) eta 2, hondakin ez arriskutsuetarako (erabiltzen ez diren pneumatikoak).

Azterketa

- Besteak beste, metala, zura, plastikoa eta paper-kartoia kudeatzeko baimen berrien esleipenak existitzen diren balorizatzaileen sarea zabaltzea ahalbidetu du; ondorioz, aurrera egin da zerbitzuaren unibertsalizatorantz eta kudeaketa-aukeren hobekuntzarantz, edozer ekoizleren aldetik.
- Hondakinak zabortegean uztearen kostuei buruzko aipatutako egoerak helburu horrek nahi izandako ibilbidea ez lortzea eragin du.
- Eraikuntzako eta eraispeneko hondakin arloan garatutako lana nabarmentzen da (araudiaren onarpena, foroak, erakustaldi-proiektuak, etab.).

4. HELBURU ESTRATEGIKOAV

**BALORIZA EZIN DAITEKEENA BAKARRIK BOTATZEA ZABORTEGIETAN, MODU SEGURUAN,
BURUJABETZA ZIURTATUTA**

	HEZak zabortegian eliminatzea	EEHak zabortegian eliminatzea:
Adierazleak	2007: % 31 2008: % 29 2009: % 34 2010: % 49	2009: % 48 (estimatu)

Azterketa

- Hondakinak zabortegian uztearen kostuei buruzko aipatutako egoerak helburu horrek nahi izandako ibilbidea ez lortzea eragin du
 - Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen arloan garatutako lana nabarmentzen da (araudiaren onarpena, foroak, erakustaldi-proiektuak, etab.); horrek aurrerapen handia eragin du sektorean.
-

3.2.5.2/ Hirietako hondakinak planifikatzeko eta kudeatzeko ildoak

1. HELBURU ESTRATEGIKOAK/ PREBENTZIOA SUSTATZEA, GARAPEN IRAUNKORRAREN OINARRI GISA

Adierazleak	HHen sorrera:	2007: 1.224.514 t
		2008: 1.173.274 t
		2009: 1.108.692 t
		2010: 1.068.581 t

Azterketa — EAEko Hiri Hondakinen Koordinazio Organoaren bidez, udal mailan, prebentzio-neurriak hartzea sustatu da, bai eta horiek antzematea eta ikustea ere, Europako Prebentzioaren Asteko parte-hartzearen bidez.

2. HELBURU ESTRATEGIKOAK/ GAIKAKO BILKETAREN ETA BIRZIKLAPENAREN KOTA HANDIAGOAK LORTZEA, MATERIA ORGANIKOA BARNE

Adierazleak	HHen birziklapena (gaikako bilketa eta bereizketa):	2007: % 31
		2008: % 32
		2009: % 32
		2010: % 31

Azterketa — Lortutako ratioek gelditasuna azaltzen dute birziklapen-tasan, baina Foru Aldundi ezberdinek materia organikoaren gaikako bilketara zuzendutako bultzada teknikoak eta ekonomikoak ehuneko horren hobekuntza ahalbidetzea espero da; hori nabarmen sendotuko litzateke, ekoizle handiekin hitzarmenak ezarrita (supermerkatu handiak, elikadura-enpresak, jantokiak, etab.)

— Eraitza arrakastatsuak izan dituzten erakustaldi-proiektuak gauzatu dira (ikus erakustaldi-proiektuen zerrenda, 11. eranskinean).

3. HELBURU ESTRATEGIKOAK/ MASAZKO ZABORRAREN KUDEAKETA BALORIZAZIO GEHIENeko IRIZPIDEETARANTZ ZUZENTZEA

Adierazleak	Balorizazio-gaitasuna:	2007: 350.000 t
		2008: 350.000 t
		2009: 350.000 t
		2010: 350.000 t
		2013: 530.000 t

Azterketa — 2010era arteko balorizazio-gaitasunaren datuek islatzen duten gelditasuna hobetu egin da 2010-2013 aldian. Egun, Lurralde Historiko bakoitzak aurrera egin dut tratamendu mekaniko-biologikoaren (TMB) aplikazioan. Horrela, Gasteizeko instalazioaren funtzionamendua hobetu da, Bizkaiko instalazioa ireki da 2013an eta Gipuzkoak mota horretako instalazio berriak eraikitzea aurreikusten du, bere planaren eguneraketan.

— Aldi berean, azken urteetan frakzio organikoaren gaikako bilketa sustatu da 3 Lurralde Historikoetan, atez ateko bilketaren edota bosgarren edukiontzien bidez.

3.2.5.3/ 2008-2011 aldirako hondakin arriskutsuak prebenitzeko eta kudeatzeko plana

1. HELBURU ESTRATEGIKOAK

HONDAKINAK SORTZEARI ETA HORIEN ARRISKUGARRITASUNARI AURREA HARTZEA

	Adierazleak:	HA tonak/Industria BPG, 2010eko merkatu-prezioetan ³¹ :
Adierazleak	2007: 456.853 t	2007: 34,06
	2008: 412.128 t	2008: 31,20
	2009: 306.332 t	2009: 20,39
	2010: 367.500 t	2010: 23,22

Azterketa

- 2007 eta 2010 artean, sortutako hondakin arriskutsuen murrizketa esanguratsua gertatu da, hartutako prebentzio-neurrien eta jarduera ekonomikoaren beherakadaren ondorioz.
- Prebentzio kuantitatiboa erakustaldi-proiektuen, ekodiseinuko esperientziaren, I+G+bko inbertsioaren eta laguntza ekonomikoen bidez bultzatu da (diru-laguntzak edo Teknologia Garbien Euskal Zerrendari lotutako desgrabazioak). Diru-laguntzen ondorioz, 220.00 t hondakinen sorrera murriztu da; horien % 34 hondakin arriskutsuei dagokie.
- Arriskugarritasunaren prebentzioaren arloan, egungo planaren bezpera gisa balio duten merkurioari buruzko ikerketa zehatzak egin dira (HG hondakinekin zerikusia duten neurriak).

2. HELBURU ESTRATEGIKOAK

HONDAKIN ARRISKUTSUEN BALORIZAZIO MATERIALARI DAGOKIONEZ, % 65EKO TASA LORTZEA, ETA KUDEAKETAREN HIERARKIA BETETZEN DELA ZIURTATZEA

	Balorizazio materiala:
Adierazleak	2007: % 48
	2008: % 60
	2009: % 63
	2010: % 63

Azterketa

- Sektore siderometalurgikoko korrante handien jokabideak (altzairugintzako hautsak, aluminioaren bigarren fusioko gatz-zepak, desugerketa-azidoak, etab.) helburu hori lortzea ahalbidetu du.
- Aurreko urteetan, ekoizpen-sektore jakin batzuekin lotutako hitzarmenek emaitza horiek lortzen lagundu dute; hala nola, altzairugintzako hautsekin.
- Balorizazioa bideragarria denean, eliminazio-eragiketarako aplikatzeko debekuak (ekoizleen baimenetan zehazki sartua) hondakinen kudeaketa-hierarkiaren betearazpenean aurrera egitea ahalbidetu du. Emaitza arrakastatsua izan dituzten erakustaldi-proiektuak gauzatu dira (ikus erakustaldi-proiektuen zerrenda, 11. eranskinean).

³¹ Kalkulu horietarako, ez dira hondakin historikoak kontabilizatzen; izan ere, ez daude uneko urteko aberastasunaren sorrerari lotuta.

3. HELBURU ESTRATEGIKOAK

EKOIZLE GUZTIEI HONDAKIN ARRISKUTSUAK KUDEATZEKO ZERBITZU ERAGINKORRA EMATEA

Adierazleak

- Aldi baterako 10 biltegitratze-instalazio berri
- Aldi baterako biltegitratze-zentroen 2 zabalkuntza.
- 6 tratagailu berri, horietako 4 IPPC dira.
- EElen 7 tratamendu-instalazio berri
- 13 kudeatzaile-biltzaile baimen berri.
- GEEHen Multzokatze Zentroen 20 inskripzio, aurreko Planean ezarritakoaren arabera³².
- Ekoizlearen Erantzukizun Luzatuko 19 Sistema Kolektibok - EELSK (aurretik KS) egin dute alta aldi horretan: 17 arriskutsuak edo ez arriskutsuak izan daitezkeen hondakinetarako (edukiontzien 4, pilen 4 eta GEEHen 9) eta 2, hondakin ez arriskutsuetarako (erabiltzen ez diren pneumatikoak).
- 2007tik aurrera, unibertsitateak ez diren eskoletan jasotako 170 t.
- Ekoizle Txikien izapidetutako 3.129 inskripzio.

Azterketa

- Kudeaketa-eskaintzan erregistratutako zabalkuntzak (aurreko zutabean jasotakoaren arabera) hondakin arriskutsuen kudeaketako zerbitzu eraginkorrerako sarbidearen unibertsalizaziorantz aurrera egitea ahalbidetu du, ekoizle guztientzat.
- Hondakin arriskutsuen ekoizle txikien 3.129 inskripzio berri bideratu dira. Alde horretatik, Hezkuntza Ministerioarekin izenpetutako hitzarmenaren bidez, eskolekin izandako esperientzia oso ona izan da.

Aurreko Planen emaitzen baloraziotik, egungo Planaren garapenean ikaskuntza gisa integratzen diren zenbait ondorio ateratzen dira, **Arrakastaren Faktore**

Kritiko gisa:

- Adierazle absolutuen aurrean, adierazle erlatiboen ezarpenak Planaren emaitzen analisia ahalbidetuko du, egoera ekonomikoa edo joera-aldaketak kontuan izan gabe.
- Planaren jarraipen-sistemaren eta horren erantzukizunen eta baliabideen esleipenaren definizio zehatza funtsezkoa da desbiderakuntzen detekzio berankorra saihesteko (egoera ekonomikoen ondorioz, batez ere) eta horiek beharrezko tartearekin zuzentzea ahalbidetzeko.

- Euren urteko kudeaketa-planetan zehaztutako jardueren integrazioarako, eragileen arteko urteko koordinazioaren plangintza egokia funtsezko elementua izango da neurrien benetako ezarpenerako.
- Hondakin-kategoria guztien inbentarioak urtero eta sorreraren hurrengo ekitaldiaren erdialdean izatea ezinbestekoa izango da egoeraren diagnostiko zehatza egiteko eta Planaren desbiderakuntzak goiz detektatzeko, bai eta kalkulu-moduen harmonizazioari ekiteko ere, inplikaturako eragile guztien aldetik (Planaren B-A1-1 jarduera).
- Beharrezkoa da zabortegiko eliminazioaren murrizketa eta, ondorioz, aukera hobek hartzea, ingurumenaren ikuspuntutik; ondorioz, arlo horretan esku hartzeak emaitzak hobetzea espero izanda.

³² 22/2011 Lege berriaren arabera, zentro horiek baimenak izapidetu behar dituzte, kudeatzaile gisa.



**4. / PLAN-
/ GIN-
/ TZA**

4.1/ ETORKIZUNEN JOERAK

Hondakinen arloan, hurrengo urteetan gauzatu beharreko jardueren plangintza ez da egungo egoeran soilik oinarritu behar; aldiz, aurreikus daitekeen aldagai ezberdinen bilakaera izan behar du kontuan, planaren indarraldian zehar.

Horrela, **hondakinen sorreraren** aurreikuspena konpondu beharreko gakoetako bat da, baina, 3.2.2.5 Hondakin-fluxuen etorkizuneko bilakaera atalean aipatu bezala, ez da espero krisi ekonomikoa hasi aurreko urteetan lortutako sorreratuak gainditzea.

Indarreko **lege-esparrua** planaren definizioan benetako intzidentzia handienetakoa duen aldagaietako bat da, seguruenik. Hondakinen Esparru Zuzentzailearen politika berriak estatuko esparru juridikoan birlantatzen dituen «Hondakinen eta kutsatutako lurzoruen uztailaren 28ko 22/2011 Legearen» planteamenduak hurrengo urteetan landu behar dira; ondorioz, plan honek erronka horiei erantzun beharko die. Horien artean, prebentzioa eta zabortearen uztearen aurkako borroka nabarmentzen dira.

HEZren printzipioen translazioa ez da 22/2011 Legean bakarrik jasotzen; aldiz, hondakin elektrikoak eta elektronikoen edo pila eta metagailuen ingurukoak bezalako hainbat sektore-araudik ere sustantzia arriskutsuen erabileraren arloko prebentzioari buruzko kudeaketako eta obligazioetako helburu zehatzak hartzen dituzte barne; ondorioz, sektore-mota horien bilakaera espero da hurrengo urteetan.

Korronte jakin batzuen (jadanik onartutako beira eta altzairu-txatarra, aluminioa eta kobrea; prestakuntza-fasean dauden konposta eta papera) gaineko hondakin-izaeraren amaierari buruzko Europako Araudien aplikazioa epe ertainerako ekintza-lerro nagusietako bat da. Testu horietan bildutako neurrien aplikazio eraginkorrak politika hasiberrien berriazko oztopo teknikoak eta administratiboak gainditu beharko ditu.

Azkenik, **materialen zikloen itxieran oinarritutako zirkularraren** aldeko apustuak aurrerapen-maila ezberdinak nabaritutako dituela uste da, Estatu edo eskualde bakoitzak

(Flandriaren kasua) horren inguruan hartutako neurrien arabera. Nabaria dirudiena aldagai guztiak lantzeko beharra da (esportazioaren murrizketa, eragile guztien inplikazioa, aspektu teknikoak azalpena, berreskuratutako materialen fluxuak xurgatutako dituen merkatuaren definizioa, etab.), aurrerapen esanguratsuak lortu ahal izateko. Hain menpekota den kontinentean, lehengaien prezioen bilakaerak neurri-mota horren hartzea baldintzatuko du.

4.2/ OINARRIAK

Araudi mailan zein maila politikoan edo estrategikoan, plangintza baten esparru orokorra inspiratzen duten hainbat printzipio daude. Planak landu beharreko helburuak eta ekintzak oinarritu beharreko oinarritzko zortzi printzipio identifikatzen ditu.

Honako printzipio hauek jotzen dira HEZtik ondorioztatutakoak:

– Gizakien osasuna eta ingurumena babesteko printzipioa

Hondakinen inguruko jarduerak giza osasunari, uraren kalitateari, aireari, lurzoruari, faunari, florari edo paisaiari kalte egitea saihestu beharko dute eta, zehazki, koherenteak izan beharko dira klima-aldaketaren aurkako borroka-estrategiekin. Hori da edozer ingurumen-politikaren oinarritzko printzipioa.

– Hondakinen kudeaketako hierarkiaren printzipioa

Hondakin onena sortzen ez dena edo, bestela, sortu ondoren, agian berriro ekoizpen-zikloan berriro sartzea ahalbidetutako duen tratamendua jaso dezakeena da. Horregatik, prebentzioa eta berrerabilpena dira funtsezko oinarriak hondakinen sorrera saihesteko; aldiz, berrerabiltzeko prestakuntza, birziklapena, gainontzeko balorizazioak eta eliminazioa (lehentasun-ordena horretan) dira bultzatu beharreko aukerak, jadanik sortutako hondakina baliabide izaten jarraitu ahal izateko.

– Autosufizientzia-, gertutasun- eta unibertsalitate-printzipioak

Nagusiki garraioari lotutako arriskuak eta ingurumen-inpaktuak minimizatzeko, hondakinak gertuen dauden instalazio egokietan tratatu beharko dira; horrek azpiegituren sare egokiaren ezarpena eskatuko du. Sare horrek antzeko arreta-baldintzak bermatu beharko ditu edozein ekoizlerentzat, bere kokapen geografikoa kontuan izan gabe, eta edozer hondakinerako.

– Ekoizlearen erantzukizun zabalduaren eta eragile guztien erantzukidetasunaren printzipioak

Kudeaketa-hierarkia hondakin baten gainean aplikatzeko aukerak hori sortzen duen produktuaren diseinuaren baldintzekiko menpekotasun zuzena izango dute. Sustantzia arriskutsuen presentzia murriztea, birziklatutako edota birzikla daitezkeen materialen kopurua handitzea edo mantentze-lanak erraztea, produktu baten konponketa eta desmuntaketa produktu baten balio-bizitza luzatu eta, horren amaieran, euren kudeaketa erraztu dezaketen neurriak dira. Ondorioz, «life cycle thinking» kontzeptuaren barneratzea eta, produktuen diseinu- eta fabrikazio-prozesuen gaineko ekodiseinu-irizpideen aplikazioa heldu beharreko erronka handietako bat da, EAEko enpresetan ibilbide nabarmena izan badute ere.

Baina, hondakinen sorreraren eta kudeaketaren dinamikari, fabrikatzaileak ez dira rol garrantzitsua aurkezten duten bakarrak. Horrela, prebentzioaren eta berrerabilpenaren erronka hondakinaren ekoizleari dagokio nagusiki eta, bere aldetik, administrazioa kudeaketa-azpiegitura egokien existentziaz arduratu behar da; aipatutako produktuen kontsumitzaileek horiek erabili eta bizitza-helburu egokirako erabili behar dituzte, eta prozesadoreek edo kudeatzaileek tratamendu ezin hobe eman beharko diete, euren inpaktuak txikitzeko. Inplikaturako eragile guztien baterako eta koordinatutako lanak bakarrik ahalbidetuko du modu esanguratsuan aurrera egitea.

– Gardentasun- eta partaidetza-printzipioa

Hondakinen kudeaketan, gardentasuna eta trazabilitatea handitzeak hondakinen hierarkiaren aplikazioa faboratzen du. Batetik, ekoizpen-iturrien identifikazio osoak prebentzio-neurriak jatorrian hartzea ahalbidetuko du. Beste aldetik, hondakin bakoitzari aplikaturako tratamendu-zirkuituaren ezagutzak tratamendu-aldaketan eta aplikatu nahiko litzatekeen inpaktu-minimizazioaren

identifikazioa ahalbidetzen du. Inplikaturako eragile guztien parte-hartzea ezagutza- eta kontrol-maila hori lortzeko ezinbesteko oinarri bihurtzen da berriro.

Komenigarria deritza printzipio horiei Europako zenbait Zuzentarautan zein, ingurumenaren arloan, aurreratuagoak dauden Europako zenbait eskualderen araudian jasotako honako hau gehitzea:

– Bizi-zikloaren printzipioa eta baliabideen ekonomia zirkularra

Lehengaien eskasiarengatik eta ekoizpen-eredu berriak bultzatzeko behararengatik bereizitako kontinentean, hondakinen kudeaketa-hierarkiaren aplikazio osoak baliabideen ekonomia zirkularra faboratuko du; hori hondakinetan gordetako materialak euren bizitza-zikloaren amaieran fabrikazio-zirkuituan berriro sartzeko maximizatzerako dago zuzenduta, horrek dakarzkien ingurumen-, gizarte- eta ekonomia-abantailekin.

Azkenik, honako berariazko hurrengo printzipioak hartzen dira:

– Iraunkortasunaren, merkatu berdearen sustapenaren eta enplegu-sorreraren printzipioak

Ingurumen-, gizarte- eta ekonomia-faktoreen oreka funtsezkoa da iraunkorra eta denboran iraunkorra den gizartearen eredu bultzatzeko. Hondakinen eremuan, hiru faktore horien bateratzea ez da soilik posible, emaitzak biderkatzea ere ahalbidetzen du. Horrek garrantzi are handiagoa du krisi ekonomikoaren egoeran.

Horrela, hondakinen kudeaketa-hierarkiaren aplikazioak ingurumen-hobekuntza logikoei enpleguaren sorrera eta berrerabiltzeko prestatutako produktuak eta berreskuratutako materialak merkaturatzera zuzendutako merkatu berdearen sustapena gehituko dizkien sektore ekonomikoa bultzatzea ahalbidetuko du.

– Kudeaketa eraginkorraren printzipioa

Egungo egoera ekonomikoan, edonolako baliabideen optimizazioa funtsezkoa da, emaitzak maximizatu ahal izateko. Administrazioak erantzukizun hori bere gain hartu eta rol ereduemailea izan behar du, honako hauen bidez: administrazioaren sinplifikazioa eta arintzea, gardentasuna erakundearen arteko lankidetzara, baliabideen koordinazioa, irtenbide integralen bilaketa eta prebentzioa, birziklapena, balorizazioa eta bere hondakinen kudeaketa.

4.3/ HELBURU ESTRATEGIKOAK

Engungo egoera, aplika daitekeen araudi-esparrua, aipatutako printzipioak eta detektatutako helburuak kontuan izanda, honako helburu estrategiko hauek proposatzen dira:

HELBURU ESTRATEGIKOAK

- Sortutako hondakinen kopuru totala % 10 **jaitea** 2020rako, erreferentzia urtetzat 2010 hartuta; baita hondakinen arrisku-garritasuna jaitea ere.
- Hondakinen **gaikako bilketa eta bereizketa** gutxienez % 75koa izatea 2020an, eta bilketa-sistema espezifikoak ezartzea arazo bereziak eragiten dituzten hondakinentzat.
- Hondakinen % 60 **berrerabilpenerako, birziklapenerako eta balorizatorako prestatzea 2020rako**, bide batez EAEn hondakinen arloan dauden arazo nagusiei irtenbidea emanaz.
- Hondakinen ezabapena optimizatzea**, hondakin primarioen isurpenarekin amaituz eta isurpenok minimizatzeko bitartekoak garatuz gertutasun eta autosufizientzia printzipioak ezartzea exijituz hondakinen balorizazio eta ezabapenean, betiere baldintza baliokideetan eta martxan dauden zabortegeien eragina minimizatuz egin badaiteke.
- Hondakinen arloko **informazioa** eta gardentasuna hobetzea; hondakinen arloko **kudeaketa administratiboa erraztu eta bizkortzea**, hondakinen arloko araudiak irekitako aukerak baliatuta; **eta merkatu berdea eta enplegu-sorrera sustatzea**, Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana garatuz eta ezarri.

Ikus daitekeen bezala, HLKLen jasotako hondakinen kudeaketa-hierarkiaren aplikazioa da lortu beharreko erronka, eta laur helburu proposatzen dira, horren aplikazio osoa bermatzeko.

Informazioaren lorpenari eta kalitateari lotutako bosgarren helburua ezinbestekoa da, aipatutako hierarkiaren betearazpeneranzko bilakaera eraginkorra alderatu ahal izateko.

Azkenik, egungoa bezalako egoera ekonomikoan, baliabideen optimizazioa funtsezko pieza bihurtzen da. Beraz, beharrezkoa da ekozileei eta kudeatzaileei zein administrazioei euren betebeharren kontrola erraztuko dien administrazio-kudeaketa sinplerantz eta bizkorreantz aurrera egitea.

Aipatutako helburuen lorpena jarraian garatutako bost Jarduera Programen bidez landuko da.

4.4/ JARDUERA-PROGRAMAK

Planean jarduera-programak nola definitzen diren azaltzeko, ezinbestekoa da EAEko eskumen-banaketa aipatzea, hondakinen prebentzioaren eta kudeaketaren arloan.

Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren bidez, **Eusko Jaurlaritzak** esparru-koordinazioko eta plangintzako eskumenak ditu, planean helburu diren hondakin-fluxu guztietan, bai eta kudeaketa zuzeneko eskumenak industrialetan ere, Ingurumen Administrazioako Zuzendaritzaren bidez. Aldiz, hiri-hondakinen kudeaketa udalbatzen eskumen zuzena da eta, subsidiarioki, Foru Aldundiena.

Hiri-hondakinen arloan, Ingurumenaren Babes Orokorrari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Legeak jaso bezala, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Erakundeari dagokio (Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Saila):

- Hiri-hondakinen kudeaketaren esparru-plangintzaren prestakuntza, bai eta
- Apirilaren 24ko 11/1997 Legean zehaztutako kudeaketa-sistema integratuen baimena, ikuskapena eta onespena ere.

Aldiz, hiri-hondakinen arloan, lurralde historikoen foru-organoei (Foru Aldundiak) dagozkien eskumenak honako hauek dira:

- Lurralde historiko bakoitzean, hiri-hondakinen kudeaketaren plangintzaren garapena, dagozkien foru-planen bidez.
- Lurralde historiko bakoitzaren eremuan, udal-jardueren koordinazioa, arlo horretako zerbitzuak modu integratuean ematen direla bermatzeko.
- Hondakinak kudeatzeko udalaz gaineko azpiegituren bultzada.

Arlo horretan, eskumen horien koordinaziorako, EAEko Hiri Hondakinak Koordinatzeko Organoa (HHKO) dago; bertan, Eusko Jaurlaritzako eta hiru Foru Aldundietako Ingurumen Sailak daude.

Alde horretatik, kontrakoa zehaztu ezean, Plan honetan, etxeko zein merkataritzako zaborrekin sustatutako jarduerak HHKOren esparrutik sustatuko dira, eta dagozkien hondakinen foru-planetan sartzea bultzatuko da, aztertzen direnean. Arlo horretan, 2014an, Plan honetan baino zehatzago garatuko dira EAEko Hiri Hondakinen Esparru Plangintzarako Zuzentarauak. Horretarako, era koordinatuan lan egingo da Foru Aldundiekin.

9. eranskinean, hondakinen kudeaketaz arduratzen diren eragile publikoen eta pribatuen arteko erantzukizunen banaketa ezartzen da.

Halaber, EAEko 2020 Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planean, **5 jarduera-programa** ezartzen dira; horietako bakoitzak zehaztutako 5 helburu estrategikoetako bati erantzuten dio. Programa horietako lau Europar Batasunak sustatutako Hondakinen Kudeaketa Hierarkian ezarritakoarekin lerrokatuta daude. Hona hemen:

— **Prebentzio Programa.**

— **Gaikako Bilketa eta Bereizketa Programa.**

— **Berrerabiltzeko Prestakuntza, Birziklapen eta Balorizazio Programa.**

— **Eliminazioa Optimizatzeoko Programa.**

Bai eta gai administratiboetako eta arlo horretako gobernu egokiari buruzko programa ere, baina funtsezkoa ingurumen helburuak betetzeko.

— **Administrazioaren Eredugarritasunaren eta Gobernu Egokiaren Programa.**

Nagusiki, horrek honako hauekin du zerikusia: informazioaren hobekuntza, administrazio-izapidetzearen sinplifikazioa, arintzea eta hobekuntza eta enplegu berdearen sustapena.

Jarduera-programa bakoitza hondakin-korronte zehatzen egoera edo zeharkako egoerak edo problematikak hobetzera zuzendutako hainbat jardueratan garatzen da.

Jarduera-programa bakoitzean, lehentasuna eman zaie **problematika edo korronte nagusiei**, honako irizpideen arabera:

- **Lege-baldintzaren existentzia:** programa bakoitzean, lotutako lege-betekizuna duten korronteei emango zaie lehentasuna.
- **Tamaina:** kopuru handiena sortzen duten korronteei emango zaie lehentasuna; izan ere, horiek lagunduko diote bereziki Planari, edota, kopuru handiena ez badute ere, euren sorrerak goranzko joera duten korronteei.
- **Arriskugarritasuna:** korronte arriskutsuenei ere lehentasuna emango zaie, euren ingurumen-inpaktu handiagoa dela eta.
- **Programa zehatzerako hobekuntza-gaitasuna** (prebentzioa, gaikako bilketa eta bereizketa, berrerabiltzeko prestakuntza, birziklapena eta balorizazioa): aurreko 3 irizpideen arabera hautatutako korronteen edo problematikena.
- **Merkatuko aukerak sortzeko gaitasuna:** lehentasuna emateko problematikak edo korronteak hautatzeko, euren ebazpenean, merkatuko aukerak sortzen lagunduko dutenak hartzen dira kontuan.

Ondorioz, jarduerak problematika zehatzaren ebazpenari erantzuten diote eta «tresnen nahasketaren» kontzeptuaren arabera antolatzen dira; horren arabera, ekintza isolatuak ez dira hain eraginkorrak, eraginkorragoak dira aipatutako problematikaren funtsezko eragileei eta aspektuei eragiten dieten koordinatutako jardueren multzoak. Aipatutako jarduera-multzoak Planaren 1., 2., 3., 4. eta 5. eranskinean ikus daitekeen fitxareduaren arabera garatzen dira; bertan, zehazki jasotzen dira 5 jarduera-programetako bakoitzari dagozkion ekintzak.

Korronte bakoitza barne hartzen duen jarduera-estrategia edo programa hurrengo taulan ikus daiteke. Hurrengo ataletan, 5 programetako bakoitzarekin lortu nahi dena azaltzen da.

13. TAULA

PLANEAN LEHENTASUNA EMANDAKO HONDAKIN-KORRONTEAK, HELBURU ESTRATEGIKOEI EGINDAKO EKARPENAREN ORDENAREN ETA JASOTZEN DITUZTEN JARDUERA-PROGRAMEN ARABERA

Lehentasuna emandako hondakin-korronteak	Jarduera-programa			
	Prebentzioa	Gaikako bilketa eta bereizketa	Berrerabiltzeko prestakuntza, birziklapena eta balorizazioa	Eliminazioa optimizatzea
Biohondakinak	•	•	•	•
Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak (EEH)	•	•	•	•
Edukiontzia	•	•	•	•
Etxetresnak eta bestelako GEEH	•	•	•	•
Hondeatutako lurzoruak (hondatuak eta ez hondatuak)	•		•	
Altzairugintzako zepak	•		•	•
Pasta-paper lohiak (tinta-kentze lohiak, araztegi-lohiak, kaustifikazioko hondarrak eta kare-lohiak)	•		•	•
Galdaketako hondarrak (moldekatze berdeko hondarrak eta zatiki finak eta moldekatze kimikoko hondarrak eta zatiki finak)	•		•	•
HUA lohiak	•		•	•
Pilak, bateriak, fluoreszenteak eta EHA	•	•		
Disolbatzaileak, margoak eta bernizak, erabilera orokortuko produktu kimikoak, olioak eta taladrinak	•		•	
Erabiltzen ez diren ibilgailuak (EEI) eta erabiltzen ez diren pneumatikoak (EEP)	•		•	
Dentisten amalgamak eta merkurio-urak, ospitaletako eta laborategietako termometro-hondakinak		•		
Egiturazko fibrozementua		•		
Nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiapenetako hondakin fitosanitarioak eta zoosanitarioak		•		
Papera eta kartoia, beira, metalak, zura		•		•
Itsasontzien desegitetik ateratako hondakinak			•	
Autogestionatu daitezkeen hondakinak			•	
Zabortegiko materialen aprobeixamendua				•
Eliminatzera bidaltzen diren hondakin arriskutsuak eta EAetik kanpo tratatutako hondakinak				•

4.4.1/ Aurrea hartzeko programa

Europako ingurumen politikaren apustua hondakinen kanti-tatea prebenitzearen aldekoa da, hondakinen hierarkiaren lehen aukera gisa. Hori hala da bizi-zikloaren analisi-ikerketek edozer hondakin-tratamenduk hondakina sortu gabe sortzen direnak baino ingurumen-inpaktu handiagoak inplizitu dituela erakusten dutelako.

Hondakinen prebentzioak lotura estua du produktuen eta zerbitzuen diseinuaren edo ekoizpen-ereduen hobekuntzekin, eta kontsumo-jarraibideen eragin handia du. Horregatik, sentsibilizazio-kanpainak beste jarduera-mota batzuekin koordinatu behar diren funtsezko jarduera dira; izan ere, kontsumitzailearen ingurumen-jokabidearen hobetu gabe, prebentzioa ez da gauzatuko.

Hondakinen prebentzioak honako hauei lagunduko die:

- Hondakinen sorrerak eragindako ingurumen-inpaktuen murrizketa, negutegi-efektuko gasen murrizketaren kasuan bezala.
- Baliabideen eraginkortasunaren hobekuntza, energiaren aurreztearen eta materialen erabileraren murrizketaren bidez, bai eta baliabideen erazketaren ingurumen-inpaktu «ezkutuen», fabrikazio-prozesuena eta banaketarena ere.

Prebentzio-programaren azken helburua hazkunde-ekonomikoaren eta hondakinen sorrerari lotutako giza osasunaren eta ingurumenaren gaineko inpaktuen arteko banaketa lortzea da. Helburu hori lortzeko, sustantzia, material edo produktu baten sorkuntzaren eta diseinuaren, ekoizpenaren, banaketaren eta kontsumoaren zein erabileraren fasean hartutako ekintzak eta neurriak jarri beharko dira martxan.

Programaren **Helburu Estrategikoa sortutako hondakinen kopuru totala % 10 jaistea 2020rako, erreferentzia urteztzat 2010 hartuta; baita hondakinen arriskugarritasuna jaistea ere** hainbat ikuspuntutik:

- Produktuaren bizi-zikloa aintzat hartzen duten produktuen diseinu- eta ekoizpeneko eta salmentako sistema-kontzeptu berriei lotutako prebentzioa (ekodiseinua, eraikuntza iraunkorra, eraikinen birgaikuntza).
- Hondakin kopuru txikiagoa eta arriskugarritasun txikiagokoa sortzen duten ekoizpen-teknologia berrien ikerkuntzari lotutako prebentzioa.
- Kontsumo-ohiturei lotutako prebentzioa, inplikaturako eragile guztien aldetik, erosketa arduratsua zein berrerabilpenaren sustapena aipatuta.

Beraz, prebentzio-programa honekin lortu nahi diren **Helburu Zehatzak** honako hauek dira:

- Hondakin-kopuruaren eta horien toxikotasunaren sorrera murriztea, hondakinen sorreraren eta garapen ekonomikoaren arteko bananketarantz bideratuta.
- Berrerabil daitezkeen produktuen berrerabilpena sustatzea, horiek hondakin bihurtzea saihesteko: GEE edota euren osagaiak, EEI edota euren osagaiak, edukiontzia, altzariak, arropa eta lurzoruak zein hondeatutako beste material batzuk.
- Elikagaien xahubidea murriztea, prozesatu, banaketa eta kontsumo eraginkorraren edo beste helburu batzuetarako aprobeixamenduaren bidea (elikagai-bankuak...).
- Autokonpostajearen sustapena landa-eremuetan, edo komunitate-konpostajea dentsitate txikiko bizileku-eremuetan.
- Zenbait produktutan, sustantzia toxikoen ordezkapena sustatzea: etxeko produktu kimikoak, pilak eta bateriak, eta GEE, euskal industria-sektoreko erabilera orokortuko produktu kimikoak, bai eta erabilera bakarreko plastikozko poltsa ez biodegradagarrien ordezkapena ere.
- Europako Batzordeak onartutako hondakinak prebenitzeko Teknologia Erabilgarri Onenen (TEO) ezarpena sustatzea.
- Herritarrei sortutako inpaktuak minimizatzearen garrantziaren, eskuragarri dauden aukeren eta aipatutako ondasunen eta zerbitzuen kontsumo eta erabilera iraunkorra egin ahal izateko irizpideen berri ematea eta horien inguruan sentsibilizatzea.
- Aipatutako produktuen balio-kateko eragile ezberdinei sortutako inpaktuak minimizatzearen eta horretarako aukera hobeetan laguntzearen berri ematea eta horien inguruan sentsibilizatzea.

Beste aldetik, HEZen 9. artikuluan ezarritakoaren arabera, nabarmentzekoa da, 2014ko amaieran, Europako Batzordeak hondakinak prebenitzeko eta bereizteko helburuak proposatu beharko dituela (hazkuntza ekonomikoaren eta hondakinen sorreraren artean) 2020. urterako, Teknika Erabilgarri Onenetan (TEO) oinarrituta. Aipatutako helburuak estatu kideen helburu bihurtu ahal izango dira eta, ondorioz, automatikoki sartu ahal izango dira prebentzio-programan, EAEn existitzen diren lurralde- eta kudeaketa-eredura egokitze behar diren berezitasunekin.

Aurretik aipatutako irizpideen arabera, Prebentzio Planaren helburuak lortzeko **lehentasuna emandako korrontek edo problematikak** honako hauke dira:

- Biohondakinak.
- Eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak (EEH).
- Erabilera bakarreko plastikozko edukiontziak eta poltsak.
- Etxetresnak eta bestelako GEEH.
- Tokikotasun handiko etxeko hondakin arriskutsuak (pilak, bateriak, fluoreszenteak, produktu kimikoak).
- Tokikotasun handiko kontsumo handiko industria-produktuak (disolbatzaileak, margoak, taladrinak...)

- Erabiltzen ez diren ibilgailuak (EEI) eta erabiltzen ez diren pneumatikoak (EEP).
- Hondeatutako lurzoruak eta bestelako materialak.

Hurrengo taulan, prebentziorako artikulatu beharreko jardueren eta tresnen lehentasunezko ikuspegiak azaltzen dira, lehentasuna emandako problematika bakoitzari dagokionez.

5.1. «Prebentzio programaren jarduerak» atalean, zehazki garatzen dira jarduera-programa honi lotutako jarduera ezberdinak, prebentzio-helburuen betearazpenean modu esanguratsuan lagunduko duten hondakin-korronte bakoitzerako.

14.TAULA PREBENTZIO PROGRAMAREN ASPEKTU ESANGURATSUAK

Lehentasunezko korrontek edo problematikak	Jardueren ikuspuntua	Tresnak
HHak guztira	Sortutako HHen kopuruaren % 10 murriztea, 2010eko baloreei dagokienez	<ul style="list-style-type: none"> — HHen jarraibideak eta lurralde-planak — Herritarrei jakinarazteko kanpainak — Korronte zehatzei lotutako jarduerak
Biohondakinak	<ul style="list-style-type: none"> — % 5eko murrizketa, 2010eko baloreei dagokienez — Elikadurako hondakina saihestea, sortzaile nagusiekin — Autokonpostajea edo komunitate-konpostajea 	<ul style="list-style-type: none"> — HHen jarraibideak eta lurralde-planak — Herritarrei jakinarazteko kanpainak — Borondatezko hitzarmenak, ostalaritzako eta banaketako sektoreekin — Konpost-ontzien entrega eta trebakuntza
EEH	<ul style="list-style-type: none"> — % 5eko murrizketa, 2010eko baloreei dagokienez, honako hau saihestuta: <ul style="list-style-type: none"> • Eraikuntza jasangarria • Birgaikuntza • Laneko prebentzioa 	<ul style="list-style-type: none"> — Eraikuntza iraunkorraren erreferentziatzko ezarpenerako diru-laguntzak — Birgaikuntzarako diru-laguntzak — Arkitektoen trebakuntza — Eraikinen kontratazioa CPV irizpideen arabera
Edukiontziak	<ul style="list-style-type: none"> — Edukiontzi arinen eta beirazko edukiontzien 5eko murrizketa, 2010eko baloreei dagokienez, honako hauen bitartez: <ul style="list-style-type: none"> • Ekodiseinua • Solteko kontsumoa • Gordailu- eta itzultze-sistemak — Erabilera bakarreko plastikozko poltsa ez biodegradagarrien % 80ren ordezkapena 2016rako, eta % 100ekoa 2018rako, eta lotutako beste lege-betekizun batzuk 	<ul style="list-style-type: none"> — HHen jarraibideak eta lurralde-planak — Sentsibilizazio-kanpainak — Borondatezko hitzarmenak, banaketako sektorearekin eta fabrikatzaileekin — Hitzarmena EELSKekin
GEEH	<ul style="list-style-type: none"> — % 10eko murrizketa, 2010eko baloreei dagokienez, balio-bizitza luzatuta eta bizitzaren amaierarako honako hau diseinatuta: <ul style="list-style-type: none"> • Ekodiseinua • Konponketa-berrerabilpena • Zenbait sustantzi arriskutsuren erabileraren prebentzioa 	<ul style="list-style-type: none"> — HHen jarraibideak eta lurralde-planak — Sentsibilizazio-kanpainak — Borondatezko hitzarmenak, fabrikatzaileekin — EEren eta Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren aurrean, Foroetan, kontzeptu horien alde jartzea — Berme luzatua duten produktuak sustatzeko tresna ekonomikoak, industriaren lankidetzarekin — Hitzarmena EELSKekin

14.TAULA
PREBENTZIO PROGRAMAREN ASPEKTU ESANGURATSUAK (JARR.)

Lehentasunezko korronteak edo problematikak	Jardueren ikuspuntua	Tresnak
Lehentasunezko industria-korronteak (moldaketako hondarrak, papergintzako hondarrak, HUA lohiak, altzairugintzako zepak)	Sortutako korronte horien kopurua % 10 murriztea, 2010eko baloreei dagokienez	<ul style="list-style-type: none"> — Inplikaturako sektoreekin borondatezko akordioak edo hitzarmenak — ILPNASen eta beste erakunde batzuen diru-laguntzak
Toxikotasun handiko etxeko hondakin arriskutsuak-(pilak, bateriak/fluoreszenteak/ produktu kimikoak...)	% 5eko murrizketa, 2020eko baloreei dagokienez, produktu iraunkorragoen kontsumoaren sustapenaren bidez	<ul style="list-style-type: none"> — Produktu horien ordeztu aukeren ikerketak — Sentsibilizazio-kanpainak — Borondatezko hitzarmenak, fabrikatzaileekin eta banatzaileekin
Toxikotasun handiko kontsumo handiko industria-produktuak (disolbatzaileak, margoak, taladrinak...)	Produktu iraunkorragoen kontsumoa sustatzea	<ul style="list-style-type: none"> — Aukeren azterketak — Sentsibilizazio-kanpainak — Borondatezko hitzarmenak, fabrikatzaileekin eta banatzaileekin
EEL eta Pneumatikoak	Ekodiseinua Balio-bizitza luzatzea Piezen eta pneumatikoen berrerabilpena	<ul style="list-style-type: none"> — Borondatezko hitzarmena, EEIko eta EEPko kudeatzaileekin eta pneumatikoen fabrikatzaileekin — EEI eta EEP kudeatzaile-baimenak sustatzea — Hitzarmena EELSKekin
Hondeatutako lurzoruak eta bestelako materialak	<ul style="list-style-type: none"> — Berrerabilpena — Eraikuntza jasagarria 	<ul style="list-style-type: none"> — Tokiko tratamendu-teknologiaren bideragarritasun-ikerketak — Hondeaketaren ordeztu aukeren ikerketa, irizpideen garapena eta material teknikoetan sartzea — ILPSren eta Teknologia Garbien Euskal Zerrendaren diru-laguntzak tokiko tratamendu-teknologiei — Kutsatutako lurzoruen kudeaketaren eta prebentzioaren integrazioari eta hirigintzan hondeatutako lurzoruen balorizazioari buruzko lantaldeak — Hondakinen isuriaren gaineko zerga
Europar onartutako TEOn ezarpena		<ul style="list-style-type: none"> — Teknologia Garbien Euskal Zerrenda — Prebentzio teknologiaren ikerketa ZTBPN sartzeko sustapena
Ekoizle handien Hondakin Arriskutsuen, Edukiontzien eta Pneumatikoen minimizazio-planen sustapena eta jarraipena		<ul style="list-style-type: none"> — Hondakin-ekoizleen eta kudeatzaileen erregistroan izena ematea
Sortzen ari diren korronteen identifikazioa eta kudeaketa-modu hobeen ikerketa eta transferentzia (bioteknologiak, sektore aeronautikoa...)		<ul style="list-style-type: none"> — Sortzen ari diren korronteen analisien azterketa

4.4.2/ Gaikako Bilketa eta Bereizketa Programa

Gaikako bilketak eta bereizketak ezaugarri homogeenak dituzten hondakinak lortzea ahalbidetzen dute, eta horrek horien balorizazio hobea errazten dute.

Hondakin arriskutsuen kasuan, bereizketa are garrantzitsuagoa da; izan ere, arriskugarritasun txikiagoko beste hondakin batzuk kutsatu eta masan bildutako hondakinei aplikatu daitezkeen etorkizuneko tratamenduak indargabetu ditzakete.

Espaloiko gaikako bilketako sistemen ezarpena lurralde guztietara dago hedatuta. Bilketa horiek beste zerbitzu batzuekin osatzen dira; hala nola, Garbiguneak eta puntu berde mugikorrak.

Industria-hondakinei dagokienez, horien zati bat ez da behar bezala bereizten eta, azkenean, nahastuta jasotzen da; hori industri-nahasketa deritzo. Oso zaila da nahastutako hondakin horiek balioztatzea; beraz, oso garrantzitsua da ekoizleak balioztatu daitezkeen hondakinak bereiztera bultzatzen dituzten neurriak azpimarratzea eta zabortegeiek balioztatu daitezkeen hondakinak dituzten nahastutako hondakinak ez hartzea.

Bestetik, sorrera hedatuko hondakin arriskutsuen korranteak daude, hobekuntza-tarte zabalarekin, euren gaikako bilketari eta bereizketari dagokienez, amaierako kontrol eta kudeaketa hobea lortzeko; hala nola, egiturazko fibrozementua, amalgamak, urak eta merkurioa duten beste hondakin batzuk, etxeko hondakin arriskutsuak, edo lehen sektoreko produktu fitosanitarioak edo zoosanitarioak.

Ondorioz, gaikako bilketa eta bereizketa funtsezkoak dira; izan ere, hondakin horietako materialak edo energia berreskuratzea edo behar bezala kudeatzea ahalbidetuko duen beste edozer birziklapen- edo balorizazio-tratamendurako aurreko urratsa da. Gaikako bilketa eta bereizketa denbora eta, batzuetan, horretarako, inplikaturako eragileen eta bilketa-sistemen beharrezko arteko koordinazioa behar dituen neurria da. Horregatik, Planaren esparruan, badira gai honen inguruko korrante sortu berriak balorizazio- edo birziklapen-helburuak proposatzen ez dituztenak, gaikako

bilketa eta bereizketa gain, eta aurrerantzean horiek ezarri ahal izatea espero da. Gainera, Europako legeriak jadanik bilketa-tasak markatutako korranteak daude; beraz, gutxienez tasa horiek lortzea izango da helburua.

Programaren **helburu estrategikoa 2020an, hondakinen gaikako bilketa eta bereizketa gutxienez % 75koa izatea, eta bilketa-sistema espezifikoak ezartzea da, arazo bereziak eragiten dituzten hondakinentzat**. Kasu honetan, aurretik aipatutako irizpideen arabera, programa honetan sartu beharreko **lehen tasuna emandako korranteak** honako hauek dira:

- Biohondakinak.
- Papera, zura, edukiontzia, metalak, beira.
- Pilak/bateriak.
- GEEH arriskutsuak eta ez arriskutsuak.
- Etxeko hondakin arriskutsuak.
- Nekazaritza- eta abeltzaintza-instalazioetako hondakin fitosanitarioak eta zoosanitarioak.
- Egiturazko fibrozementua.
- Hg amalgamak eta urak, termometroak eta laborategiko produktuen Hg.
- Industria-nahasketak eta EEHak.

Helburu zehatzek korrante bakoitzarekin eta legeriak markatutako edota Plan honen esparruan ezarritako bilketa-tasak lortzearekin dute zerikusia (aipatutako helburu zehatzak jardueren ikuspegi-zutabearen barnean sartu ditugu)

15. taulan, gaikako bilketarako eta bereizketarako artikulatu beharreko **jardueren eta tresnen lehen tasuneko ikuspegiak** azaltzen dira, lehen tasuna emandako problematika bakoitzari dagokionez.

5.2. atalan, «Gaikako bilketa eta bereizketa programa jarduerak», zehazki garatzen dira jardura-programa honi lotutako jardura ezberdinak, gaikako bilketako eta bereizketako helburuen betearazpenean modu esanguratsuan lagunduko duten hondakin-korrante bakoitzerako.

15. TAULA

GAIKAKO BILKETA ETA BEREIZKETA PROGRAMAREN ASPEKTU GARRANTZITSUAK

Lehetasunezko korranteak edo problematikak	Jardueren ikuspuntua (bilketa-tasak, 2020ra)	Tresnak
Biohondakinak	Bilketa-tasak % 60ra handitzea	— HHen jarraibideak eta lurralde-planak — Herritarrei jakinarazteko kanpainak
Papera, zura, plastikoa, beira, metalak	Bilketa-tasak % 60ra handitzea	— HHen jarraibideak eta lurralde-planak — Herritarrei jakinarazteko kanpainak
Pilak/bateriak	Bilketa-tasak % 80era handitzea eta Pila- eta metagailu-mota ezberdinetarako, 1991/157/CEE Zuzentarauak ezarritako baldintzak betetzea	— HHen jarraibideak eta lurralde-planak — Herritarrei jakinarazteko kanpainak
Nekazaritza- eta abeltzaintza-instalazioetako hondakin fitosanitarioak eta zoosanitarioak	Bilketa-sistema egonkorak sustatzea	— Borondatezko Hitzarmena, Nekazaritza Ministerioarekin
GEEH	2019 baino lehen, aurreko hiru urteetan, bilketa-tasak EAEko merkatuan sartutako GEEen batezbesteko pisua % 65era arte handitzea edo, bestela, sortutako GEEHen % 85era arte eta, gutxienez, aipatutako hondakinen % 5 berrerabiltzeko prestakuntzara zuzentzea	— HHen jarraibideak eta lurralde-planak — Herritarrei jakinarazteko kanpainak — GEEHk Garbiguneetan biltegitartzeko irizpideak garatzea, berrerabiltzeko prestatzeko — Hitzarmena EELSKekin
Etxeko hondakin arriskutsuak	Bilketa-sistema egonkorak sustatzea	— HHen jarraibideak eta lurralde-planak — Herritarrei jakinarazteko kanpainak
Egiturazko fibrozementua	Bilketa-sistema egonkorak sustatzea	— HHen jarraibideak eta lurralde-planak
Hg amalgamak eta urak, termometroak eta laborategiko produktuen Hg	Bilketa-sistema egonkorak sustatzea	— Borondatezko Hitzarmena, Osasun Ministerioarekin
Industria-nahasketak eta EEHak	Bilketa-sistema egonkorak sustatzea EHHen bilketa-tasak % 75era handitzea	— Borondatezko Hitzarmenak, sektore sortzaileekin — Ikuskapen-plana

4.4.3/ Berrerabiltzeko Prestakuntza, Birziklapen eta Balorizazio Programa

22/2011 Legea aldatzen duen ingurumen arloko neurri larrien abenduaren 19ko 11/2012 Legearen 21. artikulua ezarritakoaren arabera, dagokien eskumen-esparruan eta kalitate handiko berrerabilpena eta birziklapenerako prebentzio- eta sustapen-printzipioei erantzunez, ingurumen-agintariak beharrezko neurriak hartuko dituzte, produktuak berrerabiltzea sustatzeko lehentasun-sistemak eta berrerabilpenerako eta birziklapenerako prestakuntza-jarduerak ezar daitezkeen. Beste neurri batzuen artean, berrerabil daitezkeen hondakinak biltegitratzeko tokiak ezartzea eta berrerabiltze-sare eta -zentroak ezartzeko laguntza ematea sustatuko dira. Halaber, berrerabil daitezkeen prestatutako produktuak eta produktu birziklatuak sustatzeko neurriak bultzatuko dira, kontratazio publikoaren bidez eta kudeaketa-planetak helburu kuantitatiboan bitartez.

Programari lotutako **helburu estrategikoa hondakinen % 60 berrerabilpenerako, birziklapenerako eta balorizaziorako prestatzea da, 2020rako, bide batez EAEn hondakinen arloan dauden arazo nagusiei irtenbidea emanez.**

Aurretik ezarritako irizpideen arabera, programarako **lehentasuneko korronteak** honako hauek dira:

- Biohondakinak.
- Papera, zura, plastikoa, beira, metalak.
- EEH.
- GEEH.
- Altzairugintzako zepak.
- Pasta eta paper lohiak (tinta-kentze lohiak, araztegi-lohiak, kaustifikazioko hondarrak eta kare-lohiak).
- Moldaketa-hondar berdeak (moldekatze berdeko hondarrak eta zatiki finak eta moldekatze kimikoko hondarrak eta zatiki finak).
- Hiriko HUA lohiak.
- Hondeatutako lurzoruak (hondatuak eta ez hondatuak).
- Autogestionatu daitezkeen hondakinak.
- Erabiltzen ez diren itsasontziak.

Beraz, helburu zehatzek 22/2011 legeak eskatutako edota, zehazki, «2020rako EAEko hondakinak prebenitzeko eta

kudeatzeko Planaren» esparruan ezarritako lehentasuna emandako korronteen tasekin dute zerikusia»³³.

Beraz, berrerabiltzeko prestakuntzarako, birziklapenerako eta balorizaziorako programa honekin lotu nahi diren **helburu zehatzak** honako hauek dira:

- EEHen balorizazio-estrategia amaitzea, zehaztutako egoera naturaleko materialak kanpo utzita, % 70eko pisuko balorizazio-tasa lortu arte.
- GEEHak berrerabiltzeko prestakuntza sustatzea
- Lehentasuna emandako hiri-hondakinen korronte bakoitzerako zehaztutako balorizazio-tasak lortzea (ikus 16 taula, jarraian), horrekin, guztira, gutxienez, pisuaren % 50 lortu beharko duten paper-, metal-, beira-, plastiko-, biohondakin-frakzioen edota bestelako frakzio birziklagarrien balorizazioa sustatuta.
- HEZen, altzairugintzako zepa, galdaketako hondarren, pasta-paper lohien eta HUA lohien korronte nagusien balorizazio-estrategiak amaitzea, horrela, korronte bakoitzerako zehaztutako balorizazio-tasak lortuta (ikus 16 taula, jarraian).
- Itsasontziak desegiteko irizpideak ezartzea eta zabaltzea, ahalik eta birziklapen eta balorizazio handiena lortzeko, sektorearekin batera.
- Hondakin arriskutsuen autogestioa sustatzea.
- Merkatu berrien garapena eta industria-hondakin ez arriskutsuen balorizazio-prozesuetatik ateratako bigarren mailako erabilera eraginkorra sustatzea, beste lehengai batzuen ordez.

Hurrengo taulan, berrerabiltzeko prestakuntzarako, birziklapenerako eta balorizaziorako Programan garatu beharreko jardueren funtsezko aspektuak azaltzen dira, bai eta jarduera horiek zehaztasunez garatutako Planaren orrialdeak ere, 5.3 «Berrerabiltzeko, prestakuntza, birziklapen eta balorizazio programaren jarduerak».

³³ 22/2011 Legean ezarritako 22.1. artikulua:

- 2020 aurretik, paper-, metal-, beira-, plastiko-, biohondakin frakzioetarako edo bestelako frakzio birziklagarrietarako berrerabiltzeko prestakuntzara eta birziklapenera zuzendutako etxeko eta merkataritzako hondakinen kopurua guztira % 50 izan beharko da, gutxienez, pisuari dagokionez.
- 2020 aurretik, hondakinen zerrendako 17 05 04 kategorian definitutako egoera naturaleko materialak izan ezik, berrerabiltzeko prestakuntzara, birziklapenera eta materialen beste balorizaziora zuzendutako eraikuntzako eta eraispeneko hondakin ez arriskutsuen kopurua ekoiztutako pisuaren % 70 izan behar da, gutxienez.

16. TAULA
BERRERABILTZEKO PRESTAKUNTZA, BIRZIKLAPEN ETA BALORIZAZIO PROGRAMAREN
ASPEKTU GARRANTZITSUAK

Lehentasunezko korrontek edo problematikak	Jardueren ikuspuntua (korronte bakoitzerako balorizazio-tasak, 2020ra)	Tresnak
Biohondakinak	% 50eko balorizazio-tasa lortzea	<ul style="list-style-type: none"> — Bizi-amaierako irizpideen arau teknikoa — Eliminazio optimizatzeko programa ikustea
Papera, zura, plastikoa, beira, metalak	% 50eko balorizazio-tasa lortzea guztira	<ul style="list-style-type: none"> — Korronte horien birziklapen-tasen hobekuntza lantzea Foru Aldundiekin
EEH	% 70eko balorizazio-tasa lortzea	<ul style="list-style-type: none"> — EEHen kudeaketarako Agindu Teknikoen onarpena — TGEZen bidez, lehentasuna emandako hondakinen balorizazioa bermatzea, bai eta beharrezko aurretratamenduetarako diru-laguntzen bidez ere — Eliminazio optimizatzeko programa ikustea
GEEH eta pilak eta metagailuak	<p>Berrerabiltzeko prestakuntzara zuzendutako GEEHen % 5eko tasa lortzea</p> <p>GEEHei buruzko 2012/19/UE Zuzentarauak ezarritako GEEH kategorია bakoitzerako gutxienezko balorizazio- eta birziklapen-helburuak lortzea</p> <p>Gutxienezko eraginkortasun-mailak lortzea, birziklapenaren arloan, 1991/157/CEE Zuzentarauaren arabera</p>	<ul style="list-style-type: none"> — Enpresen baimenak sustatzea, helburu horretarako — Hitzarmena EELSKekin
EEI	<p>Gehienez, 2015eko urtarrilaren 1erako, gutxienez, ibilgailu bakoitzerako eta urteko batezbesteko pisuaren % 95 berrerabiltzeko eta balioztatzeke helburua lortzea. Data hori baino lege, gutxienez, ibilgailu eta urte bakoitzerako batezbesteko pisuaren % 85 berrerabili eta birziklatu beharko da</p>	<ul style="list-style-type: none"> — Hitzarmena EELSKekin
Altzairugintzako zepak	>% 90eko balorizazio-tasa lortzea	<ul style="list-style-type: none"> — 34/2003 Dekretuaren aldaketa — TGEZen bidez, lehentasuna emandako hondakinen balorizazioa bermatzea, eta beharrezko aurretratamenduetarako diru-laguntzak — Eliminazio optimizatzeko programa ikustea
Moldekatze-hondarrak (moldekatze berdeko hondarrak eta zatiki finak eta moldekatze kimikoko hondarrak eta zatiki finak)	% 75eko balorizazio-tasa lortzea	<ul style="list-style-type: none"> — Borondatezko Hitzarmena, sektore sortzailearekin — TGEZen bidez, lehentasuna emandako hondakinen balorizazioa bermatzea, eta beharrezko aurretratamenduetarako diru-laguntzak — Eliminazio optimizatzeko programa ikustea

16. TAULA
BERRERABILTZeko PRESTAKUNTZA, BIRZIKLAPEN ETA BALORIZAZIO PROGRAMAREN
ASPEKTU GARRANTZITSUAK (JARR.)

Lehentasunezko korronteak edo problematikak	Jardueren ikuspuntua (korronte bakoitzerako balorizazio-tasak, 2020ra)	Tresnak
Pasta eta paper lohiak (tinta-kentze lohiak, araztegi-lohiak, kaustifikazioko hondarrak eta kare-lohiak)	% 95eko balorizazio-tasa lortzea	<ul style="list-style-type: none"> — Borondatezko Hitzarmena, sektore sortzailearekin — Bizitzaren amaierarako irizpide teknikoak ezartzea — TGEZen bidez, lehentasuna emandako hondakinen balorizazioa bermatzea, eta beharrezko aurretratamenduetarako diru-laguntzak — Eliminazio optimizatzeke programa ikustea
HUA lohiak	≈100% balorizazio-tasa lortzea	<ul style="list-style-type: none"> — Borondatezko Hitzarmena, sektore sortzailearekin — TGEZen bidez, lehentasuna emandako hondakinen balorizazioa bermatzea, eta beharrezko aurretratamenduetarako diru-laguntzak — Eliminazio optimizatzeke programa ikustea
Hondeatutako lurzoruenak	Balorizaziorako eta bizitzaren amaierarako irizpideak ezartzea eta hondeatutako lurzoruen transferentzia-zentroaren bideragarritasuna aztertzea	<ul style="list-style-type: none"> — Hondeatutako lurzoruen balorizaziorako eta bizitzaren amaierarako irizpideen Arau Teknikoa — Lurzoruen transferentzia-zentroaren bideragarritasunaren azterketa
Erabiltzen ez diren itsasontziak	Itsasontziak desegiteko irizpideak ezartzea eta zabaltzea, ahalik eta birziklapen eta balorizazio handiena lortzeko, sektorearekin batera	<ul style="list-style-type: none"> — Itsasontziak desegiteko irizpideen Arau Teknikoa

5.3. atalan «Berrerabiltzeko prestakuntza, birziklapen eta balorizazio programaren jarduerak», jarduera-programari lotutako jarduera ezberdinak garatzen dira zehaztasunez, berrerabiltzeko-prestakuntzaren, birziklapenaren eta balorizazioaren helburuen betearazpenean modu esan-

guratsuan lagunduko duten hondakin-korronte bakoitzerako, bai eta, berrerabiltzeko prestakuntzaren, birziklapenaren eta balorizazioaren arloan, korronte guztiei eragiten dieten zeharkako erronka nagusiak onartzeko ere.

4.4.4/ Eliminazioa Optimizatzeko Programa

Eliminazioa optimizatzeko programa hondakin-hierarkiaren azken mailari erantzuten dion programa da eta, ondorioz, bere helburua kudeaketa-mota hori minimizatzea edo optimizatzea da, prebentzioaren, berrerabiltzeko prestakuntza-aren, birziklapenaren edo balorizazioaren alde.

Programaren **helburu estrategikoa Hondakinen eza-bapena optimizatzea da, hondakin primarioen isurpenarekin amaituz eta isurpenok minimizatzeko bitartekoak garatuz gertutasun eta autosufizientzia printzipioak ezartzea exijituz hondakinen balorizazio eta ezabapenean, betiere baldintza baliokideetan eta martxan dauden zabortegien eragina minimizatuz egin badaiteke.**

Kasu honetan, programa honetan korronteei lehenetsuna emateak irizpide zehatzak jarraitzen ditu, izaera ezberdinak izateagatik, eta zerikusi handiagoa du isurtzeari utzi behar dioten korronteekin, hondakinen hierarkiaren aurreko estrategietako hobekuntza-aukeren arabera. Ondorioz, erabilitako irizpideak honako hauek dira:

- Sortzen duten problematikaren konpontze-indar handia duten korrontek, aurreko estrategien bidez. Beraz, irizpide horretatik ondorioztatutako korrontek prebentzio-edota birziklapen- eta balorizazio-tasa handiak proposatzen dituztenak dira, eta horiek isurtzeko ezintasunak aurreko estrategiak aldatu eta optimizatu ditzake, eta lortu beharreko eliminazio-tasak koherenteak izan behar dira beste estrategia batzuen tasekin.
- EAetik kanpo eliminatzen ari diren hondakinak.

Irizpide horien arabera, **lehenetsuna duten korrontek** honako hauek dira:

- Berrerabiltzeko Prestakuntza, Birziklapen eta Balorizazio Programan lehenetsuna emandako korronte guztiak.

- Kutsatutako lurzoruak eta bestelako materialak.
- Beste HA batzuk (desugerketa-azidoak...).

Alde horretatik, ideia korrante horien isuria ahalik eta gutxien mugatzea da, Planaren denborazko esparruan, aurretik, hierarkiaren beste estrategiak landuta.

Eliminazioaren minimizazio-programa honekin lortu nahi diren **helburu zehatzak** honako hauek dira:

- Hiri-hondakin biodegradagarrien isuriari buruzko lege-betekizunen betearazpena.
 - Lehen mailako hiri-hondakinen zero isuria, 2016rako
 - Balioztatu daitezkeen korronteen eliminazioa murriztea
 - Gure lurraldetik kanpo eliminatutako hondakinen % murriztea, tratamendua, orokorrean, EAEn baliokideak diren baldintzetan egin daitekeenean
 - Osasunerako edo ingurumenerako arrisku onartezina diren zabortegiak identifikatzea, eta aipatutako arriskua onargarritasun-mailetara murrizteko neurriak hartzea.
17. taulan, eliminazioaren optimizazio-programarako zehaztutako jardueren gakoak azaltzen dira.

5.4 atalan «Eliminazioa optimizatzeko Programa jarduerak», jarduera-programari lotutako jarduera ezberdinak garatzen dira zehaztasunez, eliminazioaren optimizazioaren betearazpenean modu esanguratsuan lagunduko duten hondakin-korrante bakoitzerako, bai eta, eliminazioaren optimizazioaren arloan, korrante guztiei eragiten dieten zeharkako erroka nagusiak onartzeko ere.

Beste aldetik, eta 8. eranskinean proposatutako helburu estrategikoen betearazpenaren funtsezko zati eta laguntza bezala, jarduera-programa bakoitzari lotutako sustatu beharreko sentsibilizazio-kanpainen zerrenda.

17. TAULA

ELIMINAZIOA OPTIMIZATZEKO PROGRAMAREN ASPEKTU ESANGURATSUAK

Lehenetsuneko korrontek edo problematikak	Jardueren ikuspuntua	Tresnak
EAetik kanpo eliminatzen diren hondakinak (desugerketa-azidoak, hondakin oliotsuak, etab.)	EAEn, baldintza berdinetan eta hobeetan eliminatzea sustatzea	<ul style="list-style-type: none"> — Hitzarmenak ekoizleekin — TGEZen bidez, lehenetsuna emandako hondakinen balorizazioa eta arriskugarritasunaren murrizketa bermatzea eta diruz laguntzea — Erakustaldi-proiektuak — Isuriaren gaineko zerga — Hondakin-ekoizpenaren eta kudeaketaren erregistroan izena ematea — Administrazio-kontrola
Zeharkako jarduerak	Zabortegi-meatzaritzza	<ul style="list-style-type: none"> — EAEko zabortegien meatzaritzaren bideragarritasuna aztertzea, mono-materialeko zabortegietan

4.4.5/

Administrazioaren Eredugarritasunaren eta Gobernu Egokiaren Programa

Programaren helburua administrazioaren jarduerekin zerikusia duten hondakinen arloko zeharkako beharrei erantzutea da, administrazio-kudeaketa osoa hobetzeko.

Programari lotutako **helburu estrategikoa hondakinen arloko informazioa eta gardentasuna hobetzea; hondakinen arloko kudeaketa administratiboa erraztea eta bizkortzea da 22/2011 Legeak zein hondakinen arloko araudiak irekitako aukerak baliatuta; bai eta merkatu berdea eta enplegu sorrera sustatzea ere, Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana garatuz eta ezarriz.**

Helburu hori helburu estrategikoa lortzen lagunduko duten hurrengo **helburu zehatzetan** azaltzen da:

- Hondakinen arloko informazioa eta estatistika hobetzea, bai eta hondakinen ekoizpenaren eta kudeaketaren gardentasuna eta kontrola zein jarraipena ere, plangintza hobea lortzeko, administratuari informazioa emateko eta erakunde gorenei informazio-betekizunei erantzun azkarragoa emateko.

- ILPSren administrazio-izapideen % 75 sinplifikatzea, 2016rako hondakinen inguruko legeria berriak irekitzen dituen aukeren arabera
- Sortutako eta ekoiztutako kopuruei buruzko informazioa eta Autonomia Erkidegoen arteko tokialdaketen kontrol-mekanismoak hobetuko dituen hondakinen lekualdaketen informazio-sistema izatea.
- Hondakin-korrante ezberdinen kategorizazioa, kontabilitatea eta trazabilitatea hobetzea.

Hurrengo taulan, administrazioaren eredugarritasunaren eta gobernu egokiaren programarako zehaztutako jardueren gakoak azaltzen dira.

5.5. atalan «Administrazioaren eredugarritasunaren eta Gobernu Egokiaren Programa jarduerak», zehazki garatzen dira erlazioatutako helburu estrategikoaren betearazpenean modu esanguratsuan lagunduko duen jarduera-programa honi lotutako jarduera ezberdinak.

18. TAULA
ADMINISTRATIOAREN EREDUGARRITASUNAREN ETA GOBERNU EGOKIAREN
PROGRAMAREN ASPEKTU GARRANTZITSUAK

Lehentasunezko korronteak edo problematikak	Jardueren ikuspuntua	Tresnak
Hondakinen arloko informazioa hobetzea	Informazio-sistemaren elementuak zehaztea Elementu ezberdinak hobetzea (bere eguneraketaren aldizkakotasuna, etab.), bai eta horien arteko interrelazioa ere Inplikaturako eragileekin adostasunean, zehaztutako korronteen kategorizatorako, kontabilizatorako eta trazabilitaterako irizpideak zehaztea	<ul style="list-style-type: none"> — Inbentarioak — Baimenak — Baimendutako ekoizleen zerrendak — Baimendutako kudeatzaileen zerrendak — Zehaztutako korronteen kategorizatorako, kontabilizatorako eta trazabilitaterako irizpideak
Administrazio-hobekuntza, sinplifikazioa eta arintzea	Hondakinen mugaz bestaldeko tokialdaketak kudeatzeko eta ikuskatzeko irizpideak adostea Aipaturako irizpideak inplikaturako eragileei jakinaraztea Legeriak baimentzen dituen administrazio-sinplifikazio eta arintze aukerak zehaztea Prozedurak erraztea eta argibideak prestatzea	<ul style="list-style-type: none"> — Hondakinen mugaz bestaldeko tokialdaketak kudeatzeko eta ikuskatzeko irizpideak — Administrazio-prozedura eta argibide berriak
Mugaz bestaldeko mugimenduen hobekuntza	Lehentasunezko korronteak definitzea eta zabaltzea Mugaz bestaldeko tokialdaketen kontrolean nahastutako administrazioekin lan egitea	<ul style="list-style-type: none"> — Lehentasunezko korronteen azterketa
Merkatu berdearen sustapena	Planak eragindako sektoreen jarraipena eta analisisa Ingurumen- eta ekonomia-itzulkinak dituen zerga-erreforma sustatzea Merkatu-aukerak aztertzea	<ul style="list-style-type: none"> — Planak eragindako sektoreetan izandako inpaktuaren analisi ekonomikoa — Zerga-erreforma berdearen ikerketa — Planaren esparruan, merkatu-aukerak ikertzea, eragindako sektoreak sartuta

4.5/ BEHARREZKO AZPIEGITURAK

4.5.1/ Beharrak

Jarraian, hondakin-tipologia bakoitzerako, korronte nagusietarako azpiegitura berrien behar posiblea aztertzen da, bai eta beste korronte edo sorrera txikiagoko eremu batzuetan detektatutako hobekuntza-tarteak ere.

Analisi horretatik ondorioztatutako jarduerak 4.4 «Jarduera-programak» atalean deskribatu dira, eta lotutako sail ekonomikoak 4.6 atalean laburtutako aurrekontuan sartuko dira.

4.5.1.1./ Hondakin ez arriskutsuak

EAEEn sortutako hondakin ez arriskutsuen **kudeaketa**-gaitasuna bermatuta dagoela uste da, dokumentu honen 10. eranskinean sartutako balorizazio- eta eliminazio-instalazioen sarearekin. Nolanahi ere, **balorizazioa** onartzen duten korronteetan balorizazio-tratamenduak aplikatzeko gaitasuna hondakin-motaren arabera aldatzen da.

Jarraian, hondakin ez arriskutsuen korronte nagusietarako azpiegitura berrien beharra aztertzen da.

19. TAULA

HONDAKIN EZ ARRISKUTSUEN KORRONTE NAGUSIETARAKO AZPIEGITURA BERRIEN BEHARRAREN ANALISIA

Korrontea	Instalatutako tratamendu-gaitasuna, EAEko sorrerari dagokionez ³⁴	Balioztatutako materialen erabilpen-gaitasuna (erabilerak) ³⁵	Beharrezko instalazioak	Oharra
Altzairugintzako zepak	% 100, gutxi gorabehera. Zepen egokitzapena, Dekretuan ezarritako erabileretan aplikatzeko ³⁶ eta, zabortegian eliminatu aurretik, zati metalikoa berreskuratzeko.	Zehaztugabea (bereziki, zepen Dekretuan zehaztutako erabileretarako).	Ez	EAEko zepen ezohiko sorrerak merkatuak horiek xurgatu ahal izatea saihesten du. Irtenbideak ez dira azpiegituren eraikuntzarantz zuzendu behar, baizik eta zepen erabilera-bide berrien sustapenerantz. Horretarako, erabilera-aukerak zabaldu beharko dira, bai eta erabilera berrietan edo kanpoan aitortutako produktu-arauen betearazpenean sakontzea ahalbidetuko duten erakusketa-proiektuei edo ikerketei heldu ere. Jatorrizko bereizketa egokiak eta zabortegiko sarrera-kontrolak eliminaziora zuzendutako ehunekoa mugatzea ahalbidetuko dute.

[.../...]

³⁴ «Tratamendua» zabortegiko balorizazioaren edo eliminazioaren aurreko edozer prozesatu bezala ulertuta, hondakinari bizi-amaiera horretarako beharrezko ezaugarriak emateko.

³⁵ «Balorizazioa» hondakinaren eduki materiala edo energetikoa aprobetxatzen duen jarduera bezala ulertuta. Hala ere, hori ez da beti industria-prozesuan gertatzen; aldiz, batzutan, adibidez, materiala errepideetako zoruak eraikitze edo nekazaritzan ongari gisa erabiltzeko erabilita lortzen da. Kasu horietan, instalazioa baino, material hori eskatzen duten merkatuen existentzia behar da. Beraz, erlazioztatutako jarduera aipatutako irekieran edo sustapenean arduatutako litzateke, instalazio berrien sustapenean edo horien aldeko apustuan baino.

³⁶ Otsailaren 18ko 34/2003 Dekretua, Altzairua Arku Elektrikoko Labeen Fabrikatzeak sorrarazten duen Zepa Balioztatzea eta Gerora Erabiltzea Euskal Autonomia Erkidegoan arautzen duena.

19. TAULA
HONDAKIN EZ ARRISKUTSUEN KORRONTE NAGUSIETARAKO AZPIEGITURA
BERRIEN BEHARRAREN ANALISIA (JARR.)

Korrontea	Instalatutako tratamendu-gaitasuna, EAEko sorrerari dagokionez	Balioztatutako materialen erabilpen-gaitasuna (erabilerak)	Beharrezko instalazioak	Oharrak
Pasta eta paper lohiak (tinta-kentze lohiak, araztegi-lohiak, kaustifikazioko hondarrak eta kare-lohiak)	% 40-60	% 0 (merkatuan araututako irteerak)	Bai. Sektorearen posizionamendu behar da, aipatutako lohien behin betiko balorizazio-irteeren definizioan eta, irteera horien arabera, baliteke aipatutako lohien tratamendurako edo azken balorizatorako azpiegiturak behar izatea. Gainera, erabat balioztatu ahal izan ezean, zabortegean behar bezala eliminatzeko edo energetikoki balioztatuzeko aurre-tratamenduak gaituko dituzten instalazioak beharko lirateke.	Ez dira berrerabilpen- eta balorizazio-bideen identifikazioa soilik landu behar (zuntzak paperaren fabrikazio-prozesuan berriro sartzeko, teknozoruko gisa erabiltzea, ekoizpen kimiko zehatza, substratuak, puzolarri-materialak, zabortege-estaldurak, etab.), baizik eta horien bideragarritasuna eta erregularizazioa.
Txatarra	>> % 500, txatarraren hautaketaren eta garbiketaren eta garbiketahondakinaren ondoko tratamenduaren bidez.	>> % 500	Ez. EAetik kanpo sortutako txatarra tratatzeko gaitasuna ere badago.	Hurrengo Araudietan araututakoa betetzen dela ziurtatzea: — Burdin-, altzairu- eta aluminio-txatarrari aplikatutako Europako Parlamentuko eta Kontseiluko 2008/98/CE Zuzentarauaren arabera, txatarra-mota jakin batzuk hondakin izateari noiz uzten dioten erabakitzeko irizpideak ezartzen dituen 2011ko martxoaren 31ko 33/2011 Araudia (EB). — Europako Parlamentuko eta Kontseiluko 2008/98/CE Zuzentarauaren arabera, kobre-txatarrak hondakin izateari noiz uzten dioten erabakitzeko irizpideak ezartzen dituen 2013ko uztailaren 25eko Batzordearen 715/2013 Araudia (EB).
HUA lohiak	% 60, gutxi gorabehera, balorizazio materialaren (lurzoruko aplikazioa) edo energetikoaren bidez.	% 60, gutxi gorabehera	Bai. Azpiegiturak behar dira, HUA lohiak lehertzeko Gainera, balorizazio-azpiegituren beharra nabarmena bada ere, aipatutako beharra ezin da zehaztu, erakusketa-proiektuak edo horren nekazaritzako enpleguaren erregulazioa behar bezala landu arte.	Nekazaritzaren erabilerak egokitzapen- instalazio espezifikoak beharko lituzke. HUA berriek sortzen dituzten lohietarako irtenbide zehatzak jaso beharko lituzkete: tokiko balorizazio energetikoa, kanpoko balorizatorako prestaketa, etab.

19. TAULA
HONDAKIN EZ ARRISKUTSUEN KORRONTE NAGUSIETARAKO AZPIEGITURA
BERRIEN BEHARRAREN ANALISIA (JARR.)

Korrontea	Instalatutako tratamendu-gaitasuna, EAEko sorrerari dagokionez	Balioztatutako materialen erabilpen-gaitasuna (erabilerak)	Beharrezko instalazioak	Oharrak
Galdaketako hondarrak (moldekatze berdeko hondarrak eta zatiki finak eta moldekatze kimikoko hondarrak eta zatiki finak)	% 50-70, autotratamenduaren eta berrerabiltzeko prestakuntzaren bidez	% 100	Bai. Berrerabili edo balioztatu aurreko tratamendurako.	Lehentasuna eman behar zaio hondarren berrerabilpenari galdaketetan edo beirategietan eta, tratamendu-gaitasuna ase ondoren, balorizazio materiala hautatu behar da, zementu-instalazioetan.
Kutsatu gabeko lur hondatuak	% 0	% 0	Bai. Hondatutako lurzoruak egokitzeko eta biltegitratzeko azpiegitura(k) behar d(ir)ia, balioztatzeko. Halaber, geldoen zabortegia(k) behar d(ir)ia, balioztatu ezin den frakzioa isurtzeko	Balorizazio-azpiegituratik, honako hauek aprobetxatuko lirateke: — Kutsatu gabeko frakzio lodia — Balio erantsiko produktuak (lur begetala...) — Beste toki batzuetan kudeatu beharreko askotariko materialak. Aipatutako azpiegituren garapena berrerabiltzeko prestakuntza-, birziklapen- eta balorizazio-programan jasotako horien bideragarritasun-analisiaren aurreko jardueraren menpe egongo da (R-A10-3).

Urteko sorrera txikiagoa duten eta egoera zehatzak aurkezten dituzten beste hondakin-korronte batzuk daude:

- **Hondakinen tratamendu-instalazioetan sortutako bero-botere handiko hondakinek** (hala nola, txatarrarekin etorri ohi diren zur-soberakinak edo TMB tratamendu-instalazioetako hondakin jakin batzuk, edo edukiontziak bereizteko instalazioetako edo EEHen tratamendu-instalazioetako hondakin jakin batzuk) euren balorizazio-tasa hobetu dezakete, EAEn baimendutako balorizatzaileen kudeaketa-gaitasuna agortuta eta frakzio-soberakina balorizazio energetikoko instalazioetara bidalita, horrela, balorizazio energetikoari lehentasuna emanda, zabortegian uztearen aurrean.
- **Hondakinen zatiketaren frakzio arinaren**, arloan (bereziki, erabiltzen ez diren ibilgailuak eta gailu elektrikoak eta elektronikoak), egun, ez dago balorizazio-

gaitasunik sortutako guztirako, baina erakustaldi-proiektuen garapena hartzen da kontuan, etorkizunean problematika horri aurre egiteko.

- **Sortzen ari diren hondakinen eta legeriaren** arloan, ez da espero inongo korronte berririk sorrera esanguratsuegia lortzea baina, nolahi ere, arreta berezia jarri behar da fluxu berri horien kudeaketari; hala nola, bioteknologiaren eta nanoteknologiaren hondakinak, hondakin aeronautikoak, nanomaterialak, bioplastikoak, konposite-hondakinak, etab.
- **Industria- edo hiri-hondakinak** bezalako zenbait hondakinatarako, kudeaketa-eskasiarik ez dagoela ulertzen da; aldiz, bereizketa egokia bultzatzeko beharra dago hondakinen ekoizleen aldetik, balioztatu daitezkeen frakzioak atera eta, horrela, euren kudeaketa hobetu ahal izateko.

4.5.1.2/ Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak

Egoera ekonomikoak asko baldintzatzen ditu eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen balorizazio-behar posibleak; izan ere, eraikuntza-sektorean erregistratutako jardueraren beherakadak asko eragin dio hondakin-mota horren sorrerari.

Egun existitzen diren azpiegitura finakoak, erdi-mugikorrek eta mugikorrek nahikoak izan daitezkeela esan daiteke, sorreraren joera alderantzikatu arte; izan ere, aipatutako distantzia-irizpidea (25 km) kasu guztietan ase ezin bada ere, existitzen diren instalazioek euren errendimendu osoa lortzea sustatu beharko da, errentagarritasun-faltaren ondorioz ixtea saihesteko. Hala ere, materialen garraio-kostuetatik ondorioztatutako aipatutako irizpidea dela eta, komenigarria da Gipuzkoako Lurralde Historikoko EEHen balorizazio-azpiegituren beharra aztertzea.

Edozer kasutan, eraikuntzako eta eraispeneko hondakinetatik ateratako materialen erabilera ezberdinen normalizazioak eta erosketa publikoaren sustapenak ekoizpen-zikloan sartzea erraztuko dute.

4.5.1.3/ Hondakin arriskutsuak

Egun, hainbat motako 100 instalazio³⁷ baino gehiagok era-
tutako EAEko hondakin arriskutsuen kudeaketa-gaitasuna gutxinaka kontsolidatu da azken hamarkadetan, ekimen pribatuaren ondorioz, bai eta, horretarako bere gaitasuna handitu zuen instalazioan, altzairugintzako hautsak birziklatzeko horien ekoizleek adostutakoa bezalako hitzarmenen ondorioz ere.

21. taulak hondakin arriskutsuen korrante nagusietarako kudeaketa-beharrak aztertzen ditu.

20. TAULA ERAIKUNTZAKO ETA ERAISPENEN HONDAKINETARAKO AZPIEGITURA BERRIEN BEHARRAREN ANALISIA

Korrontea	Instalatutako tratamendu-gaitasuna, EAEko sorrerari dagokionez	Balioztatutako materialen erabilpen-gaitasuna (erabilerak)	Beharrezko instalazioak	Oharrak
EEH	% 100, gutxi gorabehera	% 40, araura doituta	Bai. Instalatutako gaitasuna nahikoa dirudi. Nolanahi ere, garraio-kostuek eta 25 km-tan zehaztutako tratamendurako bideragarritasun-distantziak Gipuzkoako EEHen balorizazioaren aurreko tratamendurako azpiegitura berrien aukera aztertzea aholkatzen dute. Gainera, baliteke instalazio txikiren bate behar izatea, Arabako kuadrilla zehatzen batean.	Balorizazio-bide berrien bilaketa sustatzeaz gain, ezinbestekoa da birziklatutako materialen kontsumo publikoa bultzatzea. Aipatutako azpiegituren garapena berrerabiltzeko prestakuntza-, birziklapen- eta balorizazio-programan jasotako horien bideragarritasun-analisiaren aurreko jardueraren menpe egongo da (R-A2-14)

³⁷ Gutxi gorabehera, CTVFUri dagozkion 55 instalazio inguru sartu dira

21. TAULA
HONDAKIN ARRISKUTSUEN KORRONTE NAGUSIETARAKO AZPIEGITURA
BERRIEN BEHARRAREN ANALISIA

Korrontea	Instalatutako tratamendu-gaitasuna, EAEko sorrerari dagokionez	Balioztatutako materialen erabilpen-gaitasuna (erabilerak)	Beharrezko instalazioak	Oharrak
Altzairute-gietako hautsak	% 150-160	% 100	Ez	Beste Autonomia Erkidego eta Estatu batzuetatik etorritako altzairugintzako hautsen inportazio nabarmena dago.
Desugerketa-azidoak	% 190-200	% 100	Ez	EAEn balorizazio-gaitasuna badago ere, beste Autonomia Erkidegotaranzko irteera antzematen da, merkatu-arrazoak direla eta; ondorioz, komenigarria deritzo gertutasun- eta autosufizientzia-printzipioen betearazpena sustatzea, baldintza baliokideetan.
Aluminioaren bigarren mailako ekoizpenaren zepa gaziak	Egun, balorizatzaile bakarra estatu mailan	% 100	EAEn, ezarri berri den aluminioa galdatzeko instalazioari lotutako balorizazio-instalazioaren martxan jartzea aurreikusi da, epe motzera.	Egungo sorrera Estatuan existitzen den balorizazio-instalaziora bidaltzen da.
Aluminioaren bigarren mailako ekoizpenaren galauts beltzak	% 410-420	% 100	Ez	
Kutsatutako lurzoru arriskutsuak	% 0	% 0	Ez	Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak 2008an egindako ikerketak 65.000 tona/urteko errentagarritasun-ataria ezarri zuen, EAEn tratamendu-instalazioa instalatzeko; aldiz, 2010ean, korronte horrek 34.346 tona lortu zituen (ez urteko ekoizpenari lotua, baizik eta sorrera historikoaren ondorioz).

Jarraian, ezaugarri zehatzak aurkezten dituzten urteko sorrera txikiagoa duten beste korrante batzuei lotutako egoera aztertzen da:

- Hain atomizatutako sorrera-korrontearen EAEko tratamendu-gaitasuna zabalduko duen **osasan-hondakinen** tratamendu-instalazio berria martxan jartzea aurreikusten da epe motzera. Bertan, kudeaketaren baimendutako zirkuituan euren sarrera sendotu behar duten zenbait eremu detektatzen dira oraindik (abeltzaintza-sektoreko albitari-hondakinak, odontologia-zentroetako hondakinak, etab.).
- **Erabiltzen ez diren kamioien** kudeaketaren eremuan, baimendutako bi berreskuratze- eta deskontaminazio-zentro daude EAEn, baina komenigarria deritza zentro berrien gaikuntza bultzatzea, bai eta ekoizleak hondakin-mota horren balio-bizitzaren amaieran hori kudeatzeko behararen inguruan sentsibilizatzea ere.
- **Euren balio-bizitzaren amaieran itsasontziak** desegiteko instalazioen eskasia detektatzen da, baina existitzen diren zenbait ontziolen egokitzapenak egoera hori konpondu dezakeela uste da; aldi berean, horrek sektorerako merkatu berria ekarriko luke.
- Hainbat tratamendu-instalazio dituzte EAEn, hainbat tipologiarako tratamendu-instalazioak (pilak, fluoreszenteak, ordenagailuak, garbigailuak...) eta hozkailuak bezalako zenbait kategoria zehatzetarako eskasia egonda. GEEH berrerabiltzeko prestakuntzarako instalazioen instalatutako gaitasuna defizitarioa da oraindik.
- **Amalgamak eta merkurioa duten urak, termometroak eta merkurioa duten laborategiko produktuak, nekazaritzako eta abeltzaintzako instalazioetako hondakin fitosanitarioak eta zoosanitarioak** bezalako zenbait hondakinatarako, ez da uste kudeaketa-ekeskasia dagoenik; aldiz, bereizketa eta baimendutako kudeatzailearekiko entrega egokia bultzatzeko beharra dago, hondakinen ekoizleen aldetik.

4.5.1.4/ Hiri-hondakinak

Hiri-hondakinen kudeaketa-azpiegituren plangintza Lurralde Historiko bakoitzaren eskumena da. Prebentzio edota Kudeaketa Plan bakoitza aztertuta, aurreikusitako instalazio eta azpiegitura guztiak gauzatu ondoren, onartzen duten korranteen balorizazio-

tratamenduak aplikatzeko gaitasuna bermatuta egongo dela detektatzen da.

Plan horien indarraldiaren arabera, plangintza berriek gaika bildutako biohondakinen zein edukiontzia osatzen ez dituzten beste material batzuen tratamendua beratzen dutela zainduko da (hala nola, plastikoa, zura, beira edo metala). Halaber, planifikatutako instalazioak gaikako bilketetan sortutako hobekuntzak eta frakzio ezberdinen sektore-araudietatik ateratako betekizun berriak xurgatzeko gai direla ziurtatu beharko da.

3.2.3.3 «Existitzen diren hondakinen birziklapen-, balorizazio- eta eliminazio-instalazio nagusiak» atalean aipatutakoaren arabera. Hiri Hondakinak, Bizkaian eta Araban, beharrezko azpiegiturak garatuta daude dagoeneko eta nahikoak izango lirakeke Planean ezarritako helburuak ezartzeko, euren erabilera eraginkorra bermatuko duten zenbait jarduerekin batera. Gipuzkoan, zenbait azpiegitura ez daude garatuta eta, 2016rako foru-araudaren mailarekin planifikatutakoaren arabera, horiek nahikoa izango lirakeke etorkizuneko helburuen betearazpena bermatzeko. Nolanahi ere, arrisku nabarmenak daude, horien gauzapenaren atzerapena dela eta, plangintzan jasotako kronogramaren arabera.

Horregatik, ezinbestekoa da plangintzan ezarritako epeen betearazpenaren bermeen ezarpena eta arrisku potentzialen detekzioa eta horien konponketa, gertakizun-planen bidez.

Beste aldetik, beharrezkoa da ere, aldi berean, ordeko aukera posibleak aztertzea, aurreko neurriak azkenean eraginkorrak ez izanda, aipatutako azpiegituren garapenaren atzerapena sortzen den kasuan.

Halaber, EAEko maila globalean, hobekuntza-tartea antzematzen da korrante edo eremu jakin batzuetan:

- Gaikako bilketarako eta bereizketarako eremuak izatea, Etxeko Hondakin Arriskutsuen eta egiturazko fibrozementuen zein GEEHen baldintza egokietan, azken kasuan, berrerabiltzeko prestakuntza ahalbidetzeko beharrezko baldintzak betetzen direla zainduta.
- Alta emandako Ekoizlearen Erantzukizun Luzatuko 9 Sistema Kolektiboak izanda ere (EELSK, lehen KSI), beharrezkotzat jotzen da sortutako GEEHen bilketa handitzera zuzendutako neurriak hartzea, hondakin-frakzio horri buruzko Europako azken Zuzentaraua³⁸ birlandatzen duen azken araudian jasotako helburuak lortu arte.

³⁸ 2015eko abenduaren 31ra arte, etxe partikularretatik (industrietako, saltokietako eta erakundeetako antzekoak barne) ateratako GEEHen urteko 4kg/biztanleko batezbestekoa gutxienez aplikatzen jarraituko duen, edo aurreko hiru urteetan dagokion estatu kidean batez beste bildutako GEEH pisu berdina (kopuru handiena hautatuta) aplikatuko duen gailu elektrikoaren eta elektronikoaren (GEEH) hondakinei buruzko 2012ko uztailaren 4ko Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 2012/19/UE Zuzentaraua.

— **Berrerabiltzeko prestakuntzaren** arloan³⁹, azken urteetan erregistratutako ekimenak bilketa-kanalak zein ondorengo tratamendu-eragiketak erraztuko dituzten neurri berrieekin osatu behar dira.

- Garbiguneen edo euren balio-bizitza agortu ez duten hondakinak uzteko eremu zehatzen puntu garbien gaikuntzak, bai eta bilketa horri buruzko irizpideak hartzeak ere, egoera hori hobetzea ahalbidetuko luke.
- Gainera, zuntzak, tamaina handikoak eta GEEH berrerabiltzeko prestakuntzarako beharrezko gaitasuna osatzeko instalazioak behar dira.

4.5.2/ Instalazio berriak ezartzeko irizpideak

2020ko Hondakin Planak hondakin kudeaketa-instalazio berriak aktiboki sustatzen ez badiu ere, ezin da alde batera utzi instalazio-mota horren ondorengo garapenerako plangintza-esparrua dela, indarreko araudiak eta Planak berak ezarritako helburuak lortzeko beharrezkoak diren heinean.

Hori jakinda, Hondakin Planak hondakin kudeaketako instalazio berriak ezartzeko kontuan izan beharko diren ingurumen-irizpide batzuk zehatzen ditu, izan litezkeen lotutako ingurumen-inpaktuak saihesteko edota, bestela, minimizatzeko. Irizpide horiek kontuan izan behar dira honako haueetan:

- Hondakin kudeaketarekin erlazionatutako instalazio berrien instalaziorako kokapenen definizioa.
- Aipatutako instalazioen ezarpena ahalbidetzen duten planak onartzeko prozeduretan zein helburu horrekin aurreikusitako proiektuak baimentzeko garatutako ingurumen-analisia.

Jarraian garatutako ingurumen-irizpideak hurrengo aspektuen inguruan egituratzen dira, Ingurumen Administrazioaren zuzendariaren 2014ko apirilaren 20eko Ebazpenaren bidez igorritako Erreferentziazko Dokumentuan ezarri bezala:

- Neurketa
- Teknika erabilgarri onenen aplikazioa
- Ingurumen-balore garrantzitsuen zaintza
- Ingurumen-arrisku berrien edo euren larriztearen prebentzioa.

— Hondakin kudeaketako instalazio jakin batzuk jasotzeko sustatu behar diren eta garrantzitsuak ez diren eremuak balorean jartzea, naturalismoaren, kulturaren edo ingurumen-arriskuaren ikuspuntutik, ingurumenerako eragin kaltegarri gutxiago dituzten plan bideragarrien garapenerako ordezko aukeren aldeko apustua sendotuta.

Nolanahi ere, jarraian zehaztutako ingurumen-irizpideez gain, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Plan Sektorialetan sartutako bestelako irizpideak ere kontuan izan beharko dira. Horiek hemen kontsultatu daitezke:

<http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-20698/eu/>

4.5.2.1/ Instalazioen diseinu-irizpideak, dimentsionaketa barne sartuta

- Hondakin kudeaketaren instalazioak proiektatu egin beharko dira, teknika erabilgarri onenak kontuan izanda, horiek gutxien kutsatzen duten teknikoki eta ekonomikoki bideragarriak diren teknikak izanda.
- Ahal den heinean, instalatzea aurreikusten duen prozesu teknologikoak hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legearen 8. artikuluan jasotako hondakin kudeaketa-hierarkia bete beharko du.
- Denborazko garapenari dagokionez, sustatu daitezkeen instalazioek EAEko egungo eskaera aurreikusgarria eta tratatu nahi duten hondakin-korronteari lotutako egungo eta etorkizuneko lege-betekizunak izan beharko ditu kontuan; izan ere, hondakin jakin batzuk epemuga zehatzak dituzten helburu zehatzen eragina dute.
- Ez dira zabortegiak baimenduko, hurrengo 10 urteetarako EAEko zabortegian uztearen bidezko eliminazioaren gaitasun osoak aldi horretarako planifikatutako isuri-kalkulua % 200 gainditzen duenean.
- Ordezko aukeren konparazioko ingurumen-analisietan, honako hau ekartzen duten instalazioei emango zaie lehentasuna:
 - Balorizazio-forma berriak edo jadanik ezarritako balorizazio-prozesuen dibertsifikazioaren handiagotzea.
 - Jadanik ezarritako balorizazio-prozesuei buruzko hobekuntza teknologikoa.
 - Jadanik ezarritako instalazioek beharrezko gaitasuna estaltzen ez duten hondakin kudeaketako korronteetarako instalatutako balorizazio-gaitasunaren handiagotzea.
 - Mugikortasun txikiagoa, horren ondoriozko osasunaren eta ingurumenaren gaineko inpaktuen minimizazioarekin, analisi logistikotik abiatuta justifikatuta.

³⁹ Oraindik amaitu gabeko GEEH Zuzentarauaren transposizioaren prozesuan, % 5eko helburua kontsideratu da, GEEH guztiak berrerabiltzeko prestakuntzarako gutxieneko ehuneko gisa, argiteriaren kategoriarako izan ezik.

4.5.2/ Instalazioak kokatzeko irizpideak

a) Ez da hondakinen kudeaketarekin erlazionatutako instalazio berrien kokapena baimenduko, jarraian adierazitako babes-erregimenen bat duten espazioetan edo eremuetan, nola eta ez duen baimentzen erregulazio zehatzeko araudiak. Azken kasu horretan, behar bezala justifikatu beharko da eskuraezintasuna edota beste esparru batzuen egokitasun-falta:

- **Parke naturalak.** Kartografia erabilgarriaren bistaratzea hemen: <http://www.geo.euskadi.net/s69-bisorea/es/x72aGeoeuskadiWAR/index.jsp>, eta deskarga hemen: ftp://ftp.geo.euskadi.net/cartografia/Medio_Ambiente/Espacios_Naturales/Espacios_Naturales_Protegidos_Ley_16_1994/ eta ftp://ftp.geo.euskadi.net/cartografia/Planeamiento/PORN_PRUG/.
- **Biotopo babestuak.** Kartografia erabilgarriaren bistaratzea hemen: <http://www.geo.euskadi.net/s69-bisorea/es/x72aGeoeuskadiWAR/index.jsp>, eta deskarga hemen: ftp://ftp.geo.euskadi.net/cartografia/Medio_Ambiente/Espacios_Naturales/Espacios_Naturales_Protegidos_Ley_16_1994/ eta ftp://ftp.geo.euskadi.net/cartografia/Planeamiento/PORN_PRUG/.
- **Zuhaitz bereziak.** Kartografia erabilgarriaren bistaratzea hemen: <http://www.geo.euskadi.net/s69-bisorea/es/x72aGeoeuskadiWAR/index.jsp>, eta deskarga hemen: ftp://ftp.geo.euskadi.net/cartografia/Medio_Ambiente/Espacios_Naturales/Espacios_Naturales_Protegidos_Ley_16_1994/.
- **Natura 2000 Europako Sareak barne hartzen dituen eremuak edo lekuak:** Garrantzi Komunitarioko Lekuak (GKL), Babes Bereziko Eremuak (BBE) eta Hegaztien-tzako Babes Bereziko Eremuak (HBBE). Kartografia erabilgarriaren bistaratzea hemen: <http://www.geo.euskadi.net/s69-bisorea/es/x72aGeoeuskadiWAR/index.jsp>, eta deskarga hemen: ftp://ftp.geo.euskadi.net/cartografia/Medio_Ambiente/Espacios_Naturales/Natura_2000/.
- **Euskadiko naturaren babeserako ekainaren 30eko 16/1994 Legearen arabera izapidetzen ari diren eremu geografikoak, Natura baliabideak Antolatzeko Plangintza batean bildutakoak** (onartutako BNAP Hasiera Aginduarekin). Informazioa eskuragarri hemen: <http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-u95/es/u95aWar/lugaresJSP/U95aEntradaFiltroLugaresEnTramitacion.do?flnMenu=true>.
- **Euskadiko Hezeguneen Lurralde Plan Sektorialaren II. Taldean sartutako hezeguneak.** Kartografia erabilgarriaren bistaratzea hemen: <http://www.geo.euskadi.net/s69-bisorea/es/x72a-GeoeuskadiWAR/index.jsp>, eta deskarga hemen: ftp://ftp.geo.euskadi.net/cartografia/Planeamiento/PTS/PTS_ZonasHumedas/.
- **Urdaibaiko Biosfera Erreserba** (5/89 Legea, EKPG, JSHGP). Kartografia erabilgarriaren bistaratzea hemen: <http://www.geo.euskadi.net/s69-bisorea/es/x72aGeoeuskadiWAR/index.jsp>, eta deskarga hemen: ftp://ftp.geo.euskadi.net/cartografia/Medio_Ambiente/Espacios_Naturales/Reservas_De_La_Biosfera/ eta ftp://ftp.geo.euskadi.net/cartografia/Planeamiento/PORN_PRUG/.
- **Txingudiko Plan Bereziak antolatutako eremua.** Kartografia erabilgarriaren deskarga hemen: ftp://ftp.geo.euskadi.net/cartografia/Planeamiento/Planes_Especiales_De_Proteccion/.
- **EAEko Kostaldea Babesteko eta Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialeko Babes Berezi Zorrotzaren eta Babes Berezi Bateragarriaren kategoriak.** Kartografia erabilgarriaren bistaratzea hemen: http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-565/es/contenidos/informacion/pts_litoral/es_7559/indice_c.html eta deskarga hemen: ftp://ftp.geo.euskadi.net/cartografia/Planeamiento/PTS/PTS_Litoral/.
- **Akuiferoen kutsaduraren aurrean oso zaurkorrek diren eremuak.** Kartografia erabilgarriaren bistaratzea hemen: <http://www.geo.euskadi.net/s69-bisorea/es/x72aGeoeuskadiWAR/index.jsp>, eta deskarga hemen: <ftp://ftp.geo.euskadi.net/cartografia/Geocientifica/Geologia/>.
- **Lurralde Plan Partzialek babestutako eremuak, euren natura-interes handiaren arabera.** Kartografia erabilgarriaren bistaratzea hemen: http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-565/es/contenidos/informacion/ptp/es_1167/indice_c.html eta deskarga hemen: <ftp://ftp.geo.euskadi.net/cartografia/Planeamiento/PTP/>.
- **Hirigintzako araudiak babestutako eremuak, euren natura-interes handiaren arabera.** Kartografia erabilgarriaren bistaratzea hemen: <http://www.geo.euskadi.net/udalplan/visor/viewer.htm> eta deskarga hemen: <ftp://ftp.geo.euskadi.net/cartografia/Planeamiento/Udalplan/>.
- **Mehatxatutako flora eta fauna espezieak kudeatzeko planetan interes bereziko eremu edota banaketa naturaleko eremu gisa identifikatutako eremuak, baldin eta Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoko «Galzorikoak», «Kalteberak», «Bakanak» edo «Interes bereziko» kategorietan sartuta badaude.**
- **Mendebaldeko Kantauriko, Ekialdeko Kantauriko eta Ebroko Mugape Hidrografikoen Plan Hidrologikoetako Eremu Babestuen Erregistroko eremuak, bai eta aipatutako erregistroen bilketen babes-perimetroetan sartutako eremuak ere.** Kartografia erabilgarriaren bistaratzea hemen: ftp://ftp.geo.euskadi.net/cartografia/Aguas_Interiores/REGISTRO_ZONAS_PROTEGIDAS/.
- **LAZen Interes Naturalistikoko Guneen zerrendan eta EAEko Naturagune Garrantzitsuen Katalogo Irekian**

sartutako eremuak. Kartografia erabilgarriaren bistaratzea hemen: <http://www.geo.euskadi.net/s69-bisorea/es/x72aGeoeuskadiWAR/index.jsp>, eta deskarga hemen: ftp://ftp.geo.euskadi.net/cartografia/Medio_Ambiente/Espacios_Naturales/Otros_Espacios_Naturales_De_Interes/.

— **Nekazaritzako eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialaren Balore Estrategiko Handiko kategorian sartutako lurzoruak** (behin betiko onartzeke).

Kartografia erabilgarriaren bistaratzea eta deskarga hemen: ftp://ftp.geo.euskadi.net/cartografia/Planeamiento/PTS/PTS_Agroforestal/.

— **500 urteko birgertatze-aldiak dituzten urpetu daitezkeen eremuak.**

Kartografia erabilgarriaren bistaratzea hemen: <http://www.geo.euskadi.net/s69-bisorea/es/x72a-GeoeuskadiWAR/index.jsp>, eta deskarga hemen: ftp://ftp.geo.euskadi.net/cartografia/Aguas_Interiores/INUNDABILIDAD/.

— **Euskal Kultura Ondarearen ondasun gisa kalifikatutako edo inbentariatutako Monumentuak, Monumentu Multzoak eta Kultura Eremuak.**

b) Ahal den heinean, hondakinen kudeaketarekin erlazionatutako instalazio berrien sustatzaileek presuntzio arkeologikoko eremuak zehazteko erregimena ezartzen duen urriaren 8ko 234/1996 Dekretuaren esparruan zehaztutako

eta mugatutako Presuntzio Arkeologikoko Eremuetan kokatzea saihestuko dute. Aipatutako eremuak hondakinen kudeaketa-instalazioa ezartzeko erabiltzea aurreikusten denean, Euskal Kultura Ondarearen uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 49. artikuluan eta aipatutako 234/1996 Dekretuan ezarritako babes-erregimena bete beharko da.

- c) Ahal izanez gero, hondakinen kudeaketarekin erlazionatutako instalazio berriak instalazioaren aurreikuspenaren aurreko 2 urteetan, urteko egunen % 90an, gutxienez, guztiz edo partzialki aire-kalitate Ona edo Oso ona duten udalerrietan kokatutako kokapenetan instalatuko dira (planaren izapidetzearen hasiera edo proiektu-baimenaren eskaera), hurrengo taularen arabera:
- d) Hondakinen kudeaketarekin erlazionatutako instalazio berrien kokapenerako, antropizatutako lurzoruen berrera-bilpena sustatuko da eta horri lehentasuna emango zaio, lurzoru naturalen edo urbanizatu gabeen artifizialtzearen aurrean. Ahal izanez gero, zabortegetan datzaten eliminazio-instalazioak zabortegei ez aktiboetan kokatuko dira.
- e) Euren karga kutsatzaile handiaren ondorioz inpaktu esanguratsua izan dezaketen uretarako isurien instalazioak direnean, euren kokapena biltokietatik edota industria-isuriak hartzen dituzten HUAetatik gertu izatea sustatuko da, eta horri emango zaio lehentasuna.

Airearen kalitatearen egoera	NO ₂ (µg/m ³)	SO ₂ (µg/m ³)	CO (µg/m ³)	O ₃ (µg/m ³)	PM ₁₀ (µg/m ³)	PM _{2,5} (µg/m ³)
Oso ona	0-50	0-42,5	0-5.000	0-90	0-25	0-16
Ona	50-100	42,5-83,75	5.000-7.500	90-160	25,1-50	16-33
Hobetzeko modukoa	100-200	83,75-125	7.500-10.000	160-180	50,1-65	33-39
Txarra	200-400	125-166	10.000-20.000	180-270	65,1-82,5	39-50
Oso txarra	>400	>166	>20.000	>270	>82,5	>50

4.6/ PLANAREN BALIABIDE EKONOMIKOAK

«2020ko Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planak» zazpi urteko indarraldia du, eta horren betearazpena 2015-2016 eta 2017-2020 aldietarako bi Jarduera Planen bidez antolatzen da, azken urtea hurrengoaren ebaluaziorako eta plangintzarako gordeta, dagokion kasuan.

Aurreikusitako epemugak bost urte gainditzen dituen heinean, Planaren aurrekontu-beharren konfiguraziorako faktore erabakitzaileetan ezjakintasun-maila esanguratsua dagoela esan daiteke, eta hori handitu egiten da indarraldiko azken urteetarako.

Horregatik, eta ezarritako helburuen lorpenaren premisatik abiatuta, jasotako jarduerak malgutasun-maila jakin bat aurkeztu behar dute, besteak beste, etorkizuneko ekonomia-eta ingurumen-bilakaerara egokitzeko.

Hurrengo urteetako bilakaera makroekonomikoaren inguruan ezjakintasuna egonda ere, eta Autonomia, Foru zein tokiko Administrazioaren aurrekontu-herstura egoera probablearen arabera, «2020rako Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planean» jasotako Jarduera ldoak betetzeko aurrekontu-beharren kalkulua egin da, Eusko Jaurilaritzako teknikarien irizpide adituaren bidez (Ingurumen Sailburuordetza eta lhobe).

Plana garatzen duten Programa bakoitzerako urteko banakapena hurrengo taulan aurkezten da.

Baldintzatzaile horiekin, Plana behar bezala betearazteko kalkulaturako aurrekontu eragilea 3.591.000 €⁴⁰ dira, Planaren indarraldiaren zazpi urteen artean banatuta.

Nolanahi ere, 2016an, gauzatu beharreko jarduerak eta, ondorioz, data horretara eguneratutako lotutako zenbaterako ekonomikoa birdoitzea ahalbidetuko duen Planaren azterketa egitea aurreikusten da.

22. TAULA

2020RAKO EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HONDAKINAK PREBENITZEKO ETA KUDEATZEKO PLANA GARATZEKO AURREIKUSITAKO AURREKONTUAREN BANAKAPENA

Programa bakoitzeko aurrekontua (€)	Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planaren indarraldia							Guztira	%
	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020		
Prebentzio Programa	109.000	342.000	322.000	266.000	201.000	201.000	0	1.441.000	% 41,93
Gaikako Bilketa eta Bereizketa Programa	14.500	76.500	36.000	53.000	20.000	20.000	0	220.000	% 4,99
Berrerabiltzeko Prestakuntza, Birziklapen eta Balorizazio Programa	220.000	310.000	205.000	138.000	103.000	78.000	0	1.054.000	% 26,64
Eliminazioa Optimizatze Programak	15.000	5.000	5.000	41.000	16.000	0	0	82.000	% 2,39
Administrazioaren eredugarritasunaren eta gobernu egokiaren programa	76.000	94.000	123.000	146.000	126.000	141.000	88.000	794.000	% 24,04
Guztira	434.500	827.500	691.000	644.000	466.000	440.000	88.000	3.591.000	% 100,00
%	% 12,10	% 23,04	% 19,24	% 17,93	% 12,98	% 12,25	% 2,45	% 100,00	
Kudeaketa⁴⁰	448.000	448.000	448.000	448.000	448.000	448.000	448.000	3.136.000	

1.953.000 (Lehen Jarduera Plana)

1.550.000 (Bigarren Jarduera Plana)

⁴⁰ Ingurumen Sailburuordetzako eta lhobe Eusko Jaurilaritzako Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoaren egituraren eta langileen kudeaketa.

4.7/ PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

4.7.1/ Planaren berrikuspena

Hondakinen sorreraren eta kudeaketaren bilakaerak, hondakinekin erlazionatutako araudi berriaren onarpenak eta egoeraren zein merkatuaren aldaketek edozer hondakin-plangintza aldizka berrikustea beharrezko bihurtzen dute.

Gainera, hori aipatutako plangintza garatzeko eta emaitzak lortzeko Arrakastarako Faktore Kritikoa dela frogatu da.

Alde horretatik, «2020rako Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planean» jasotako Programen eta Jarduera Ildoen garapen osoa bermatzeko, kapitulu honetan, aurrerapen-maila ebaluatzea, zailtasunak detektatzea eta desbiderakuntzak zuzentzea eta 2016rako zein 2020rako ezarritako helburuak lortzea ahalbidetuko duten Planaren aldizkako jarraipenari eta berrikuspenari lotutako tresnak, metodologia eta erantzukizunak zehazten dira.

4.7.2/ Planaren Berrikuspen Erakundeak eta erantzukizunak

Jarraipen eta aldizkako berrikuspen lan hori Planaren Jarraipen Batzordeei dagokie. Bi batzorde eratuko dira: bat, Ingurumen Sailburuordetzaren diziplina anitzeko taldeak maila teknikoan eraturakoa, eta bestea, Ingurumen Sailburuordetzaren arduradun politikoak izango dituen maila exekutibokoa.

Urtero, **Jarraipen Batzorde Teknikoak** gutxienez honako hau jasoko duen txostena prestatuko du:

- Planaren adierazleen jarraipena (urte horretako emaitza metatuarekin, erreferentziazko helburuen aurrean)
- Jarduera bakoitzaren ebaluazioa, aurrerapen mailari, helburuari egindako benetako ekarpenari eta neurriaren balorazioari dagokionez.
- Ekitaldian zehar, Planaren garapenean nahastutako eragile ezberdinen asetasuna edo feedbacka.

Aipatutako txostena emaitzak «Planaren adierazleen agintemahaian», gauzatu beharreko aldaketa-proposamena eta «Planaren urteko Kudeaketa Planaren» proposamen-zirriborroa modu laburtuan proposatuko dituen «urteko laburpen exekutiboarekin» batera emango da.

Batzorde Exekutiboak aipatutako dokumentuak aztertuko ditu eta hurrengo ekitaldiko urteko kudeaketa-planean gauzatu beharreko aldaketen inguruan erabakiko du; aldaketak behar izanez gero, aipatutako ekitaldian inplikaturako eragileekin adostuko da.

4.7.3/ Jarraipen-sistema eta lotutako dokumentazioa

Lehen aldian, Plana 2015-2016 bi urteko ekintza-planarekin batera joango da; horren gainean, dagokion urteko kudeaketa-plana eguneratzen joango diren urteko azaleko ebaluazioak egiten joango dira.

Biurtekoaren amaieran, horren inguruko emaitzen eta informazio publikoaren argitalpena ekarriko duen horren azterketa sakona egingo da, bai eta urtero aztertzen jarraituko den hurrengo laurtekorako Lan Plangintza berriaren garapena ere.

Lotutako txostenen prestakuntzan, jarraipeneko Batzorde Teknikoak EAEko hondakinak sortzeko eta kudeatzeko dinamikan **inplikaturako eragile talde** bat izango du lagun, Planaren garapen mailari buruzko ekarpenak zein aurreikusi bezala garatzen ari ez diren jarduera-ildoen aurreko proposamenak jasotzeko.

Halaber, Planaren jarraipenerako funtsezko tresna gisa, hondakin arriskutsuen, ez arriskutsuen, eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen eta hiri-hondakinen **inbentarioen urteko argitalpena** hartzen da, jarraipena errazteko, jarraian adierazitako atalean aipatu bezala: «3.2.5. Aurreko planetako ebaluazioaren ondorioak». Inbentario horiek ekitaldia itxi eta hurrengo 6 hilabeteetan egongo dira eskuragarri, desbiderakuntzen kontrolerako eta detekziorako funtsezko tresna bezala erabili ahal izateko; izan ere, adierazle garrantzitsuenak inbentario horietako datuetatik eta informaziotik abiatuta kalkulatu dira.

Planaren azken berrikuspena horren indarraldiaren azken urtean gauzatuko da, 2020. urtean, horretarako, 2019ko inbentarioetako datuak eta adierazleak izanda; horrek 2020. urtean lortzea aurreikusten diren emaitzen joera emango du. Berrikuspen horrek indarraldian lortutako emaitzak ebaluatzea ahalbidetuko du, eta 2015-2020koa ordezkatuko duen hondakin-plan berriaren plangintza egiteko oinarria emango du. Oraingoan, lortutako azken emaitzak ere argitaratuko dira.

4.7.4/ Jarraipen-adierazleak

Helburu estrategikoen betearazpena ebaluatzeko, 23. taulan jasotako adierazleak ezartzen dira.

23. TAULA
2020KO EAEKO HONDAKINAK PREBENITZEKO ETA KUDEATZEKO PLANAREN
HELBURU ESTRATEGIKOEN JARRAIPEN-ADIERAZLEAK

Planaren helburu estrategikoak	Helburu partzialak - aldi baterako	Adierazleak
Sortutako hondakinen kopuru totala % 10 jaitea 2020rako, erreferentzia urtetzat 2010 hartuta; baita hondakinen arrisku-garritasuna jaitea ere	<ul style="list-style-type: none"> — 2010eko hondakin guztien gaineko % 5eko murrizketa 2016rako, eta % 10ekoa 2020rako. — Hondakin arriskutsuen sorreraren % 2ko murrizketa 2016rako, eta % 5ekoa 2020rako. — 75 t hondakin/milioi euroko kopurua lortzea (EAEko BPG) 2020rako. — Hondakin arriskutsuen 24 t (kutsatutako lurzoruak, egiturazko fibrozementu-hondakinak eta PCB/PCT dituzten olioak/gailuak kanpo) / milioi euroko kopurua (industriako BPG) lortzea 2020rako. — Etxeko hiri-hondakinen 448 kg /bizt.urteko kopurua lortzea 2016rako, eta 443 kg/bizt.urte (hiri-hondakinen 961.723 t) 2020rako. — Biohondakinen, edukiontzien, etxeko HAen, EEHen eta GEEHen sorreraren % 5etko murrizketa 2016rako, eta % 10ekoa 2020rako. — Erabilera bakarreko plastikozko poltsa ez biodegradagarrien % 80ren ordezkapena 2016rako, eta % 100ekoa 2018rako, eta lotutako beste lege-betekizun batzuk. 	<ul style="list-style-type: none"> — Hondakin arriskutsuen sorrera-tonak. — Hondakin ez arriskutsuen sorrera-tonak. — Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen sorrera-tonak. — Etxeko eta Merkataritzako Hondakinen sorrera-tonak. — Sortutako milioi euro bakoitzeko sortutako hondakin-tonak. — Sortutako hondakin arriskutsuen tonak (kutsatutako lurzoruak, egiturazko fibrozementu-hondakinak eta PCB/PCT dituzten olioak/gailuak kanpo) / EAEko industriako BPG. — Sortutako hondakin ez arriskutsuen tonak (EEH kanpo)/ EAEko industriako BPG. — EAEn per capita sortutako Etxeko eta Merkataritzako Hondakinen tonak (Kg/(bizt-urte)). — EElen piezen edo osagaien berrerabilpen %. — Erabilera bakarreko plastikozko poltsen ordezkapen %, 2007an merkaturatutakoei dagokienez.
Hondakinen gaikako bilketa eta bereizketa gutxienez % 75koa izatea 2020an, eta bilketa-sistema espezifikoak ezartzea arazo bereziak eragiten dituzten hondakinentzat	<ul style="list-style-type: none"> — Biohondakinen gaikako bilketa eta bereizketa % 30era arte handitzea 2016rako, eta % 60ra arte, 2020rako — EEHen gaikako bilketa eta bereizketa % 65era arte handitzea 2016rako, eta % 75era arte, 2020rako — Paperaren, beiraren, edukiontzien, metalaren eta zuraren gaikako bilketa eta bereizketa % 50era arte handitzea 2016rako, eta % 60ra arte, 2020rako — Pilen eta baterien gaikako bilketa eta bereizketa % 60ra arte handitzea 2016rako, eta % 80ra arte, 2020rako, eta pila- zein metagailu-mota ezberdinetarako 1991/157/CEE Zuzentarauak ezarritako baldintzak betetzea — 4 korrontetarako bilketa-sistema egonkorrek ezartzea: amalgamak eta merkurioa duten urak eta beste hondakin batzuk, nekazaritzako eta abeltzaintzako instalazioetako hondakin fitosanitarioak eta zoosanitarioak, etxeko HAK eta egiturazko fibrozementua 	<ul style="list-style-type: none"> — Gaikako bilketaren eta bereizketaren tasa globala — Biohondakinen gaikako bilketa- eta bereizketa-tasa — EEHen gaikako bilketa- eta bereizketa-tasa — Paperaren, beiraren, edukiontzien, metalaren eta zuraren gaikako bilketa- eta bereizketa-tasa — Olioen eta koipe jangarrien gaikako bilketa- eta bereizketa-tasa — Zuntzen eta haien zatiki berrerabilgarrien gaikako bilketa- eta bereizketa-tasa — Pilen eta baterien gaikako bilketa- eta bereizketa-tasa — GEEHen gaikako bilketa- eta bereizketa-tasa (kg/bizt.urte) — GEEHen gaikako bilketaren eta bereizketaren % (aurreko hiru urteetan, EAEko merkatuan sartutako GEEekin konparatuta) — Martxan jarritako bilketa-sistemakeragindako eragileekin batera
Hondakinen % 60 berrerabilpenerako, birziklapenerako eta balorizaziorako prestatzea 2020rako, bide batez EAEn hondakinen arloan dauden arazo nagusie irtenbidea emanez	<ul style="list-style-type: none"> — Sortutako GEEHen % 2 berrerabiltzeko prestatzea 2016rako, eta % 5, 2020rako. — Korronte birziklagarrien (papera eta kartoia, beira, plastikoak, metala, zura) % 40 berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestatzea 2016rako, eta % 50, 2020rako. — Biohondakinen % 20 birziklatzea 2016rako, eta % 50, 2020rako 	<ul style="list-style-type: none"> — Hondakin Arriskutsuen balorizazio materialaren % — Hondakin Ez Arriskutsuen balorizazio materialaren % — Eraikuntzako eta Eraispenerako Hondakinen balorizazio materialaren % — Hiri Hondakinen balorizazio materialaren % — Korronte birziklagarrien berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestakuntzaren %

[.../...]

Planaren helburu estrategikoak	Helburu partzialak - aldi baterako	Adierazleak
<p>[.../...] Hondakinen % 60 berrerabilpenerako, birziklapenerako eta balorizaziorako prestatzea 2020rako, bide batez EAEn hondakinen arloan dauden arazo nagusiei irtenbidea emanez</p>	<ul style="list-style-type: none"> — GEEHei buruzko 2012/19/UE Zuzentarauak ezarritako GEEH kategorია bakoitzeko gutxienezko balorizazio- eta birziklapen-helburuak lortzea, 2015 eta 2018 urteetarako. — Gutxienezko eraginkortasun-mailak lortzea, pilen birziklapenaren arloan, 1991/157/CEE Zuzentarauaren arabera. — Gehienez, 2015eko urtarrilaren 1erako, gutxienez, ibilgailu bakoitzeko eta urteko batezbesteko pisuaren % 95 berrerabiltzeko eta balioztatzeko helburua lortzea. Data hori baino lege, gutxienez, ibilgailu eta urte bakoitzeko batezbesteko pisuaren % 85 berrerabili eta birziklatu behar da. — Altzairugintzako zepen % 75 birziklatzea 2016rako, eta >% 90, 2020rako. — Papergintzako lohien % 70 balioztatzea 2016rako, eta % 95, 2020rako. — HUA lohien % 90 balioztatzea 2016rako, eta ≈% 100, 2020rako. — Galdaketa-hondarren % 50 birziklatzea 2016rako, eta % 75, 2020rako. — EEHen % 60 birziklatzea 2016rako, eta % 70, 2020rako (170504 EHZ kanpo). — Hondakin arriskutsuen % 63 balioztatzea 2016rako, eta % 65, 2020rako. 	<ul style="list-style-type: none"> — Hondakinen gaikako bilketaren eta bereizketaren %. — Gaikako bilketa- eta bereizketa-programaren korronteen bilketa-tonak. — GEEHen birziklapen edo balorizazio %, kategoriaka. — Gaika bildutako olioaren birziklapenaren %. — Gaika bildutako olioaren balorizazioaren %. — Gaika bildutako olioaren berroneratzearen %. — EElen birziklapenaren %. — EElen balorizazio energetikoaren %. — Edukiontzien birziklapenaren % (guztira eta materialaren arabera: paper-kartoia; metala, plastikoa eta zura). — Edukiontzien balorizazio energetikoaren % (guztira eta materialaren arabera: paper-kartoia; metala, plastikoa eta zura).
<p>Hondakinen ezabapena optimizatzea, hondakin primarioen isurpenarekin amaituz eta isurpenok minimizatzeko bitartekoak garatuz gertutasun eta autosufizientzia printzipioak ezartzea exijituz hondakinen balorizazio eta ezabapenean, betiere baldintza baliokideetan eta martxan dauden zabortegeien eragina minimizatuz egin badaiteke.</p>	<ul style="list-style-type: none"> — 2016rako lehen mailako hiri-hondakinen zero isuria eta hiri-hondakin biodegradagarrien isuriari buruzko lege-betekizunak. — 2010eko % 49ko eliminazioa gehienezko % 40ra murriztea. 	<ul style="list-style-type: none"> — Zabortegeian utzitako biohondakinen % — Zabortegeian utzitako altzairugintzako zepa beltzen, pasta-paper lohien, HUA lohien, EEHen harri-fraczioaren eta burdin-galdaketako moldaketa-hondarren eta zatiki finen %. — Zabortegeian utzitako hiri-hondakinen %. — Aldez aurreko tratamendurik gabe isuritako hiri-hondakinen %. — Desugerketa-azidoen, taladrinen eta erabilitako industria-olioen, pilen eta metagailuen eliminazio %, EAETik kanpo eta barnean, eta EAEn. — EAETik kanpo eliminatutako hondakin arriskutsuen tonak.
<p>Hondakinen arloko informazioa eta gardentasuna hobetzea; hondakinen arloko kudeaketa administratiboa erraztu eta bizkortzea 22/2011 Legeak zein hondakinen arloko araudiak irekitako aukerak baliatuta; eta merkatu berdea eta enplegu sorrera sustatzea Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana garatuz eta ezarriz.</p>	<ul style="list-style-type: none"> — Inbentarioen % 100 hurrengo urteko lehen 6 hilabeteetan argitaratzea. — Administratuen asetasuna >7, 2020rako administrazio-sinplifikazioari eta bizkortzeari dagokionez. — Enplegu berdearen sustapena, hondakinen kudeaketarekin erlazioan tutako enplegua % 6 handituta. — Eragindako izapideen % 75 sinplifikatzea 2016rako, eta % 100, 2020rako. 	<ul style="list-style-type: none"> — EAEko inbentarioen balioztatzea eta EEren zein Europako Ingurumen Agentziaren aldetik, 2016an. — Administratuen asetasuna 10etik 7 baino handiagoa, 2020rako administrazio-sinplifikazioari eta bizkortzeari dagokionez. — Inbentarioen erabilgarritasunaren balorazioa, 10etik 7tik gorakoa den plangintzaren informazio-betekizunei eta garapenari erantzuna emateko, 2016rako. — Hondakinen kudeaketarekin erlazioan tutako enpleguaren handiagotzea. — Sinplifikatutako izapideen %.

Beste aldetik, egungo araudiak euren lotutako adierazleekin azaltzen diren korrante zehatzen arabera bestelako helburu kuantitatiboak ere hartzen ditu barne; adierazle horiek jadanik sartu dira Planean neurtu beharreko adierazleen artean, aldi berean, araudiaren betearazpenaren bilakaera jarraitzeko.

Aipatzekoa da EELSKen bidez kudeatutako korrante zehatzetan, sistema berek ziurtatu behar dutela lege-helburuen betearazpena. Ingurumen Erakundearen rola helburuen betearazpenaren fiskalizazioa da, erantsitako korrante bakoitzerako, bai eta produktuaren ekoizleen % 100en atxikipen-betebeharra.

4.7.5/ Planaren ingurumen-eraginaren jarraipena eta ebaluazioa

Aurreko ataletan adierazitakoez gain, planaren segimendua egiterakoan, hurrengo adierazle hauek hartuko dira kontuan:

1) Lurzoruaren artifizialtzearen intentsitatea

- Habitat naturalen, erdi-naturalen eta naturalizatuen azaleraren %-a EAEn.
- Lurzoru artifizialduaren %-a.
- Kalitate edo kontserbazio-egoera hobea duten habitat naturalen azalera.
- Berreskuratutako lurzoruen azaleraren %-a.
- Kutsatuta dauden titulartasun publikoko lurzoruetatik leheneratutako lurzoruen azaleraren %-a.

2) Uren kalitatea

- Kontinenteko eta kostako uretara egindako isuriak.
- Uren kalitate-tasa.

3) Airearen kalitate-tasa

- PM-10 partikulen tasa.
- PM-2,5 partikulen tasa.
- NOx eta Ozono kontzentrazioa.
- OMEk gomendatutakoak baino zarata-maila altuagoen eraginpean dagoen biztanleriaren kopurua.

Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailburuordetzak urtero argitaratzen dituen txostenen zati diren EAEko ingurumenaren egoera orokorrari buruzko adierazleak dira, eta Hondakin Plana garatzeko proiektuen eta planen ingurumen-balorazioan erabiliko dira. Hondakin Plan honi buruz egiten diren berrikuspenetan garapen-ebaluazioei buruzko emaitzak bilduko dira, Planak eraginpeko ingurumen-aldagaiei eginiko ekarpena modu globalean baloratu ahal izateko.

4.8/ PLANAREN TRESNEN LABURPENA

2020rako EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planean, problematika nagusiak konpontzeko eta Europako politikekin lerrokatutako hondakinen arloko esparru aurre-ratuagoa sortzeko printzipioak eta helburu estrategikoak zehaztu dira. Helburu horiek 5 Jarduera Programatan garatzen dira, eta aipatutako programek martxan jarri beharreko zenbait tresna ekartzen dituzte eurekin; tresna horiek jarduera zehatzen eta materializatzen dute, 5. ataleko jardueren fitxa bakoitzean jasota daude. Laburtuta eta Planaren inplikazioak hobe ulertzeko, jarraian, martxan jarri beharreko tresna nagusiak zehatzen dira.

Politika- edo Plangintza-tresnak

- HHen Jarraibideen berrikuntza, Plan honetan jasotako helburuak sartzeko eta materializatzeko, Eusko Jaurlaritzaren zein hiru Foru Aldundien aldetik.
- Posizionamendu teknikoaren bultzada, Eskualdeetako Lantaldean edo Autonomia Erkidegoak parte hartutako foroetan, Europa edo estatu mailako araudia edo hitzarmena ez duten Planetik ondorioztatutako arloetan (banaketa-sektoreko edukiontzia, berme luzatua duten produktueterako BEZ murriztua, hondakinen kontabilizazioa, bizi-amaierako arau teknikoak, etab.)
- Planaren helburuak HHen Jarraibideen Planean eta lurralde-planetan integratzea.

Lege- edo arau-tresnak

- Dekretuen edo Aginduen aldaketa edo prestakuntza, Planaren helburuak sustatzeko (Euskal Autonomia Erkidegoan, arku elektrikoko labeetako altzairugintzako zepen balorizazioa eta ondoko erabilpena arautzen duen otsailaren 18ko 34/2003 Dekretua; zabortegian uztearen eta betegarrien betearazpenaren bidezko hondakinen eliminazioa arautzen duen 49/2009 Dekretua; hondakin ezberdinen bizitza-amaieraren irizpideak ezartzen dituzten Aginduen (edo argibide teknikoaren) onarpena (EEHen, biohondakinen, altzairugintzako zepen, papergintzako lohien...) Agindu Teknikoa).
- Administrazio-prozedura eta argibide berrien garapena (azpiproduktuaren aitortze-prozedura, ingurumen-baimen ezberdinetarako prozedura).

Ezagutza teknikoa sortzeko eta zabaltzeko tresnak

- Ordezko aukeren edo bideragarritasunaren ikerketak (hondeatutako lurzoruen transferentzia-zentroa, zabortegetako meatzaritzaren bideragarritasuna, hondakinen arloko informazio-sistemaren hobekuntza-beharrak, berme luzatua duten produktuei laguntzeko tresna ekonomiko posibleen analisia...)
- Enpresei, udalerriei eta beste Herri-administrazioei zuzendutako irizpide teknikoak eta gidak (ekodiseinua, eraikuntza iraunkorra, birgaikuntza, Erosketa Publiko Berdearen agiriak, ordenantza-ereduak...)

Sustapen ekonomikoko tresnak

- Eragindako Sailen (ekodiseinua, eraikuntza iraunkorra, hondakinen minimizazioa edo balorizazioa, hondakin zehatzen bilketa...), Foru Aldundien (bigarren eskuko merkatuak, bilketa-sistemak, etab.) eta Udalerrien (autokonpostagailuak, pilak jasotzeko etxeko edukiontzi txikiak...) diru-laguntzak.
- Teknologia Garbien Euskal Zerrenda (prebentzio-, berrerabiltzeko prestakuntzako, birziklapen-, hondakinaren arriskugarritasunaren balorizazio- edo murrizpen-teknologiak).
- Isuriaren gaineko zerga.
- Zabortegeien prezioen esku hartzea, balorizazio prezioen aurrean (kostuen barneratzea).
- Sorrerarengatiko ordainketa (bideragarritasun-ikerketa, EAEko baldintzetan).
- Berme luzatua duten produktuak sustatzeko tresna ekonomikoa (aukeren aurretiazko analisia)

Ikerkuntza- eta zaintza-tresnak

- Ikerkuntza ZTBPN eta Eusko Jaurlaritzako ikerketa-planetan sartzea.
- Prebentziozko, berrerabiltzeko prestakuntzako, birziklapeneko eta balorizazioko teknologien erakustaldi-proiektuak (aplikatutako ikerketa) eta hondakin arriskutsuen arriskugarritasunaren murrizketa, horien eliminazioa optimizatze-ko, Plan horretako helburuekin lerrotatuta.
- Sektore jakin batzuetako ingurumen- edo merkatu-joreen Zaintza Ikerketak.

Jarraitasunerako, kontrolerako edo pizgarria kentzeko tresnak

- EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2020 aldirako Planaren jarraipen teknikorako eta politikorako batzordeak.
- Hondakinen ekoizleen eta zabortegeien Ingurumen Baimen Integratuetan mugak ezartzea, balioztatu daitezkeen korronteen isuria mugatzeko.
- Hartzeko potentzialerako gehiegizko gaitasuna azaltzen duten edo Plan honen printzipioak eta helburuak hausten dituzten eliminazio-azpiegiturei baimena ukatzea.
- Ikuskapen-plana (balioztatu daitezkeen korronteen isuria).

Koordinazio- eta partaidetza-tresnak

- Hiri Hondakinak Koordinatzeko Organoa (HHKO).
- Lankidetzak-hitzarmenak Osasunarekin, Nekazaritzarekin eta Gobernuko beste Sail batzuekin.
- Borondatezko hitzarmenak hondakinen ekoizpen-, balorizazio- eta kudeaketa-sektoreekin, banaketa-sektorearekin eta ostalaritza-sektorearekin.
- Hitzarmena EELSKekin.
- Udalsarea 21, jarduerak euskal udaletara eramateko.
- Ekoeraginkortasun programa, zeharkako jarduerak edo tresnak euskal enpresetara eramateko.
- Enpresa-sarea, ekodiseinuaren arloko traxiorako eta zaintza teknologikorako (Basque Ecodesign Center).

Informazio-, trebakuntza- eta sentsibilizazio-tresnak

- Gobernuaren webgunea (kudeatzaileei, ekoizleei, inbentarioei... buruzko informazio eguneratua).
- Jardunaldi Teknikoak eta trebakuntza, sektore ekoizlee-kin edo hondakinen hustulekuekin.
- Kontsumitzailea sentsibilizatze kanpainak (ikus 8. eranskina Publiko orokorrari edo kontsumitzaile-talde zehatzari zuzendutako sentsibilizazio- eta informazio-kanpainak).

4.9/ MERKATU-AUKEREN SUSTAPENA

2020ko EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planaren printzipioetako bat «Iraunkortasuneko, merkatu berdearen sustapeneko eta enplegu-sorrerako printzipioa» da. Printzipio honekin, ez da ingurumen-aspektua bakarrik kontuan izan nahi planifikatzerakoan, Planaren ekonomia-eta gizarte-aspektuak ere izan nahi dira kontuan.

Printzipio hori bereziki garrantzitsua da egungo egoera ekonomikoan; izan ere, horrek merkatu-aukeren bilaketa dakar eta, dagokigun kasuan, merkatu berdearen sustapena.

Printzipio horren arabera eta 4.4. Jarduera-programak atalean aipatu bezala, Planaren esparruan landu beharreko korronteei edo problematikei lehentasuna ematerakoan, irizpideetako bat **merkatu-aukerak sortzeko potentziala** da.

Alde horretatik eta Plana garatu ondoren, bereziki garrantzitsua iruditzen zaigu merkatu berdeko aukeren sustapen argia dakarten jarduerak hautatzea. Jarraian, aipatutako aukerak eta horiei lotutako Jarduera Programa identifikatzen dira.

24. TAULA MERKATU-AUKERAK ETA LOTUTAKO JARDUERA-PROGRAMA

Merkatu aukerak	Lotutako jarduera programa
Konponketako eta bigarren eskuko merkatuen sustapena (etxetresnak, EEI eta pneumatikoak tamaina handikoak, zuntzak, liburuak, eta abar)	Prebentzio Programa
Solteko, biltegiatzeko eta itzulerako sistemen sustapena	Prebentzio Programa
GEEHen bilketan eta berrerabiltzeko prestaketan laguntzea	Gaikako Bilketa eta Bereizketa Programa
Ekoetiketa duten edo Erosketa Publiko Berdetik abiatuta frogatutako ingurumen-hobekuntzak sartzen dituzten produktu ekodiseinatuen sustapena, eta ekodiseinuko, Environmental Product Declaration (EPD) ekoetiketatzeko eta Eraikuntza Iraunkorreko ziurtagirien sustapena	Prebentzio Programa
Hondakinen balorizaziotik datozen bigarren mailako produktuen eta lehengaien sustapena , ezarritako kalitate-estandarrak beteta	Prebentzio Programa Berrerabiltzeko Prestakuntza, Birziklapen eta Balorizazio Programa
Itsasontzien desegitearen eta horien osagaien birziklapenaren eta balorizazioaren sektore iraunkorren sustapena	Berrerabiltzeko Prestakuntza, Birziklapen eta Balorizazio Programa
Hondakinen prebentzio- eta balorizazio-teknologiaren sustapena, bai eta EEHen eta lurzoru kutsatuen tokiko tratamendua	Prebentzio Programa Berrerabiltzeko Prestakuntza, Birziklapen eta Balorizazio Programa
Hondakin arriskutsuen prebentzio-, egonkortze- eta arriskugarritasunaren murrizketa-teknologiaren sustapena, horien isuria optimizatzeke	Eliminazioa Optimizatzeke Programa

A hand holding a green toy airplane against a blue sky with green grass in the foreground. The text '5. / JAR-DUERA ZEHATZAK' is overlaid in white.

5. / JAR-DUERA ZEHATZAK



5.1/

PREBENTZIO PROGRAMA

JARDUERAK



PREBENTZIO PROGRAMAREN JARDUERAK

HELBURU
ESTRATEGIKOA

Sortutako hondakinen kopuru totala % 10 jaitea 2020rako, erreferentzia urtetzat 2010 hartuta; baita hondakinen arriskugarritasuna jaitea ere

BIOHONDAKINAK

JARDUERA	ARDURADUNA	ERLAZIONATUTAKO ERAGILEAK	EPEA
P-A1-1 Herritarrei zuzendutako komunikazio- eta sentsibilizazio-kanpaina sustatzea, Planaren indarraldian zehar, elikagaiak alferrik galtzea minimizatzeko (etxeko kontsumoaren ondoko hondakina), Europako Batzordeko LIFE proiektuaren esparruan	EJIS Foru Aldundiak	<ul style="list-style-type: none"> Mankomunitateak/ - Kuadrillak Udalak Kontsumo Saila 	2015-2020
P-A1-2 Etxeko eta komunitateko konpostajearen jarduera orokortuak foru-planetan sartzea bultzatzea	EJIS Foru Aldundiak	<ul style="list-style-type: none"> Udalak Mankomunitateak/ - Kuadrillak 	2015-2020
P-A1-3 Ostalaritza-sektorearekin borondatezko hitzarmenak bultzatzea, biohondakinen prebentzioa sustatzeko	EJIS Foru Aldundiak	<ul style="list-style-type: none"> Foru Aldundiak Udalak Mankomunitateak/ - Kuadrillak Ostalaritza-sektorea 	2015-2020
P-A1-4 Azalera handien zein saltoki txikien banaketa-sektorearekiko lankidetzat sustatzea, jadanik martxan jarritako ekimenak sustatzeko, biohondakinak saihesteko (elikagai-bankuetara entregatzea...) eta erabilera bakarreko plastikozko merkataritza-poltsa ez biodegradagarrien betekizuna betetzeko	EJIS Foru Aldundiak	<ul style="list-style-type: none"> Banaketa-sektorea MAGRAMA 	2015-2020
P-A1-5 Biomasa energia ekoizteko biomasaren hondakina ez dela erabakitzen duen arau teknikoa prestatzea	EJIS Foru Aldundiak	<ul style="list-style-type: none"> Nekazaritzaz arduratzen den saila 	2015-2020
P-A1-6 HHKorekin, sorreraren ondoriozko ordainketa ingurumenaren lege orokor berriaren sartzea lantzea, hondakinen sorrera prebentitzeko tresna gisa, eta udalekin eta Mankomunitateekin lan egitea, horren ezarpenean	Foru Aldundiak	<ul style="list-style-type: none"> Udalerriak 	2014
P-A1-7 Nekazaritzako eta elikadurako sektorearekin biohondakinen prebentzioa lantzea	EJIS	<ul style="list-style-type: none"> Nekazaritza 	2016-2019

Justifikazioa

Biohondakinak biohondakin guztien % 25 dira. Alde horretatik, garrantzitsua da kontsumitzaileei, ostalaritza-sektoreari eta banaketa-sektoreari zuzendutako komunikazio-kanpainak egitea, 3 agente sortzaile nagusiak dielako. Eraginkorrak izan diren beste neurri batzuk.

Esperotako emaitzak/Adierazleei egindako ekarpena

- 2010. urteari dagokionez, 2016rako, biohondakinen sorreraren % 5eko prebentzioa etxeko eta merkataritzako hondakinen % 2ko murrizketa da.
- 2010. urteari dagokionez, 2020rako, biohondakinen sorreraren % 15eko prebentzioa.

Tresnak

- Komunikazio-kanpainak
- Baterako lana HHKorekin, ekintzak zehazteko eta hondakinen foru-planetan sartzeko
- Hitzarmena Nekazaritzako Sailarekin, nekazaritzako eta elikadurako sektorearekin lan egiteko
- Borondatezko hitzarmenak, ostalaritzako eta banaketako sektoreekin.
- Sustapen- eta ikuskatze-tresnak konbinatzea.
- Hainbat tresna sustatzaileak eta ikuskatzaileak konbinatzen saiatzea (baita sorreraren ondoriozko ordainketa bezalako tresna ekonomikoak ere, funtsezkoa den kasuetan). Tresnen «nahasketaren» ezarpenean pentsatzea beti.
- Biomasarako arau teknikoa prestatzea

PREBENTZIO PROGRAMAREN JARDUERAK
HELBURU ESTRATEGIKOA **Sortutako hondakinen kopuru totala % 10 jaitea 2020rako, erreferentzia urtetzat 2010 hartuta; baita hondakinen arriskugarritasuna jaitea ere**
ERAIKUNTZAKO ETA ERAISPENENKO HONDAKINAK (EEH)

JARDUERA	ARDURADUNA	ERLAZIONATUTAKO ERAGILEAK	EPEA
P-A2-1 Industrializatutako eraikuntza-prozesuak sustatzea (aurrefabrikatuak erabiltzea, hondakinen sorrera prebenitzeko)	EJIS	<ul style="list-style-type: none"> Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Saila Eusko Jaurlaritzaren Industria Saila – SPRILUR Eraikuntzarako materialen fabrikatzaileak Teknologia-zentroak 	2016-2020
P-A2-2 Eragile ekonomikoekin (lanen sustatzaileak) borondatezko hitzarmenak adostea sustatzea, eraikuntza iraunkorreko praktikak aplikatzeko, birgaikuntza eta eraispen selektiboa bultzatzea eta, eraikuntza- eta eraispen sektoreko eragileen artean, eraikuntza iraunkorreko, birgaikuntzako eta eraispen selektiboko teknikak zabaltzea	EJIS	<ul style="list-style-type: none"> Foru Aldundiak (Obra publikoak) Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Garraio Sailak Sektore-elkarteak Lanen sustatzaileak Eraikuntza- eta eraispen-sektoreak 	2014-2020
P-A2-3 Hondakinen kudeaketa-planetan eta EEHen kudeaketa-ikerketetan, eraikuntza- eta eraispen-enpresek gauzatuko dituzten prebentzio neurriak eta berrerabilpeneko-eragiketak sartzea bultzatzea	EJIS	<ul style="list-style-type: none"> EEHen kudeatzaileak EEHen edukitzaileak 	2014-2020
P-A2-4 Erraz berrerabil edo birzikla daitezkeen eta, euren balio-bizitzaren amaieran, hondakin gutxiago edo substantzia arriskutsuen eduki txikiagoa sortzen dituzten eraikuntza-sektorerako produktuen I+G+bren bultzada	EJIS	<ul style="list-style-type: none"> Teknologia-zentroak Eusko Jaurlaritzaren Industria Saila 	2015-2020
P-A2-5 Eraispenetik ateratako materialak sortutako helburu berdinetarako erabiltzea sustatzea, ekoizleen eta sustatzaileen aldetik	EJIS	<ul style="list-style-type: none"> Foru Aldundiak (Obra publikoak) Etxebizitzaz eta garraioaz arduratzen diren sailak Hirigintzako udal arduradunak Sozietate Publikoak, parte-hartuak edo lanak preskribatzen dituzten pribatuak, hornidura-azpiegiturak, sareak, etab 	2014-2020

Justifikazioa

EEHen garrantzia ez datza horien arriskugarritasunean, baizik eta sortutako kopuru handietan baizik, nagusiki. Nolanahi ere, azken urteetan, eraikuntza-sektorearen egoera ekonomikoa dela eta, kopuru horiek nabarmen txikitu dira.

Hala ere, garrantzitsua EEHen sorrera azpimarratzea proiektuaren fasetik abiatuta, eraikuntza-teknika iraunkorragoen aldeko apustua eginda. Hondakinen prebentzio-emaiza handienak eman ditzakeen aukeretak bat eraikuntza-osagaiak lanera zuzenean prest datozen eta soilik muntatu behar diren eraikuntza industrializatua da; izan ere, horrela, ez da ia hondakinik sortzen lanean.

Eraikinen birgaikuntza eta bigarren balio-bizitza izan dezaketen materialen edo objektuen berrerabilpena hondakinak murrizten lagundu dezakeen beste aukeretak bat da, bizi-ziklo hobeari dagokionez, jokabidea izateaz gain, eraikina guztiz eraisten den eta beste bat eraikitzen den edo berrerabil daitezkeen produktuak alferrik galtzen diren beste kasu batzuekin konparatuta.

Esperotako emaitzak/Adierazleei egindako ekarpena

EEHen % 5eko prebentzioa 2016an, eta % 10ekoa, 2020an.

Tresnak

- I+G+b sustatzea, EEHen prebentzioan
- Baterako lana, garraioaz eta etxebizitzaz arduratzen diren sailekin.
- Borondatezko hitzarmenak garraioaz eta etxebizitzaz arduratzen diren sailekin, hiriburuetako hirigintzarekin, eraikuntza-enpresa handiekin eta arkitektoen elkargoekin
- 112/2012 Dekretuaren inplementazioa
- Erosketa eta kontratazio publiko berdea
- Berrerabilpena zuzendutako eraikuntzako materialak trukatzeko/erosteko/saltzeko web-oinarria ezartzea
- Hondakin Kudeaketa Planen ikuspegi eta ezarpen egokiaren sustapena, EEHen prebentzioari dagokionez.

PREBENTZIO PROGRAMAREN JARDUERAK

HELBURU ESTRATEGIKOA **Sortutako hondakinen kopuru totala % 10 jaistea 2020rako, erreferentzia urtetzat 2010 hartuta; baita hondakinen arriskugarritasuna jaistea ere**

EDUKIONTZIAK

	JARDUERA	ARDURADUNA	ERLAZIONATUTAKO ERAGILEAK	EPEA
P-A3-1	Fabrikatzaileen eta inportatzaileen artean, edukiontzien ekodiseinua sustatzea, prebentziora, berrerabilpena eta birziklapenera begira	EJIS	<ul style="list-style-type: none"> Edukiontzien fabrikatzaileak Basque Ecodesign Center (BEC) 	2014-2020
P-A3-2	Borondatezko hitzarmena sustatzea banaketa-sektorearekin, fabrikatzaileekin, marka handiekin eta saltoki txikiekin, gordailu-, itzulera- eta itzultze-sistemak sustatzeko (GIIS).	EJIS Foru Aldundiak	<ul style="list-style-type: none"> Edukiontzien fabrikatzaileak Banaketa-sektorea (azalera handia eta saltzaile txikien elkarteak) MAGRAMA Foru Aldundiak 	2016-2020
P-A3-3	Edukiontzien hondakinen sorrera txikiagoa eta jatorrizko bereizketa egokia sustatuko duten herritarren sentsibilizazio-kanpainak egitea	EJIS Foru Aldundiak	<ul style="list-style-type: none"> Foru Aldundiak Kontsumo Saila 	2014-2020
P-A3-4	Planaren helburuen arabera, edukiontzi industrialen hondakinak prebenitzeko enpresa-planak bideratzea, ILPSren diru-laguntzei lotutako helburuekin eta neurri zehatzen proposamenarekin	EJIS		2014-2019
P-A3-5	Industria-beiraren ea hornidura-beiraren korranteak prebenitzeko ekimenak bilatzea, gaikako bilketa eta bereizketa bideratzeko eta bi ekimenak bateratzeko, edukiontzia ez den beiraren zikloa itxita	EJIS	<ul style="list-style-type: none"> Industriaz arduratzen den saila Foru Aldundiak Beira-enpresak 	2015
P-A3-6	Edukiontzien EELSKekin hitzarmena sinatzea, fabrikatzaileen arteko ekodiseinua sustatzeko (pizgarriak, birziklagarritasun-maila jakin batzuk lortuz gero), zerbitzuaren unibertsalgarritasuna bermatzeko, helburuak betetzeko, etab.	EJIS	<ul style="list-style-type: none"> EELSKK 	2015-2016

Justifikazioa

Kontsumo-joerek edukiontzi-kopuruak azken hamarkadetan handitu izana eragin du (edukiontzi arinen % 10eko handiagotzea, 2002 eta 2011 artean, hondakinen sorrera osoa % 7 murriztu den bitartean). Etxeko edukiontzien kontsumoaz gain, industria- eta merkataritza-edukiontzien kontsumoa ere nabarmentzeko da.

Ekodiseinuak tresna eraginkorrak eskaintzen ditu, erabilitako produktuaren kopurua eta horri lotutako inpaktua murriztuko dituzten irtenbideak emateko; hala ere, beste kasu batzuetan, baliteke beharrezkoak ez diren edukiontzia edo bilgarriak eliminatzea nahikoa izatea.

Beste aldetik, soltean saldutako produktuek eta gordailu-, itzulera- eta itzulkin sistemek (GIIS) edukiontziaren zikloa ixtea ahalbidetzen dute.

Halaber, sentsibilizazio-kanpainek rol garrantzitsua dute gehiegi ontziratutako produktuen erosketa saihesteko eta solteko erosketa, poitza edo bestelako euskarri berrerabilgarrien erabilera eta abar sustatzeko.

Industria-edukiontziei dagokienez, edukiontzien hondakinen prebentziorako enpresa-planak tresna garrantzitsua dira edukiontzien hondakinen sorreraren murrizketa nabarmentzeko; beraz, beharrezkoak da jardunbide egokiak identifikatzea eta tresna horren bidez zabaltzea.

Esperotako emaitzak/Adierazleei egindako ekarpena

Edukiontzi arinen eta beirazkoen % 5eko prebentzioa (etxeko eta merkataritzako hondakinen % 1eko murrizketa dakar), 2020rako.

Tresnak

- Komunikazio-kanpainak.
- Lanak Basque Ecodesign Center zentroarekin (BEC).
- Borondatezko hitzarmenak, banaketa-sektoreekin, fabrikatzaileekin, marka handiekin eta saltzaile txikiekin.
- Ontziratzaileen baimenen kontrola.
- Ingurumen Erakundeak ontziratzaile handiei edukiontzietarako honako arau harmonizatu hauek betetzea eskatzea: UNE EN 13428, UNE 13429 eta UNE EN 13430-31-32.
- HHKOn lan egitea, hornidurako beiraren bilketen ezarpena sustatzeko, Garbiguneetan, agian.
- Hitzarmena EELSKekin.

PREBENTZIO PROGRAMAREN JARDUERAK

HELBURU
ESTRATEGIKOA

Sortutako hondakinen kopuru totala % 10 jaitea 2020rako, erreferentzia urtetzat 2010 hartuta; baita hondakinen arriskugarritasuna jaitea ere

GAILU ELEKTRIKO ETA ELEKTRONIKOREN HONDAKINAK (GEEH)

JARDUERA	ARDURADUNA	ERLAZIONATUTAKO ERAGILEAK	EPEA
<p>P-A4-1</p> <p>Ekodiseinuaren bidez sustatzea: — produktuak zerbitzuengatik trukatzea (<i>product service system</i>) — egun produktuetan erabilitako substantzia arriskutsuen ordezkotza aukerak bilatzea eta — produktuak desmuntatzea eta konpontzea errazten duten jarduerak sustatzea</p>	EJIS	<ul style="list-style-type: none"> GEEHen fabrikatzaileak Makineria elektrikoaren sektorea Makina-erremintaren sektorea Osasunaz arduratzen den saila Basque Ecodesign Center 	2014-2019
<p>P-A4-2</p> <p>Eskualdeetako Lantaldearen eta Europako Batzordearen aurrean, produktuen iraunkortasuna handitzearen aldeko ekimenak eta horien berme-epa handituko duen legea sustatzea</p>	EJIS	<ul style="list-style-type: none"> GEEHen fabrikatzaileak Makineria elektrikoaren sektorea Makina-erremintaren sektorea 	2015-2016
<p>P-A4-3</p> <p>Iraunkortasun handiagoa eta bizitzaren amaierako hobekuntzak dituzten produktuei zerga-abantailak ematearen aukera aztertzea</p>	EJIS	<ul style="list-style-type: none"> Produktuen fabrikatzaileak Foru Aldundiak 	2016-2019
<p>P-A4-4</p> <p>Herritarrak informatzeko/sentsibilizatzeko kanpainak sustatzea, gailu elektriko/elektronikoen erosketari/erabilerari dagokionez</p>	EJIS	<ul style="list-style-type: none"> Foru Aldundiak Kontsumo Saila 	2015-2019
<p>P-A4-5</p> <p>Enpresak informatzeko/sentsibilizatzeko kanpainak sustatzea, gailu elektriko/elektronikoen erosketari/erabilerari eta, orokorrean, makineriari buruz</p>	EJIS	<ul style="list-style-type: none"> Kontsumo Saila 	2014-2019 (kanpaina globalaren zatia)
<p>P-A4-6</p> <p>Foru Aldundiekin eta fabrikatzaile/banaketa-sektorearekin lan egitea, merkaturatutako gailuen konponketa sustatzeko</p>	EJIS	<ul style="list-style-type: none"> Fabrikatzaileen sektorea Banaketa-sektorea 	2016-2019
<p>P-A4-7</p> <p>GEEHen eta pilen EELSKekin hitzarmena sinatzea, fabrikatzaileen arteko ekodiseinua sustatzeko (pizgarriak, birziklagarritasun maila jakin batzuk lortuz gero), Tokiko Erakundeek euren eskumeneko hondakinen bilketan duten parte-hartzea zehazteko, berrerabiltzeko prestakuntzara zuzendutako taldeen % ezartzeko, zerbitzuaren unibertsalitatea eta lege-helburuen betearazpena bermatzeko, trazabilitatearen hobekuntza lantzeko, berrerabiltzeko prestakuntzarako baimena duten enpresei gailu berrerabilgarriak entregatzea sustatzeko, etab</p>	EJIS	<ul style="list-style-type: none"> EELSKk 	2015-2016

Justifikazioa

GEEHak garrantzitsuak dira kalitatiboki; izan ere, hainbat kasutan, hondakin bihurtzen diren produktuek euren bizi-zikloan (lehengaien erauzketatik produktuen transformaziora arte) ingurumen-inpaktu garrantzitsua eragiten duten substantzia arriskutsuak dituzte. Hala ere, GEEH kategoria guztiak ez dira arriskutsuak eta hori EHZ kodeetan berezita dago.

Hondakinen sorrera prebenitzeko gauzatu daitezkeen jarduerak nagusietako bat produktuak zerbitzuengatik ordezkatzeko da.

Hondakinen eta, bereziki, GEEHen sorreran eragiten duten faktoreetako beste bat zaharkitze programatua da; ondorioz, produktuen balio-bizitzaren luzapena urrats garrantzitsua izango litzateke.

Gizarte-sektoreko enpresek eta Foru Aldundiek GEEHen eta beste hondakin berrerabilgarrien bilketa, konponketa eta ondorengo produktu moduko erabilera sustatu dute; beraz, bide horretan sakondu behar da.

Hondakin-kopuruaren prebentzioa ez da gauza garrantzitsu bakarra; horien arriskugarritasunaren prebentzioa kontuan izan beharreko beste aspektu bat da. Bertan, ekodiseinuak substantzia arriskutsuak beste ordezkotza aukera batzuek ordezkatzeko aukerak aztertzea ahalbidetzen du.

Beste hondakin batzuen prebentzioan bezala, herritarren sentsibilizazioak funtsezko rola du.

Esperotako emaitzak/Adierazleei egindako ekarpena

GEEH orokorren % 10eko prebentzioa (etxeko eta merkataritzako hondakinen % 0,14ko murrizketa dakar).

Tresnak

- Herritarrei eta enpresei zuzendutako komunikazio-kanpainak.
- Borondatezko hitzarmenak, fabrikatzaileekin
- Hitzarmena EELSKekin
- Lan-foroetan parte hartzea, Europako foroak barne
- Teknologia Garbien Euskal Zerrendaren eguneraketa, produktuaren bizi-zikloa luzatuko duten teknologia aurreratuekin
- I+G+b proiektuak, substantzia arriskutsuen ordezkotza aukerak bilatzeko: ordezkapen-plana
- Hitzarmenak Basque Ecodesign Center zentroarekin
- Zerga-tresnak
- HHKOk baterako lanak

PREBENTZIO PROGRAMAREN JARDUERAK

HELBURU
ESTRATEGIKOA **Sortutako hondakinen kopuru totala % 10 jaistea 2020rako, erreferentzia urtetzat 2010 hartuta; baita hondakinen arriskugarritasuna jaistea ere**

PILAK, BATERIAK, FLUORESZENTEAK ETA ETXEKO HONDAKIN ARRISKUTSUAK

	JARDUERA	ARDURADUNA	ERLAZIONATUTAKO ERAGILEAK	EPEA
P-A5-1	Pilak edo bateriak kontsumitzen ez dituzten produktuak dituzten eta, izanez gero, berriz kargatzekoak diren eta, ahal bada, hain sustantzia arriskutsuak ez dituzten pilekin egindako produktuak dituzten EAEko fabrikatzaileen/banatzaileen ordezeko aukerak bilatzea	EJIS	<ul style="list-style-type: none"> Fabrikatzaileen sektorea Banaketa-sektorea 	2014
P-A5-2	Herritarrak sentsibilizatzeko kanpainak sustatzea	EJIS	<ul style="list-style-type: none"> Eitb/Kontsumo Saila 	2015-2019
P-A5-3	Administrazio publikoak (Zerbitzu Orokorrek, Osakidetza, Ertzaintza, etab.) eta pribatuak (produktuen banatzaileak eta banaketa-sektorea orokorrean) diren etxeko produktu arriskutsuen erosle handiei erosketa berdearen inguruko laguntza eta informazioa eskaintzea ⁴¹	EJIS	<ul style="list-style-type: none"> Zerbitzu orokorrak, Osakidetza, Ertzaintza 	2015-2019
P-A5-4	Ordezko aukeren ikerkuntza Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planean sartzeara (ZTBP)	EJIS	<ul style="list-style-type: none"> Industriaz arduratzen den saila 	2015-2019
P-A5-5	EAEko fabrikatzaileen/banatzaileen ordezeko aukerak bilatzea, etxeko produktu kimikoetarako	EJIS	<ul style="list-style-type: none"> Fabrikatzaileen sektorea Banaketa-sektorea 	2015

Justifikazioa

Hiri-hondakinen guztizkoari dagokienez (% 0,07 2011n) kopuru txikia badira ere, euren arriskugarritasuna dela eta, hondakin arriskutsuak garrantzitsuak dira; izan ere, hondakin arriskutsuen masako kudeaketak ondoko tratamenduak eta masan kudeatutako beste hondakin batzuk balioztatzeak aukera zailtzen ditu. Halaber, hondakinen sorrera eta sortutako hondakin-motak erosketa-unearen baldintzapean daude, hein handi batean. Horregatik, garrantzitsua da beharrezko kopuruetara doitutako erosketak, balio-bizitza luzeagoa duten produktuak eta hain arriskutsuak ez direnak hautatzea sustatzeko ohiturak nabarmentzea. Horregatik, irizpide argiak izan behar dira, alde batetik, eta herritarrei zein kontsumitzaile handiei komunikatu behar zaizkie.

Esperotako emaitzak/Adierazleei egindako ekarpena

Zaila da adierazle hori kuantifikatzea; izan ere, hondakin arriskutsuen zati bat ez da behar bezala kudeatzen eta, ondorioz, ez da etxeko hondakin arriskutsu gisa kontabilizatzen. Bilketa handiagoak ez du, nahitaez, sorrera handiagoa ekartzen; baliteke sorrera murriztea baino hondakin gehiago kontabilizatzea, kudeaketaren hobekuntzaren ondorioz.

Tresnak

- Komunikazio-kanpainak.
- Borondatezko hitzarmenak, fabrikatzaileekin.
- Baterako lana HHKOekin, hondakinen foru-planetan ekintzak sartzeko.
- Borondatezko hitzarmenak sortzaile publiko eta pribatu handiekin.
- Hitzarmena EELSKekin.

⁴¹ Garrantzitsua da ziurtatzea horrek EZ duela ingurumen-emaitza negatiboa izan dezakeen produktu jakin batzuen aurretiazko aldaketa sustatzen.

PREBENTZIO PROGRAMAREN JARDUERAK

HELBURU
ESTRATEGIKOA

Sortutako hondakinen kopuru totala % 10 jaitea 2020rako, erreferentzia urtetzat 2010 hartuta; baita hondakinen arriskugarritasuna jaitea ere

ERABILTZEN EZ DIREN IBILGAILUAK (EEI) ETA ERABILTZEN EZ DIREN PNEUMATIKOAK (EEP)

	JARDUERA	ARDURADUNA	ERLAZIONATUTAKO ERAGILEAK	EPEA
P-A6-1	Jarduera-sektorearekin lan egitea, piezen berrerabilpena sustatzeko eta hierarkia-printzipioa aplikatzeko, kamioiena barne (web-sustapenean eta tresnerian laguntzea..., hondakinen kontabilitatea eta horien kudeaketa errazteko memoria-eredua ezartzea, gas hozgarriak erauzteko trebakuntza eta hondakinak esportatzeko, etab.)	EJIS	<ul style="list-style-type: none"> Berreskurapenaren eta Birziklapenaren Espainiako Federazioa EElen kudeatzaileak 	2016-2020
P-A6-2	Erabiltzen ez diren pneumatikoen berrerabilpena sustatzea eta horien zerbitzazioa eta berrerabiltzeko prestakuntza sustatzea. Gainera, pneumatikoen balorizazio materialerako jarduerak ere sustatuko dira	EJIS	<ul style="list-style-type: none"> EElen kudeatzaileak Pneumatikoen fabrikatzaileak Pneumatikoen birziklatzaileak 	2016-2020
P-A6-3	EElen EELSKekin hitzarmena sinatzea, fabrikatzaileen arteko ekodiseinua sustatzeko (pizgarriak, birziklagarritasun-maila jakin batzuk lortuz gero), zerbitzuaren unibertsalgarritasuna bermatzeko, helburuak betetzeko, etab.	EJIS	<ul style="list-style-type: none"> EELSKK 	2015-2016
P-A6-4	Ibilgailu handietarako birkautxutatutako edo birmoldatutako pneumatikoen Erosketa Pribatua eta Publikoa sustatzea, erosketaren aurrean	EJIS	<ul style="list-style-type: none"> Garraio-enpresak Udalerrriak 	2016-2020
P-A6-5	Ekozile handien pneumatiko-hondakinen minimizazio-planak sustatzea eta horien jarraipena egitea	EJIS		2014-2019

Justifikazioa

Ibilgailuen piezen berrerabilpena ibilgailuen zatiak hondakin gisa kudeatzea saihesten duen neurria da, aldi berean, osagai berriak fabrikatzeko beharra murriztuta, horrek dakarren materialen eta energiaren aurreztearekin. Era berean, erabiltzen ez diren ibilgailuen kudeatzaileen enplegua sustatu dezakeen jarduera ekonomikoa da, erabil daitezkeen piezak identifikatuta eta katalogatuta.

Baliabide informatikoez piezak aurkitzea erraztu dezake, ibilgailu mota horren kudeatzaile bakoitza kontaktatu behar izan gabe; horrek are zentzu handiagoa ematen dio piezen berrerabilpenaren sustapenari.

Beste aldetik, zenbait EElren pneumatikoak egoera onean egon daitezke; horrek euren berrerabilpena ahalbidetzen du. Beste kasu batzuetan, pneumatiko-mota jakin batzuetarako, birkautxutatzea hondakin-mota horren sorrera minimizatzeko beste aukera bat da.

Erosketaren aurrean, pneumatikoen zerbitzuen kontratazioa enpresa fabrikatzaileei pneumatikoen erabileraren kudeaketaz eta optimizazioaz arduratzeko baimena ematen dien beste neurri bat da, erabiltzen ez diren pneumatikoen hondakinen ondoriozko murrizketarekin eta horiek balioztatzeke erraztasun handiagoarekin.

Esperotako emaitzak/Adierazleei egindako ekarpena

EAEko egungo hondakinen inbentarioetan ez dira EElak batera kontabilizatzeko; aldiz, zatiak hondakin arriskutsu gisa kudeatzen dira alde batetik, eta zatiketako frakzio arin gisa bestetik. Hori dela eta, ez dago hondakinen egungo inbentarioei eragingo dien adierazlerik.

Tresnak

- Borondatezko hitzarmena, EEIko eta EEPko kudeatzaileekin.
- Kamioietarako EEI eta EEP kudeatzaile-baimenak sustatzea.
- Hitzarmena EELSKekin.

PREBENTZIO PROGRAMAREN JARDUERAK

HELBURU
ESTRATEGIKOA **Sortutako hondakinen kopuru totala % 10 jaistea 2020rako, erreferentzia urtetzat 2010 hartuta; baita hondakinen arriskugarritasuna jaistea ere**

HONDEATUTAKO LURZORUAK (HONDATUAK ETA EZ HONDATUAK)

JARDUERA	ARDURADUNA	ERLAZIONATUTAKO ERAGILEAK	EPEA
P-A7-1 EAEko errealitatean aplika daitezkeen tokiko tratamendu-teknologiaren bideragarritasunari buruzko ikerketak sustatzea, eta aipatutako tokiko saneamendu-teknologiaren erabilera sustatzea, erauzketaren eta isuriaren aurrean	EJIS	<ul style="list-style-type: none"> • Unibertsitateak eta teknologia-zentroak • Lurzoruen saneamendu-enpresak • Ingurumen eta Lurralde Politika Saila 	2015-2020
P-A7-2 Erauizketaren ordezkotako aukeren sustapena, udalerrietako Hirigintza Sailekin, eta hirigintzako arauetan zein aparkalekuen eta biaduktuen kontratazio-agirietan sartzea	EJIS	<ul style="list-style-type: none"> • Lurralde Antolakuntza Saila • Foru Aldundiak 	2015-2016
P-A7-3 Euskal udalerrietan, kutsatutako lurzoruen kudeaketaren integrazioari eta hirigintzan hondeatutako lurzoruen berrerabilpenari edota balorizazioari buruzko irizpideak sustatzea	EJIS	<ul style="list-style-type: none"> • Udalerriak 	2015-2016

Justifikazioa

Hondeatutako lurzoruek 13.636.040 m³ inguru dira egun (2010eko kalkulua).

Lan eta proiektu berrien ondorioz, prebentziozko zein birziklapeneko edo balorizaziozko tresnak identifikatzerakoan eta martxan jartzekoan kontuan izan behar diren liratekeen bi korrante sortzen dira:

- Hondeatutako tokian edo lanean berrerabili ezin diren hondeatutako lurzoruek eta bestelako material naturalak
- Kalitate hondatutako hondeatutako lurzoruek

Kopuru handi horiek direla eta, lehenik eta behin, hondeaketaren ordezkotako aukerak sustatu behar dira proiektuaren fasetik, hondeaketak behar ez dituzten edo minimizatzen dituzten beste eraikuntza-konponbideak aukeratuta.

Hondeatutako lurzoruen sorrera saihestu ezin denean, lurzoruen berrerabilpena sustatu behar da, tokian edo hirigintzan eskuragarri dauden tresnak aprobetxatuta.

Esperotako emaitzak/Adierazleei egindako ekarpena

Tokian tratatutako hondeatutako lurzoruen eta materialen proportzioa % 20koa izatea lortzea, beste toki batean kudeatzen direnen aurrean.

Tresnak

- Tokiko tratamendu-teknologiaren bideragarritasun-ikerketak.
- Hondeaketaren ordezkotako aukeren ikerketa, irizpideen garapena eta material teknikoetan sartzea.
- ILPNASren eta Teknologia Garbier Euskal Zerrendaren diru-laguntzak tokiko tratamendu-teknologiei.
- Kutsatutako lurzoruen kudeaketaren eta prebentzioaren integrazioari eta hirigintzan hondeatutako lurzoruen balorizazioari buruzko lantaldeak.
- Hondakin-isuriaren gaineko zerga (hondeatutako lurzoruek barne) (eliminazioaren Optimizazio Programan).

PREBENTZIO PROGRAMAREN JARDUERAK
HELBURU Sortutako hondakinen kopuru totala % 10 jaitea 2020rako, erreferentzia urtetzat
ESTRATEGIKOA 2010 hartuta; baita hondakinen arriskugarritasuna jaitea ere

ZEHARKAKO JARDUERAK

	JARDUERA	ARDURADUNA	ERLAZIONATUTAKO ERAGILEAK	EPEA
P-A8-1	Sortzen ari diren hondakinetarako ikerketa sustatzea, horiek zeintzuk diren, zer kopurutan sortzen diren eta zeintzuk sortzen dituzten arazo gehienak jakiteko	EJIS		2016-2017
P-A8-2	Industriaz arduratzen den Sailarekin hitzarmena sustatzea, korrante horien prebentziorako ikerketa ZTBPN sartzeko	EJIS	• Industriaz arduratzen den saila	2015
P-A8-3	EAEko teknologia-zentroetara eta unibertsitateetara irizpideak eramatea, arlo horretako ikerketa sustatzeko	EJIS	• Teknologia-zentroak • Unibertsitateak	2015
P-A8-4	Hondakinen prebentzioa sustatuko duten erakustaldi-proiektuak garatzea eta emaitza arrakastatsuak eragindako sektoreetara eramatea	EJIS	• Eragindako enpresak • Teknologia-zentroak • Unibertsitateak	2014-2020
P-A8-5	Eragindako sektoreei, bereziki hondakin arriskutsuen eta substantzia arriskutsuen murrizketaren hondakinen prebentzioko ekimen arrakastatsuen garapenean laguntzea, Teknologia Garbien Euskal Zerrendaren eta berariazko zein kanpoko diru-laguntzen bidez	EJIS	• Eragindako enpresak	2014-2020
P-A8-6	Prozedura zehatzak prestatzeko eta azpiproduktuaren aitortpena errazteko mekanismoak ezartzea	EJIS	• MAGRAMA	2015-2017
P-A8-7	Azpiproduktuen aitortpena eskatzen duen sektoreen batekin, garapena lantzea ⁴² .	EJIS	• Sektore-elkarteak	2016-2019
P-A8-8	Europar onartutako TEOen ezarpena sustatzea (IPPC transposizio lege dekretua), diru-laguntzen eta zerga-kenkarien bidez	EJIS	• MAGRAMA	2017-2019
P-A8-9	952/1997 Errege Dekretuak onartutako hondakin arriskutsuen Minimizazio Ikerketaren inguruko jarduerak sendotzea, bere garrantziaren definizioaren, edukiaren azterketaren eta balorazioaren, urteko jarraipenaren, enpresen aholkularitzaren, eta abarren bidez, hondakin arriskutsuen ekoizle handiek euren hondakinen sorrera eta arriskugarritasuna prebentzeko neurriak hartzeko betekizuna euren gain har dezaten	EJIS	• Eragindako enpresak	2014-2019
P-A8-10	Industria-konsumitzaileentzako minimizazio-planak sustatzea, helburu eta neurrien proposamen zehatzekin; hala nola, ILPSren diru-laguntzak eta produktuen balio-bizitza luzatzera zuzendutako jardunbide egokiak eta teknologia garbiak sustatzea (taladrinak, olioak, etab.)	EJIS	• Fabrikatzaileen sektorea • Era guztietako enpresak	2015-2019

[.../...]

⁴² Sektore kimikoa, adibidez.

Justifikazioa

Aurrerapen teknologikoei hondakinak jatorrian prebenitzen eta egun baliozta ezin diren hondakinak balioztatzen lagundu dezakete. Alde horretatik, beharrezkoa da, Industriad arduratzen den Sailaren ZTBPN, horietan eragina izango duen hondakinekin erlazioatutako ikerkuntza sustatzea, eta baita erakustaldi-proiektuen bidez ere. Era berean, EHTak bezalako jadanik frogatutako teknologien erabilera sustatu behar da, horretarako, Teknologia Garbien Euskal Zerrenda, diru-laguntzak eta zerga-kenkariak bezalako tresnak erabiltzea.

Arazo ugari konpontzeaz gain, teknologia berriek egun sortzen diren desberdinak diren hondakin-mota berriak sor ditzakete. Horregatik, etorkizunean sor daitezkeen hondakinak eta kopuruak ezagutu behar dira, hobe kudeatzeko irtenbideak bilatzen saiatzeko. Detektatutako zenbait hondakin sortuberri eguzki-panel fotovoltaikoak, plastiko adimendunak eta bioteknologiarekin zein nano-materialekin erlazioatutako bestelako hondakin motak dira.

Europatik sustatutako administrazio-simplifikazioak zenbait material azpiproduktu gisa kudeatzeko aukera ematen du, hondakin bezala kudeatu ordez; hori erraztu egin behar da materialek azpiproduktu gisa aitortzeko ezarritako baldintzak betetzen dituztenean. Halaber, hondakin arriskutsuei, edukiontzien hondakinei edo pneumatikoei aplikatutako minimizazio-planak tresna dira administrazioaren eskuetan, neurri arrakastatsuenak bultzatzeko.

Esperotako emaitzak/ Adierazleei egindako ekarpena

Ezin dira emaitzak kuantifikatu.

Tresnak

- Teknologia Garbien Euskal Zerrendaren eguneraketa, produktuaren bizi-zikloa luzatuko duten edo prebentzioa sustatuko duten teknologia aurreratuekin.
- Prebentzio teknologiak ZTBPN sartzeko sustapena.
- I+G+b proiektuak, substantzia arriskutsuen ordezko aukerak bilatzeko: ordezkapen-plana.
- Hitzarmenak Lanak Basque Ecodesign Center zentroarekin.
- Zerga-tresnak.
- Unibertsitateekin eta teknologia-zentroekin lan egitea.
- Azpiproduktuen katalogazioa zehazteko ikerketak.
- Azpiproduktuen aitortzearen izapidetzea errazteko mekanismoak sortzea.
- Lan-mahaia sektore-elkarteekin.
- Erakustaldi-proiektuak.

5.2/

GAIKAKO BILKETA ETA BEREIZKETA PROGRAMA

JARDUERAK



GAIKAKO BILKETA ETA BEREIZKETA PROGRAMAREN JARDUERAK

HELBURU **Hondakinen gaikako bilketa eta bereizketa gutxienez % 75koa izatea 2020an,**
 ESTRATEGIKOA **eta bilketa-sistema espezifikoak ezartzea arazo bereziak eragiten dituzten hondakinentzat**

BIOHONDAKINEN, PAPERAREN ETA KARTOIAREN, BEIRAREN, ZURAREN, METALEN, EDUKIONTZIAK, GEEH, PILAK ETA ERABILITAKO OLIOAK

	JARDUERA	ARDURADUNA	ERLAZIONATUTAKO ERAGILEAK	EPEA
S-A1-1	Hondakinen foru-planetan, etxeko zein ostalaritzako eta etxekoan antzekoak diren (arrandegiak, harategiak...) biohondakinen beste ekoizle handien biohondakinen gaikako bilketaren eta bereizketaren unibertsalizazioa sustatzea	EJIS Foru Aldundiak		2014
S-A1-2	Korronte horien bilketa- eta kontabilizazio-estrategiaren baterako proiektua sustatzea, Hiri Hondakinen Gidalerro berrien esparruan	EJIS Foru Aldundiak		2014-2016
S-A1-3	Foru Aldundiekin eta berrerabiltzeko prestakuntzaren kudeatzaileekin lan egitea, eta banaketa-sektorearen inplikazioa baloratzea, 3 Lurralde Historikoetako baldintza egokietan dauden GEEHen bilketa sustatzeko, konpontzeko eta, ondoren, bigarren eskuko moduan saltzeko (Garbiguneetan biltegitartzeko eremu zehatzak eta irizpideak gaitzea...)	EJIS Foru Aldundiak	<ul style="list-style-type: none"> Berrerabiltzeko prestakuntzaren kudeatzaileak Banaketa-sektorea 	2015-2016
S-A1-4	Banaketa GEEHen gaikako bilketan eta bereizketan zein trazabilitatean sartzeko sustatzea	EJIS	<ul style="list-style-type: none"> GEEHen banatzaileak Kudeaketa-sistema integratuak 	2016-2019
S-A1-5	GEEHen trazabilitate-teknologiaren eskala handiko aplikazioa bultzatzea	EJIS Foru Aldundiak	<ul style="list-style-type: none"> GEEHen banatzaileak Kudeaketa-sistema integratuak 	2015-2019
S-A1-6	EAE mainan, horren aplikazioa zehaztu ondoren, sorreraren araberako aplikagarritasunaren ikerketa egitea, EAEko hiri- zein landa-eremuetan	EJIS Foru Aldundiak	<ul style="list-style-type: none"> Udalerrak 	2014-2016
S-A1-7	Inplikaturako eragileekin, pilen gaikako bilketaren eta bereizketaren hazkundea lantzea, lege-helburuak gainditzeko, herritarrentzako bereizketa-erraztasuna eta bilketaren unibertsaltasuna sustatzeko (adibidez, etxeko edukiontzi txikiak entregatuta), udalerrak guztietara iritsita. Pilen EELSKk sartzeko, hitzarmenaren sinaduraren bidez, eta pila arriskutsuen kudeaketaren garapenean laguntzea (NiMH, NiCd eta Litioa EAEn)	EJIS Foru Aldundiak	<ul style="list-style-type: none"> Udalerrak EELSKk Pilen kudeatzaileak 	2015-2016

[.../...]

Justifikazioa

HEZak eta Espainiako estaturako transposizioak, bai eta hondakinen arloko bestelako legeek ere, gaikako bilketa- eta bereizketa-maila jakin batzuk eskatzen dituzte korrante jakin batzuetarako: biohondakinak, papera, kartoia, beira, zura, metalak, EEHak, pilak eta GEEHak. Izan ere, gaikako bilketan eta bereizketan, azken urteetan aurrerapen teknologikoak izan badira ere, oraindik beharrezkoa da hondakinen birziklapenetik edo balorizaziotik ondorioztatutako kalitatezko produktuak lortu ahal izateko.

Hondakinek bete beharreko baldintza teknikoek gain, biohondakinen kasuan, gaikako bilketa eta bereizketa ere beharrezkoak dira, legez, horrekin konposta lortu nahi bada.

Beste aldetik, hondakinen kontabilizazioa lana behar duen aspektua izaten jarraitzen du, estatuko edota Europako beste herrialde batzuetako beste eremu batzuekin homogeneizatzen saiatzeko.

Berrerabiltzeko prestatu daitezkeen hondakinen objektuen kasuan (GEEH...), gaikako bilketa eta bereizketa baldintza jakin batzuetan gauzatu behar dira, puskatzen edo bustitzen ez direla zainduta. Kasu zehatz horretan, gainera, ekoizlearen erantzukizun luzatuko sistemak direla eta, banatzaileak bilketa horretan sartu behar dira.

Datu ekonomikoek dagokienez, udalerriek aplikatzen dituzten etxebizitza bakoitzeko hondakinen bilketaren eta kudeaketaren tasak nabarmen aldatzen dira eta, gehienetan, ez dira udalerriek egindako kostuak estaltzera iristen. Beste aldetik, hondakin-tasa finkoa ordaintzeak ez du ekonomikoki pizten prebentzioa, ez eta hondakinen bereizketa zuzena ere; ondorioz, hondakinen sorreraren araberako ordainketa-sistemen aplikazioa irtenbide ona izan daiteke.

Esperotako emaitzak / Adierazleei egindako ekarpena

Gaikako bilketaren eta bereizketaren tasak eta ondorengo berrerabilpena eta birziklapena hobetzen lagundu dezakeen lehen urrats garrantzitsua da. Nolanahi ere, garatuko diren ekintza zehatzek ahalbidetuko dute espero daitezkeen berrerabilpenaren eta birziklapenaren ehuneko hazkundeak kuantifikatzea.

Tresnak

- Hitzarmena HHKOrerkin, biohondakinen bilketa unibertsalizatzeko
- EAEn aplika daitezkeen jardunbide egokiak identifikatzeko ikerketak.
- Hitzarmena Foru Aldundiekin HHKOn, hondakinen kontabilizazioaren eta hartu beharreko neurrien arloan, etxe- zein merkataritza-eremuan (ostalaritzako biohondakinak eta beira, saltokietako paper-kartoia, etab.)
- Hitzarmenak banaketa-sektorearekin, GEEHen gaikako bilketa eta bereizketa bultzatzeko.
- Sorreraren araberako ordainketa-sistemen EAEko aplikagarritasunari buruzko ikerketa.

GAIKAKO BILKETA ETA BEREIZKETA PROGRAMAREN JARDUERAK

HELBURU
ESTRATEGIKOA

Hondakinen gaikako bilketa eta bereizketa gutxienez % 75koa izatea 2020an,
eta bilketa-sistema espezifikoak ezartzea arazo bereziak eragiten dituzten hondakinentzat

ETXEKO HONDAKIN ARRISKUTSUEN, LAN TXIKIETAKO HONDAKINEN,
EGITURAZKO FIBROZEMENTUEN, MERKURIO-AMALGAMEN, ABELTZAINZAKO
USTIAPENETAKO HONDAKIN FITOSANITARIOEN ETA ZOOSANITARIOAK

JARDUERA	ARDURADUNA	ERLAZIONATUTAKO ERAGILEAK	EPEA
S-A2-1 HHKOren esparruan, Garbiguneetan onar daitezkeen hondakinak homogeneizatzeko dituen arau teknikoak prestatzea; bertan, egiturazko fibrozementua, lan txikietakoko hondakinak eta etxeiko gainontzeko hondakin arriskutsuak sartuko dira	EJIS Foru Aldundiak	• Garbiguneak	2014-2020
S-A2-2 Herritarrei zuzendutako sentsibilizazio-ekintzak zehaztea, termometroen eta merkurioa duten beste produktu batzuk behar bezala biltzea sustatzeko	EJIS	• Foru Aldundiak • Udalerriak • Enpresa kudeatzaileak • Osakidetza • Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila	2014-2020
S-A2-3 Merkurioaren iturrirei eta kudeaketari buruzko ezagutza sustatzea lehentasunezko sektoreetarako (adibidez: osasuna, kliniko publikoa eta pribatua). Odontologia-praktiken merkurio-isuriari gutxiakiko murrizketa bermatuko duen Osasuneko eta Ingurumeneko erakunde eskudunen arteko lankidetzaren esparrua zehaztea eta ezartzea hiru lurralde historikoetako Odontologoaren eta Estomatologoaren Elkargo Ofizialekin (adibidez, iragazketa-tekniken erabilera sustatzea)	EJIS Foru Aldundiak	• Osakidetza • Klinika pribatuak • Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila • Lanbide-elkargoak	2015-2019
S-A2-4 Hondakin agrokimikoen (pestizidak, fitosanitarioak, zoosanitarioak, etab.) eta abeltzaintzako ustiapenetako medikamentuen hondakinen bilketa eta ondorengo kudeaketa koordinatzea, dagozkien Sailekin	EJIS Foru Aldundiak	• Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Saila	2016-2019

Justifikazioa

Hondakinak Garbigunean onartzeko irizpideak aldatu egiten dira instalazio batzuetatik beste batzuetara; horrek hondakin jakin batzuen kudeaketa zuzena zailtzen die herritarrei. Era berean, herritarrek euren hondakinak behar bezala utzi ahal izateko baliabideak jartzeaz gain, gaikako bilketaren eta bereizketaren ehunekoak handitzeko sentsibilizazio-kanpainak bultzatu behar dira.

EAEko eremuan, merkurioa duten hondakinen sorreraren inguruan garrantzitsutzat jotako zenbait jarduerak/erabilera identifikatu dira:

hortzetako amalgamak, produktuak, erreaktibo kimikoak eta laborategiko ekipamendua; neurketa- eta kontrol-tresnak; merkurioa duten hondakinak.

Hortzetako amalgamei dagokien, Minimatako Hitzamenaren gidalerroek ez dute debekatzeko amalgamak praktika odontologikoetan erabiltzea, baina horren gutxiakiko murrizketa gomendatzen dute.

Lehen sektoreko hondakin arriskutsuei dagokien, neurri gehigarriak bultzatu behar dira, jadanik garatzen ari direnez gain.

[.../...]

Esperotako emaitzak / Adierazleei egindako ekarpena

Merkurioa duten hondakinen (dentisten amalgamak eta merkuriodun urak, termometroen hondakinak, laborategiko hondakinak, neurketa- eta kontrol-tresnak, argi-deskargako lanparak, pilak eta bateriak) bilketa % 5 handitzea 2020an, 2010. urteari dagokionez.

Tresnak

- Baterako lana HHKOn, herritarren beharrei zerbitzuen emango dieten Garbiguneetan, onarpen-irizpide homogeneousak zehatzeko, ohikoak ez diren hiri-hondakinen kudeaketari dagokionez. Horren inguruko araua prestatzea, beharrezkoa izanez gero.
 - Udalerriek EEHak biltzeko guneak jartzea eta eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituen 112/2012 Dekretuaren arabera hondakinen udal-ordenantzak sustatzea.
 - Sentsibilizazio-ekintzak.
 - Sortutako merkurioaren iturriari eta kopuruei buruzko ikerketak.
 - Hitzarmenak merkurio-sortzaileekin.
 - Baterako lana nekazaritzaz arduratzen den sailarekin.
-

GAIKAKO BILKETA ETA BEREIZKETA PROGRAMAREN JARDUERAK

HELBURU
ESTRATEGIKOA **Hondakinen gaikako bilketa eta bereizketa gutxienez % 75koa izatea 2020an,
eta bilketa-sistema espezifikoak ezartzea arazo bereziak eragiten dituzten hondakinentzat**

INDUSTRIA-NAHASKETAK ETA EEHAK

	JARDUERA	ARDURADUNA	ERLAZIONATUTAKO ERAGILEAK	EPEA
S-A3-1	Industriako hondakinen gaikako bilketa eta bereizketa sustatzea eta industria-nahasketak bezalako hondakinen kudeaketa minimizatzea (enpresa-mota guztiei zuzendua)	EJIS	• Sektoreko enpresak	2015-2017
S-A3-2	Industrialdeetako industria-nahasketen gaikako bilketa- eta bereizketa-estrategiaren analisia	EJIS	• Poligonoak	2016-2019
S-A3-3	Zepa beltzen, zurien eta erregogorren bereizketa sustatzea, hondakin-tipologia bakoitzaren ondoko balorizazioa errazteko	EJIS	• Sektoreko enpresak	2015-2017
S-A3-4	ekoizleen eta zabortegietako industria-nahasketen eta eraikuntzako zein eraispenerako jatorrizko bereizketaren ikuskapena lehentasunezko gai bezala ikuskapen Planean sartzea, 3 urtez	EJIS	• Sektoreko enpresak • Zabortegiak	2015-2017

Justifikazioa

Balorizazio-prozesuek bereizitako hondakinak eskatzen dituzte kasu gehienetan. Industria-nahasketetako edukiontziak beharrezkoak dira, kasu askotan, balorizazio-bideak ez dituzten hondakinak daudelako. Nolanahi ere, ohikoa da edukiontzi-mota horretaz abusatzea, bertan balorizagarriak diren hondakinak utzita; ondorioz, gero ezin dira hondakinak balioztatatu.

EEHen kasuan, jatorrizko bereizketa ezinbestekoa da kasu gehienetan, ondoren, kalitatezko produktuak lortzeko. Hala jaso du EEHen legeriak, eta bilketarako gutxienerako atariak ezarri ditu. Antzekoa gertatzen da zepekin; izan ere, kasu batzutan, gero birziklatu ezin diren tipologia ezberdinetako hondakinak nahasten dira; aldiz, bereizita edo antzeko hondakinekin taldekatuta kudeatuko balira, balorizazio-prozesuetara bidali ahal izango lirarteke.

**Esperotako emaitzak /
Adierazleei egindako ekarpena**

2020. urtean, gaikako bilketa eta bereizketa % 10 handitzea, 2010. urteari dagokionez.

Tresnak

- Ikuskapen-planean, ekoizleen eta zabortegietako industria-nahasketen edukiontziaren ikuskatzea eta lan handietako EEHen bereizketa sartzea, balioztatatu ezin diren hondakinak soilik dituztela ziurtatzeko.
- Baterako lana ekoizpen-sektoreekin, balioztatatu daitezkeen bereizketa sustatzeko.

5.3/

BERRERABILTZEKO PRESTAKUNTZA, BIRZIKLAPEN ETA BALORIZAZIO PROGRAMA

JARDUERAK



**BERRERABILTZeko PRESTAKUNTZA,
BIRZIKLAPEN ETA BALORIZAZIO PROGRAMAREN JARDUERAK**
**HELBURU
ESTRATEGIKOA** **Hondakinen % 60 berrerabilpenerako, birziklapenerako eta balorizaziorako prestatzea
2020rako, bide batez EAEn hondakinen arloan dauden arazo nagusiei irtenbidea emanez**
BIOHONDAKINAK

	JARDUERA	ARDURADUNA	ERLAZIONATUTAKO ERAGILEAK	EPEA
R-A1-1	Existitzen diren eta etorkizuneko instalazioen ikerketa Foru Aldundiekin lantzea, gaika bildutako biohondakinen tratamendurako gaitasun nahikoa izateko, ahalik eta modu eraginkorrenean (EAEko azpiegituren ikuspegi globala) eta, kasu bakoitzean, bilketa erlazionatutako azpiegiturara egokitzea	EJIS Foru Aldundiak	<ul style="list-style-type: none"> SANDACH mahaia⁴³ (Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Osasuna eta Ingurumena, Foru Aldundiak) Banaketa-sektorea Jangelak Ostalaritza Sektore ekoizlea 	2014-2016
R-A1-2	MAGRAMAko materialen erabilera-dekalogoia EAEn baldintzetara egokitzea	EJIS	<ul style="list-style-type: none"> Nekazaritzaz arduratzen den saila SANDACH mahaia 	2015-2016
R-A1-3	Korronte horren beste birziklatze-forma batzuen ikerketak sustatzea beste erabilera batzuetarako (pentsuak, kosmetika, elikagaien proteina-oinarriak...)	EJIS	<ul style="list-style-type: none"> SANDACH mahaia (Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Osasuna eta Ingurumena, Foru Aldundiak) 	2016-2019
R-A1-4	Nekazaritzaz arduratzen den Sailarekin batera, konposta ongarri gisa erabiltzeko aukerak aztertzea, EAE barnean zein kanpoan	EJIS	<ul style="list-style-type: none"> Nekazaritzaz arduratzen den saila 	2015-2017
R-A1-5	Biohondakinetatik ondorioztatutako produktuak ongarri organo-mineral gisa erabiltzea sustatzea, produktu ongarrien Errege Dekretuaren eta Ongarrien Araudiaren aldaketaren arabera	EJIS	<ul style="list-style-type: none"> Nekazaritzaz arduratzen den saila 	2015-2017
R-A1-6	EAEko Azpiproduktu Organikoen Kudeaketa Gida argitaratzea	EJIS	<ul style="list-style-type: none"> Nekazaritzaz arduratzen den saila 	2015-2017
R-A1-7	Foru Aldundiek gauzatutako ekintzen jarraipena, gaika zein masan bildutako biohondakinen % 100ak tratamendua jaso dezan	EJIS Foru Aldundiak		2015-2019
R-A1-8	Plan honekin lerrokatutako Hiri Hondakinen Gidalerroen prestatzea eta onarpena	EJIS	<ul style="list-style-type: none"> Foru Aldundiak 	2014-2015

Justifikazioa

LBiohondakinak gehien sortzen diren (hondakin horien guztizkoaren % 25) eta gutxien birziklatzen diren etxeko zein merkataritzako hondakinen frakzioa dira; beraz, jarduera-tarte garrantzitsua aurkezten dute. Era berean, garrantzitsua da biohondakinetatik ondorioztatutako produktuei irtenbide egokiak bilatzea; izan ere, konpostaren merkaturak ez dago oso garatuta EAEn. Alde horretatik, biohondakinen kudeaketa-esperezentzia nagusitzen den zentraltasunetik, biohondakinetatik datozen produktuen eta material-mota ezberdinen merkaturatzearen (hala nola, sustratoak, ongarri organo-mineralak, pensuak, kosmetikoak, elikagaien proteina-oinarriak, etab.) ezagutzarako toki handiagoa duen egoerara pasatu behar da. Alde horretatik, oso garrantzitsua da Nekazaritzaz arduratzen den Sailarekin lan egitea; izan ere, hainbat kasutan, biohondakinetatik lortutako produktuak lehen sektorerara joango dira.

Nabarmendu beharreko beste aspektu bat EAetik kanpo, materia organikoaren behar handigoa duten lurzorua dituzten tokietan merkaturatu ahal izango diren biohondakinetatik datozen produktuak prestatzeko aukera da; izan ere, kontuan izan behar da EAEk azalera murriztua eta materia organiko soberakina dituela (simaurra, mindak, nekazaritzako eta elikadurako industriatik datozen azpiproduktuak, biohondakinak, lohi organikoak, etab.)

Beste aldetik, biohondakinen % 100 tratatu behar da. Alde horretatik, gaikako bilketei ekin ondoren, masan bildutako biohondakinak tratatuko dituzten azpiegiturak izan behar dira. Alde horretatik, Arabak eta Bizkaiak badituzte horretarako instalazioak, baina Gipuzkoak bere plangintzan aurreikusitako azpiegiturak eraiki eta martxan jarri behar ditu.

[.../...]

⁴³ SANDACH: Giza kontsumorako bideratzen ez diren animalia-azpiproduktuak.

[.../...]

Esperotako emaitzak/Adierazleei egindako ekarpena

- 2020an sortutako biohondakinen % 50en birziklapena; hori etxeko eta merkataritzako hondakinen birziklapen-tasak % 12,5 handitzearen baliokidea izango litzateke.
- Gainontzeko frakzioko biohondakinak % 10era murriztea, gehienez
- Biohondakinen % 100eko tratamendua.

Tresnak

- Baterako lana HHKOrekin, hondakinen foru-planetan ekintzak sartzeko.
 - Baterako lana nekazaritzaz, osasunaz eta kontsumoaz arduratzen diren Sailekin.
 - Sustratoen, ongarrien, kosmetikaren, elikagaien proteina-oinarrien eta abarren merkatuan adituak diren enpresekin lan egitea.
 - Ikuskapen-plana (eliminazioa optimizatzeko programa).
-

**BERRERABILITZEKO PRESTAKUNTZA,
BIRZIKLAPEN ETA BALORIZAZIO PROGRAMAREN JARDUERAK**

HELBURU **Hondakinen % 60 berrerabilpenerako, birziklapenerako eta balorizaziorako prestatzea**
ESTRATEGIKOA **2020rako, bide batez EAEn hondakinen arloan dauden arazo nagusiei irtenbidea emanez**

ERAIKUNTZAKO ETA ERAISPENeko HONDAKINAK (EEH)

	JARDUERA	ARDURADUNA	ERLAZIONATUTAKO ERAGILEAK	EPEA
R-A2-1	EEhtatik datozen birziklatutako agregakinen agindu teknikoa onartzea	EJIS	• Etxebizitzaz eta garraioaz arduratzen diren sailak	2014-2016
R-A2-2	Enpresei aholkua ematea, EEhtatik datozen materialen erabileraren arau teknikoa betetzen dela egiaztatzeko	EJIS	• Etxebizitzaz eta garraioaz arduratzen diren sailak	2014-2016
R-A2-3	Erabilera berrien ikerkuntzarekin eta normalizazio teknikoarekin jarraitzea	EJIS	• Etxebizitzaz eta garraioaz arduratzen diren sailak • Foru Aldundiak (obra publikoak)	2014-2016
R-A2-4	Erosketa Publiko Berdeko tresnak garatzea; Etxebizitza eta Garraio Sailekin, eraikuntza-enpresa handiekin, arkitektoekin eta udalekin hitzarmenak sustatzea. Lan publikoetan birziklatutako agregakinen kontsumoaren derrigortasuna araudian sartzea, Eusko Jaurlaritzako birziklatutako agregakinen erabileren Agindu Teknikoan preskribatutako erabilera ezberdinekin bat datozen gehieneko %etan	EJIS	• Etxebizitzaz eta garraioaz arduratzen diren sailak • Udalerriak • Foru Aldundiak (obra publikoak) • Eraikuntza-enpresa handiak • Arkitektoen Elkargoa	2014-2020
R-A2-5	Udalei EEHen eta eraikuntza iraunkorraren prebentzioa, ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituzten ordenantzen garapenean laguntzea	EJIS	• Udalerriak • EUDEL / Udalsarea 21	2014-2016
R-A2-6	EEHen kudeaketa egokia ikuskapen-planean lehentasun gisa sartzea 3 urtez	EJIS	• Ikuskapen-zerbitzua	2014-2016
R-A2-7	Zabortegeien Ingurumen Baimen Integratuetan, EAEko instalazioetan balioztatu daitezkeen EEHen onarpena mugatzea	EJIS		2015-2017
R-A2-8	EEHen azpiegituren mapa eta sorrera eguneratzea	EJIS	• EEHen kudeatzaileak	2015
R-A2-9	Aldizka, EEHen Azken Kudeaketa Txostenak aztertzea, gutxika, sorrera-ratioak hobetzeko	EJIS	• Udalerriak	2014-2016
R-A2-10	Hondeaketako soberakinen kudeaketa egokia ziurtatzeko kontrol-kanpainak gauzatzea	EJIS	• Udalerriak	2014-2019
R-A2-11	Lan txikietatik datozen EEHen kudeaketa-azpiegituren eskuragarritasuna erraztea, onargarritasun-irizpideen homogeneizazioa sustatzeko	EJIS	• Foru Aldundiak • Udalerriak	2014-2016
R-A2-12	EEH Aurrezten tresna profesionalizatzea, bere erabilera inplikaturako eragile guztien artean zabaltzeko	EJIS		2014-2019
R-A2-13	Gipuzkoan eta Arabako kuadrilla zehatzen batean EEHen tratamendu-instalazioa ezartzeko bideragarritasuna aztertzea	EJIS		2015

[.../...]

Justifikazioa

Azken urteetan, ILPSk lan handia egin du EEHen birziklapena sustatzeko, tresnen nahasketa garatuta. Lan horiek beste ekintza batzuekin garatu behar dira, hondakin horien kudeaketa zuzena konpontzen amaitzeko, EAEn.

Agindu teknikoak, birziklatutako materialen erabileraren sustapena, azpiegituren mapa, Hondakin Kudeaketa Planen ikuspegi egokiaren eta ezarpenaren sustapena, aipatutako hondakin trazarabiltatearen sustapena edo kudeaketa egokiaren ikuskapena beharrezkoak dira, EEHek tratamendu egokia jasotzea, kalitatezko produktuak ateratzea eta material horien ondorengo erabilera sustatzea lortzeko.

Esperotako emaitzak/ Adierazleei egindako ekarpena

EEHen % 60ko birziklapena 2016an, eta % 70ekoa, 2020an.

Tresnak

- Agindu teknikoen, EEHen eta eraikuntza iraunkorreko kudeaketa-ereduen, dokumentu-trazarabiltatearen aplikagarriaren, publizitate-ereduen eta abarren prestakuntza eta baterako lana udalekin, ondoren horiek erabil ditzaten.
 - Administrazioek oinarri gisa erabil dezaketen laneko hondakin kudeaketa-prezioen oinarria ezartzea, euren agirietan prezio baxuegiak ez jartzeko, kudeaketa egokia sustatzeko eta hondakin-mota horren isuria saihesteko.
 - Enpresei aholkularitza emateko zerbitzua.
 - I+G+b sustatzea, EEHen gainean.
 - Baterako lana, garraioaz eta etxebizitzaz arduratzen diren sailekin.
 - Borondatezko hitzarmenak garraioaz eta etxebizitzaz arduratzen diren sailekin, hiriburuetakoa hirigintzarekin, eraikuntza-enpresa handiekin eta arkitektoen elkargoekin.
 - Ikuskapen-plana (eliminazioa optimizatzeko programa).
 - Erosketa Publiko Berdea (derrigortasuna araudian sartzea).
-

**BERRERABILITZEKO PRESTAKUNTZA,
BIRZIKLAPEN ETA BALORIZAZIO PROGRAMAREN JARDUERAK**

HELBURU **Hondakinen % 60 berrerabilpenerako, birziklapenerako eta balorizaziorako prestatzea**
ESTRATEGIKOA **2020rako, bide batez EAEn hondakinen arloan dauden arazo nagusiei irtenbidea emanaz**

TRESNA ELEKTRIKOEN ETA ELEKTRONIKOEN HONDAKINAK (GEEH)

	JARDUERA	ARDURADUNA	ERLAZIONATUTAKO ERAGILEAK	EPEA
R-A3-1	3 Lurralde Historikoetan, nahikoa instalazio berriren ezarpena eta baimena sustatzea, GEEHak berrerabilitzeko prestakuntzarako	EJIS	<ul style="list-style-type: none"> • Ekonomia Sustatzeko Saila • Foru Aldundiak 	2015-2016
R-A3-2	GEEHen kudeaketa-sektorearekin, EHrako funtsezko irizpideak zehaztea eta MAGRAMAra eramatea	EJIS	<ul style="list-style-type: none"> • GEEHen kudeaketa-sektorea • MAGRAMA 	2014
R-A3-3	Hitzarmena EELSKrekin, berrerabilitzeko prestakuntzarako %rako, EAEko kudeatzaile baimendun guztiak sartzea; ekodiseinua sustatzea, berrerabilitzeko prestakuntzako enpresei gailu berrerabilgarriak entregatzera derrigortzea. GEEHen trazabilitatea bermatuko duen fluxu-sistema prestatzea. EHZ kodeak esleitzeko irizpideak bateratzea	EJIS	<ul style="list-style-type: none"> • EELSKk 	2015-2016
R-A3-4	GEEHren mailarekin batera, trazabilitatearen eta kontabilizazioaren hobekuntza aztertzea eta, azkenik, "instalazioak edo biltzeko guneak" berrerabilitzeko prestakuntzarako eremuak gaitzera derrigortzea. Berrerabilitzeko prestakuntzari buruzko trebakuntza	EJIS	<ul style="list-style-type: none"> • GEEH mahaia 	2014-2016

Justifikazioa

Berrerabilitzeko prestakuntza da aukerarik onena GEEHen kudeaketarako, gailuak hondakin bihurtzen direnean. Horretarako funtsezko jardueretako bat lurralde osoan instalazioak izatea eta Zuzentarauak zehaztutako GEEH kategoria guztiak barne hartzea da. Era berean, EAEn GEEHen arloan lan egiten duen sektorearekin lan egin behar da, zuzentarau hori birlandatuko duen eta, hurrengo urteetan, GEEHen kudeaketa markatuko duen arauaren prestakuntza-prozesura eraman daitezkeen irizpideak ezartzeko.

Esperotako emaitzak/Adierazleei egindako ekarpena

GEEHen % 2ko berrerabilitzeko prestakuntza 2016an, eta % 5koa, 2020an.

Tresnak

- Berrerabilitzeko prestakuntzaren kudeatzaileekin akordioa.
- Diru-laguntzak.
- GEEHen biltegitratze-, lekualdaketa- eta manipulazio-irizpideen informazio-gida, berrerabilitzeko prestakuntza optimoa lortzeko.
- Ikuskapen-plana (eliminazioa optimizatzeko programa).

**BERRERABILITZEKO PRESTAKUNTZA,
BIRZIKLAPEN ETA BALORIZAZIO PROGRAMAREN JARDUERAK**

HELBURU **Hondakinen % 60 berrerabilpenerako, birziklapenerako eta balorizaziorako prestatzea**
ESTRATEGIKOA **2020rako, bide batez EAEn hondakinen arloan dauden arazo nagusiei irtenbidea emanez**

ALTZAIRUGINTZAKO ZEPAK

JARDUERA	ARDURADUNA	ERLAZIONATUTAKO ERAGILEAK	EPEA
R-A4-1 Altzairuaren fabrikazio-prozesuan hobekuntzak sustatzea, zeparen prebentzioa eta zahartzapen egokia sustatzeko, etorkizunean, kalitate hobeko agregakin siderurgikoa sortzeko	EJIS	<ul style="list-style-type: none"> • ACYMA • Altzairuaren sektoreko enpresak 	2015-2016
R-A4-2 Zepen 34/2003 Dekretua aztertzea, azken hamarkadan beste hondakin batzuekin gauzatutako araudiaren aurreko ikerkuntzarekin bat datozen erabilera gehigarriak ahalbidetzeko.	EJIS	<ul style="list-style-type: none"> • ACYMA • Altzairuaren sektoreko enpresak • Teknologia-zentroak 	2014
R-A4-3 Sektorearekin batera, zeparen egungo erabilera posibleak aztertzea eta, behar izanez gero, beste arau batzuen garapena sustatzea	EJIS	<ul style="list-style-type: none"> • ACYMA • Altzairuaren sektoreko enpresak 	2014-2015
R-A4-4 Sektoreari horren hondakinen ondorengo balorizaziorako beharrezkoak diren aurretratuak bilatzen eta ezartzen laguntzea, Teknologia Garbien Euskal Zerrendaren eta berariazko zein besteren diru-laguntzen bidez	EJIS	<ul style="list-style-type: none"> • ACYMA • Altzairuaren sektoreko enpresak • Teknologia-zentroak 	2014-2019

Justifikazioa

Zepak dira EAEn gehien sortutako hondakinak (746.000 tona 2011n, baina 1.000.000 tona krisi ekonomikoaren aurretik). Borondatezko hitzarmenek eta arku elektrikoko labeetan fabrikatutako altzairutik datozen zepen balorizazioa eta ondorengo erabilera arautzen dituen 34/2003 Dekretuak jadanik hasi zuten zepen birziklapena handitzeko bidea baina 2011n, birziklapenaren ehunekoa % 51koa zen; beraz, emaitzak hobetzeko jarduera-tarte handia dago.

Hain zuzen ere, gauzatu beharreko lanetako bat aipatutako dekretuaren azterketa da, arauaren aplikazio urteetan hartutako ezagutza berriak eta, lurzorurekin kontaktuan dauden materialen arloan, gauzatutako beste lan batzuk kontuan hartuz. Halaber, prozesuak optimizatu behar dira, kalitate hobeko agregakin birziklatua lortzeko. Beste aldetik, sektoreari lagundu behar zaio Teknologia Garbien Euskal Zerrenda bezalako tresnekin, bai eta administrazioak eskuragarri dauden tresnak erabili ere, balioztatu daitezkeen hondakinak isurtzea saihesteko.

Esperotako emaitzak/Adierazleei egindako ekarpena

Zepen % 75eko birziklapena 2016an, eta % 90ekoa, 2020an.

Tresnak

- Topaketa-mahaiak sektorearekin.
- Erakustaldi-proiektuak.
- Zepei buruzko 34/2003 Dekretuaren azterketa.
- Teknologia Garbien Euskal Zerrendaren eguneraketa.
- Altzairutegien eta zabortegien Ingurumen Baimen Integratuak aldatzea, EAEn balioztatzeko aukerak dituzten altzairugintzako hondakinen zabortegietako biltegitratzea mugatzeko.
- Zabortegien 49/2009 Dekretuaren araudia garatzea, EAEn balioztatu daitezkeelako, zabortegian onartezinak diren hondakinen zerrenda zabaltzeko.
- Ikuskapen-plana (eliminazioa optimizatzeko programa).

**BERRERABILTZETAKO PRESTAKUNTZA,
BIRZIKLAPEN ETA BALORIZAZIO PROGRAMAREN JARDUERAK**

HELBURU **Hondakinen % 60 berrerabilpenerako, birziklapenerako eta balorizaziorako prestatzea**
ESTRATEGIKOA **2020rako, bide batez EAEn hondakinen arloan dauden arazo nagusiei irtenbidea emanez**

**PASTA-PAPER LOHIAK
(TINTA-KENTZE LOHIAK, ARAZTEGI-LOHIAK, KAUSTIFIKAZIOKO HONDARRAK ETA KARE-LOHIAK)**

	JARDUERA	ARDURADUNA	ERLAZIONATUTAKO ERAGILEAK	EPEA
R-A5-1	Kudeaketa-bide egonkorra hautatzea eta ezartzea (bide egingarriak baloratzea eta bideragarritasun handiena dutenak laguntzea, sektoreari epe motzaren behar diren azpiegituren aldeko apustuan lagunduta)	EJIS	<ul style="list-style-type: none"> Paperaren klusterra Pasta-paperaren sektoreko enpresak 	2014-2016
R-A5-2	Hondakinen kudeaketa-hierarkiaren ikuspuntutik erabilera-bide hobekak identifikatzen dituzten kudeatzaileei lehenasunez baimena ematea eta, behar izanez gero, teknikoki arautzea	EJIS	<ul style="list-style-type: none"> Hondakinen kudeatzaileak 	2014-2019
R-A5-3	Berrerabilpena sustatzea destintatze-lohien eta efluenteen tokiko tratamendu-lohien frakzio organikoen eta inorganikoen prozesuan ⁴⁴	EJIS	<ul style="list-style-type: none"> Paperaren klusterra Pasta-paperaren sektoreko enpresak 	2014-2016
R-A5-4	Balorizazioko irtenbide zehatzen (sektorialak, ahal bada) eta aipatutako balorizazioa materializatzeko instalazioen aldeko sektorearen apustua lantzen duen Borondatezko Hitzarmena sinatzea, irtenbideen bilaketa ikerketen, berriazko edo besteren diru-laguntzen eta TGEZen bidez lagunduta, beharrezkoa izanez gero	EJIS	<ul style="list-style-type: none"> Paperaren klusterra Pasta-paperaren sektoreko enpresak Teknologia-zentroak 	2014-2015
R-A5-5	I+G+b eta erakustaldi-proiektuak bermatzea, beste balorizazio-aukera batzuk bilatzeko, beharrezkoa izanez gero	EJIS	<ul style="list-style-type: none"> Paperaren klusterra Pasta-paperaren sektoreko enpresak 	2014-2016

Justifikazioa

Papergintzako enpresek eta paperaren klusterrak hainbat ikerketa garatu dituzte, sektorean sortutako lohiak zabortegitik desbideratzen saiatzeko. ILPSk ere irtenbideak bilatzen lagundu du erakustaldi-proiektuen sustapenarekin; horiek paper-lohiak hartzen dituzte barne, besteak beste (motaren bat). Hainbat arrazoik (besteak beste, egungo egoera ekonomikoak eta zabortegi berriak irekitzeak eragindako hondakinen sorreraren murrizketaren ondorioz, azken urteetan gertatutako zabortegien prezioen beherakada) eragin dute oraindik aztertutako bide bat edo gehiago hautatu ez izatean.

Hori guztia dela eta, beharrezkoa da sektoreak aztertutako teknologia baten edo batzuen aldeko apustua egitea epe motzera eta, horretarako, administrazioaren laguntza izatea, beharrezkoak liritekeen tratamenduen ezarpena lagunduta; Teknologia Garbiena Euskal Zerrendaren bidez, proiektu berriak erraztuta; hondakin horiek balioztatuko dituzten kudeatzaileak sustatuta eta, ahal den heinean, enpresan bertan lortutako materialen berrerabilpena edota birziklapena lagunduta.

Hartu beharreko beste neurrietako bat balioztatu daitezkeen hondakinak azkenean balioztatzen direla ziurtatzea da, ingurumen-kudeaketa hobea eta balorizazioa sustatuko duten inbertsioak egiten dituzten eragileei segurtasun ekonomiko handiagoa ziurtatuta, eta balioztatu daitezkeen korronteen isuriaren gainean zerga jarrita (ikus eliminazioa optimizatzeko programa).

**Esperotako emaitzak/
Adierazleei egindako ekarpena**

Pasta-paper lohien % 90eko balorizazioa 2016an, eta % ≈100ekoa, 2020an. 2012an, % 76 balioztatu zuten.

Tresnak

- Borondatezko Hitzarmena pastaren eta paperaren fabrikazio-sektorearekin.
- Ekoizleen eta zabortegien baimenen kontrola.
- Sektoreko hondakinak balioztatuko dituzten kudeatzaileen baimenak bultzatzea.
- Teknologia Garbiena Euskal Zerrenda.
- Berriazko eta besteren diru-laguntzak.
- Ikuskapen-plana (eliminazioa optimizatzeko programa).
- Komunikazio-eremuak sortzea, sektoreko eragileekin.

⁴⁴ Erakustaldi-proiektu batean egiaztatuta da, destintatze-lohiak, frakzio organikoa eta inorganikoa bereizi daitezkeela; horrela, biek izan dezakete berrerabilpen-potentziala prozesuan, banaka.

**BERRERABILITZEKO PRESTAKUNTZA,
BIRZIKLAPEN ETA BALORIZAZIO PROGRAMAREN JARDUERAK**

HELBURU **Hondakinen % 60 berrerabilpenerako, birziklapenerako eta balorizaziorako prestatzea**
ESTRATEGIKOA **2020rako, bide batez EAEn hondakinen arloan dauden arazo nagusiei irtenbidea emanez**

**GALDAKETAKO HONDARRAK (MOLDEKATZE BERDEKO HONDARRAK
ETA ZATIKI FINAK ETA MOLDEKATZE KIMIKOKO HONDARRAK ETA ZATIKI FINAK)**

	JARDUERA	ARDURADUNA	ERLAZIONATUTAKO ERAGILEAK	EPEA
R-A6-1	Berreskuratutako hondarren tratamenduek kalitatezko hondarrak sortzea sustatzea eta berreskuratutako hondarren ezaugarriak galdaketen artean zabaltzea, hondarren balorizaziorako instalatutako gaitasuna agortuta, horien isuriaren kalterako	EJIS	<ul style="list-style-type: none"> Euskadiko Urtzaileen Elkarte Galdaketaren sektoreko enpresak Teknologia-zentroak 	2015-2016
R-A6-2	Benetako balorizazio-irtenbideak eta gaitasunak aztertzea	EJIS	<ul style="list-style-type: none"> Hondakinen kudeatzaileak 	2014-2015
R-A6-3	Zementu-enpresekin hitzarmenak sustatzea, gutxienez, galdaketako hondarren eta finen zati baten balorizaziorako, betiere, gainontzeko ordezeko berreskuratze- eta birziklapen-bideek balioztatu daitezkeen honda guztietarako gaitasunik ez dutenean ⁴⁵	EJIS	<ul style="list-style-type: none"> Euskadiko Urtzaileen Elkarte Zementu-enpresak 	2014-2019
R-A6-4	Sektoreari horren hondakinen ondorengo balorizaziorako beharrezkoak diren aurretratamenduak bilatzen eta ezartzen laguntzea, Teknologia Garbien Euskal Zerrendaren eta berariazko zein besteren diru-laguntzen bidez	EJIS	<ul style="list-style-type: none"> Euskadiko Urtzaileen Elkarte Galdaketaren sektoreko enpresak 	2014-2019

Justifikazioa

Galdaketa-sektorearen eta Eusko Jaurilaritzaren arteko borondatezko hitzarmenek sektoreko hondakinen berreskurapena eta birziklapena handitzeko ikerketak eta jarduerak bultzatu zituzten. Jadanik ezarri dira moldaketa-hondarren berroneratze-instalazioa bezalako zenbait ekintza, baina sektoreko hondakinak zaborteigiko bidalketa murriztea ahalbidetuko duten beste jarduerak batzuk gauzatu behar dira oraindik.

Halaber, tratamendu-bide berriak sustatu aurretik, egungo hondakin-kudeaketako instalazioek euren tratamendu-gaitasuna osatzeko hondakin-kopuruak jaso behar dituzte, instalazioak ekonomikoki bideragarriak izan daitezzen eta, horrela, zaborteigietako hondakinak desbideratzeko beharrezkoak izanez gero, ekimen pribatuak azpiegitura berriak eraiki ahal izateko pizgarria sor dadin.

Alde horretatik, existitzen diren instalazioek galdaketako hondakinen balorizazio-eskakizuna estali ezin duten heinean, beste bide batzuk aztertu beharko dira; hala nola, zementu-enpresa edo Teknologia Berrien Euskal Zerrendaren bidez sustatutako liratekeen instalazio berriak. Beste hondakin-mota batzuetan bezala, administrazioak ere administrazio-tresna erabili beharko ditu, galdaketako-hondarrak behar bezala kudeatzen direla zaintzeko, ikuskaritza-planaren, zaborteigietako eta galdategietako Ingurumen Baimen Integratuetako eguneraketan edo balioztatu daitezkeen hondakinen isuriaren gaineko zergaren ezarpenaren bidez (ikus eliminazioa optimizatze programak).

**Esperotako emaitzak/
Adierazleei egindako ekarpena**

Galdaketako hondarren eta finen % 60ko balorizazioa 2016an, eta % 75koa, 2020an. 2012an, frakzio horren balorizazioa % 31koa izan zen.

Tresnak

- Sektoreko hondakinak balioztatutako dituzten kudeatzaileen baimenak bultzatzea.
- Teknologia Garbien Euskal Zerrendaren eguneraketa.
- Berariazko eta besteren diru-laguntzak.
- Ikuskapen-plana (eliminazioa optimizatze programak).
- Ekoizleen eta zaborteigien baimenen kontrola (eliminazio-programa).
- Borondatezko Hitzarmena, sektorearekin eta kudeatzaileekin.

⁴⁵ Erakustadi-proiektu batean eliazatu da, destinatse-lohiak lehortuta, frakzio organikoa eta inorganikoa bereizi daitezkeela; horrela, biek izan dezake berrerabilpen-potenziala prozesuan banaka.

**BERRERABILTZEKO PRESTAKUNTZA,
BIRZIKLAPEN ETA BALORIZAZIO PROGRAMAREN JARDUERAK**

HELBURU **Hondakinen % 60 berrerabilpenerako, birziklapenerako eta balorizaziorako prestatzea**
ESTRATEGIKOA **2020rako, bide batez EAEn hondakinen arloan dauden arazo nagusiei irtenbidea emanez**

HUA LOHIEN

JARDUERA	ARDURADUNA	ERLAZIONATUTAKO ERAGILEAK	EPEA
R-A7-1 HUA lohien Dekretuaren betearazpena sustatzea, Nekazaritza Sailarekiko lankidetzaren bidez, HUA lohi horiek nekazaritzan behar bezala erabiltzea sustatzeko (nekazarietarako trebakuntza, gidak, irizpideak...)	EJIS	• Nekazaritza Saila	2015-2019
R-A7-2 Balorizazioaren benetako gaitasunak eta ordezkoko aukera posibleak aztertzea, sortutako balioztatu daitezkeen hondakin guztietarako gaitasunik izan ezean	EJIS	• Ur partzuergoak	2016-2019
R-A7-3 Balorizazio-sektoreari merkatu eta balorizazio-gaitasun handiena duten bideetan laguntzea, Teknologia Garbien Euskal Zerrendaren, berariazko edo besteren diru-laguntzen edo erosketaren bidez	EJIS	• Ur partzuergoak • Hondakinen kudeatzaileak	2016-2019
R-A7-4 Hondakina sortzen duen sektoreari beharrezko aurretratatamenduak egiten laguntzea, Teknologia Garbien Euskal Zerrendaren edo berariazko zein besteren diru-laguntzen bidez	EJIS	• Ur partzuergoak	2016-2019
R-A7-5 Araudi teknikoa prestatzea, gainontzeko jardueretatik beharrezkoa dela baderitza	EJIS	• Ur partzuergoak	2016-2019
R-A7-6 HUA lohien balorizazio-bideak aurkitzeko erakustaldi-proiektuak	EJIS	• HUA	2014-2016

Justifikazioa

Lohien balorizazioa lurzoruen zuzenketa gisa egin izan da normalean. Beste aldetik, material-mota hori hartzeko EAEko lurzoruen gaitasuna mugatua da eta, zenbait kasutan, tratamendu termikoak egitea hautatu da. Nolanahi ere, lohien % 45 zabortegean uzten da (2010); beraz, horien balorizazio-aukerak bilatzea ahalbidetuko duten neurriak bultzatu behar dira.

Bultzatu behar diren neurrien artean, honako hauek daude: HUA lohien kudeaketarentzako irtenbideak aztertzeke ikerketak, Teknologia Garbien Euskal Zerrendaren bidez egin beharreko aurretratatamenduei laguntza, hondakinetatik ondorioztatutako materialen erabileraren araudi teknikoaren prestakuntza, behar izanez gero, eta balioztatu daitezkeen hondakinak isurtzen ez direnaren azken kontrola, balioztatu daitezkeen korronteen gaineko isuri-zergaren bidez (ikus eliminatzeko optimizazio-programa).

Esperotako emaitzak/Adierazleei egindako ekarpena

HUA lohien % 90eko balorizazio-tasa lortzea 2016rako, eta % ≈100koa, 2020rako.

Tresnak

- Agindu teknikoen prestakuntza/aldaketa.
- Kudeatzaileen gaitasunen azterketak.
- Birziklapenaren ordezkoko aukera berriak aztertzeke ikerketa.
- Teknologia Garbien Euskal Zerrendaren eguneraketa.
- Berariazko eta besteren diru-laguntzak.
- Zabortegeen IBletan, hondakin horiek isurtzeke baimenak mugatzea.
- Ikuskapen-plana (eliminazioa optimizatzeko programa).

**BERRERABILITZEKO PRESTAKUNTZA,
BIRZIKLAPEN ETA BALORIZAZIO PROGRAMAREN JARDUERAK**

HELBURU **Hondakinen % 60 berrerabilpenerako, birziklapenerako eta balorizaziorako prestatzea**
ESTRATEGIKOA **2020rako, bide batez EAEn hondakinen arloan dauden arazo nagusiei irtenbidea emanez**

ERABILTZEN EZ DIREN ITSASONTZIAK

	JARDUERA	ARDURADUNA	ERLAZIONATUTAKO ERAGILEAK	EPEA
R-A8-1	Itsasontziak desegiteko irizpideak ezartzea eta zabaltzea, ahalik eta birziklapen eta balorizazio handiena lortzeko, sektorearekin batera, eta instalazioak baimentzea, aipatutako irizpideen arabera	EJIS	• Itsas Foroa	2016-2019

Justifikazioa

2007an, Europako Batzordeak «Itsasontzien desmuntaketa hobetzea» izeneko Liburu Berria argitaratu zuen. Liburu berde horren arabera, erabiltzen ez diren itsasontziak behar bezala kudeatzeko irizpideak ezarri behar dira.

Esperotako emaitzak/Adierazleei egindako ekarpena

Ez dira hala kudeatutako itsasontzien datuak kontabilizatzen.

Tresnak

— Erabiltzen ez diren itsasontziak desegiteko gidak.

**BERRERABILTZEKO PRESTAKUNTZA,
BIRZIKLAPEN ETA BALORIZAZIO PROGRAMAREN JARDUERAK**

HELBURU
ESTRATEGIKOA **Hondakinen % 60 berrerabilpenerako, birziklapenerako eta balorizatorako prestatzea
2020rako, bide batez EAEn hondakinen arloan dauden arazo nagusiei irtenbidea emanaz**

HONDAKINEN AUTOGESTIOA

JARDUERA	ARDURADUNA	ERLAZIONATUTAKO ERAGILEAK	EPEA
R-A9-1 Autogestionatu daitezkeen hondakinek aztertzea	EJIS	• Hondakin-mota hori sortzen duten enpresak	2014-2016
R-A9-2 Hondakinen autogestioa sustatzea	EJIS	• Hondakin-mota hori sortzen duten enpresak	2016-2020
R-A9-3 Autogestio-eragiketen baimentzeari lehentasuna ematea	EJIS		2016-2020

Justifikazioa

Sortzen den puntutik gertu edo instalazio berean, hondakinen kudeaketak garraioan aurrezteko ekartzen du, horrek dakarren ingurumen-inkaktuen minimizazioarekin. Hori dela eta, hondakinen autogestioa aukera hobea da, beste instalazio-mota batzuei dagokionez; beraz, sustatu beharreko aspektua da, betiere, jasotzen duten tratamendua egokia izanez gero.

Esperotako emaitzak/Adierazleei egindako ekarpena

Hondakin arriskutsuen autogestioa % 2 handitzea 2016rako, eta % 5, 2020rako, 2010. urteari dagokionez.

Tresnak

- Autogestionatu daitezkeen hondakinen korrante berriak aztertzeo ikerketa.
- Autogestioa sustatzera zuzendutako argitalpenak edota kanpainak.
- Euren hondakinek autogestionatzea eskatzen duten enpresen baimenak bizkortzea.

**BERRERABILTZeko PRESTAKUNTZA,
BIRZIKLAPEN ETA BALORIZAZIO PROGRAMAREN JARDUERAK**

HELBURU **Hondakinen % 60 berrerabilpenerako, birziklapenerako eta balorizaziorako prestatzea**
ESTRATEGIKOA **2020rako, bide batez EAEn hondakinen arloan dauden arazo nagusiei irtenbidea emanez**

HONDEATUTAKO LURZORUAK (HONDATUAK ETA EZ HONDATUAK)

JARDUERA	ARDURADUNA	ERLAZIONATUTAKO ERAGILEAK	EPEA
R-A10-1 Beste toki batzuetan birziklatzeko, hondeatutako lurzoruen bizitza-amaiera zehazteko eta, jatorrizko tokian zein beste batzuetan, hondeatutako lurzoruen berrerabilpena sustatzeko irizpideak garatzea. Berrerabiltzeko helbide posibleen bilaketa (adibidez, harrobien berroneratzea)	EJIS	<ul style="list-style-type: none"> • Garraioez arduratzen den saila • Sortzaile handiak (eraikuntza-enpresak) • Hondeatzeko makinak 	2014-2016
R-A10-2 Hondakin geldoen betegarrien/zabortegeien baimena optimizatzea	EJIS		2014-2016
R-A10-3 Hondatutako/kutsatutako lurzoruen berreskuratze-azpiegituren bideragarritasunaren ikerketari berriro ekitea (hondatutako eta kutsatutako lurzoruen transferentzia-zentroa eta lurzoruen bankua)	EJIS		2014-2020

Justifikazioa

Une honetan, saneamendu- zein eraikuntza-beharrak direla eta, hondeatutako lurzoruen helbidea eliminaziora dago mugatuta, hondeatutako materiala hondeatutako tokian berrerabil daitekeen kasuetan izan ezik.

Lurzorua baliabide eskasa da eta hala izan behar da kontuan, hondeatu ondoren, berrerabiltzeko eta balioztatzeko. Helburua bikoitza izango da: batetik, eliminazioa helburu duten hondeatutako materialen kopurua minimizatzea eta, bestetik, berrerabili ezin diren lurzorua ahalik eta modu onenean kudeatzen direla ziurtatzeko.

Alde horretatik, beste toki batzuetan hondeatutako lurzorua balioztatzeko, geldoen betegarrien eta zabortegeien baimenak optimizatzea eta hondeatutako/kutsatutako lurzoruen berreskuratze-azpiegituren bideragarritasun-ikerketari berriro ekiteko irizpideak garatu behar dira.

**Esperotako emaitzak/
Adierazleei egindako ekarpena**

Berrerabilzten diren lurzorua % 20 handitzea, eliminazio bidez kudeatzen direnen aurrean.

Tresnak

- Hondeatutako lurzoruen bizitzaren amaierarako irizpideen Arau Teknikoa.
- Hondatutako/kutsatutako lurzoruen berreskurapenaren bideragarritasun ikerketa (transferentzia-zentroa eta lurzoruen bankua).
- Kutsatutako lurzoruen kudeaketaren eta prebentzioaren integrazioari eta hirigintzan hondeatutako lurzoruen balorizazioari buruzko lantaldeak.
- Ikuskapen-plana (eliminazioa optimizatze programari).

**BERRERABILTZeko PRESTAKUNTZA,
BIRZIKLAPEN ETA BALORIZAZIO PROGRAMAREN JARDUERAK**

HELBURU **Hondakinen % 60 berrerabilpenerako, birziklapenerako eta balorizaziorako prestatzea**
ESTRATEGIKOA **2020rako, bide batez EAEn hondakinen arloan dauden arazo nagusiei irtenbidea emanez**

ZEHARKAKO JARDUERAK

JARDUERA	ARDURADUNA	ERLAZIONATUTAKO ERAGILEAK	EPEA
R-A11-1 ljezketa-hondakinen, mekanizatu-lohien, erregogorren, EEIEN zatiketako frakzio arinaren, GEEHen, burdinazkoak ez diren zepen eta edukiontzi arriskutsuen, bioegonkor-tuen eta bestelakoen balorizazio-aukerak aztertzea (erakustaldi-proiektuak)	EJIS	<ul style="list-style-type: none"> Hondakin horiek sortzen dituzten enpresak Hondakinen kudeatzaileak 	2014-2016
R-A11-2 Zementu-enpresetan kudeatu daitezkeen hondakinei lehenetsua ematen dien ikerketa prestatzea.	EJIS	<ul style="list-style-type: none"> Hondakin horiek sortzen dituzten enpresak TMB instalazioak Zementu-fabrikak 	2016-2019
R-A11-3 TGEZen metodologia berritzeko aukera eta Planak sustatutako berrerabiltzeko prestakuntzako, birziklapeneko eta balorizazioko helburuekiko horren bermea aztertzea (ez birziklapenaren eta balorizazioaren arloan, Programa guztiak hartzen ditu barne)	EJIS	<ul style="list-style-type: none"> EEE Foru Aldundien Sailak 	2014-2019
R-A11-4 Hondakin arriskutsuen Onarpen Dokumentuen azterketa indartzea, ekoizleari balorizazio-tratamendua aplikatzea eskatuz, hondakinaren izaerak hala eskatzen duenean, eta EAEn existitzen diren tratamendu-aukeren berri ematea	EJIS	<ul style="list-style-type: none"> Hondakin arriskutsuen enpresa-ekoizleak 	2016-2019
R-A11-5 Balorizazio-tratamendua aplikatzeko eskakizunaren beteazpen-mailaren gaineko kontrola indartzea, betiere, hondakinaren izaerak baimentzen duenean; Onarpen Dokumentuek jasotzen dute eskakizun hori	EJIS	<ul style="list-style-type: none"> Hondakin arriskutsuen enpresa-ekoizleak 	2015-2016
R-A11-6 Desugerketa-azidoen ekoizle nagusiekin hitzarmenak sustatzea, horien birziklapena bultzatzeko, EAEko instalazioetan	EJIS	<ul style="list-style-type: none"> Agortutako desugerketa-azidoen ekoizle handiak 	2015-2016
R-A11-7 Industria-olioen EELSKekin hitzarmena sinatzea, berrerabilpena, balorizazioa eta berroneratzea sustatzen jarraitzeko	EJIS	<ul style="list-style-type: none"> Olioen EELSKk 	2015-2016
R-A11-8 BBA handiko hondakinen energia-balorizazioa sustatzea	EJIS	<ul style="list-style-type: none"> Balorizazio energetikoko instalazioak Industria-sektoreak TMB instalazioak 	2016

Justifikazioa

Baliteke, zenbait hondakinek egun existitzen direnen desberdinak diren beste tratamendu-mota bat behar izatea, horiek balioztatu ahal izateko eta zabortegean uztea saihesteko; beraz, hondakin horien balorizazioa sustatu ahal izango duten ikerketak garatu behar dira.

Era berean, ikerketa horien emaitzak Teknologia Garbien Euskal Zerrendan islatu beharko lirateke. Landu beharreko beste aspektu bat eliminazioaren bidezko kudeaketari buruzko onarpen-dokumentuen azterketa da, birziklapen-tratamenduak aplikatzea eskatzeko, horiek existitzen direnean eta bideragarriak direnean.

Esperotako emaitzak/Adierazleei egindako ekarpena

ljezketa-hondakinen, mekanizatu-lohien, erregogorren, EEIEN zatiketako frakzio arinaren, GEEHen, burdinazkoak ez diren zepen eta edukiontzi arriskutsuen % 50 balioztatzea, gutxienez. Erregogorrek eta zenbait zepa-mota ez dira banan-banan kontabilizatzen, batera kudeatzen direlako; ondorioz, ez dago erreferentziarako balorerik 2010erako.


Tresnak

- Birziklapenaren ordeztu aukera berriak aztertzeko ikerketa.
- Hondakin arriskutsuen ekoizleen gaineko ingurumen-erakundearen kontrola.
- Hitzarmena, olioek EELSKekin.

5.4/

ELIMINAZIOA OPTIMIZATZEKO PROGRAMA

JARDUERAK



ELIMINAZIOA OPTIMIZATZEKO PROGRAMAREN JARDUERAK

HELBURU
ESTRATEGIKOA

Hondakinen ezabapena optimizatzea, hondakin primarioen isurpenarekin amaituz eta isurpenok minimizatzeako bitartekoak garatuz gertutasun eta autosufizientzia printzipioak ezartzea exijituz hondakinen balorizazio eta ezabapenean, betiere baldintza baliokideetan eta martxan dauden zabortegeen eragina minimizatuz egin badaiteke

BALIOZTATU DAITEZKEEN KORRONTEEN ISURIA (GEEH, PAPER-KARTOIA, BEIRA, METALAK, EEHAK, ZEPAK, GALDAKETA-HONDARRAK, PAPERGINTZAKO LOHIAK, HIRIKO HUA LOHIAK, BIOHONDAKINAK, EDUKIONTZIAK) MUGATZEKO ETA JADANIK ISURITAKO MATERIALAK APROBETXATZEA

	JARDUERA	ARDURADUNA	ERLAZIONATUTAKO ERAGILEAK	EPEA
E-A1-1	Ekoiileen eta zabortegeen Ingurumen Baimen Integratuetan zera jasotzea: frogen arabera balioztaezinak diren korronteak bakarrik utzi ahal izango direla zabortegeetan	EJIS	<ul style="list-style-type: none"> • IPPC enpresa nagusien sektore-elkarteak • Zabortege-kudeatzaileak 	2014-2019
E-A1-2	Zabortegean uztearen bidezko hondakinen eliminazioa eta betegarrien betearazpena arautzen duen 49/2009 Dekretuan jasotako zabortegean utz daitezkeen hondakinen zerrenda araudiaren arabera zabaltzea, egun EAEn balioztatu daitezkeen hondakin gehiago barne har ditzan	EJIS		2014-2016
E-A1-3	EAEn hondakinen isuriaren gaineko zerga aplikatzeari buruzko ikerketa prestatzea eta horren ezarpena sustatzea, isurtze- eta birziklapen-kostuak parekatzeak beharrezkotzat joz gero. Aipatutako ikerketan, beste autonomia-erkidego batzuekiko benchmarking bat barne hartuko da eta ondorioak MAGRAMAko Ingurumeneko Koordinazio Batzordearen aurrean jarrerak hartzeko erabiliko dira	EJIS MAGRAMA		2015-2016
E-A1-4	EAEn gehiegizko gaitasuna duten tratamenduetarako azpiegiturentzako baimenak ematea ukatzea eragin dezaketen kasuak zehazten dituzten irizpideen zerrenda osoa egitea	EJIS		2014-2016
E-A1-5	Zabortege monomaterialetarako edo eduki homogeneo samarra duten zabortegetarako zabortegeen meatzaritzaren balioa eta egingarritasuna aztertuko dituen ikerketa sustatzea	EJIS	<ul style="list-style-type: none"> • Zabortege-kudeatzaileak 	2017-2018
E-A1-6	Zepen, galdaketa-hondarren, pasta-paper lohien, HUA lohien, EEHen, GEEHen eta balioztatu daitezkeen beste korronte batzuen kudeaketa zuzena lehentasunezko gai gisa sartzea Ikuskaritza Planean, elkarren segidako 3 urtez	EJIS		2014-2019

Justifikazioa

49/2009 Dekretuak, otsailaren 24koak, hondakinak zabortegetara eramanda edo betegarri gisa erabilia deuseztatzeko jarduera arautzen duenak oinarritzko bi tresna ditu, zabortegean uztea minimizatzeako. Batetik, ez du aurretik tratatu ez diren hondakinak (salbuespen txikiak izan ezik) eta balioztatu daitezkeen hondakinak (isuri gordinaren eliminazioa 2016rako) zabortegean uztea onartzen. Balioztatu daitezkeen hondakinen zerrenda arauan bertan dago zehaztuta, eta zabaldu egin daiteke, hondakin berriak balioztatzeako baimendutako kudeatzaileak agertzen diren heinean.

Bestetik, Ingurumen Baimen Integratuen menpeko enpresak hondakinen kudeaketako baldintzen menpe daude; bertan, administrazioak arrazoiz ezarri dezake zenbait hondakin-tipologia balorizazio-eragiketetara zuzentzeko betekizuna.

Lege-tresna horien aplikazio praktikoa ezinbestekoa da, balorizazio-ehunekoak handitzea lortzeko. Hori garrantzitsua da; izan ere, zabortege berriak martxan jartzeak eta egungo krisi ekonomikoak eragindako hondakinen sorreraren murrizketak zabortegeen tarifen murrizketa esanguratsua ekarri dute. Horrek pizgarria kentzen dio hondakinen balorizaziorako kudeaketa-aukeren bilaketari, betiere, hondakinak isuri daitezkeenean. Halaber, jarduera ekonomiko berrien ezarpena eta ondoriozko hondakinen balorazioaren inguruko enpleguaren sorrera zailtzen ditu.

Bestetik, Europako Batzordea hondakinen prebentzioa eta balorizazioa sustatzeko tresna ekonomikoak sustatzen ari da. Proposatutako tresnetako bat zabortegearen gaineko zerga da; sorreraren arabera ordainketarekin batera, hori da hondakinen kudeaketan aurreratu den herrialdeetan arrakasta handien izan duten tresnetako bat.

Esperotako emaitzak/ Adierazleei egindako ekarpena

- Hiri-hondakinak, hondakin ez arriskutsuak, eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak eta zabortegeira bidaltzen diren hondakin arriskutsuak % 20 murriztea. Ehuneko hori ezingo litzateke beste balorizazio-adierazle batzuetara gehitu (eta, ondorioz, zabortegean uztearen murrizketako adierazleetara); aldiz, helburu bera lortzeko beharrezko tresna gehigarria izango litzateke.
- Bestetik, baliabideen ikuspuntutik, zabortege monomaterialak edo eduki homogenea dutenak (altzairugintzako zepenak, adibidez) naturatik material garbiak ateratzeko beharra saihestu dezaketen baliabide-iturria izan daitezke. Horregatik, ahaleginak birziklatu daitezkeen materialen isuria murriztera zuzendu eta proposatutako helburuak lortu ondoren, zabortegeen meatzaritzako bide berriak esploratzeko aukera egon liteke.

Tresnak

- Zabortegean uztea mugatuta izango duten hondakinak zehazteko ikerketak.
- Zabortegeen Ingurumen Baimen Integratuen aldaketak.
- IPPC Legearen menpeko hondakinak ekoizten dituzten enpresen Ingurumen Baimen Integratuen aldaketak.
- Balioztatu daitezkeen eta, ondorioz, zabortegean uztearen bidezko hondakinen eliminazioa eta betegarrien betearazpena arautzen duen 49/2009 Dekretuaren arabera, zabortegean onartzen ez diren hondakinen zerrendaren arauzko garapena.
- Isuriaren gaineko beste zerga batzuen (bereziki, beste Autonomia Erkidego batzuetakoa) analisisia.
- Isuriaren gaineko zerga.
- Ikuskaritza-plana (honako korrante hauetarako: biohondakinak, EEHak, GEEHak⁴⁶, altzairugintzako zepa, pasta-paper lohiak, moldaketa-hondarrak berdeak, HUA lohiak eta hondeatutako lurzoruak).

⁴⁶ Kasu honetan, ikuskaritzak eragindako kateko eragileei eragingo lieke: banatzaileak, multzokatze-zentroak, logistika-zentroak, Garbiguneak eta kudeatzaileak.

ELIMINAZIOA OPTIMIZATZEKO PROGRAMAREN JARDUERAK

HELBURU
ESTRATEGIKOA

Hondakinen ezabapena optimizatzea, hondakin primarioen isurpenarekin amaituz eta isurpenok minimizatzeako bitartekoak garatuz gertutasun eta autosufizientzia printzipioak ezartzea exijituz hondakinen balorizazio eta ezabapenean, betiere baldintza baliokideetan eta martxan dauden zabortegien eragina minimizatuz egin badaiteke

HONDAKIN ARRISKUTSUAK ETA EAETIK KANPO TRATATUTAKO HONDAKINAK

	JARDUERA	ARDURADUNA	ERLAZIONATUTAKO ERAGILEAK	EPEA
E-A2-1	Behar izanez gero, kostu osoak barneratuko dituzten eta, ezarritako hierarkiaren arabera eta gertuen dagoen instalazioan, kudeaketa erraztuko duten tresna ekonomikoak aztertzea eta martxan jartzea	EJIS	• Ekonomiaz arduratzen den saila	2014-2016
E-A2-2	Hondakinen arriskugarritasuna minimizatzea eta EAetik kanpo tratatzera bidalitako hondakinen kopurua murriztea	EJIS	• Hondakinen ekoizleak eta kudeatzaileak	2015-2018
E-A2-3	Azpiegiturak dituzten hondakin arriskutsuen tratamendua sustatzea EAEn (hala nola, lohiak, ur oliotsuak, etab.), ekoizleei existitzen diren aukeren berri emanda eta, inplikaturako kudeatzaileekin, hitzarmenak ezarrita	EJIS	• Hondakin arriskutsuen ekoizleak eta kudeatzaileak	2015-2016
E-A2-4	Hondakin horiek sortzen dituzten sektoreei horren hondakinen ondorengo balorizaziorako beharrezkoak diren aurretratamenduak bilatzen eta ezartzen laguntzea, Teknologia Garbien Euskal Zerrendaren eta berariazko zein besteren diru-laguntzen bidez	EJIS	• Eragindako sektoreetako enpresak	2015-2019

Justifikazioa

Hondakin arriskutsuen eliminazioa minimizatzeako, aukeretakoa bat tresna ekonomikoen aplikazioa da.

EAEn sortutako hondakin arriskutsuen gehiengoa tokian bertan kudeatzen bada ere, zenbait hondakin beste komunitate batzuetako kudeatzaileei bidaltzen zaizkie. Gertutasun- eta autosufizientzia-printzipioen arabera, eta garraioari otutako ingurumen-arriskuak eta inpaktuak minimizatzeako, hondakinak gertuen dauden instalazio egokietan tratatu beharko dira. Printzipio horiei jarraiki, EAEn, hondakin arriskutsuen kudeaketa-tasak hobetzen lagundu dezaketen hainbat ekintza aztertu behar dira.

Nolanahi ere, baldintzatzaileak daude; hala nola, EAEn hondakin arriskutsuztat jotako kutsatutako lurzoruetarako zabortegirik ez izatea edo Estatuan aluminioaren bigarren fusioko gatz-zepak bezalako hondakineterako kudeatzaile bakarrak izatea, eta horiek EAEko kudeaketa-kopuruak handitzea zailtzen dute.

**Esperotako emaitzak/
Adierazleei egindako ekarpena**

Zehaztu beharreko hondakin arriskutsuen korronteen EAEko kudeaketaren % 10eko hazkuntza (kutsatutako lurzorua eta aluminioaren bigarren fusioko gatz-zepak kanpo).

Tresnak

- Zabortegian uztea mugatuta izango duten hondakinak zehazteko ikerketak.
- Zabortegien Ingurumen Baimen Integratuen aldaketak.
- IPPC Legearen menpeko hondakinak ekoizten dituzten enpresen Ingurumen Baimen Integratuen aldaketak.
- Sentsibilizazioa eta hitzarmenak hondakin arriskutsuen ekoizleekin.
- Hitzarmenak, hondakin arriskutsuen kudeatzaileekin.

5.5/

ADMINISTRA- ZIOAREN EREDU- GARRITASUNAREN ETA GOBERNU EGOKIAREN PROGRAMA

JARDUERAK



**ADMINISTRAZIOAREN EREDUGARRITASUNAREN
ETA GOBERNU EGOKIAREN PROGRAMAREN JARDUERAK**
**HELBURU
ESTRATEGIKOA**
Hondakinen arloko informazioa eta gardentasuna hobetzea; hondakinen arloko kudeaketa administratiboa erraztu eta bizkortzea 22/2011 Legeak zein hondakinen arloko araudiak irekitako aukerak baliatuta; eta merkatu berdea eta enplegu sorrera sustatzea Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana garatuz eta ezarri
**INFORMAZIOAREN HOBETUNTZAK
(INBENTARIOAK, EHZ KODEEN ESLEIPENA ETA INFORMAZIO-SISTEMA INTEGRATUA)**

	JARDUERA	ARDURADUNA	ERLAZIONATUTAKO ERAGILEAK	EPEA
B-A1-1	Hondakin arriskutsuen, ez arriskutsuen eta hiri-hondakinen inbentarioak egitea, urtea itxi ondoko 6 hilabeteetan	EJIS	• Foru Aldundiak	2014-2020
B-A1-2	Kontabilitatearen hobekuntza lantzea Foru Aldundiekin, hiri-hondakinen inbentarioaren esparruan eta, zehazki, lan txikia jatorri duten EEHak kalkulatzeko metodologia ezartzea ⁴⁷	EJIS	• Foru Aldundiak	2014-2019
B-A1-3	Hondakinak kontabilizatzeko irizpideak adostea beste Foru Aldundi batzuekin eta MAGRAMAren	EJIS	• Beste autonomia erkidegoak • MAGRAMA	2015-2019
B-A1-4	e-administrazioa sustatzea, izapideak eta komunikazioak bizkortzeko, MAGRAMAren koordinatuta	EJIS	• Foru Aldundiak • Mankomunitateak - Kuadrillak • Udalerriak • MAGRAMA	2014-2020
B-A1-5	Administrazio-izapidetza erraztuko duen tipologiaren arabera (GEEHenak, bereziki) kategorizazio-irizpideak egitea sustatzea	EJIS	• GEEHen kudeatzaileak	2014-2015
B-A1-6	GEEHen eta bestelako hondakinen trazabilitatea bermatuko duen fluxu-sistema baten elaborazioa bultzatzea (EAetik kanpoko lekualdatzeetan eta kudeaketa-kate osoko trazabilitatearen arreta berezia jartzea)	EJIS	• Hondakinen kudeatzaileak • Kudeaketa-sistema Integratuak • Foru Aldundiak • Mankomunitateak - Kuadrillak • Udalerriak • Banaketa-sektorea	2015-2017
B-A1-7	Euren EHZ kodearen esleipenak arazoak ematen dituzten korronteei eta azkenean aplikatutako kudeaketa-eragiketei buruzko ikerketa eta ondoko interpretazio-gida egitea	EJIS	• MAGRAMA	2015-2019
B-A1-8	Hondakinen arloko funtsezko elementu guztiak dituen informazio-sistema zehaztea eta izan litezkeen hobekuntzak aztertzea, eragindako eragileek informazioa erabiltzeko eta informazioa automatikoki eguneratzeko	EJIS		2014-2019
B-A1-9	Zabortegeien eta ekoizleen isuri-baimenak aldizka berrikustea	EJIS	• Zabortegeiak	2016 y 2019
B-A1-10	Informazioaren sakontzea, hondakinen arteko kudeaketa- eta lehiakortasun-datu errealek izateko, kudeaketa-bide beren bitartez, zementugintzarako lehentasunezko hondakinen zerrenda barne hartuta	EJIS	• Zementu-fabrikak	2014-2016
B-A1-11	Baimendutako kudeatzaileen eta zabortegeien zerrendak webgunean eguneratzea, baimendu eta hilabeteko epean	EJIS		2016-2020
B-A1-12	Hondakin Planaren jarraipena	EJIS		2014-2020

[.../...]

⁴⁷ Eurostatek dokumentu berria argitaratu du 2012ko azaroan: *Guidance on municipal waste data collection*.

Justifikazioa

Inbentarioen datuek proposatutako jarduerak eraginkorrak diren ala ez jakitea ahalbidetzen dute. Hori dela eta, datu berriak dituzten inbentarioak izan behar dira, ekintza berriak proposatu edo eraginkorrak agertzen ez diren beste batzuk baztertu ahal izateko.

Bestetik, hondakinen kontabilitatea (eta, bereziki, hiri-hondakinena) ezberdina da erakunde batzuetatik besteetara. Europa mailan ere ez dago jarraitu beharreko irizpide argirik, Eurostaten azken argitalpenak⁴⁸ irizpideak ezartzen lagundu badu ere. Legeriako aldaketek nomenklaturako (adibidez, hondakin berak hiri-hondakin solidoak, hiri-hondakinak, udal hondakinak edo etxeko eta merkataritzako hondakinak... deitzen edo deitu dira) zein irismeneko aldaketak ekartzen dituzte eurekin.

GEEHei buruzko zuzentarau berriak⁴⁹ gailu-kategoria berriak ezarri ditu; beraz, gidak argitaratu behar dira, arau berria behar bezala errazteko.

Hondakinen sailkapenari dagokionez, EHZ kodea zabala bada ere, zenbait kasutan, hondakin jakin bati esleitu beharreko kodeari buruzko zalantzak sor daitezke, edo enpresek ez dute beti EHZ kodeen esleipen-irizpidea jarraitzen.

Azken urteetan, Eusko Jaurlearitzak datuen lorpenean aurrera egitea ahalbidetu duen informazio-sistema prestatu du. Nolanahi ere, sistema globalarentzako hobekuntzak proposatzeko aztertu behar diren zenbait hobekuntza-aspektu gelditzen dira oraindik. Halaber, dokumentuen azterketa egokiak planaren beste jarduera batzuk martxan jartzeko beharrezkoa izan daitekeen informazioa eguneratua izatea ahalbidetuko du.

Esperotako emaitzak/ Adierazleei egindako ekarpena

- Inbentarioen datuak, urtea itxi eta 6 hilabete ondoren.
- Inbentario-datu fidagarriagoak eta datuak ondoren manipulatzeko behar txikiagoa.
- Datu integratuak, eguneratuak eta eskuragarriak.

Tresnak

- Iraganeko eta etorkizuneko esperientziaren arabera, ingurumen-informazioko sistema informatikoak lantzea, datuak ahalik eta azkarren eta gero eta kalitate hobekoarekin lortzeko.
- Arabako Foru Aldundiari bere datuen bilketa aurreratzea eskatzea.
- HHKOn lan egitea, inbentario orokorra adosteko.
- Hondakinen arloko kontabilizaziorako irizpideak bateratzeko lana, beste Foru Aldundi batzuekin eta MAGRAMarekin.
- Arriskugarritasunari eta GEEHen tratamendu egokiari buruzko ikerketak prestatzea.
- Gidak sortzea.
- EHZ kodeen esleipeneko eta hondakinaren azken kudeaketako gida sortzea.
- Ekoizleen eta kudeatzaileen artean baimendutako EHZ kodeen harmonizazio-lana.
- EJSeko zerbitzuen arteko bilerak.
- Baimenak berraztertzea.
- Informazio-sistema integratua diseinatzeko proiektua.

⁴⁸ *Guidance on municipal waste data collection*. 2012ko azaroa. Eurostat

⁴⁹ Europako Parlamentuko eta Batzordeko 2012ko uztailaren 4ko 2012/19/UE Zuzentaraua, gailu elektrikoaren eta elektronikoen hondakinei buruzkoa (GEEH).

ADMINISTRAZIOAREN EREDUGARRITASUNAREN
ETA GOBERNU EGOKIAREN PROGRAMAREN JARDUERAK

HELBURU
ESTRATEGIKOA

Hondakinen arloko informazioa eta gardentasuna hobetzea; hondakinen arloko kudeaketa administratiboa erraztu eta bizkortzea 22/2011 Legeak zein hondakinen arloko araudiak irekitako aukerak baliatuta; eta merkatu berdea eta enplegu sorrera sustatzea Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana garatuz eta ezarritik

ADMINISTRAZIOAREN HOBEKUNTZA, SINPLIFIKAZIOA ETA ARINTZEA

	JARDUERA	ARDURADUNA	ERLAZIONATUTAKO ERAGILEAK	EPEA
B-A2-1	Administrazio-sinplifikazio aukerak aztertzea, hondakinen arloko egungo legeriaren arabera, eta hobetu daitezkeen prozedurak eta argibideak sinplifikatzea	EJIS		2014-2020
B-A2-2	2020rako, hondakinen kudeaketaren arloko izapidetze erredundanteen % 100 murriztea	EJIS		2014-2020
B-A2-3	Hondakinen kategoria ezberdinak eta, bereziki, GEEHenak tratatzeko irizpide teknikoak prestatzea sustatzea	EJIS	• GEEHen kudeatzaileak	2014-2020

Justifikazioa

Sinplifikazio administratiboa Europan jadanik arrakastatsua zen eta, *Better Regulation* izenarekin (arautze hobea), Hondakinen Esparru Zuzentarauaren onarpenean ezartzen saiatu ziren joera da. Alde horretatik, eraginkorragoak izateko, hondakinen arloko izapidetze erredundanteak identifikatu eta eliminatu behar dira, bai eta izapidetze elektronikoak ahalbidetzen dituen aukerak aprobetxatu ere.

Esperotako emaitzak/Adierazleei egindako ekarpena

Sinplifikazioa eta bizkortzea, ILPSren erantzunetan.

Tresnak

- Teknologia berrien aplikazioa.
- Sinplifikazio administratiboari dagokionez, hobekuntza-eremuak identifikatzeko ikerketak.
- Hitzarmenak biltzaileekin eta kudeatzaileekin, fluxua kontrolatzeko.
- Gidak sortzea.
- Komunikazio-kanpainak.

**ADMINISTRAZIOAREN EREDUGARRITASUNAREN
ETA GOBERNU EGOKIAREN PROGRAMAREN JARDUERAK**

HELBURU
ESTRATEGIKOA

Hondakinen arloko informazioa eta gardentasuna hobetzea; hondakinen arloko kudeaketa administratiboa erraztu eta bizkortzea 22/2011 Legeak zein hondakinen arloko araudiak irekitako aukerak baliatuta; eta merkatu berdea eta enplegu sorrera sustatzea
Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana garatuz eta ezarriz

HONDAKINEN MUGAZ BESTALDEKO TOKIALDAKETEN KUDEAKETA

	JARDUERA	ARDURADUNA	ERLAZIONATUTAKO ERAGILEAK	EPEA
B-A3-1	Hondakinen mugaz bestaldeko tokialdaketa, lehentasuneko korranteak detektatzea, trebakuntza zein komunikazio kanpainak egitea eta, ondoren, eragindako eragile ekonomikoak ikuskatzea	EJIS	<ul style="list-style-type: none"> • Barne Arazoetako Saila (Ertzaintza) • Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa • Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioa (Zerga Agentzia) • Hondakinen kudeatzaileak eta ekoizleak, aduanetako agenteak eta enpresa kontsignatarioak 	2014-2015
B-A3-2	Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioarekiko (Zerga Agentzia) eta Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioarekiko lankidetzarekin jarraitzea, gure lurralde-eremuko hondakinen trafikoaren kontrolari eta tokialdaketa-mota horren Ikuskaritza Planaren garapen egokiari dagokienez	EJIS	<ul style="list-style-type: none"> • Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa • Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioa 	2014-2020
B-A3-3	Mugaz bestaldeko tokialdaketei lotutako dokumentazioan formatu elektronikoak erabiltzeko aukerak aztertzea	EJIS	<ul style="list-style-type: none"> • Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa 	2014-2019

Justifikazioa

Hondakinen mugaz bestaldeko tokialdaketen jarraipenaz arduratzen diren ILPSko pertsonak detektatu dute, askotan, eragileek ez dutela ezagutzen hondakinen inportazioak edo esportazioak behar dituzten eragiketak. Horregatik, inplikaturako eragileei horien inguruko informazioa jakinaraziko dieten ekintzak bultzatu behar dira. Era berean, mugaz bestaldeko mugimenduen kontrolean nahastutako administrazioekin lan egiten jarraitu behar da.

**Esperotako emaitzak/
Adierazleei egindako ekarpena**

Hondakinen mugaz bestaldeko mugimenduen kudeaketa hobea.

Tresnak

- Gidak sortzea.
- Komunikazio-kanpainak.
- Ihobe-Lineren trebakuntza, horren inguruan.

ADMINISTRAZIOAREN EREDUGARRITASUNAREN
ETA GOBERNU EGOKIAREN PROGRAMAREN JARDUERAK

HELBURU
ESTRATEGIKOA

Hondakinen arloko informazioa eta gardentasuna hobetzea; hondakinen arloko kudeaketa administratiboa erraztu eta bizkortzea 22/2011 Legeak zein hondakinen arloko araudiak irekitako aukerak baliatuta; eta merkatu berdea eta enplegu sorrera sustatzea Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana garatuz eta ezarritik

MERKATU BERDEA SUSTATZEA

	JARDUERA	ARDURADUNA	ERLAZIONATUTAKO ERAGILEAK	EPEA
B-A4-1	Planak ekonomikoki eragindako sektoreen jarraipena eta analisia, eta inpaktu hori leuntzen edo, behar izanez gero, bultzatzen lagunduko duten tresnen garapena	EJIS		2014-2020
B-A4-2	Hondakinen sorrera (edozer hondakin-mota) zergapetuko duten zerga-aldaketaren aukeraren azterketa, lanaren gaineko zerga-kargak ordezkatzuta. Hau da, zerga-erreforma berde partziala izango litzateke, enpresentzako eta herritarrentzako Oko zerga-kostuarekin, eta etekin hirukoitzarekin (ingurumenekoa, soziala eta ekonomikoa)	EJIS	• Foru Aldundiak	2015
B-A4-3	Planaren esparruan irekitako merkatu-aukeren identifikazioa eta horien ondoko bultzada, bigarren Ekintza Planean	EJIS	• Hondakinen kudeatzaileak • Kaltetutako beste sektore batzuk	2016
B-A4-4	Baliabide publikoen erabileraren eraginkortasun-azterketa - planak sortutako inpaktuaren eta, Planarekin erlazionatutako ekimenetatik abiatuta, euskal enpresen merkatu-kuotaren handiagotzearen azterketa egitea	EJIS		2020
B-A4-5	Urtero CONFEBASK elkartearekin lankidetzan aritzea planean eragin handiena duten 5 jarduera ekonomikoen (Eraikuntza, Altzairua, Ore eta papera, Galdaketa, Hondakinen kudeatzaileak) hondakinen sorreraren eta kudeaketaren bilakaerarekin batera bilakaera ekonomikoa ere kontuan hartzeko.	EJIS	• CONFEBASK	2014-2020

Justifikazioa

Merkatu berdearen sustapena helburu espezifikotako bat da, Administrazioaren Eredugarritasuneko eta Gobernu Egokiko Programaren barnean. Helburu horrek lehen konpromisoari erantzuten dio: enplegua eta pertsonak, eta programaren ardatza nabarmentzen du: Eusko Jauriaritzaren X. Legealdi Programaren Hazkuntza Iraunkorra. Mota orotako politikak garatu nahi ditu enpleguaren alde; beraz, Plana horretarako esparru ezin hobe gisa egituratzen da.

Zerga-sistema merkatu-aukerak sustatzen dituen oinarrietako bat izan daiteke, hondakinen sorrera edota eliminazioa zergapetuta eta lana bezalako beste eremu batzuetako zerga-kargak murriztuta; beraz, aztertu beharreko neurrietako bat da.

Esperotako emaitzak/Adierazleei egindako ekarpena

- Eragindako sektoreetan sortutako enpleguaren hazkundearen % 6.
- Baliabide publikoen erabileraren eraginkortasuna kalkulatu da - planak sortutako inpaktuaren eta, Planarekin erlazionatutako ekimenetatik abiatuta, euskal enpresen merkatu-kuotaren handiagotzearen azterketa egitea.

Tresnak

- Planak eragindako sektoreetan izandako inpaktuaren analisi ekonomikoa.
- Zerga-erreforma berdearen ikerketa.
- Planaren esparruan, merkatu-aukerak ikertzea, eragindako sektoreak sartuta

6. / ERANSKINAK

- 01. ERANSKINA **AKRONIMOEN GLOSARIOA**
- 02. ERANSKINA **HONDAKIN-PLANAREN FUNTSEZKO MUGARRIAK**
- 03. ERANSKINA **HONDAKINEN PREBENTZIOARI LOTUTAKO BESTE DOKUMENTU ETA POLITIKA BATZUEN BILDUMA**
- 04. ERANSKINA **HONDAKINEN ARLOKO EUROPAKO ARAUDIAREN ZERRENDA**
- 05. ERANSKINA **22/2011 LEGEAREN IV. ERANSKINAREN PREBENTZIO NEURRIAK**
- 06. ERANSKINA **EAE-N IDENTIFIKATUTAKO PREBENTZIO JARDUERAK**
- 07. ERANSKINA **HONDAKINEN DEUSEZTAPENAREN ONDORIOZ, HISTORIKOKI KUTSATUTAKO TOKIAK ETA HORIEK BIRGAITZEKO NEURRIAK**
- 08. ERANSKINA **PUBLIKO OROKORRARI EDO KONTSUMITZAILE-TALDE ZEHATZARI ZUZENDUTAKO SENTSIBILIZAZIO- ETA INFORMAZIO-KANPAINAK**
- 09. ERANSKINA **ERANTZUKIZUNEN BANAKETA, HONDAKINEN KUDEAKETAZ ARDURATZEN DIREN ERAGILE PUBLIKOEN ETA PRIBATUEN ARTEAN**
- 10. ERANSKINA **EXISTITZEN DIREN AZPIEGITURAK ETA INSTALAZIOAK**
- 11. ERANSKINA **ERAKUSTALDI-PROIEKTUEN ZERRENDA**
- 12. ERANSKINA **EAE-N, NEKAZARITZAKO ETA ABELTZAINZAKO SEKTOREAN SORTUTAKO MATERIA ORGANIKOA, AZPIPRODUKTUAK ETA HONDAKINAK**
- 13. ERANSKINA **PLANAREN ERAGINA ETXeko HONDAKINEN GAINEAN**
- 14. ERANSKINA **EAE-N BAIMENDUTAKO EELSK ZERRENDA (LEHEN, KSI)**
- 15. ERANSKINA **URTEARI LOTUTAKO HONDAKINEN ETA AZPIEGITUREN EGUNGO EGOERA ETA 2020RAKO PROGNOZIA**
- 16. ERANSKINA **EAE-KO HONDAKINEN EGUNGO EGOERAREN FLUXUGRAMAK (2010EKO DATUAK)**
- 17. ERANSKINA **2011 ETA 2012 URTEEI DAGOZKIEN PLANAREN TAULAK ETA DATUAK**
- 18. ERANSKINA **EAE-KO HONDAKINEN AZPIEGITURA MAPA**